


2011ko Urria

Sustatzailea |



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



AURRERAPENA

ARRASATEKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN
OROKORRAREN BERRIKUSPENA
Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena

Egilea | EKOLUR ingurumen aholkularitza, SLL



ARRASATEKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPENA AURRERAPENA

INGURUMEN IRAUNKORTASUNAREN TXOSTENA

AURKIBIDEA:

SARRERA	1
1. PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOEN ETA AINTZAT HARTUTAKO HAUTABIDEEN DESKRIBAPENA	2
1.1. Planaren jarduera-esparrua	2
1.2. Planaren helburu estrategikoak	2
1.3. Aintzat hartutako hautabideak	2
1.4. Proposamen nagusien laburpena	3
1.5. Lurralde antolamenduko planak eta arloko planak aintzat hartzen dituzten zehaztapenak	8
1.6. Kalteak sor ditzaketen jarduketak identifikatzea	9
1.7. HAPO-ren denbora-epea eta exekuzio-faseak	10
1.8. Antzemandako informazio-hutsuneak	10
1.9. Parte-hartze publikoa	10
2. BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN ANALISIA	12
2.1. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak edo gidalerroak	12
2.2. Deba Garaiko Lurraldearen Zatik Planak (LZP)	13
2.3. Lurraldearen Arloko Planak (LAP)	15
2.4. Garapen iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020)	24
2.5. Ingurumen-legedia	25
2.6. Aztertutako esparruan eragina izan dezaketen beste plan batzuk	26
3. PLAN OROKORRAREN ERAGINPEAN DAGOEN ESPARRUAREN INGURUMEN ARLOKO DIAGNOSTIKOA, ANALISIA ETA BALORAZIOA	27
3.1. Jardun-esparrua	27
3.2. Kokalekua	27
3.3. Orografia	28
3.4. Ezaugarri geologikoak	28
3.5. Lurzoruak eta ahalmen agrologikoa	29
3.6. Hidrologia	30
3.7. Landaredia eta lurzoruaren erabilerak	31
3.8. Fauna	34
3.9. Interes Naturalistikoko eremuak	34
3.10. Paisaia	35
3.11. Kultur ondarea	38
3.12. Ingurumen-prozesu eta arriskuak	41
3.13. Alderdi sozio-ekonomikoak	44
3.14. Mugikortasuna eta irisgarritasuna	45
3.15. Ur-baliabideen kudeaketa	48
4. AINTZAT HARTUTAKO HAUTABIDEEI BURUZKO INGURUMEN-AZTERKETA	49
4.1. Hautabideen ingurumen-azterketarako metodologia	49
4.2. '1. Gesalibar'	53
4.3. '2. Atxabalpe, Barrutietea, Akisoalde, Bustintza'	53
4.4. '3. Garagartza'	62
4.5. '4. Garaia'	62
4.6. '5. Mendibarren-Gautxori'	63
4.7. '6. Meatzerreka-Ugalde'	70
4.8. '7. Uruburu-Grandenape'	76



4.9.	'8. Otalora lizentziatua pasealekua'	83
4.10.	'9. San Viator Txiki'	89
4.11.	'10. Azeri'	94
4.12.	'11. Intxausti-San Josepe Harrobia'	98
4.13.	'12. Aldaiazpi'	106
4.14.	'13. Etxe Txikiak'	109
4.15.	'14. Zerrajera 2 – Zalduspe'	115
4.16.	'15. Legarre'	116
4.17.	'16. Agerre'	116
4.18.	'17. Santamaina-Santa Teresa'	117
4.19.	'18. Kaskonategi'	120
4.20.	'19. Zabaleta'	125
4.21.	'20. Bedoña'	125
4.22.	'21. Kanpanzarko harrobia'	130
4.23.	Lur Hiritarrezinaren zonifikazioa	133
5.	INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA	141
5.1.	Planaren helburuek ingurumenaren gainean izan ditzaketen eragin azterketa	141
5.2.	planaren jardunek ingurumenean izan ditzaketen eraginak identifikatzea eta baloratzea	141
5.3.	Ingurumen inpaktua zehazteko zailtasunen eta ziurgabetasunen deskribapena	142
5.4.	Sortuko zuten inpaktu larriagatik aldatu edo ezabatu diren jardunak	142
5.5.	Esparruaren harrera-ahalmena	143
6.	NEURRI BABESLE, ZUZENTZAILE ETA OREKATZAILEEN PROPOSAMENA	144
6.1.	Hautabideak aukeratzeko irizpide estrategikoak eta ingurumen-helburuak	144
7.	PLANAREN ERAGINEN IKUSKAPEN PROGRAMA	148
7.1.	Kontrol eta jarraipenerako helburuak	148
7.2.	Plan Orokorren eraginak ikuskatzeko programaren faseak	148
8.	LABURPENA	150



PLANOAK

Plano zk.	Izenburua	Eskala
3. kapitulua: Ingurumen diagnostikoa		
I.1	Orografia	E 1: 30.000 DIN A3
I.2	Ezaugarri geologikoak	E 1: 30.000 DIN A3
I.3	Lurzoruak: ahalmen agrologikoa	E 1: 30.000 DIN A3
I.4	Hidrologia	E 1: 30.000 DIN A3
I.5	Landaretza eta lur-erabilerak	E 1: 30.000 DIN A3
I.6	Interes bereziko landaredia	E 1: 30.000 DIN A3
I.7	Natur Ondarea	E 1: 30.000 DIN A3
I.8	Paisaia	E 1: 30.000 DIN A3
I.9.1	Ikusgaitasuna eta begiratokiak (gailurrak eta nekazal auzoak)	E 1: 30.000 DIN A3
I.9.2	Ikusgaitasuna eta begiratokiak (errepide-sare nagusia)	E 1: 30.000 DIN A3
I.9.3	Ikusgaitasuna eta begiratokiak (bigarren mailako errepide-sarea)	E 1: 30.000 DIN A3
I.9.4	Ikusgaitasuna eta begiratokiak (hirigunea)	E 1: 30.000 DIN A3
I.10	Kultur ondarea	E 1: 30.000 DIN A3
I.11a	Ingurumen arriskuak: higadura, akuiferoen urrakortasuna, urperagarritasuna	E 1: 30.000 DIN A3
I.11b	Ingurumen arriskuak: kutsatuta egon daitezkeen lurzorua, zarata	E 1: 30.000 DIN A3
4. kapitulua: Aintzat hartutako hautabideen ingurumen- azterketa		
A.2.1	Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde, Bustintza. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO	E 1: 4.000 DIN A4
A.2.1.a	Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde, Bustintza. 'A' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 4.000 DIN A4
A.2.1.b	Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde, Bustintza. 'B' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 4.000 DIN A4
A.2.1.c	Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde, Bustintza. 'C' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 4.000 DIN A4
A.2.2	Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde, Bustintza. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 2.500 DIN A3
A.5.1	Mendibarren-Gautxori. 'O' alternatiba: onartutako Plan Berezia	E 1: 3.000 DIN A4
A.5.2	Mendibarren-Gautxori. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 1.500 DIN A3
A.6.1	Meatzerreka-Ugalde. 'O' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 4.000 DIN A4
A.6.2	Meatzerreka-Ugalde. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 4.000 DIN A3
A.7.1	Uruburu-Grandenape. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO	E 1: 2.500 DIN A4
A.7.1.a	Uruburu-Grandenape. 'A' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 2.500 DIN A4
A.7.2	Uruburu-Agerre. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 2.000 DIN A3
A.8.1	Otalora lizentzatua pasealekua. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO	E 1: 2.500 DIN A4
A.8.1.a	Otalora lizentzatua pasealekua. 'A' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 2.500 DIN A4
A.8.2	Otalora lizentzatua pasealekua. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 1.500 DIN A3
A.9.1	San Viator Txiki. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO	E 1: 1.000 DIN A4
A.9.2	San Viator Txiki. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 500 DIN A3
A.10.1	Azeri. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO	E 1: 2.000 DIN A4
A.10.2	Azeri. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 1.000 DIN A3
A.11.1	Intxausti eta San Josepe Harrobia. 'O' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 4.000 DIN A4
A.11.2	Intxausti eta San Josepe Harrobia. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 3.000 DIN A3
A.12.1	Aldaiazpi. 'O' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 1.500 DIN A4
A.12.2	Aldaiazpi. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 1.000 DIN A3
A.13.1	Etxe Txikiak. 'A' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 1.500 DIN A4
A.13.2	Etxe Txikiak. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 1.000 DIN A3
A.17.1	Santamaina – Santa Teresa. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO	E 1: 2.500 DIN A4
A.17.1.a	Santamaina – Santa Teresa. 'A' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 2.500 DIN A4
A.17.2	Santamaina – Santa Teresa. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 2.500 DIN A3
A.18.1	Kaskonategi. 'O' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 2.500 DIN A4
A.18.2	Kaskonategi. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 2.000 DIN A3
A.20.1	Bedoña. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO	E 1: 3.000 DIN A4
A.20.2	Bedoña. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 2.500 DIN A3
A.21.1	Kanpanzarko harrobia. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO	E 1: 4.000 DIN A4
A.21.2	Kanpanzarko harrobia. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 2.500 DIN A3
A.22.1	Lurzoru hiritarrezinaren zonabanatzea. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO	E 1: 30.000 DIN A3
A.22.2	Lurzoru hiritarrezinaren zonabanatzea. 'A' alternatiba: Basogintza eta Nekazaritza LAP	E 1: 30.000 DIN A3

SARRERA

EAEko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 41. artikulua eta ingurumenaren eraginaren baterako ebaluaketa egiteko prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 dekretuaren 3. artikulua ezartzen dutenaren arabera, Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra (HAPOk) eta horren berrikuspenak, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratua egiteko prozedura bete behar dute onartuak izan daitezten.

Era berean, Plan edo Programa jakinek ingurumenean duten eraginaren azterketari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legea (estatu-mailako oinarritzko legea) jarri zen indarrean. Lege horren helburuak bat datoz aurreko legeriaren helburuekin.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak, 2003ko apirilaren 8an egindako batzarraldian onartu zuen behin betikoz Arrasateko HAPO. Dokumentuak berak adierazten du zortzi urte igaro ondoren Egitamua berrikuspenera egitea egoki den ala ez aztertuko dela. Kasu honetan indarrean dagoen Egitamua hainbat zehaztapen eztabaidagai izatea egoki jo da.

Testuinguru honetan Hiri Antolamenduaren Plan Orokorren (HAPO) berrikuspenaren sustatzailea denak, Arrasateko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailari ingurumen-eraginaren 'aldez-aurreko txostena' eskatzen dio, HAPOren berrikuspenaren Aurrerapen dokumentuan azaltzen diren proposamenak eta beraien ingurumen-eraginei buruzkoa.

Dokumentu hau, hain zuzen ere, Arrasateko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorren Berrikuspenaren Aurrerapenerako dokumentuaren 'Ingurumen Iraunkortasunerako Txostena' (IIT) da eta ingurumen organoak 'Ingurumen-eraginari buruzko Aldez-Aurreko Txostena' presta dezan balioko du.

Hirigintza-dokumentua Arrasateko Udaleko Hirigintza Saileko teknikariek idatzi dute. Ingurumen Iraunkortasunerako Txostena, berriz, EKOLUR Ingurumen Aholkularitza, SLL enpresako honako teknikariek idatzi eta prestatu dute:

- Nerea Egia-k (ingurumen-zientzietan lizentziatua)
- Tomas Aranburu-k (nekazaritza-ingeniari teknikoa)
- Ibai Aizpuru-k (biologoan lizentziatua)
- Ana Felipe-k (GIS teknikoa)
- Eduardo Echenique-k (delineantea)

1. PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOEN ETA AINTZAT HARTUTAKO HAUTABIDEEN DESKRIBAPENA

1.1. PLANAREN JARDUERA-ESPARRUA

Plan Orokorraren berrikuspenaren jarduera-esparrua Arrasateko udalerrri osoa da.

Arrasateko udalerrria Gipuzkoako Lurralde Historikoaren hego mendebaldean dago, Deba arroan. Elorrio (Bizkaia) eta Bergarako udalerriekin egiten du muga iparraldean, Oñatirekin ekialdean, Aretxabaleta du mugakide hegoaldean eta mendebaldean berriz Aramaioko udalerrria (Araba).

Udalerrriak 34,3 km² inguruko azalera hartzen du. Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako kartografian, JRIV, KRIII, JQII eta KQI orrien (1:5.000 eskala) baitan geratzen da (<http://b5m.gipuzkoa.net>).

Dokumentu honetako *III. Ingurumen-arloko diagnostikoa, analisisa eta balorazioa kapituluan*, bestalde, udalerrriko ingurune fisikoaren, kulturalaren eta sozio-ekonomikoaren elementurik azpimarragarrienak laburbiltzen dira.

1.2. PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK

HAPOren berrikuspen honen oinarriak bi dira:

- Batetik, indarrean dagoen HAPO-n aurreikusitako hirilurra eta lurzoru hiritargarria izango da muga. Hau da, gaur egun sailkatuta dagoen lurzorua mantendu edo, hala badagokio, gutxitu egingo da, baina zabaldu ez, honela hiritarrezina den lurzorua ez delarik ikutuko. Lurzoru hiritargarrian hirigintza garapena eta hirilurrean esparruen barne operazioak planteatuko dira. Aurrerapeneko fase honetan, eztabaida sortzeko agiri edo txosten bat aurkeztu nahi izan da, alternatiba desberdinak jasotzen dituen.
- Lurzoru hiritarrezinari dagokionean, indarrean dagoen Egitamu Orokorrean jasotako araudiak urteak daramatza indarrean. Izan ere, aurretik zeuden Arau Subsidiarioen Aldaketa espedientea (lurzoru hiritarrezinari zegokionean) 1997 urtean onartu zen behin betikoz, eta gero HAPO-k bereganatu egin zuen araudi hori. Bere garaian onartu ziren Lurraldearen Antolamenduaren Artezpideak (LAA)-en irizpideekin ere bat zetorren lurzoru hiritarrezinerako araudia eta bere horretan mantendu da. Ordutik hona emaitza onak eman eta tresna egokia dela ikusi da. Hala ere, denbora pasa denez, zuzenketa txiki batzuk egitea beharrezkoa ikusi da, besterik ez bada Basogintza eta Nekazaritza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren zonifikazioa aztertuko da eta lurzoru hiritarrezinaren antolaketa aipatu dokumentu horrek proposatzen duen terminologiarekin bateratzea aztertuko da.

1.3. AINTZAT HARTUTAKO HAUTABIDEAK

HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen dokumentuak izaera erabat irekia azaltzen du, bere helburu nagusia indarrean dagoen Egitamu Orokorrak aurreikusten dituen garapen nagusien inguruan eztabaida zabaltzeko oinarri gisa jokatzea delarik.

Honela, Aurrerapen Dokumentuan hirilur eta lurzoru hiritargarrian kokatzen diren 21 garapen-proposamen jasotzen dira. Horetako batzuek indarrean dagoen HAPO-k proposatutako antolamendua zehazten duen garapen-plangintzarako dokumenturen bat onartua dute jadanik (Plan Partziala edo Plan Berezia), Aurrerapen Dokumentuak garapenerako dokumentu hauek proposatzen duten antolamendua jaso duelarik. Kasu hauetan, HAPO-ren berrikuspenean zehar eremu hauen antolamenduaren inguruan hautabiderik proposatzea aurreikusten ez denez, ez da beharrezkoa ikusi txosten honen *4. Kapitulu*an eremu hauentzako egiten diren proposamenen ingurumen-balorazioa egitea, beren antolamendu eta erabilerei buruzko erabakia hartua dagoen esparruak izaki.

Aitzitik, indarrean dagoen HAPO-k aurreikusten dituen beste garapen batzuen kasuan Aurrerapen Dokumentuak berauen inguruko eztabaida bat pizteko asmoa azaltzen du Berrikuspenaren Aurrerapen Fase honetan. Kasu askotan '0' hautabidea besterik ez da zehaztu esparru hauen antolamenduari dagokionez, Aurrerapen Dokumentuak hautabide honen inguruan hausnarketa egiteko aurreikuspena besterik egiten ez duelarik. Beste batzuetan, aldiz, Aurrerapen Dokumentuan martxan jarriko den eztabaida-prozesu horren oinarri izan daitezen zenbait hautabide edo aukera desberdin proposatzen ditu eremu batzuen antolamenduaren inguruan.

Txosten honen 4. *Kapituluan* Aurrerapen Dokumentuak azaltzen dituen eztabaida puntu desberdinen ingurumen-azterketa egiten da; hautabideen ingurumen-balorazioa, ordea, azkena aipatu diren esparru hauen antolamenduari dagokionez aintzat harturiko hautabide ezberdinentzako garatzen da. 4. *kapitulu* horretan garatzen den hautabideen ingurumen-azterketak honako esparru edo garapenak aztertzen ditu (nabarmenduak ageri dira Aurrerapen Dokumentuak beren antolamenduari buruzko eztabaida zabaltzeko asmoa dituen esparruak eta, horrenbestez, beren hautabideei buruzko ingurumen-balorazioa garatu den esparruak):

1. Gesalibar
2. 'AE.7 Atxabalpe', 'AE.9 Barrutieta', 'AE.11 Akisoalde' eta 'AE.13 Bustintza'
3. Garagartza
4. Garaia
5. **Mendibarren-Gautxori**
6. **Meatzerreka-Ugalde**
7. **Uruburu-Grandenape**
8. **Otalora Lizentziatua pasealekua**
9. **San Viator Txiki**
10. **Azeri**
11. **Intxausti-San Josepe Harrobia**
12. **Aldaiazpi**
13. **Etxe Txikiak**
14. Zerrajera 2 – Zalduspe
15. Legarre
16. Agerre
17. **Santamaina-Santa Teresa**
18. **Kaskonategi**
19. Zabaleta
20. **Bedoña**
21. **Kanpanzarko harrobia**

Lurzoru hiritarrezinaren zonifikazioari buruzko eztabaidan bi hautabide izango dira nagusi. Alde batetik, indarrean dagoen HAPO-k jasotzen duena. Bestetik Basogintza eta Nekazaritza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak proposatzen duena.

Planaren 'Memoria' dokumentuan deskribatzen dira aipatutako esparru eta arlo horiei dagozkien alternatibak eta, era berean, honako dokumentuaren 4. *Alternatiben ingurumen-azterketa* kapituluan proposamenetako bakoitza iraunkortasunaren ikuspuntutik aztertzen da.

1.4. PROPOSAMEN NAGUSIEN LABURPENA

Atal honetan deskribatzen dira plangintzaren fase honetan esparru hauen inguruan egin diren hausnarketa nagusiak:

- **1. Gesalibar:** Hirigunea finkatu egiten da eta konfigurazio berria ematen zaio, eraikin berri bakan batzuk ahalbidetuz. Hau guztia helburu bikoitzarekin: batetik biztanleria mantentzea eta bestetik jadanik kolonizatuta dagoen lurzorua giza eta ingurumen ikuspegitik era iraunkor eta egokian okupatzea. AE.1. Gesalibar esparruak 2011 urtean onartutako Plan Berezi bat du, non aurreikusten den esparruaren hiri berrantolaketa, kalitate handiagoko hirigintza parametroak lortzeko helburuarekin.

- **2. Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde eta Bustintza:** Indarrean dagoen Egitamu Orokorrak etxebizitza berrien garapen handia aurreikusten du inguru horretan: Atxabalpen trinkotasun handiko 224 etxebizitza; Barrutietan trinkotasun txikiko 51 etxebizitza; Akisoalden trinkotasun handiko 38 etxebizitza eta babes ofizialeko 58; Bustintzan trinkotasun txikiko 104 etxebizitza. Hazkuntza hori guztia zalantzan jarriko da berrikuspenean. Lau alternatiba edo aukera desberdinen bitartez eztabaida piztuko da. Aukerak honakoak dira:
 - 0 Aukera - Gaur egun indarrean dagoen Egitamu Orokorrak araututakoa, hau da, Barrutieta, Akisoalde, Bustintza eta Atxabalpe esparruetan etxebizitza-erabilera aurreikusten du, beti ere, 2/2006 Hirigintza eta Lurzoruaren Legeak zehaztutako baldintzekin.
 - A Aukera - Gaur egun indarrean dagoen Egitamu Orokorrak araututakoaren ildotik baina aldaketa txiki batekin. Barrutieta, Akisoalde eta Bustintza esparruetan etxebizitza-erabilera aurreikusten du, beti ere, 2/2006 Hirigintza eta Lurzoruaren Legeak zehaztutako baldintzekin. Atxabalpe esparruan, aldiz, zehaztu gabeko hornikuntza erabilera aurreikusten du aukera honek.
 - B Aukera - Eraldatu gabeko lurzoruaren erabilera murriztea. Horretarako, Barrutieta eta Bustintza eremuak desklassifikatu eta landa lurra itzuliko dira. Akisoalde, ordea, etxebizitza-erabilera bideratuko da, beti ere, 2/2006 Hirigintza eta Lurzoruaren Legeak zehaztutako baldintzak betez. Bestalde, Atxabalpe esparruan hornikuntza erabilera aurreikusten du.
 - C Aukera - Eraldatu edota artifizialdu gabeko lurzoria errespetatzea. Horretarako, Barrutieta, Akisoalde eta Bustintza esparruak desklassifikatu eta landa lurra itzuliko dira, artifizialdu gabeko lurra okupatzea ekidinez. Bestalde, Atxabalpe esparrua zehaztu gabeko hornikuntzarako aurreikusten du.
- **3. Garagartza:** AE.12. Garagartza esparruan Hiri Antolamenduzko Plan Bereziaren onarpena izapidetzen ari da Udala gaur egun, zeinak ondoko ildo edo helburu nagusiak zehazten dituen:
 - Garagartza auzoko nekazal hirigunea antolatzea, etxe bakan berri batzuk eraikitzea ahalbideratuz ere; auzoko biztanleria mantentzea eta jadanik kolonizatuta dagoen lurzoria giza eta ingurumen ikuspegitik era iraunkor eta egokian okupatzea; biztanleriaren gehikuntza endogenoa jaso ahal izateko hirigintza mekanismoak jartzea.
 - Auzunearen erdialdea finkatzea, oinezkoen erabilera gailenduz, eta gaur egungo eraikinen fatxadak mantenduz; titulartasun publikoko hornikuntzen eskaintza indartzea. Besteak beste, kirolgune txiki bat antolatzea; lehendik dauden etxebizitza erabilera eta landa erabilera, hauekin bateragarriak diren jardura ekonomikoko erabilera batzuekin (merkataritza eta beste batzuk) uztartzea; teknologia berrien ezarpena eta lurzoruaren erabilera berriak, inguruari balorea ematen dioten elementuekin uztartzea.
 - Auzora heltzeko dauden oinezkoen eta motordunen sarbideak hobetzea eta auzoko esparru guztiak elkar lotzeko iraganbide egokiak egitea; Monterron-Gesalibar motorgabeko ibilbidea auzoan zehar jarraitzea eta bertan adarkatzea.
- **4. Garaia:** AE.18. Garaia parke teknologiko bezala egituratua azaltzen da indarrean dagoen plangintzan. Lurzoru hiritargarria izanik, esparrua antolatzen duen Plan Partziala onartua dago gaur egun.
- **5. Mendibarren-Gautxori:** Inguru hauetan eraberritze prozesu bat aurrera eramateko asmoa azaltzen du HAPO-aren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak. Bi esparru hauen antolamendu zehaztu arautzen duen Plan Berezia onartua dago jadanik, nahiz eta bere zehaztapenak ez diren oraindik garatu. Plan Honek, honako aurreikuspen nagusiak jasotzen ditu:
 - Mondragon Unibertsitatea hazi ahal izateko lurzoria gordetzea.
 - Fagor Ederlan, S. Coop. enpresaren industri eraikina finkatzea, baliogabeko hainbat gorputz ezegokiren eraispenaren kaltetan gabe, eta hainbat baserri finkatzea ere bai.
 - Ingurugiro ikuspuntutik birsorkuntza egitea, Aramaio ibaiaren ibaiertzak era ekologikoan berreskuratu, goialdetik datorren erreka azaleratzea eta Arrasateko erdigunerako egokiago diren erabilerak ezarri.

- **6. Meatzerreka-Ugalde:** Esparru hauek industri jardueratarako izendatuta daude gaur egun indarrean dagoen plangintzan. Eremu hauek ez dute inolako garapenik izan indarrean dagoen HAPO-a behinbetiko onartu zenetik, ezta plangintzaren ikuspegitik ere. Egoera honetan, Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak indarrean dagoen HAPO-aren proposamena jasotzen du eztabaida zabaltzeko asmoz, izan ere, eremu hauen antolamenduaren inguruan Berrikuspenean zehar beste aukera batzuk ere egon daitezkeela aipatzen du Aurrerapen Dokumentuak.
- **7. Uruburu-Grandenape:** “2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak” ez ditu onartzen trinkotasun edo dentsitate txikiko guneak. Indarrean dagoen Egitamu Orokorrak trinkotasun txikiko etxeak aurreikusten ditu AE 25.- Uruburu esparruan. Hori horrela, antolamendua aldatu egin beharko da. Kontuan izan behar da inguru hori gatazkatsua dela (antolatu gabeko txabolak daude –txabolismoa-, lur kutsatuak egon daitezke bertan...). Urubururako proposamen berria aurkezten da: trinkotasun handiko etxebizitzak aurreikustea bertan, benetako garapen iraunkorra uztartuko duena (giza, ekonomi eta ingurumen iraunkortasunaren oreka bermatzen duena).
 - Etxebizitzaren %75a babes publikokoa (%55 BOE + %20 salneurri mugatukoa) izango litzateke.
 - Uribarriko elizaurrea eta Udalara doan errepidea lotzen dituen oinezkoen bidexka berreskuratu egingo litzateke, eta Uribarri auzoaren ostean dagoen lurzoruaren ingurumen kalitatea hobetu egingo litzateke gaur egungo egoerarekin alderatuz.
 - Eraikinen kokapena eta antolamendua bera, malda eta eguzkiari egokitzuz aurreikusiko litzateke.
- **8. Otorala Lizentziatua pasealekua:** HAPO-ren berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak proposamen berritzailea jasotzen du Otorala Lizentziatua pasealekuari dagokionez, ekonomikoki kostu handikoa baina teknikoki bideragarria den proposamena: Otorala Lizentziatua kalean ibaia azalazteaz, Arbolapeta eta Amaia Antzokiaren artean, tarte hori oinezkoentzako pasealeku bihurtuz. Honekin batera, ibilgailuentzako lurrazpiko pasabide bat egitea proposatzen da, bertan aparkalekuak ere aurreikusten direlarik. Dokumentu honek jarduketa honetarako hasierako proposamena besterik ez du egiten, HAPO-ren Berrikuspenean zehar proposamen hau Plan Orokorrean bertan sartu behar ote den eztabaida zabalduko da, eta barneratzen bada, eremu honen antolamenduaren inguruko hausnarketa egingo da.
- **9. San Viator Txiki:** Indarrean dagoen HAPO-k AE.41 ‘San Viator Txiki’ esparruan irakaskuntza eraikinak finkatu egiten ditu (ordezkatzeko aukera emanez, hala behar izanez gero) eta, horrez gain, eliza handitzeko aukera ematen du. HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak eliza handitzeko proposamenaren inguruan eztabaida zabaltzeko asmoa azaltzen du, handitze honek parkearengan eragina baitu. Eztabaida honen emaitza bezala eremu honen antolamenduari dagokionez hautabide ezberdinak sortzeko aukera ikusten den arren, plangintzaren fase honetan oraindik ere ez da proposamen zehatzik egin esparru honetarako.
- **10. Azeri:** Indarrean dagoen HAPO-an bizitokietarako antolamendua aurreikusita dago esparru honetan, eremuaren Hiria Antolamenduzko Plan Berezia ere onartua dago jadanik eta garatu egin behar dira. Dena den, artean jarduketa hauek martxan jarri ez direnez, Aurrerapen Dokumentuak mahai gainean jarri nahi du berriro ere esparru honen antolamendua, etorkizunera begira hazkuntza mugatua egin ahal izateko lekua baita, herri barruko eraberrikuntza eramangarria gauzatzeko ere lagungarri. Aurrerapen dokumentuak proposamen zehatzik ez du azaltzen eremu honetarako.
- **11. Intxausti-San Josepe Harrobia:** AE. 58 ‘San Jose Harrobia’ esparruan, harrobiaren ustiapena amaitu ostean azalera handi bat gelditu da hiritartzeko. Udalak Ideien Lehiaketa bat antolatu zuen bertan gauzatu litezkeen jarduketak planteatu zitezten. Hainbat ondorio atera ziren, besteak beste, erabilera anitzak kokatu beharko liratekeela bertan, ingurua irisgarria izan beharko litzakeela, herriarekin uztartu beharra, komunikazioak jorratu beharra, inguruan ere ezinbestez esku hartu beharra, ibaiaren inguruan berreskurapen esku-harmena egiteko aukera... Lehiaketa haren ostean ez da antolamendua zehatz bat finkatu Intxausti-San Josepe Harrobia ingururako, ideia orokor baten norabidea baizik.

Alternatibak nahi bezainbeste izan daitezkeela aipatzen du berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak. Norabide hau harturik, eremu honetarako proposamen bat garatzeko eztabaida zabaltzearren antolamendu bat proposatzen du. Edonola ere, dokumentuan aipatzen den bezala, antolamendu hau ez da behin-betikoa. Esparru honen inguruan HAPO-ren berrikuspenaren abiapuntua, hortaz, bertan garatu behar diren erabilerei buruzko ideia orokorraren inguruan hausnarketa egitea da.

- **12. Aldaiazpi:** Etxebizitza finkatuak dituzten eremuak diren arren, etxebizitza hauek duela 40 urte inguru egin ziren eta auzoak hiritartze eta irisgarritasun baldintza nahiko kaskarrak ditu gaur egun, Aurrerapen Dokumentuak epe ertain-luzera eremu honetan berreskuratze-lanak egiteko beharra nabarmentzen duelarik. Kasu honetan Aurrerapeneko fasean esparru honen inguruko eztabaida mahai gainean jartzeko asmoa dago. Jasotako proposamenean Aldaiazpi kaleak Gipuzkoa etorbidearekin bat egiten du. Horrela, etxebizitzaren irisgarritasun baldintzak hobetu eta Gipuzkoa etorbidearen kale-profila samurtuko litzateke. Honek, besteak beste, oinezkoentzako etorbidearen erabilera atseginagoa bihurtuko luke, eta hiri erdia eta goiko auzoen arteko harremana errazten lagunduko luke. Dena den, luzera begirako proposamena da.
- **13. Etxe Txikiak:** Esparru honetan bi helburu argi daude. Batetik, industri iraultza garaiko adibide den langile etxe-multzoa ahalik eta gehien finkatu eta gordetzea, bizi kalitatea hobetzearren eranskinak, era mugatuan eta multzoaren berezko itxura aldatu gabe, eraikitzea ahalbideratuz; eta bestetik, Zerrajera ingurua eta hiri-erdiaren arteko komunikazioa hobetzea. Horretarako, Aurrerapen agiri honetan etxebizitza kopuru txikienari eragingo dion errepide-lotura egitea proposatu da, Nafarroa etorbidea eta Maalako biribilgunea era zuzenean lotuko dituena.
- **14. Zerrajera 2 – Zalduspe:** AE 80.-Zerrajera 2 eta AE 86.- Zalduspe esparruen planeamendu xehatua onartuta dago jadanik. Aurrerapen agiriak gaur egun indarrean dauden antolamenduak jaso ditu.
- **15. Legarre:** Indarrean dagoen Egitamu Orokorrek etxebizitzetarako antolamendua aurreikusten du AE 82.- Legarre esparruan. Gainera Hiri Antolamenduzko Plan Berezia ere onartua dago.
- **16. Agerre:** AE 89.- Agerre esparruan, lurzoru hiritargaria izanik, onartuta dago jadanik Plan Partziala, hau da, antolamendu xehatua zehaztuta dauka eta Aurrerapen Dokumentuak aipatutako antolamendua jasotzen du. Etxebizitzetara zuzendutako esparrua da.
- **17. Santamaina-Santa Teresa:** Etxebizitza finkatuak dituzten eremuak diren arren, etxebizitza hauek duela 40 urte inguru egin ziren eta auzoak hiritartze eta irisgarritasun baldintza nahiko kaskarrak dituzte gaur egun, Aurrerapen Dokumentuak epe ertain-luzera eremu hauetan berreskuratze-lanak egiteko beharra nabarmentzen duelarik. Kasu honetan Aurrerapeneko fasean esparru hauen inguruko eztabaida mahai gainean jartzeko asmoa dago, nahiz eta esku-harmen hauek hobeto aztertu beharreko operazioak izango diren ezinbestean.

Oinezkoen erabilera sustatzeko, eta auzoaren kalitatea hobetzeko azterketa sakona egitea beharrezko ikusten da. Aurrerapen honetan jasotako proposamenaren helburua ez da antolamendu zehatza aurkeztea, azterketa sakon bat gauzatzeko dagoen beharra azaleratzea baizik. Proposamenean, besteak beste, hiri erdia auzoko kale ezberdinekin zuzenean komunikatuko duen gunea antolatzea aurreikusten da. Espazio hau Aldaiko parkearen kota berberean hasi eta maila desberdinetan antolatuta egongo litzateke. Horrela, Santamaina ingurua bai Aldai inguruko bidegorriarekin, bai parkearekin eta bai Gipuzkoa etorbidearekin ere erraz komunikaturik egongo litzateke. Bestetik, gune honek auzoko hornikuntza eta aisialdirako gune garrantzitsuenak jasoko lituzke; bai eta auzoan irisgarritasun-baldintzak bermatzeko beharrezkoak liratekeen igogailu eta elementuak ere. Luzera begira bada ere, antolamenduaren ordezkari aukeraren bat zehaztea interesgarria izango da.

Beste alternatiba bat Santamaina eta Santa Teresa esparruetako eraikinak finkatu eta birgaitze operazioak bultzatzea da. Agian eraikin bat edo beste kentzea planteatu daiteke, beti ere espazio publikoa zabaltzeko eta irisgarritasun baldintzak hobetzeko helburuarekin.

- **18. Kaskonategi:** AE 103.- Kaskonategi esparruan merkatal zentro handi bat dago eta indarrean dagoen Egitamu Orokorrak bertan gehiago eraikitzeko aukera ematen du. Eztabaidarako gunea da esparru honen antolamendua, Eroski merkatal gunearen garapena eta geltoki intermodala eraikitzearen aukera uztartu behar diren ala ez, alegia.

Aurrerapen agiriak geltoki intermodala eraikitzea proposatu du. Hau da, garraiobide mota guztiak uztartuko dituen gunea antolatzea. Eroski kokatzen den eraikuntza zabaldu eta ondorioz aparkaleku kopurua handituz gero, hauek disuasio-aparkaleku moduan erabili ahal izango lirateke. Horrela, autoa bertan utzi eta intermodalak eskainiko lituzkeen baliabideak aprobetxatzeko aukera sortuko litzateke: ibilbide luzeko autobusa, tranbia edo eskualdeko autobusa, hiribusa edo bizikleta, eta baita garraio diskrezionalaren topagune gisa ere. Eztabaida pizteko proposamena hau ere.

- **19. Zabaleta:** AE 104.- Zabaleta esparruan jarduera ekonomiko erabilerak aurreikusten ditu egun indarrean dagoen HAPO-k eta bertako antolamendua zehazten duen Hiri Antolamenduzko Plan Berezia orain gutxi onartu zen. Aurrerapen Dokumentuak aipatutako Plan Berezi horretan aurreikusitako antolamendua jasotzen du.
- **20. Bedoña:** Indarrean dagoen HAPO-ak Bedoña Auzoko nekazal hirigunea antolatzeko helburuarekin definitzen du AE. 111 'Bedoña' esparrua. Eremu honetan trinkotasun txikiz eta inguruarekin bat datozen etxe bakan berri batzuk ezartzeko aukera ematen du, aldi berean pilotalekua eta aparkalekua eraiki ahal izateko gordespena egiten duelarik. Bertan garatu daitekeen etxebizitza berrien kopurua 4 etxebizitzetara mugatzen da. Beste 17 etxebizitza finkatzen dira.
- **21. Kanpanzarko harrobia:** HAPO-aren Berrikuspenaren harian, harrobia ustiatzen duen enpresak aurkeztu berri duen lurrazpiko meatzaritza proiektuaren inguruan dagokion eztabaida abian jartzeko helburua azaltzen du Aurrerapen Dokumentuak. Enpresa horrek, hain zuzen, Udalari aurkeztu dio harrobi ustiapena lur-azpian edo meatzaritza eran egiteko proposamena, hau da, kareharria lur-azpitik ateratzeko proposamena. Enpresaren esanetan lan egiteko modu honek saihesten ditu paisaiari eragindako kalteak eta lurzorua gainaldea suntsitzea. Era berean, gutxitu egiten ditu zarata eta hauts igorpenak. Aurrerapen Dokumentuak aipatzen duenaren arabera eztabaidaren beste aldean jarri beharko lirateke iraunkortasunaren ikuspegitik hau ote den etorkizuna eta, batez ere, hau ote den kokapen egokiena, Udalaitz mendiaren barrenean.
- Lurzoru hiritarrezinaren zonifikazioaren eguneraketa eta egokitzapena. Indarrean dagoen HAPO-k lurzoru hiritarrezinean erabilera globaleko bederatzi kategoriak ezarrita daude¹, eta horietako bakoitzerako lurzorua erabilerarako arauak finkatuta daude.

- 1. Garapen gordespenarako lurzoru hiritarrezina
- 2. Sistema orokorrak babesteko lurzoru hiritarrezina
- 3. Hidrologia sarea babesteko lurzoru hiritarrezina
- 4. Arkeologia aztarnategiak babesteko lurzoru hiritarrezina
- 5. Paisaia babesteko lurzoru hiritarrezina
- 6. Edafologia berreskuratzeko lurzoru hiritarrezina
- 7. Basoa babesteko lurzoru hiritarrezina
- 8. Baserriak eraiki ahal izateko lurzoru hiritarrezina
- 9. Nekazaritza eta baso ustiapeneko lurzoru hiritarrezina

¹ Araudiaren 90 artikulua.- Lurzati banaketa eta erabileren araubidea

1.5. LURRALDE ANTOLAMENDUKO PLANAK ETA ARLOKO PLANAK AINTZAT HARTZEN DITUZTEN ZEHAZTAPENAK

Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren berrikuspen hau hainbat lege xedapenetan biltzen diren arteztarauek, baita izaera eta jatorri ezberdineko dokumentu eta proiektuek eratzen duten testuinguru konplexuan landuko da.

Lurralde-antolamenduko planak nahiz arloko planak, edota ingurumen-legeria aintzat hartzen dituzten HAPO-ren Berrikuspenaren zehaztapenen artean honakoak eman daitezke aditzera:

- Lurzoru hiritarrezinaren antolamendua ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek, Bergara-Mondragon eremu funtzionaleko Lurralde Zatiko Planak (LZP-k), EAEko ibai eta ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak (LAP-k), Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamendutarako lurra sortzeko LAP-k eta Basogintza eta Nekazaritza Antolatzeko LAP-k, ezarritako antolamendu-kategoriak eta irizpideak aintzat hartuta (eta jarduera babestu, onartu eta debekatuen matrizea aplikatuz).
- Beren balio ekologiko bereziengatik nolabaiteko lege babesa duten eremuak barnean hartzea (landaredi berezia, arriskuan dauden espezieak kudeatzeko planak, balio paisajistiko handiko gunek, korridore ekologikoen sarea, sare hidrografikoa, giza kontsumorako ur-hartuneak).
- Hainbat ingurumen-arrisku dituzten eremuak aintzat hartzea (urperagarritasuna, akuiferoen urrakortasuna, lurzorua kutsatu dezaketen jarduerak jasan edo jasaten dituzten kokalekuak).
- Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako hazkundearen printzipioarekin eta helburu demografiko eta sozio-ekonomikoaren printzipioarekin bat datorren udal-garapeneko eredia definitzea, eta aurretik dauden garapenen kolmatazio eta berrosaera kualitatiboko prozesua bateragarri egitea etorkizuneko hedapenarekin, betiere gaur egun hiri-bilbean erabilgarri dauden lurzorua okupatuz edo berreskuratuz, eta hiri-bilbearen ingurune mugakideetako lurzoruen erabilpena mugatuz.
- Garapen-ereduaren definizioan iraunkortasun-irizpideak txertatzea, 2002-2020 EAEko Garapen Iraunkorraren Ingurumen Estrategian eta 2007-2010eko Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programan ezarritako helburu estrategikoekin eta konpromisoekin bat eginik honako arlo hauetan:
 - Dentsitate ertain edo handiko hirigune trinkoak lehenestea, eta beraz, dentsitate txikia edo oso txikia duten etxebizitza eta industria garapen berriak saihestea, baita etxe isolatuak eta atxikiak ere, azken hauek eredu hiritar barreiatu eta lausotu bat sendotzen baitute, eta lurzoru, energia eta material asko kontsumitzen dute.
 - Egun dauden hiri-ehunen optimizatze funtzionala eta horren berrerabilpen eta berreskurapena, lurzoruari nahiz baliabideei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko estrategia gisa, hiri-ehun horiek birgaituz, berregituratuz, zaharberrituz eta gune marjinalak lehengoratuz.
 - Gune hiritar trinkotuak hiritik gertu eta egungo hiri-ehunean oinarrituta ezartzea eta, hartara, garraio publikoaren, oinezkoen eta bizikleten bidezko mugikortasun iraunkorra ahalbidetzea. Ahalik eta gehien murriztea azpiegitura (bideak, errepideak) berrien eta zerbitzuen beharra (hornidura, saneamendua, elektrizitatea, gasa, telefonia, hondakin bilketa, eta abar).
 - Garapen berriek ingurumenari ahalik eta gutxien eragitea eta, beraz, hiritartu beharreko alorren kokalekuak eta diseinuak erabakitzerakoan ahalik eta interferentziarik txikiena eragiten dutenak erabakitzea.

1.6. KALTEAK SOR DITZAKETEN JARDUKETAK IDENTIFIKATZEA

Arrasateko Plan Orokorraren Berrikuspenaren hasierako fase honetan proposatzen diren alternatiben ondorioz espero daitezkeen ingurumenaren gaineko eragin nagusiak, batez ere esparru jakin batzuetan lurzorua erabileraren sailkapena eta kalifikazioa aldatzearen eraginez edota indarrean dagoen hirigintza-araudian sar litezkeen aldaketan ondorioz gertatuko direla esan daiteke.

Aurrerapen dokumentuan etxebizitza garapenetarako, industria jardueratarako, beste jarduera ekonomikoetarako edota hornikuntzarako zenbait hautabide proposatzen dira esparru desberdinetan, definizio-maila irekiarekin. Jarduketa horien ingurumenaren gaineko inpaktua dokumentu honen barruan dagokien kapituluaren baloratuko da. Fase honetan jarduketa hauek garatzeko ildo nagusiak besterik ez dira proposatzen, eztabaida ireki baterako testuingurua sortzeko nahiarekin; ostera ildo nagusi hauek espedientearen izapideen aurreragoko faseetan zehazten joango dira.

Kasu honetan, Plan Orokorraren proposamenetako bakoitzaren xehetasun-maila kontuak izanik, balizko ingurumen-inpaktu nagusien (positiboak zein negatiboak) jatorri izan daitezkeen jarduketak antzeman dira; edonola, ingurumen-inpaktu hauek azkenean proposatzen diren jarduketan arabera egongo dira, beti ere:

- 1.- Bizitegi eta jarduera ekonomikora zuzendutako hirigintza-garapenetarako landa-lurzorua okupazioaren mantentzea edo murriztea, batez ere ahalmen agrologiko handiko lurrak badira, eta aukeratutako alternatiben arabera (Garagartza inguruan, Ugalde-Meatzerreka esparruetan, Bedoña auzogunean).
- 2.- Bizitegi-arloko hirigintza-garapenerako trinkotasun desberdineko aukeren artean erabakitzea, eremu bakoitzaren harrera-ahalmena gehiago edo gutxiago egokituz, eta beraz, lurzorua berezko balioari eta kontsumoari etekin egokia edo desegokia emanez (Barrutieta, Bustintza, Uruburu, Agerre, Azeri, Legarre).
- 3.- Mugikortasun iraunkorra ahalbidetzea, hirigintza-garapenak (bizitokiak, jarduera ekonomikoak, merkataritza zentroak, hezkuntza eta kirol ekipamenduak, eta abar) hiri-ehunean ezarriz (Intxausti, San Josepe Harrobia, Azeri, Legarre, Uruburu, Agerre, Gautxori-Mendibarren), edota oinezko eta bizikletentzako ibilbideen garapena ahalbidetuko dituztenak (Atxabalpe, Akisoalde, Uruburu, Grandenape).
- 4.- Motordun mugikortasun beharrak handitu, hirigintza-garapenak (bizitokiak, jarduera ekonomikoak, merkataritza zentroak, eta abar) hiri-ehunetik kanpo ezarriz edo handituz (Bedoña, Ugalde, Meatzerreka, Kaskonategi, Zabaleta) edota trinkotasun txikiko hirigintza-garapenak sustatuz (Barrutieta, Bustintza, Uruburu, Agerre).
- 5.- Ubideak eta ibai ertzetako bertako landarediaren berreskurapena ahalbidetzea, ingurumen ikuspegitik eraberritze prozesu hauei etekina ateraz (Atxabalpe, Gautxori, Mendibarren, Intxausti, Legarre).
- 6.- Ubideen bideraketak eta ibai ertzetako bertako landarediaren ezabaketa, konexio ekologikoaren murrizketa eraginez (Ugalde, Meatzerreka).
- 7.- Bertako basoko landarediaren ezabaketa, hirigintza-garapenaren ondorioz (Akisoalde, Agerre).
- 8.- Urperagarritasun arrisku desberdineko eremuetan proposatzen diren hirigintza jarduerak (Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde, Mendibarren, Gautxori, Intxausti, Azeri, Legarre, Kaskonategi).
- 9.- Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua berreskuratzea ahalbidetuko duten eraberritze jarduerak (Mendibarren, Gautxori, Intxausti, Azeri, San Josepe Harrobia, Legarre, Agerre, Kaskonategi eta Zabaleta).
- 10.- Malda handiko eremuetan, lur mugimendu handiak beharko dituzten, eta beraz paisaiaren gainean eragin nabarmenak izan ditzaketen hirigintza jarduerak (Uruburu, Grandenape, Agerre).
- 11.- Hiri-paisaiaren kalitatea berreskuratzen ahalbidetuko duten eraberritze jarduerak (San Josepe Harrobia, Azeri, Legarre).

Dokumentu honetan, *IV. Alternatiben ingurumen azterketa* izenburuko kapituluari, lehenago aditzera emandako jarduketa nagusien inguruan fase honetan proposaturiko hautabideek sor ditzaketen inpaktuen azterketa alderatua egingo da.

1.7. HAPO-REN DENBORA-EPEA ETA EXEKUZIO-FASEAK

Arrasateko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra (HAPO) 8-10 urteko eperako landuko da; bere xedapenak indarrean egongo dira dokumentua behin betiko onartzen denetik aurrera, hurrengo berrikuspena edo aldaketa puntualen bat sustatzen den arte.

Bestalde, Arrasateko Plan Orokorren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak ez du berau gauzatzeko faserik planteatzen.

1.8. ANTZEMANDAKO INFORMAZIO-HUTSUNEAK

Hirigintza-plangintzaren prozesuaren hasierako faseari dagokion zehaztasun-maila kontuan hartuta, ez da informazio-hutsunerik antzeman aztertu den Aurrerapen dokumentuan.

Fase honetan garrantzi berezia du garapen nagusien inguruko alternatiba ezberdinak planteatzeak, nahiz eta hauek zehaztasun handirik ez izan; alternatiba hauek sortuko duten eztabaidetatik abiatuta aukeratuko dira espedientearen izapidearen hurrengo faseetan aurkeztuko diren behin-betiko proposamenak.

Plan Orokorren Berrikuspena oraindik ere Aurrerapen fase batean dagoela kontuan harturik, egokitzat jo da proposaturiko antolamendu-alternatiba ezberdinek duten zehaztasun-maila, izan ere dokumentuaren beraren edukia alternatibei buruzko gogoeta eta balorazioetara zabalik dago.

1.9. PARTE-HARTZE PUBLIKOA

Aurrerapen-dokumentua idatzi baino lehen, ingurumen-konsulten prozesua zabaldu zen, indarrean dagoen arlo horretako legerian ezarritako prozedurari jarraituz (183/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzkoa; 9/2006 Legea, apirilaren 8koa, hainbat planek eta programek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzkoa).

Arrasateko Udalak 2011ko uztailaren 6an jakinarazi zion, bidalitako idazkiaren bidez, organo eskudunari –kasu honetan Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailari- Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra idazteko prozesuari ekiteko asmoa zuela, eta legerian aurreikusten den aurretiazko kontsulta egin zuen.

Ingurumen-organoak irailaren 27n igorri du udaletxera HAPO-ren berrikuspenari dagokion 'erreferentzia-dokumentua'; txosten hau lehenago hasi zenez egiten, berau idazterako garaian erreferentzia dokumentu honen zehaztapenak ez dira eskuragarri izan. Dena den, ingurumen iraunkortasunerako txosten honen edukia berraztertu egin da, erreferentzia-dokumentuaren zehaztapen eta iradokizunak ahal den egokien jasotze aldera.

Uztailaren 6an bidalitako dokumentazioa jaso eta gero, Ingurumenaren Plangintzaren Zuzendaritzak publiko interesdunaren eskura jarri zuen espedienteko dokumentazio guztia, bai haren egoitzan eta baita Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko web orrian ere. Interesatu gisa akreditatzeko eta iradokizunak aurkezteko epea 2011ko abuztuaren 12an amaitu zen. Inor ez da publiko interesatu gisa akreditatu ezta iradokizunak aurkeztu.

Era berean, Ingurumenaren Plangintzaren Zuzendaritzak ondorengo erakunde hauei egin die kontsulta:

- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza.

- Uraren Euskal Agentzia.
- Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kulturako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mendietako eta Natura Ingurunekeko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hirigintzako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia.
- IHOBE Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa.
- Ekologistak Martxan elkarte.

Arazko epea bukatuta, honako erantzunak jaso dira:

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zuzendaritzak ez du beharrezkoa Arrasateko HAPOri buruz inolako kontsideraziorik egitea.
- IHOBE Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoak Arrasateko udalerrian 165/2008 Dekretuan eta baita kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioaren eguneratzearen zirriborroan sartutako lursailen kokapenak bidaltzen ditu.
- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak ez du beharrezkoa ikusten txostena egitea, HAPOn ezarritako irizpideek nekazaritza-lurzoru edo erabileren gaineko eragin garrantzitsurik ez dakartelako.
- Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzak udalerrian dauden interes kulturalako elementuen gaineko informazioa ematen du, eta horien gaineko zehaztapen batzuk egiten ditu.
- Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak biodibertsitatearen espazioen eta baliabideen gaineko informazio eskuragarria ematen du. Horrez gain HAPOn berrikuspenak kontuan izan beharreko iraunkortasuneko hainbat irizpide adierazten ditu. Azkenik, biodibertsitatearen gaineko afekzioaren analisisian sartzen da.

Plan Orokorraren Berrikuspenaren Aurrerapen dokumentua, baita IIT hau ere, jendaurrean jarriko dira, gutxienez bi hilabeteko iraupena izango duen erakusketan, egokitzen diren alegazio, ohar eta proposamenak jasotzeko. Aipatutako erakusketa hau, horretarako udaletxeak prestatutako aretoan jarriko da martxan, zentzu didaktikoan azalduko ditu eztabaidarako proposatu diren alternatiben nondik norakoak eta bertan jasoko dira pertsona eta eragile interesatuen ekarpenak.

Horrez gain, eztabaida sustatu eta zabaltze aldera, interneten ere kontsultatu ahalko dira Plan Orokorraren Berrikuspenaren fase honi dagozkion dokumentu guztiak, planoak barne.

2. BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN ANALISIA

Kapitulu honetan, HAPOk antolatutako eremuetan edo aztertutako esparruetan eragina duten planak eta programak identifikatu nahi dira, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuaren eranskinaren 2. puntuan ezartzen den bezalaxe.

Jarraian Arrasateko udal plangintzari aplikagarri diren lurralde-plangintza eta arloko planek jasotako ezarpen eta irizpide nagusiak laburbiltzen dira.

2.1. LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEAK EDO GIDALERROAK

Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 11ko 28/1997 Dekretu bidez onartu ziren behin betiko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA). Artezpide horiek EAEko lurralde eta hiri antolaketaarako tresnak formulatzeko erreferentzia-esparrua dira.

LAA-en 20. kapituluaren jardute-eremuak mugatzen dira EAE eta udal-esparruen arteko bitarteko plangintza-eskala gisa. Arrasateko udalerrria Deba Garaiko jardute-eremuaren (JE) barruan sartzen da.

LAA-en zehaztapenen artean, Arrasateko HAPOaren berrikuspenean eragin zuzena duten hainbat antzeman dira, hala nola:

- Udal plangintzak 'Interes Naturalistikoa duten eremuen zerrenda irekia'n dauden eremuak kontuan hartu beharko ditu, beren balio ekologiko, kultural eta ekonomikoak babestu ahal izateko. LAA-ren eranskinean zerrendatutako eremu hauek 'Babes bereziko' kategoria izan dezaten, dagozkien Lurraldearen Zatik Planak (LZP-k) edo Udal Plangintzak horrela ezarri beharko du. Ildo horretan, Arrasateko udalerrian 'Udalaitz' interes naturalistikoko eremuaren zati bat sartzen da. Indarrean dagoen HAPO-k LAA-ren zerrendan agertzen den eremu hau Lurzoru Hiritarrezinaren zenbait kategoria desberdinetan zatitzen du: 'Paisai babesa', 'Baso babesa', 'Aztarnategi arkeologikoen babesa', 'Garapen gordespena', 'Berreskuratze edafologikoa', 'Sare hidrologikoaren babesa', 'Nekazaritza eta abeltzaintzako ustialeku berrietarako lurzorua', 'Sistema orokorren babesa'.
- Gainazaleko uren tratamendua: EAEko Kantauri Isurialdeko Ibai eta Erreka Ertzen Antolamendurako Lurraldearen Arloko Planari (LAP-ri) dagokio. Plan hori abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bitartez onartu zen behin betiko. 2.3.1. atalean, Arrasateko udalerrirako LAP horren zehaztapenak banaka-banaka aipatzen dira.
- Udal plangintzak erauzketa jardueren eraginpean dauden eremuen zein erabilera horietarako izan daitezkeen mugaketa barne hartu beharko du.
- Debekatuta dago lurzoru hiritarrezinean etxebizitza isolatuak eraikitzea, famili bakarreko nahiz bi bizitzako etxeak, salbu eta nekazaritza edo/eta abeltzaintzako baliabideen ustiapenari lotetsita dagoela era fedemailean frogatzen den kasuetan.
- Bizitegirako lurzoruaren kuantifikazioa eta ekonomi jarduerak garatzeko lurzoruaren beharrezko udal plangintza: 'Eskualde Egitura' bakoitzeko Lurraldearen Zatik Planak (LZP-k) udalerriri bakoitzari dagokion egoitza-lurzoruaren eskaintza kuantifikatuko du. Deba Garaiko LZP hori apirilaren 12ko 87/2005 Dekretuaren bidez onartu zuen behin betiko Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak. 2.2. atalean, Arrasateko udalerrirako LZP horren zehaztapenak jasotzen dira.
- Lurzoru zenbaketa jarduera ekonomikoetarako: Jarduera Ekonomiko eta Ekipamendu Komertzialetarako Lurzoruaren Sorkuntza Publikorako Lurraldearen Arloko Planari dagokio. Plana 2004ko abenduaren 21eko 262/04 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko. 2.3.2. atalean, Arrasateko udalerrirako antolamendurako kontuan hartu beharreko aspektu nagusiak adierazten dira.

- Udal Plangintzarako orientazioei dagokienez, LAAek hauxe adierazten dute ingurune fisikoaren antolamendurako: hiritarrezintzat jotako lurzoruetarako, Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrek LAAetan ezarritako Antolamendu Kategorietako izendapen eta irizpideak erabiliko dituen kalifikazio bat ezarriko dute:

- Babes Berezia
- Ingurumen Hobekuntza
- Basoa
- Nekazaritza eta abeltzaintzako gunea eta landazabala
- Larre menditarrak
- Gainazaleko Uren Babesa
- Erabilera Zehaztugabea

Kategorizazioa, hots, kategoria batean ala bestean sartzea, eremu bakoitzaren ingurumen balioak, kontserbazio egoera eta baso, nekazaritza edo abeltzaintza bokazioa kontuan hartuta egiten da. Aztergai den eremuko berezitasunen arabera, azpikategoria gehigarriak ezar daitezke.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, amaitu du LAA-en berrazterketaren ondorioz egin den LAA Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen Aldaketa. Agiria 2011ko martxoaren 8an aurkeztu zen EUDelen eta aldundietan, eta legeriaren arabera izapideak egingo dira onespina emateko, parte hartzeko dagozkion izapideak izango dituen prozesu luze batekin.

LAA-en berrazterketaren hausnarketarako agiri tekniko bat jarri da jendaurrean, 'Euskal Hiria NET' izenburupean.

http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-565/eu/contenidos/informacion/dots_reestudio/eu_1165/reestudioc.html

Beraz, oraindik onartu gabe dago, baina zenbait aldaketa planteatzen ditu agiria. Horien artean udal plangintzarako bizitegi zenbaketa kalkulatzeko proposamen berria.


2.2. DEBA GARAIKO LURRALDEAREN ZATI KO PLANA (LZP)

Deba Garaiko LZP 2005ko otsailean onartu zen behin-betiko.

LZP-ren V. Kapituluan, '*Udal plangintzaren gaineko eraginak*' deritzona, udalerrietako Plan Orokorren berrazterketetan kontuan izan beharko diren udal-plangintzako eraginak zerrendatzen dira. Arrasateko udalerriri dagokion atalean azaltzen diren zehaztapenen artean honako hauek azpimarratu ditzakegu, Plan Orokorren Berrikuspenaren haritik begiratuta:

- Inguru fisikoaren antolamendua:
 - Babestu, hobetu eta leheneratu beharreko eremuen antolamendua, LZP zehaztapenen arabera. Ingurune fisikoaren antolamenduko kategoriak definitzea eta arautzea, beren baldintza eta ezaugarrien, aukeren eta harrera-ahalmenaren arabera, betiere LZP-ren eta LAA-en iritziei jarraituz.
 - LZP-k babes berezia ezartzen du *1.planoa Ingurune fisikoa*-n espresuki mugatzen diren kategorien tipologietarako.
 - Babestutako naturguneak eta zuhaitz bereziak: Udalaitz, Monterron parkeko sekuoia.
 - Nekazaritza intereseko eremuak.
 - Interes geologiko eta geomorfologiko eremuak: Udalako konplexu karstikoa.
 - Interes hidrologikoko eremuak: lurrazaleko urak (ibaiak, errekek) eta hauei dagozkien babes-eremuak eta akuiferoen babesa.

- Ekonomia jardueren kokalekuetarako lurzoru politika eta antolamendua:
 - Zarea-Montzon eremuan industriak ezartzeko esparrua antolatzea.
 - Zabaleta-Garratz eremua hiri-arloan aldatzeko eta birsortzeko eragiketan, merkataritza eta aisialdirako gune bat ezartzeko esparrua antolatzea.



ITURRIA: Lurraldearen Zatiko Plana. Deba Garaia Eskualde Egitura.
4 Plana. Antolamendua: Hiri asentamendua. Bizitegi eta industria lurzorua

- Ekipamendu eta Espazio Libreetarako lurzoru politika eta antolamendua:
 - Elorregiko (San Prudentzio) eta Besaideko hiri-inguruko parkeak antolatzea.
 - Ibilbide bigunen sarea antolatzea (oinezkoentzako ibilbideak eta bidegorriak)

LZP-k ere Elorregiko (San Prudentzio) ingurua, plangintzak koordinatzeko eta bateragarri egiteko esparrutaz hartzen du, Bergara, Oñati eta Arrasateko udal-plangintzei eragiten diena.

2.3. LURRALDEAREN ARLOKO PLANAK (LAP)

2.3.1. EAeko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

1998ko abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuaren bidez onartu zen LAP hau. LAP honetan biltzen den araudiak berriazko gutxienezko erretiroa ezartzen du ubideetatik (mugabanaketa lerro edo ubiderapenetik) urbanizaziorako eta eraikuntzarako, betiere ingurumenaren eta hirigintzaren arloko osagaien arabera definitutako kategoriak kontuan izanik eta arloak definitzen duen ibai-tartearen kategoria aintzat hartuta.


Bestalde, Lurzoru Hiritarrezinean, 'Gainazaleko Uren Babesa' kategoria LAP-ean ezarritako babes banden arabera zehaztuta dago, Arrasateko udalerria zeharkatzen duten uberka bakoitzerako.

Arrasateko udalerria Deba ibaiak zeharkatzen du, zeina, LAP-k ezarritakoaren arabera, 'II' eta 'III' kategoriei dagokie osagai hidraulikoari jarraiki, (Aramaio ibaiarekin elkartzen den gunetik gora II kategoria, eta elkargunetik behera III kategoria), 50 eta 100 km² bitarteko arlo isurlearen azalera duten ibai-tarteak eta 100 eta 200 km² bitartekoak hurrenez hurren.

Aramaio eta Urkulu ibaiei berriz, 'I' kategoria dagokie Arrasate zeharkatzen edo mugatzen dituzten tarteetan, 10 eta 50 km² bitarteko arloa, alegia.

Jarraian aipatzen diren ur-ibilguak '0' kategorian daude ezarrita, 1 eta 10 km² arroa dutenez: Arroagako erreka (Etxebarri erreka), Kobateko erreka, Gazeagako erreka eta Meatzerreka, lauak Aramaio ibaiaren ezkerretatik datozen ibai-adarrak; Antonina erreka eta Epelerreka, biak Deba ibaiaren ezkerretatik isurtzen dutenak; Errekabarreneta (Zabale erreka) eta Azuelako erreka (Azerizuluetakoko erreka), Urkulu azpi-arroan isurtzen dutenak.


Lurraldearen Arloko Planak '00' mailan kokatzen ditu udalerriko sare hidrografikoko gainerako elementuak, hau da, 1 km² baino arro txikiagoa.



	III maila: 100 eta 200 km ² bitarteko arro isurlea
	II maila: 50 eta 100 km ² bitarteko arro isurlea
	I maila: 10 eta 50 km ² bitarteko arro isurlea
	0 maila: 1 eta 10 km ² bitarteko arro isurlea

*ITURRIA: EAEko Ibai eta Erreketako Ertzen Antolamendurako Lurraldearen Arloko Plana.
Ertzak antolatzeko mapak: osagai hidrologikoa. Egilea: Ekolur*


Hirigintza-osagaiaren arabera, Lurraldearen Arloko Planak Deba eta Aramaio ibaien ertzak kategoria hauen arten banatzen ditu: eremu garatuetan dauden ertzak, hirigintza garapen berriak izan ditzaketen ertzak, hiriarteko komunikabideen azpiegiturek hartutako ertzak, edo landa-eremuko ertzak. Azken hauek tarte txikietan mantentzen dira. Landa-eremuko ertza luzeena Debaren eskubialdeko ertza da, Musakola eta Elorregi artean luzatzen dena. Urkulu arroan berriz, landa-eremuko ertzak dira nagusi, baita gainontzeko azpi-arroetan, Epelerrekaren ezkerretako ertza izan ezik.



	Eremu garatuetan dauden ertzak
	Hirigintza garapen berriak izan ditzaketen ertzak
	Landa-eremuko ertzak
	Hiriarteko komunikabideen azpiegiturek hartutako ertzak

*ITURRIA: EAEko Ibai eta Erreketako Ertzen Antolamendurako Lurraldearen Arloko Plana.
Ertzak antolatzeako mapak: hirigintza osagaia. Egilea: Ekolur*

Ingurumen-osagaiaren arabera, berriz, Lurraldearen Arloko Planak hainbat tarte sartzen ditu ondo kontserbatutako landaredia duten ertzen kategorian, eta Kobate erreken tarte luze bat sartzen du lehentasunezko interes naturalistikoa duten zonetako ertzen barruan.



	Berreskuratze beharreko ertzak
	Landaretza egoera onean duten ertzak
	Lehentasunezko interes naturalistikoko guneen ertzak

*ITURRIA: EAEko Ibai eta Erreketako Ertzen Antolamendurako Lurraldearen Arloko Plana.
Ertzak antolatzeako mapak: ingurumen osagaia. Egilea: Ekolur*

Aldez aurretik nabarmendu behar da hirigintza osagarriaren kasuan LAP onartu zeneko garaian egindako ertz-banaketan aldaketak egon direla udal-plangintzaren aldetik eta zenbait esparru garatuak izan dira dagoeneko, edota landa-eremuak ziren lurzorua hiritargarriak bihurtu direla gaur egun. Ingurumen osagarriaren atalean ere eguneratu beharko litzateke LAP-k azaldutakoa, zenbait kasutan egoera aldatu delako.

Hori kontuan izanda, hauek dira LAP-ean ezartzen diren gutxieneko erretiroak hirigintza-osagaiaren arabera:

Landa-esparruko ertzetan, ibilgu publikoaren mugaren marrantik honako gutxieneko erretiro hauek aplikatuko dira:

- 50 m Deba ibaiaren ertzetan, Aramaio ibaiarekin elkartzen gunetik behera (III mailako tartek).
- 30 m Deba ibaiaren ertzetan, Aramaio ibaiarekin elkartzen gunetik gora (II mailako tartek), eta bai Urkulu bai Aramaio ertzetan (I mailako tartek).
- 15 m '0' mailako erreka ertzetan (Arroagako erreka, Kobateko erreka, Gazeagako erreka, Meatzerreka, Antonina erreka, Epelerreka, Errekabarreneta eta Azuelako erreka)
- Gainontzeko ubideetan, 1 km² baino arto txikiagoko isurketetan edo ur-ibilguetan ('00' mailako tartek), Uraren Legean ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

LAP-ak ezarritakoari jarraiki, "erretiro horiek lurralde naturala aldatzeko edozein esku hartzetan aplikatu behar dira, salbu-eta nekazaritza eta basoko lanei lotutakoetan, herri-lan eta azpiegitura instalazioetan, edo ondare kulturala babesteko jardueretan, behar bezala justifikaturik daudenean".

Lurraldearen Arloko Planaren F.1. Landa-esparruko ertzetarako berriazko araudia atalean, ezarritako erretiroei buruzko zehaztapenak hartzen dira barnean, baita lehentasunezko interes naturalistikoko zonetako ertzei edo ondo kontserbatutako landaredia duten ertzei buruzko zehaztapenak ere.

Garatutako eremuetan, LAP-ren F.3 Garatutako eremuetako ertzetarako berriazko araudia atalean zehazten denez, gutxienerako erretiro hauek ezartzen dira:

Ubide-tartearen mailak	Adar-arroaren azalera (km ²)	Gutxienerako eraikuntza-erretiroa metrotan	
		Mugabanaketa-lerro edo ubiderapen zehatzarekin	Mugabanaketa-lerro edo ubiderapen zehatzik gabe
III	100 < A < 200 km ²	12 m.	16 m.
II	50 < A < 100 km ²	10 m.	14 m.
I	10 < A < 50 km ²	10 m.	12 m.
0	1 < A < 10 km ²	10 m.	12 m.

Hiri-garapen berriak egiteko potentziala duten eremuetako ertzetarako kasuetan, LAP-ren Araudiaren F.4 atalean zehazten dira gutxienerako erretiroak, bai eraikuntza bai urbanizaziorako.

Ubide-tartearen mailak	Adar-arroaren azalera (km ²)	Eraikuntzaren gutxienerako erretiroa (m)	Urbanizazioaren gutxienerako erretiroa (m)
III	100 < A < 200 km ²	20 m.	8 m. (10 m.)*
II	50 < A < 100 km ²	16 m.	6 m. (8 m.)*
I	10 < A < 50 km ²	12 m.	2 m. (4 m.)*
0	1 < A < 10 km ²	12 m.	2 m. (4 m.)*

* Hirigintza-garapen berriak egiteko potentziala duten eremuetako ertzen hirigintza-zona 'ondo artatutako landaredia duten ertzen' ingurumen osagaiarekin bat etorriko balitz, gutxienerako urbanizazio-erretiroaren parametroa koadroan parentesiz artean adierazitako zenbakira arte zabaldu ahal izango da, erriberako landaredia artatzea ahalbidetzeko helburuarekin.


Lurraldearen Arloko Plan honen 1. Berrikuspena gaur egun ari da izapidetzen: dokumentuak hasierako onarpena, hurrenez hurren, 2007ko urriaren 29an eta 2008ko apirilaren 2an jaso zuen. Berrikuspeneko dokumentuak dakarren berrikuntza azpimarragarrienerako bat da urperagarritasun mailaren arabera lurzuaren erabilerrako irizpideak ezartzen dituela. Irizpide hauen arabera, 10 eta 100 urteko birgertatze-aldirako urperagarriak diren eremuen baitan hirigintza-jarduera batzuk mugatuak geratzen dira, uholde-arriskua saiheste aldera.

2.3.2. Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

Jarduera ekonomikoak garatzeko lehentasunezko kokapen-ildoak aztertzen diren atalaren barruan, Jarduera Ekonomiko eta Ekipamendu Komertzialetarako Lurzoruaren Sorkuntza Publikoari buruzko LAP-k Arrasateko udalerrria 'Jarduera Ekonomikoetarako Lehentasunezko intereseko udalerrri' gisara sailkatzen du, hain zuzen ere Deba eta Aramaio bailaren inguruan zehaztutako esparruan.

'Lehentasunezko interesa' duten udalerrri hauentzako, dagokien alde-egiturarako LAP-ren lurralde-ereduari jarraituz, jarduera ekonomikorako lurzoruen hirigintza-arloko antolamendu, kudeaketa eta sustapenerako politika proposatzen da.

- Okupatutako lurzoru finkatuak hobetzeko oinarritzeko politika.
- Zaharkitutako industria-eremuak birmoldatzeko plan berezia, enpresak lekualdatzeko eta hutsik dauden espazioak jarduera berrietarako berreskuratzeko erraztasunak emanez.
- Industria-kalifikazioa duten okupatu gabeko lurzoruak garatzeko plan berezia, egungo poligonoak bultzatuz, desblokeatuz eta sustatuz.
- Planean interes estrategiko orokorrekotzat hartutako guneetan jarduera ekonomikoetarako lurzoru berrien eskaintza publikoa sortzeko politika berezia.



Mapa 8.3. Proposamenen laburpena

ITURRIA: Ekonomia-jardueretarako lurzoru publikoa eta merkataritza-ekipamenduak sortzeko Lurraldearen Arloko Plana.

LAP honek udal plangintza berrikusteko prozesuetarako, lurzoru kalifikazioari buruzko honako irizpideak proposatzen ditu:

- “Gaur egun ‘industriarako’ edo ‘jarduera ekonomikoetarako’ kalifikatutako lurzoruak ‘bizitegirako’ edo antzeko erabilerarako birkalifikatzeko prozesuak onartzea soilik aldez aurretik eta dokumentu egokien bidez justifikatzen denean ezintasun teknikoa, ekonomikoa edo hirigintza-arlokoa dagoela hautabidezko hirigintza-eragiketa bat planteatzeko, lurzoru horiek jarduera ekonomiko berriak hartzeko eremu gisa birmoldatzekoa, dagokion aparkaleku-zuzkidurarekin hornituta. (...)”.
- “‘Industria-lurzoruaren’ edo ‘ekonomia-jardueretarako lurzoruaren’ hirigintza-kalifikazioa aldatu eta ‘bizitegi-lurzoru’ edo ‘zuzkidura-lurzoru’ gisa kalifikatzeko prozesu berriak tramitatzeko, betiere, aldi berean udalerrian edo eskualde-egituran hiri-plangintzari ‘ekonomia-jardueretarako’ lurzoru berriaren azalera baliokidea gehitzeko eskaera”.
- “Azkenik, LAP honek ‘ekonomia-jardueretarako’ kalifikazioa duten lurzoruak beste erabilera alternatibo batzuetarako birkalifikatzea aholkatzen ez dueneko lurzoru-eskuragarritasun txikiagoa duten (...) eskualde-egituretan (bereziki (...) Debagoienean (...)) jarduera ekonomikoaren euskarri den lurzoru urria irauarazteko asmoz, industria-eremu zaharkituak birmoldatzeko burutzen diren prozesuak lehentasunez ekonomia-jardueretarako eta zuzkidura edo bizitegi gisako eraikuntzarako eragiketa mistoetarantz bideratzea”.

Proposamen zehatzen artean LAP honek Arrasateko udal plangintzari eragiten dizkion honako jarduerak aurreikusten ditu:

- Deba Goieneko enpresei zerbitzu egiteko eta jarduera aurreratuetarako parke berria: ‘Garaia’ eragiketa, gaur egun garapen-fasean (25-50 ha).
- Debagoieneko eskualde-mailako poligono berria: Arrasateko eremu garaietan, haranetako hondoetako kanpoko eremuetan alternatiba kokatzeko eta bideragarritasuna finkatzeko azterlana, Autobidea [Beasain-Durango] eraikitzeko obren jardun osagarri gisa (10-25 ha).

Merkataritza-ekipamenduen kokalekuari dagokionez, Lurraldearen Arloko Planak “B” kategorian (‘eskualde-zentraltasuneko udalerria’), sartzen du Arrasate, eta kategoria horietako udalerrietan erabilera horretarako azalera ertainak ezartzeko aukera ezartzen du. Honako zehaztapenak finkatzen ditu:

- Plataforma berdinduaren gehienezko azalera garbia: 40.000 m²
- Eraikitako gehienezko sabai-azalera: 13.000 m²

2.3.3. EAEn Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana.


Euskadiko Autonomia Erkidegoan, Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko. Aipatutako Dekretuak LAP-k eragindako lurzoruari buruzko zehaztapenak biltzen ditu, baita horien iraunaldia, berrikuspena eta aldaketa, jardueren erregimen juridikoa, trenbide ondoko guneen babesa eta guneok erabiltzeko eta bertan eraikitzeko baldintzak eta abar ere.

LAP-k Xedapen iragankorrean zehazten duenez *“1. Erabakietan aurreikusi bezala hirigintza antolamenduko egiterapideak nahitaez doitzeko lana, argitaratu egunetik harako urtebeteko epean burutu beharko da.” eta “2. Nolanahi ere, LAP indarrean jartzen denean planeamendua berrikusten ari diren udalek prozedura horren barruan egin beharko dute doitze hori.”*

Trenbide Sare Berriaren azpiegitura burutu ondoren LAP honek zehazten du ‘Trenbide Erabilerako Komunikazio Sistema Orokorra’ kalifikazio barnean egokitu behar diren esparruak. Hala dio LAP-k Dekretuaren 18. artikuluan. Definizioa:

- *“3. Trenbide Sare Berriaren azpiegitura buruturik, trenbideko lur berdinketak hartutako lursailek, haren elementu funtzionalek eta ustiapen egokirako beharrezko instalazioek osatzen dute Trenbide Erabilerako Komunikazio Sistema Orokorra, bai eta zortzi (8) metroko zabalerako eremu batek, hirigarri eta ez-hirigarri gisa sailkatutako lurzoruan, eta hiri lurzoruko bost (5) metroko beste eremu batek ere (...).*
- *4. Zubi, zubibide eta antzeko egitura eta obren kasu berezietan, obrek lurrarekiko eratzen duten proiektzio lerro bertikala hartuko da kanpoko ertzatzat. Egituraren euskarriek hartzen duten lurra jabari publikokotzat hartuko da kasu orotan.*
- *5. Tunelen kasu berezietan, jabari publikoko esparruak eta horren segurtasun esparruak zehazteko xedez, haien egituraren kanpoko lerroa hartuko da lur berdinketaren lerrotzat. Trenbide Erabilerako Komunikazio Sistema Orokorra zehaztean, haien sarrera eta irteeraren aldameneko guneak baino ez dira hartuko jabari publikokotzat, irizpide geoteknikoen arabera segurtasuna bermatzeko moduko distantzia aldagarrian eta luzetara (‘LD’), kasu bakoitzean dagokion trazadurarekiko. (...).”*

Trenbide sare berriak Arrasateko udal-plangintzari eragiten dio, zeren eta Abiadura Handiko Trenaren trazadura Udalalaitz aldetik sartzen da udalerrian eta Kobate mendebaldetik Aramaio aldera jarraitzen du. Arrasateri dagokion trazaduraren zati gehiena lur-azpian eraikiko da tunelen bidez, gainontzekoa, 95 m. eta 976 m. luzeko bi tarte lur-berdinketa bidez.



ITURRIA: EAEko eremuan Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana.Irudiaren egilea: Ekolur

2.3.4. Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

Lurraldearen Arloko Plan honen behin-behineko onespeneko dokumentuak honako antolamendu-kategoria hauek finkatu ditu Arrasateko lurzoru hiritarrezinerako:

- **Mendia:** suprakategoria honetan, zuhaitz, zuhaixka, sastraka edo belar espezieak dauden landa lurrak sartzen dira, baldin eta laborantzari ez badagozkio eta parke eta lorategi urbanoetan ez badaude.

Mendia suprakategoriaren barruan, udalerrian dauden kategoriak 'Larre menditarra-harkaitzak', 'Larre menditarra', 'Basoa-mendi urria' eta 'Basoa' izenekoak dira.

- **Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala:** kategoria honetan askotariko nekazaritza-ahalmena duten lurzoruak biltzen dira. Udalerraren zenbait mendi-bizkar eta muinoetan kokatzen diren hainbat gune sartzen dira kategoria honetan, batez ere Bedoña, Udala eta Atxabalgo inguruetan.

- Horien artean malda handiagoa duten lursailak 'Trantsiziozko landa-paisaia' azpikategorian sartu ditu LAP-k gehienbat.
- Bestalde, eremu txiki batzuk 'balio estrategiko handia' azpikategorian sailkatu ditu LAP-k.

- **Ingurumenaren hobekuntza:** eremu andeatuak dira, lurzoru gutxikoak edo higadura arrasto handia dutenak, non lehenbailehen ekosistema berrezarri eta hobetzeko lanak egin behar diren, baliabidea galtzen jarraitzea saihesteko.

Gainontzeko azalera hiri-lurzoru eta lurzoru hiritargarriari dagokie, 2008ko 'Udalplan' datuak erabilita (Ekutio kategoria honetan horregatik azaltzen da). Kategoria honetan Bizitegirako lurzoru, ekonomia-jardueretarako lurzoru, zuzkidura-lurzoru eta azpiegiturak batzen dira, eta 478 ha inguruko azalera betetzen dute.

Nekazaritza eta abeltzaintza antolatzeko LAParen antolamendu-kategoriak. Arrasateko udalerria			
Kategoriak eta azpikategoriak		Azalera (ha)	Udalerriko azalaren %a
Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala	- Balio estrategiko handiko lurzoruak	17,8	% 0,5
	- Trantsizioko landa-paisaiako lurzoruak	407,9	% 12,2
Mendia	- Larre-menditarra-harkaitzak	106,9	% 3,2
	- Larre menditarra	12,4	% 0,4
	- Basoa-mendi urria	18,0	% 0,5
	- Basoa	2.301,3	% 68,7
Ingurumen hobekuntza		6,6	% 0,2

- **Baldintzatzaile gainjarriak:** Lurralde Antolamendurako Artezpideek (LAA) Antolamendu Kategorien gainera jarduten duten zenbait Baldintzatzaile Gainjarri definitzen dituzte, kasuan kasu aurkezten den ingurumen-arriskuaren arabera zenbait jarduera garatzeko modua mugatu ahal izateko.

LAP honetan erabilitako Baldintzatzaile Gainjarri hauen sistematizazio orokorra hurrengoa da (LAP-ren 10. eta 13. ataletan zehazten dira bai horiek mugatzeko irizpideak bai eremu horietako erabilera-irizpideak ere):

- Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna
- Higadura jasateko arriskua duten tokiak
- Erabilera Publikoko Mendiak eta Mendi babesleak
- Interes naturaleko tokiak
- Pasabide ekologikoak
- Paisaia gutxi aldatu den eremuak

Gainjarritako baldintzatzaile gehienak udalerraren iparraldean zabaltzen dira, zehazki hirigunetik iparreko norabidean, akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna izan ezik, eremu horiek udalerrri hegoaldera ere zabaltzen dira eta.

Nekazaritza eta abeltzaintza antolatzeko LAParen gainjarritako baldintzatzaileak. Arrasateko udalerria		
Gainjarritako baldintzatzaileak	Azalera (ha)	Udalerriko azaleraren %a
Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna	767,1	% 22,9
Higadura jasateko arriskua duten tokiak	146,4	% 4,4
Erabilera Publikoko Mendiak	91,1	% 2,7
Interes naturaleko tokiak	320,6	% 9,6
Pasabide ekologikoak	961,2	% 28,7

Orokorrean, eta eremu hauetan aplikagarria den araudiak ezarritakoaren ildo beretik, udal plangintzak aukera izango du baldintzatzaile gainjarri hauek eragindako eremuak tokiko eskalara doitzeko, eta era berean izendatutako eremu eta baliabide hauengan jardueraren batek eragin negatiboren bat izan ez dezan ziurtatzeko beharrezko neurriak ezarriko ditu.

Txosten honen 4. atalean, LAP honek proposatzen duena lurzoru hiritarrezinaren zonifikaziorako hautabideetariko bat izanda, zehaztasun handiagoz azaltzen dira aipatutako eremurako pentsatutako antolamendua.

2.3.5. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana





Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak, 2011ko maiatzean behin-behineko onarpena jaso duenak, Gipuzkoako bizikleta bideen oinarritzko sarea sortzea proposatzen du, gaur egun zati batean gauzaturat dagoena. Oinarritzko sarearen helburua da hiri-izaerako eta hiriarteko eguneroko joan-etorrietan bizikleta eta oinezkoen erabilera integratzea eta, horrela, motorrik gabeko mugikortasuna indartzea eta sendotzea.


Gipuzkoako bizikleta bideen oinarritzko sareak izaera egituratzailea du, Lurralde Historikoko eskualde eta eskualde-egitura guztiak zeharkatzen eta lotzen baititu. Guztira 439 km-ko luzera du eta bederatzi ardatz nagusi ditu. Horietako bat, 4. ibilbidea zehazki, 'Deba bailara'n zehar bideratzen da, 65 km luze duen tartea Deba hirigunea eta Leintz Gatzaga lotuz, eta Arrasateko udalerria zeharkatzen du. Ibilbide honi adar bat ere esleitu zaio, I-4.3 'Arrasate – Arrasate (Gesalibar)' izeneko, Arrasateko hirigunea eta Gesalibar auzoa lotzen dituen.

GBBLAP bakar-bakarrik Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarritzko Foru Sarearen (GBBOFS) tarte, adar eta elementu funtzionalei dagokie indar loteslez. Halaber, GBBLAP honen arauen atalak erabilerak arautzeko proposamena egiten du, eta ezartzen du ezen udalerriek, bere plangintzak egitean, Bizikleta bidezko Komunikazio Sistema Orokor kalifikazioa atxiki behar dietela, ezinbestean, bizikleta bide horiei.

Oinarritzko Sarearen konektagarritasuna bermatzeko, bideak igarotzen diren udalerrietako sarrera eta irteera puntuak ezartzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta puntu horiek lotzen dituzten udal sareetako hiribarneko ibilbideak proposatzen ditu. Trazadura horiek osatuko dute Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarritzko Udala Sarea (GBBOUS). Oinarritzko Udala Sarearen proposamena hor bada ere, udal administrazioei kontsultatu ostean beste zerbait adostu daiteke. Oinarritzko Udala Sareari dagokionez, GBBLAPak gomendio mailako jarraibide ez lotesleak proposatzen ditu, hainbat alderdiren kasuan izan ezik, hiriarteko tarreekiko lotura puntuen kasuan esaterako.

Arrasateko kasuan, honako proposamena jasotzen du GBBLAP-k.

Udalerria: ARRASATE			
Titulartasuna	Dagokion maila	Luzera (m)	Ebazpen-mota
Oinarritzko Foru Sarea (GBBOFS)	Burututako Oinarritzko Foru Sarea (BOFS)	69	 Loteslea
	Planifikatutako Oinarritzko Foru Sarea (POFS)	2.183	 Loteslea
		2.487	 Iradokizuna
Oinarritzko Udala Sarea (GBBOUS)	Burututako Oinarritzko Udala Sarea (BOUS)	2.686	 Gomendatua
	Planifikatutako Oinarritzko Udala Sarea (POUS)	4.021	 Gomendatua



ITURRIA: Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana. Behin-behineko Onespeneko dokumentua.

2.3.6. Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegiturak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegiturak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren helburu orokorrak hauek dira: batetik, Gipuzkoako hiri-hondakinen etorkizuneko kudeaketa lortzeko beharrezko azpiegituren kokalekuaren aurreikuspena jasotzea, betiere arazuko esparruan barne hartzen diren Europako, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko prestakuntza-dokumentuetan ezarritako iraunkortasun-irizpideei jarraituz; eta, bestetik, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralean finkatutako helburuei erantzutea.

Lurraldearen Arloko Planaren aurrerapen-dokumentuak ez du Arrasateko udalerrian hiri-hondakinatarako azpiegiturarik proposatzen.

2.4. GARAPEN IRAUNKORRAREN EUSKAL INGURUMEN ESTRATEGIA (2002-2020)

2002. urtean onartu ziren Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020) eta Ingurumeneko Esparru Programa (2002-2006). Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan 2020ra arte bete beharreko 5 ingurumen-helmuga finkatu ditu Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak:

1. Aire, ura eta lurzoruko garbiak eta osasungarriak bermatzea.
2. Natura-baliabideak eta hondakinak arduraz kudeatzea.
3. Natura eta biodibertsitatea babestea.
4. Lurralde-oreka eta mugikortasuna: ikuspegi komuna.
5. Klima-aldaketaren eragina mugatzea.

4. helmugak lotura zuzena du hiri-plangintzarekin. Helmuga horren barruan honako helburu hauek planteatu dira:

1. helburua: lurraldearen erabilera iraunkorra lortzea. Helburu hori alderdi hauetan zehazten da: finkatutako hiri berritzea eta birgaitzea; hiri-eremuen bizi-kalitatea eta diseinu erakargarria hobea dadin sustatzea; eta hiri-plangintza lurralde-antolamenduko tresnen helburuetan eta iraunkortasun-irizpideetan integra dadin sustatzea.

2. helburua: askotariko erabilera eta jardueretarako (bizitegia, ekonomia-jarduerak eta aisialdia) garapen iraunkorra ahalbidetuko duen irisgarritasuna lortzea. Mugikortasuneko beharrak murriztu egin dira eta,

horrela, motor bidezko mugikortasun-eskaria gehitzea ekarriko duten hirigintza-jarduerak eta -erabilerak saihestu ahal izango dira.

3. helburua: garapen ekonomikoa eta motor bidezko garraiobideen gehikuntza orokorra bereiztea. Ingurumen-inpaktu txikiagoko garraiabideak sustatzea eta motorrik gabeko garraiobideak eta motordunak parekatzea lortu nahi da.

2007. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Bigarren Esparru Programa onartu da (2007-2010), "etorkizuna diseinatzen". Ingurumeneko Bigarren Esparru Programa horrek bi helburu estrategiko ezarri ditu 4. helmugan:

- 8. helburu estrategikoa: mugikortasuna kudeatzeko eredu berrirantz.
- 9. helburu estrategikoa: lurraldearen erabilera orekatua lortzea.

Beste alderdi batzuen artean, Arrasateko Plan Orokorraren aurrerapen-dokumentua bat dator helburu estrategiko horietan planteatutako jardun-ildoetako batzuekin. Testuinguru honetan, Planaren honako alderdiak nabarmen daitezke:

- Lurzoruaren kontsumoa mugatzea, gune finkatua osatzeko jardunen bitartez.
- Aurretik dagoen gunean oinarritutako hiri-garapenaren aldeko hauta egitea, eta, hortaz, lurzoruaren kontsumoa murrizteko beharraren eta udalerrriaren ezaugarrien arabera definitu bolumentrikoaren arteko oreka bilatuko duten eraikigarritasunak ezartzea.

2.5. INGURUMEN-LEGEDIA

Ondoren, Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra berraztertzean kontuan izan beharko den ingurumen-legeria jasotzen da:

2.5.1. Ura

- o 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- o Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudia, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretu bidez onartua (103 zk. BOE), eta maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuak aldatua.

2.5.2. Ingurumen-zarata

- o 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa.
- o 1513/2005 Errege Dekretua, abenduaren 16koa, 37/2003 Legea garatzen duena ingurumen-zarataren ebaluazioari eta kudeaketari dagokionez.
- o 1567/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, 37/2003 Legea garatzen duena zonifikazio akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokionez.

Europar Batasunak ekainaren 25eko 2002/49/CE Zuzentaraua, ingurumeneko zarataren ebaluazio eta gestioari buruzkoa ('Ingurumeneko Zaratari buruzko Zuzentaraua'), indarrean jartzearen ondorioz – derrigorrez estatu kideetara lekualdatu beharrekoa–, azaroaren 17ko Zarataren 37/2003 Legea formulatu da.

Kutsadura akustikoa prebenitu eta zuzentzeari dagokionez, Legeak adierazten du *“bai lurralde plangintzak bai hirigintza plangintzak kontuan izan behar dituztela beti kalitate akustikoari lotutako helburuak lurzoruaren edozein sailkapeni, plangintza onarpenari edo antzeko neurriei ekiterako orduan”*. Prebentziozko jardura gisan, baita ere, Legeak ezartzen du *“salbuespenak salbu, etxebizitza, ospitale, hezkuntza edo kultura helburuetara zuzendutako eraikinak egiteko lizentziak emateko debekua, baldin eta inmisio indizeek ez badituzte betetzen dagozkien eremu akustikoetan aplikatu beharreko kalitate akustikoko helburuak”*.

2.5.3. Lurzoruaren poluzioa

- 1/2005 Legea, otsailaren 4koa, lurzoria ez kutsatzekoa eta kutsatutakoa garbitzekoa.

Kutsaturik egon daitezkeen lurzoruei dagokienez, udal plangintzak kontuan izan beharko du 3/1998 Ingurumena Babesteko Lege Orokorreko 83 eta 84.2 artikuluetan eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legean, batez ere IV. Kapituluan, ezarritakoa.

1/2005 Legearen 17. artikulua adierazten du noiz den derrigorrezkoa, eta zein den jarraitu beharreko prozedura, 'Lurzoruaren Kalitateari buruzko Adierazpen' bat egiteko. Ildo horretan, Legeak 17. artikuluan adierazten duenez, "kutsagarria izan daitekeen jarduera edo instalazioren bat jasandako lurzoru baten edozein kalifikazio aldaketa" dela eta, artikulua horretako 8. atalean azaltzen den salbuespenik aplikatu ezin bazaio, lurzoru horren kalitateari buruzko adierazpena behin betiko onartu baino lehen eskatu beharko da.

Legearen III. kapitulua lurzoruaren kalitatea ezagutu eta kontrolatzeko behar diren tresna teknikoak zehazten ditu; eta baita tresna horiek izan beharreko edukia eta norainokoa finkatu ere. Legearen IV. kapituluak administrazio prozedura taxutzen du Autonomia Erkidegoko ingurumen organoak lurzoruaren kalitatea zein den adieraz dezan.

2.5.4. Biodibertsitatea

- 16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duena. Lege horren garapeneko xedapenen artean daude arriskuan dauden espezieak eta espazio natural babestuen sarean integratzen diren elementuak kudeatzeko planen xedapen erregulatuak.
- 92/43/EEE Arztearaua, Kontseiluarena, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basafauna eta basafloa kontserbatzeari buruzkoa.

2.5.5. Mendiak

- 43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, mendiei buruzkoa.
- 7/2006 Foru Araua, Gipuzkoako mendiei buruzkoa.

2.6. AZTERTUTAKO ESPARRUAN ERAGINA IZAN DEZAKETEN BESTE PLAN BATZUK

Arrasateko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrearen Berrikuspena lantzean honako plan hauen zehaztapenak ere hartu dira kontuan:

- o Herriko mugikortasunaren ikerketa. Arrasate-Mondragon. Analisia eta diagnostika².
- o Plan de Sostenibilidad (2002-2020). Arrasate y el Desarrollo Sostenible³.
- o Arrasateko Tokiko Agenda 21. Diagnostikoa eta Ekintza Planaren II errebisioa⁴.
- o Arriskuan dauden Flora eta Fauna Espezieen Euskadiko Zerrenda.
- o Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarearen proiektua.
- o Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaia Berezien eta Bikainen Katalogoaren proiektua.
- o Euskal Autonomia Erkidegoko uholdeen prebentziorako plan integrala eta berau berraztertzen duten ondorengo azterlanak.

² Intra. Ingeniería de tráfico s.l. 2005ko apirila.

³ Juanjo Gabiña y Juan Luis Moragues. SWPI&MAS abogados. Octubre 2006.

⁴ Udalsarea 21. Equipo consultor: Haizea Ikerketa, S.L. Diciembre 2008 - marzo 2010

3. PLAN OROKORRAREN ERAGINPEAN DAGOEN ESPARRUAREN INGURUMEN ARLOKO DIAGNOSTIKOA, ANALISIA ETA BALORAZIOA

Kapitulu honek Arrasateko udalerraren ingurune fisiko eta sozialaren eta bertako biztanleen azterketa xehatua jasotzen du.

3.1. JARDUN-ESPARRUA

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Berrikuspenaren jarduera-esparrua Arrasateko udalerrri osoa da, 34 km² inguruko azalera duena.

3.2. KOKALEKUA

Arrasateko udalerrria Gipuzkoako Lurralde Historikoaren mendebaldean kokatzen da, Bizkaiako Lurralde Historiakoarekin mugan iparraldetik eta Arabako Lurralde Historikoarekin mugan mendebaldetik. Udalerrria Deba Garaia eskualdean sartzen da, bai eta Deba Garaia Eskualde Egituran, beste zortzi udalerrirekin batera.



Irudia: Arrasateko Udalerraren kokapena Gipuzkoako Lurralde Historikoan. Egilea: Ekolur

34 km² inguruko azalera du eta Deba ibaiaren bailaran kokatzen da, zehazki Aramaio eta Deba ibaien elkargunean. Itsas mailaren gainetik 223 m-ra dago. Iparraldean Elorrio eta Bergara udalerriekin du muga, ekialdean Oñatirekin, hegoaldean Aretxabaletarekin eta mendebaldean Aramaioarekin.

Hiriburuetatik distantzia hauetara dago:

- Donostia, 78 Km
- Gasteiz, 39 km
- Bilbo, 48 km
- Iruña, 109 km

3.3. OROGRAFIA

Arrasateko udalerrria Aramaio eta Deba ibaiek osatzen duten ardatzen inguruan hedatzen da, nahiz eta Epele eta Urkuluko arroen zati bat ere hartu. Ibai-bailara hauen hondoa laua eta estua izan ohi da, eta orografia malkartsuagoa izatera pasatzen da maldan gora egin orduko. Herria inguratzen duten mendien artean aipagarriak dira Udalatx (1.117 m), Murugain (778 m) eta Kurtzetxiki (532 m).

Udalerriko orografia hobe ezagutzeko, bere azalera lurzoruak duen maldaren arabera sailkatu eta malda-tarte bakoitzaren azalera kalkulatu da⁵.

Malda tartea (%)	Azalera (ha)	Udalerrriaren %	Malda tartea (%)	Azalera (ha)	Udalerrriaren %
0-10%	309	9,2%	30-50%	1.389	41,5%
10-20%	203	6,1%	50-75%	900	26,2%
20-30%	412	12,3%	>75%	135	3,9%

Malda txikiko lurrak (%0-10 bitartekoak) ez dira Arrasaten ugariak, batik bat ibarretara mugatzen direlako. *1. plano*a: Orografia-n ikus daitekeenez, lurzoru hiritar eta hiritargarriaren barruan kokatzen dira orokorrean, hirigintzarako aproposenak baitira.

Haranen erdi alturako lurretan klase guztietako malda-mosaiko bat agertzen da, malda ertainak (%20-50) beti ere nagusi direla, udalerrriaren azaleraren erdia baino gehiago okupatuz. Bestalde, esanguratsua da toki hauetan malda altuek (%>50) duten hedapen zabala, higadura arrisku handiko eremuak izanda. Malda altuenak ordea, %75etik gorakoak, Udalako, Epeleko eta Murugain ingurutara mugatzen dira batik bat, nahiz eta udalerrri osoan han-hemenka ere agertzen diren.

3.4. EZAUGARRI GEOLOGIKOAK

Arrasateko udalerrria Euskal-Kantauri mendilerroan dago, Euskal Arku barruan eta Bizkaiako antiklinorioaren egitura multzoan. Egitura multzo horretan, Yurreko unitatearen barruan dago, Udalako sektorean hain zuzen.

Ikerketa eremua honako gai litologiko hauek osatzen dute:

- Lutitak
- Kareharriak
- Margakareharriak
- Arbelak
- Alubialak
- Hareharriak

Herriko eraikuntza gehienak ibaien inguruko lur alubialetan kokatuta egon arren, udalerriko lurren zatirik handiena Konplexu Gainurgondarreko lutitek osatzen dute. Lutitez gainera, Konplexu bereko hareharri eta margak ere azaltzen dira han-hemenka. Bestalde, kareharri Urgondarrek Arrasateko bailara Ipar-Mende/Hego-Ekialde norabidean zeharkatzen dute Udalaitzetik hasita, eta Purbeck-Weald Konplexuko arbelak ere agertzen dira Udalerriko mendebaldean.

Ezaugarri litologikoen, lurzoruen emankortasuna baldintzatzeaz gainera, hidrologiaren funtzionamenduekin ere badute zerikusirik. Kontuan izan behar da gai batzuk besteak baino iragazkorrakoak direla, eta lur gaineko urak lurpeko akuiferoetara bideratzearekin batera, lurrazaleko kutsadura akuifero horietara zabalduta daitekeela. Gure kasuan, arreta berezia kareharriei jarri behar zaie, iragazkorrenak direla eta, eta margakareharri eta alubialei ondoren.

Material litologiko bakoitzaren hedadura eta kokapena *2.plano*a: Ezaugarri geologikoen azaltzen dira.

⁵ Iturria: Foru Aldundiko LIDAR datuak, GIS softwarea erabiliaz. Egilea: Ekolur.


3.4.1. Interes geologikoa duten eremuak

Arrasatek interes geologikoko gune bat du, Udalako konplexu karstikoa. Udalerriko ipar-mendebaldeko mugan dago kokatua, eta inguruko tontorrik nabarmenena izateaz gain, bere geomorfologia dela-eta da berezia; ageriko zein estalitako lapiazak baititu.

3.5. LURZORUAK ETA AHALMEN AGROLOGIKOA

Gipuzkoako Mota Agrologikoen Mapak (Gipuzkoako Foru Aldundia, 1987) ahalmen agrologikoaren eta lurra lantzea mugatu dezaketen eragileen (sakonera, maldak eta abar) arabera lurzoruen sailkapena egiten du.

Aipatutako Mapa egin zenetik 25 urte igaro dira eta lurzoruen egoera nabarmen aldatu da, bereziki ahalmen agrologiko handiko lurzoruei dagokienez. Ingurumen-azterketa egiterakoan egungo egoera islatzea beharrezkoa ikusi denez, aipatutako mota agrologikoen mapa gaur eguneko egoerara egokitu egin da, horretarako mapa honek egiten duen sailkapena eskura izan den azken (2009ko) ortofotoaren arabera lurzoruen erabilera berrietara moldatu delarik fotointerpretazioaren bidez.



Mota agrologikoen mapa: 1987. eta 2009. urtea bitarteko bilakaera.
Iturria: Mota agrologikoaren mapa (GFA, 1987).

Ondorengo taulak Arrasateko udalerrian dauden mota agrologiko desberdinen azalera, ehunekoak eta azken 25 urteetan azaldu duten joera laburbiltzen ditu:

Mota agrologikoa	1987ko azalera (ha)	1987ko azalera (%)	2010eko azalera (ha)	2010eko azalera (%)	Joera
II- Nekazaritzarako eragozpen gutxi duten alubioi zabaleko lurrak	40,7	%1,2	9,5	%0,3	-77%
III - Alubioi estuetan eta pilatutako malda txikiko mendi-hegaletan dauden lurrak	29,6	%0,9	19,5	%0,6	-34%
IV - Malda txikiko mendi-bizkarretan eta %20<ko malda duten mendi-hegaletan lantzeko lursailen muga dauden lurrak	60,4	%1,8	51,8	%1,6	-14%
V - Putzuak sortzen direla eta, nekazaritzarako zailtasun handikoak diren lur lauak	2,2	%0,07	2,1	%0,06	-6%
VI - Lantzeko zailak diren lurrak, iraunkortasunez larretarako edo egurretarako erabiltzen direnak soilik	443,9	%13,3	403,6	%12,1	-9%
VII - Baso lanerako baino erabil ezin daitezkeen lurrak	2.304,5	%68,8	2.198,0	%65,6	-5%
VIII - Nekazaritzarako balio ez duten lurrak; hirigintzarako, ingurua zaintzeko edo paisaietarako beste erabilpenik ez dutenak	468,1	%14,0	664,9	%19,9	+42%

Gipuzkoako Mota Agrologikoen Mapak udalerrriaren lurzoru gehiena VII mailan sailkatzen du, baso lanerako baino erabil ezin daitezkeen lurrei dagokiena. Bestalde, bai herrigunea bai eta komunikazio-azpiegitura ezberdinak nekazaritzarako balio ez duten lurren mailan (VIII) sailkatuta geratzen dira. Azken hau da, hain zuzen, bi azterketen arteko epean gorantz egin duen kategoria bakarra, bere azalera %42an handituz.

1.987ko maparen arabera, nekazaritzarako ahalmen handienerako lurrak (II eta III motakoak) Aramaio eta Deba ibaien ibarretan kokatzen ziren. Dena den, horrela sailkatuta zeuden eremu asko etxebizitza edota bestelako instalakuntzekin okupatuak agertzen dira gaur egun. Azpiegituren, herri-gunearen eta industria guneen hedapena Aramaio eta Deba ibaien bailaretan eman da batez ere, honela nekazaritzarako balio altueneko lurrak balio gabetuz. Kasu honetan, EAeko nekazaritza eta basoak antolatzekeo Lurraldearen Arloko Planak "Nekazaritza-abeltzaintza eremua: Balio Estrategiko Altua" mailan udalerrriaren 17,77 Ha eskas besterik ez ditu sartzen; azalera hau lursail zati txikietan banatzen da, udalerrriaren zati lauenetan sakabanatuta.

Esanguratsua da mota agrologiko guztiak, lur etze eta artifizialduei dagokiona izan ezik, gutxitu izana. Gehien murriztu diren motak, gainera, nekazaritzarako balio handiena zutenak izan dira; datuak ikusita, badirudi ahalmen agrologikoak eta murrizketak nolabaiteko korrelazioa izan dutela.

Arrasateko lurren ahalmen agrologikoaren egungo egoera 1.3 – Lurzoruak: ahalmen agrologikoa planoan kartografiatu egin da.

3.6. HIDROLOGIA

3.6.1. Lurrazaleko ur-ibilguak

Arrasate Deba Unitate Hidrologikoaren baitan kokatzen da; udalerrriaren mendebaldea Aramaio azpi-arroan sartzen da, hego-ekialdea Urkulu azpi-arroan, iparraldeko muturra Epele azpi-arroan, eta Deba ibaiaren arroak hego-mendebaldetik ipar-ekialdera zeharkatzen du udalerria, aurreko azpi-arroen tartetik.

Sare hidrologikoari dagokionez, Aramaio eta Deba ibaiak dira udalerria zeharkatzen duten garrantzitsuenak, eta herrigunean dute beren elkargunea. Hauen ibaiadar apalago batzuk ere azterketa eremuaren barnean daude, hala nola, Kobate, Gazeaga, Etxebarri eta Meatzerreka Aramaioren kasuan, eta Zagurdi Debarenean. Hauetaz

gain, Epele errekek udalerrriaren iparraldeko mugatzat egiten du urak Debara isuri aurretik, eta Bedoña auzoan Zabale eta Azerizulueta errekek Urkulu aldera isurtzen dituzte beraienak.

EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak egiten duen sailkapenaren arabera, Aramaio ibaiak 10 eta 50 km² (I maila) bitarteko artoa du Arrasatetik pasatzen denean, Deba ibaiak 50 eta 100 km² (II maila) bitartekoa du Aramaio ibaiaren elkargunea baino lehen eta 100 eta 200 km² (III maila) arteko artoa azaltzen du Aramaio ibaiaren urak jaso ondoren.

Udalerrria zeharkatzen duten zatian bai Aramaio eta bai Deba ibaiak Deba-B ur-masan sarturik geratzen dira. Ur-Agentziak duen EAEko uraren egoeraren jarraipenerako sarearen 2009ko txostenaren arabera, ur-masa honen egoera ekologikoa txarra da, adierazle biologiko, fisiko-kimiko eta hidromorfologikoentzako lortutako emaitzengatik. Honen adibide argi bat ibaien ubideratzea da; izan ere, bideratuta edo estalita dauden tartekak 18.214 m-ko luzera dute.

Ur-masak: presioak, inpaktuak eta arriskuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Mugape Hidrografikoen zehaztapenari buruzko azterlanean (Eusko Jaurlaritza, 2005), ur-masen mugapen eta tipifikazioko lehen proposamena egin zen, baita horietako bakoitzaren presioen eta inpaktuen analisia ere. Ibai kategoriako ur-masa naturalak dira. Udalerrian zeharkatzen duten ur-masen ezaugarri nagusiak honako taulan laburbiltzen dira:

Erreka	Ur-masaren identifikazioa	Mota	Presio-maila orokorra	Inpaktua	UEZ-ren helburuak ez betetzeko arriskua
Deba	Deba-B	Ibaia	Handia	Frogatua	Handia
Aramaio	Deba-B	Ibaia	Handia	Frogatua	Handia

3.6.2. Zona babestuak

Lur gaineko hartuneetarako zona babestuen erregistroak ez du giza kontsumorako hartunerik identifikatzen aztergai dugun esparruan (Uraren Esparru Zuzentarauaren 5. eta 6. artikuluei buruzko txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen mugapena).

3.6.3. Lurpeko urak

Uraren Esparru Zuzentarauaren 5. eta 6. artikuluei buruzko txostenak adierazten duenez –Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen mugapena (Eusko Jaurlaritza, 2004)–, aztergai dugun esparrua lurpeko ur-masa bakarraren gainean kokatzen da: Arrasate (ES111S000022), Hego Antiklinorioko domeinu hidrogeologikoaren barne dagoena.

2. mailako ur-masa da, hau da, iragazkortasun txikiko eta interes hidrogeologiko txikiko ur-masa, nahiz eta aprobetxamenduak izan dituen. Euskal Herriko Mapa Hidrogeologikoaren arabera 3 deskarga sektore ditu ur-masa honek: Kobate eta Bostate iturrien ingurua (Arrasateko ur-hornikuntzarako erabili zena), Beneras iturria, eta zuzenean Deba ibaira drainatzen den beste bat.

3.7. LANDAREDIA ETA LURZORUAREN ERABILERAK

3.7.1. Gaur egungo landaredia eta lurzoruaren erabilerak

Lurzoruaren erabilerari dagokionez, 2005 urteko baso-inbentarioaren (Eusko Jaurlaritza, 2005) arabera udalerrriaren azaleraren %50a baso landaketetarako erabiltzen dira, batez ere *Pinus radiata* pinuen landaketetarako. Udalerrriaren %19a baso naturalari dagokio, eremu hauek herri-gunea inguratzen duten mendi magaletan kokatzen direla. Azkenik, belardiek ere udalerrriaren %11a okupatzen dute, hiri-eremuan zehar eta Aramaio eta Deba ibaien bailaretan sakabanatuz.

ERABILPENA	AZALERA (ha)	%
Artifiziala	297,1	% 9,1
Autobideak eta autobiak	2,8	% 0,1
Baso landaketa	1.640,1	% 50,0
Basoa	624,3	% 19,0
Belardia	363,7	% 11,2
Belartza	6,8	% 0,2
Eroate azpiegiturak	15,3	% 0,5
Harkaiztiak bazkaz	94,2	% 2,9
Ibaiertzak basogunean	7,5	% 0,2
Landareri garairik gabeko mendia	11,6	% 0,4
Belardia-sasitza	9,9	% 0,3
Meatzaritza, hondakindegia, zaborteak	37,0	% 1,1
Nekazaritzakoa	22,5	% 0,7
Sasitza	139,2	% 4,2
Ura	3,1	% 0,1
Menditik kanpoko zuhaitzak (Erriberak)	4,3	% 0,1

Iturria: EAEko baso-inbentarioa (Eusko Jaurlaritzak, 2005).

1:10.000 eskalan egindako Euskal Autonomia Erkidegoko landarediaren mapa (2007 urtea) oinarria hartuz, lurraldearen lur-erabilerean arabiarako sailkapena azterketa-eremuari hobe moldatzen zaion eskala zehatzago batera egokitu da, aipatutako mapan agertzen diren lur-erabilera ezberdinen guneak ortofotoetan eta azterketa eremuan bertan ikusitakora doitu direlarik; honetaz gain lur-erabilera eta landaredi-formakuntza hauen bilakaera ere zehaztu da.

Antzeko ezaugarriak dituen landaredia, eta lurzoru erabilera ezberdinak ondoren azaltzen diren landaredi-unitate orokorra goetan bateratu dira eta *I-5 Lur-erabilerak* planoan kartografiatu dira:

Landaredi-unitateak	Azalera (ha)	Azalera %
1- Ur-ibilguak	10,6	%0,3
2- Harkaiztiak	62,0	%1,9
3- Goi-larreak	31,9	%1,0
4- Behe-larre eta belazeak	302,1	%9,0
5- Hostozabal ez erorkorren basoak	321,6	%9,6
6- Ibaiertzeko basoak	13,6	%0,4
7- Hostozabal erorkorren basoak	170,0	%5,1
8- Baso gazte eta heskaiak	177,4	%5,3
9- Txilardiak	109,6	%3,3
10- Otadi, iratzedi eta lahardiak	8,1	%0,2
11- Hostozabalen landaketak	51,2	%1,5
12- Koniferoen landaketak	1.559,9	%46,6
13- Baratza eta fruitu-arbolak	45,9	%1,4
14- Kirol zelai, parke eta lorategiak	22,9	%0,7
15- Lur artifizialduak	462,8	%13,8

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko landarediaren mapa, Ekolurrek moldatua.

3.7.2. Interes bereziko landaredia

Aurreko atalean aipatutako formazio eta habitata baloratu ostean, interesezkoak eta, horrenbestez, babestea merezi dutenak zein diren jarraian proposatzen da:

- Harkaiztiak: harkaizti eta hartxingadietako landaredia. Udala inguruan hedatzen da gehienbat.

- Goi-larreak: *Agrostis-festuca* larreak eta larre harritarrak. Hauen hedapena ere Udala inguruan suertatzen da.
- Behe-larreak eta belazeak: *Mesobromiom* eta albitz larreak, eta sega-belardiak. Udallerrian zehar sakabanatuta, bereziki Bedoña, Santa Ageda eta Gesalibar auzoetan dira ugari.
- Hostozabal ez-erorkorren basoak: Artadi eta abariztiak. Udala mendiaren magaletan agertzen dira soilik.
- Ibaiertzeko basoak: Ibaiertzetako haltzadi eta lizardiak. Oso azalera mugatua dute, Azeri-erreka eta Debaren gune gutxi batzuetan agertuz.
- Hostozabal erorkorren basoak: Harizti, pagadi eta baso mistoak. Udallerrian zehar sakabanatuta daude, landaketekin tartekatuta.
- Baso gazte eta heskaiak: Aurreko unitatearen fase gaztea eta bertako espezieen heskaiak. Utzitako landaketetan agertzen da edota behe-larreetan sakabanaturik.
- Txilardiak: Aurreko unitatea bezala, utzitako landaketen inguruetan azaltzen dira.

Europar Batasunaren intereseko habitatak (Habitaten Arteztaraua) izateagatik aukeratu dira gehienak, hala nola (lehentasuna duten habitatak azpimarratu dira):

- 4030: Txilardi lehor azidofiloak
- 4090: Txilar kaltzikola genistadunak
- 6210: Larre lehor erdi-naturalak eta lurzoru karetsu gaineko sastrakadi faziesak (*Festuco-Brometalia*)
- 6210*: Larre lehor erdi-naturalak eta sastrakadi faziesak, orkideadunak.
- 6230*: *Nardus* belar-formazioak, mendiko eremuetako substratu silizeoen gainean.
- 6510: Altuera txikiko sega-larre pobreak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*).
- 8130: Hartxingaditako landaredia
- 8210: Landaredi kasmofitikoa duten harkaitz kaltzikolako maldak.
- 91E0*: *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*) espezieetako baso alubialak.
- 9260: Gaztainadi zaharrak
- 9340: Artadiak eta abariztiak

Bestalde, Europako Arteztarauak hariztiak, pagadi basofiloak eta bestelako hostozabal interesdunak (elordiak, hurritzak, palaxuak) garrantzi komunitarioko habitat gisa hartzen ez baditu ere, balio ekologiko handiko formazioak dira, eta ez dute oso azalera handia Gipuzkoako lurraldean; izatez, arras murriztu dira interes txikiagoko beste formazio batzuen alde (baso-berritzeak, larreak eta abar). Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duen 16/94 Legeak lurraldean dauden bertako baso-masak babesteko interesa nabarmendu du. Hori dela eta, formazio horiek kontserbatzeko interesa duten formazioen artean barne hartzea eta proposatzea erabaki da.

3.7.3. Arriskuan diren flora espezieak

EAEko Flora Baskularraren Zerrenda Gorriaren arabera (2010), Arrasateko Udal mugen barne babestutako espezie hauek aurkitzen dira:

Espeziea	Arriskuaren kategoria	Habitat mota
<i>Quercus coccifera</i>	Ardura gutxikoa	Sastrakadiak
<i>Ilex aquifolium</i>	Ardura gutxikoa	Basoak
<i>Veratrum alpinum</i>	Ardura gutxikoa	Larre hezeak
<i>Aster alpinus</i>	Arriskurik gabea	Kareharrizko harkaitziak

Arrisku kategoriei buruz, esan beharra dago espeziearen banaketa-area osoaren mailara erabakitzen direla, eta ondorioz tokiko populazioak mehatxatuak edo interes berezikoak izan daitezkeela, nahiz eta populazioak orokorrean aldeko egoeran aurkitu. Hauxe da abaritz eta *Aster alpinus*-en kasua, bereziak biak, ez baitira Gipuzkoako beste inongo lekutan aurkitzen.

Zerrenda gorriko flora espezieak ageri diren 1 Km²-ko kuadrikulak, interesekoak kontsideratzen diren landaredi formazioekin batera *I-5 Interes bereziko landaredia* planoan irudikatu dira.

3.7.4. Onura publikoko mendia

Arrasateko Onura Publikoko Mendiek (OPM) 93,84 ha-ko azalera dute, eta Udala eta Musakola auzoetan banatzen dira. Gipuzkoako OPMen katalogoan “Zaburdi” izena eta 1.055.1 eta 1.055.2 kodigoekin daude identifikatuta. Barruti hauetan hainbat landaredi mota azaltzen badira ere, konifera landaketak dira gehienago osatzen dutenak, ondorengo taulan ikus daitekeen bezala:

Landaredi-unitatea	Azalera (ha)	EPMren azalera %a
Artadi kantauriarra	9,1	% 9,7
Baso misto atlantikoa	0,9	% 0,9
Txilardi-otadi-iratzedi atlantikoa	2,0	% 2,1
Albitz-belardi edo larre mesofiloak	3,2	% 3,4
Belardi eta labore-lur atlantiarrak	1,5	% 1,6
Higadura-gune tuparri-buztintsuak	0,3	% 0,3
Baso-landaketak	76,9	% 82,0
Guztira	93,8	% 100,0

3.8. FAUNA

Arrasateko udalerriko faunaren gaur egungo egoera apala da, habitat naturalek azaltzen duten asaldura-maila altua dela eta. Horri jarraiki, Euskal Katalogoan aipatutako Espezie Mehatxatuen Interes Bereziko Gune bakarra dago, Kobandiko kobazuloa. Aipatutako Gunea, *Miniopterus schreibersii* saguzarren lehentasunezko babeslekua da, eta espezie hau, Espezie mehatxatuen Euskal Katalogoan “kaltebera” kategorian izateaz gain, europar Habitat Zuzentarauaren II. eranskinean (babestu beharreko espezieak) agertzen da.

Bestalde, faunarentzako interes handiena duten eremuak oraindik ere berezko landaredia mantentzen duten eremuak dira; harkaiztiak, basoetako harizti eta pagadiak, bai eta ibaiertzetako haltzadiak. Izan ere, azterketa-eremuaren barne Saizuria (*Neophron percnopterus*) babesteko ‘Puntu kritikiko’ bat agertzen da Udalako inguruan. Horretaz gainera, europar intereseko (Habitat Zuzentaraua, II. eranskina) espezie batzuen ‘Lehentasunezko banaketa-eremuek’ (LBE) ere Arrasateko udalerraren zati bat hartzen dute; ondorengo espezieen kasuan, hain zuzen: Baso-igel iberiarra (*Rana iberica*), Bisoi europarra (*Mustela lutreola*), Uhandre alpetarra (*Triturus alpestris*) eta Schreiber muskerra (*Lacerta schreiberi*).

3.9. INTERES NATURALISTIKOKO EREMUAK

3.9.1. Babestutako naturaguneak eta elementuak

Babestutako zuhaitz bereziak

Haien berezitasuna dela eta babestutako zuhaitzen katalogoan Arrasateko ale bat ere ageri da, Monterrongo sekuoia. Nahiz eta bertako espeziea ez izan, duen garaiera eta eitea dela eta jaso du merezimendu hori.

3.9.2. Interes naturalistikoko bestelako eremuak

Interes Naturalistikoko Eremuen Zerrenda Irekia (LAA)

Lurralde Antolamendurako Artezpideetan (LAA) barneratutako Interes Naturalistikoko Eremuen zerrenda irekian Udalaitzeko inguruak agertzen dira, eremu horrek dituen balio paisajistiko, geologiko, faunistiko eta botanikoengatik. Aipatutako eremua *I.7- Natur Ondarea* planoan kartografiatu da.

Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarea

Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarearen proposamenean (IKT, 2005), "Izarraitz_Aizkorri-Aratz, R9_Urkiola" korridoreak Arrasateko lurra zeharkatzen ditu.

Udala mendia garrantzia erregionaleko "lotura-eremu" bezala identifikatzeaz gainera, Arrasateko iparraldeko erdia "lotura-korridore" edo "indargetze-eremu" kategorien barruan azaltzen da. Udalerriko 1.551 ha-n barrena hedatzen da korridore sarea, horietatik 317 "lotura-eremu" kategorian, 641 "lotura korridore" bezala eta 593 "indargetze-eremu" izenpean.

1.7- Natur Ondarea planoan identifikatu dira Arrasateko udalerrri barneko korridore ekologikoen sarearen egitura-elementuak.

Bestalde, udalerrian lotura ekologikorako hiru eremu kritiko antzematen ditu korridore ekologikoaren sare honek (hau da, korridore sarearen baitan aurreikusten diren hirigintza-eremuen gunek). Horietako bat Meatzereka eta Montzon esparruen artean kokatzen da, non industria-garapen berriak aurreikusten diren. Jarduera hauek inguruko basa-animaliengan eragin nabarmenak izan ditzakete, beren mugikortasuna, ehiza-eremua, populazioen arteko elkartrukatzeko genetikoak eta abar aldatuz.

Horrez gain, inguru horretako errepideen (GI-632 eta GI-3551) bidegurutzean faunak jasaten dituen istripu kopurua handia da, eta puntu beltzata jotzen da horregatik.

Ondoren, korridore sareak Arrasaten dituen puntu kritikoak gorritz irudikatu dira, eta istripu puntua, urdinez:



Iturria: EAEko Korridore Ekologiko Sarearen Aurreproiektua (IKT, 2005)

3.10. PAISAIA

3.10.1. Ikusmen arroak

Arrasateko lurra 3 ikusmen-arrotan zehar sakabanatzen dira: 'Arrasate' arroak udalerrri gehiena hartzen du; 'Epele' arroak izen bereko erreka-eremua hartzen du; 'Urkulu' arroak, berriz, Bedoña auzoaren hego eta ekialdeko inguruak hartzen ditu.

Taula honetan, aipatutako ikusmen-arro bakoitzak zenbateko azalera hartzen duen aipatzen da:


Udalerria	Ikusmen-arroa	Azalera (ha)	%
Arrasate	Arrasate	2.590	%77,4
	Urkulu	359	%10,7
	Epele	396	%11,8

Iturria: EAEko paisaia berezien eta nabarmenen katalogoa.

Arrasateko ikusmen-arroak, udalerraren azaleraren gehiengoa hartzen duenak, erabilera-aniztasuna du ezaugarri nagusitzat; bertan, hiri-paisaiaren unitateak mendialde karstikoen ohiko paisaia-unitateekin batera ageri dira, baita herrigunea inguratzen duten nekazaritza eta baso paisaia-unitateak ere. Beraz, ikusmen-arroa honako elementuek osatzen dute: arroaren behealdean dentsitate handiko hiri-egiturak, ibaien jabarian garatutako nekazaritza, maldan gora nekazal-baso mosaikoa, baso landaketak hurrena, eta abarizti, sastrakadi eta harrizta karstikoak toki garaienetan.

Arrasateko APOAN lurzoru hiritar eta hiritargarri bezala agertzen direnak Arrasateko arroko paisaia-unitate guztien zati bat behintzat bere barnean hartzen dute, karten eraginpean daudenak izan ezik. Hala ere, hiri eta nekazal lurretan dago hedatuena.

Hurrengo irudian "EAEko Paisaiaren Kartografian" (1990) Arrasateko udalerrian zehaztutako paisaia-unitateak ageri dira.



Bestalde, EAEko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoaren ' (Eusko Jaurlaritzak, 2005) osatzeko orduan, EAEko ikusmen-arroak bereizi ziren, populazioaren, egunerokotasun, lurzoruen erabilera eta azpiegitura-presentziaren arabera, baita arroko ikusmen-eraginaren arabera ere. Hurrengo tauletan ikusmen-arroei buruz egindako Aurreproiektu horretan, Arrasateko udalerrian bereizitako ikusmen-arroak aipatzen dira:

Arroa	Biztanle- kopurua	Egunerokotasuna	Erabilera nagusiak	Azpiegitura nagusiak
Arrasate	22.830	Egunerokoa	Baso, ingurumen, landa eta hiri erabilera	Errepideak
Urkulu	42	Egunerokoa	Baso eta landa erabilera	Ez du
Epele	0	Egunerokoa	Baso, landa eta hiri erabilera	Errepideak eta argindar lineak

Arroa	ERAGIN NEGATIBOA			
	Garbia	Metatua	Garrantzia	Eragin identifikatuak
Arrasate	%43,2	%47,6	-1	Errepidea, harrobia, errepikagailuak
Urkulu	%0,0	%0,0	0	
Epele	%38,6	%54,1	-1	Errepidea, argindar-linea, harrobia

Arroa	ERAGIN POSITIBOA			
	Garbia	Metatua	Garrantzia	Eragin identifikatuak
Arrasate	%19,8	%19,8	0	Harkaiztia, ibaia
Urkulu	%0,1	%0,1	0	Iturriak
Epele	%9,2	%9,2	0	Harkaiztia, ibaia

Ikusmen-arroen sailkapena eta horietan identifikatutako ikusmen-eraginak kontuan hartuz, Aurreproiektuan arro horietako paisaia-kalitatearen balorazio bat egin zen. Horretarako 1 eta 5 bitarteko puntuazioa erabili zen, 1 "oso apala" izanik, eta 5, berriz, "oso handia". Udalerria hartzen duten hiru ikusmen-arroek oso balorazio txarra dute, "1"; alde batetik hiri-asantamendu eta azpiegitura antropiko ugari dituztelako, eta bestetik eragin positiboa duten elementuak falta zaizkielako.

3.10.2. Interes bereziko paisaia-eremuak

Nahiz eta aipatutako ikusmen-arroen paisaiak modu orokorrean ez duen balorazio onik jasotzen, eremu horietan badira interes bereziko paisaia-elementuak eta babesa merezi duten guneak.

Bereziki azpimarragarria da Udalaitz ingurua, udalerrri osoko ikuspegi nabarmentzen den elementua izaki. Zentzu honetan, Lurralde Antolamendurako Artezpideek eremu honen paisaiaren balioa nabarmentzen dute eta indarrean dagoen HAPO-k ere Paisaiaren ' bezala sailkatzen du inguru horretako gune zabal bat. Eremua EAEko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoaren n ere jasota dago.

Horretaz gain, indarrean dagoen HAPO-k udalerrri mailan azpimarragarriak diren beste eremu batzuk ere babesten ditu, hala nola: Murugain ingurua, Hialgobaso eta Elorregiko ingurua.

Aipatutako ikusmen-arroen mugak eta interes bereziko paisaia-eremuak 1.8 Paisaia planoan daude jasota.

3.10.3. Ikusgaitasuna eta behatokiak

HAPO-ren berrikuspenean proposatutako diren garapenek paisaiarengan izan ditzaketen eraginen azterketa errazte aldera, udalerrriaren ikusgaitasunaren azterketa bat egin da.

Horretarako, ikusle gehien elkartzan dituzten ikuspuntuetatik ikusgai diren eta ez diren eremuak mugatu dira, horretarako ikuspuntu hauek zehaztu direlarik:

- Errepide-sare nagusia: AP-1, GI-627 eta GI-632 errepideetatik ikusgai diren eremuak 1.9.2. *Ikusgaitasuna eta begiratokiak (errepide sare-nagusia)* planoan jasotzen dira. Orokorrean, errepide hauetatik udalerrri osoaren azaleraren %56 inguru da ikusgai.
- Bigarren mailako errepide-sarea: Gipuzkoako errepide-sarearen maila laranja, berdea eta gris nagusiak jasotako errepideak, hala nola: GI-2620, GI-2630, GI-3551, GI-3552, GI-3553, GI-3554 eta GI-3920. Orokorrean, errepide hauetatik udalerrri osoaren azaleraren %64a inguru da ikusgai. Bigarren mailako errepide-saretik ikusgai diren eta ez diren eremuak 1.9.3. *Ikusgaitasuna eta begiratokiak (bigarren mailako errepide-sarea)* planoan jaso dira.

- Arrasateko hirigunea: Udalerriko ikusle gehienak biltzen dituen eremua izanik, bertatik ikusgai diren eta ez diren eremuak zehaztu dira. Arrasateko hirigunetik udalerriko osoaren azaleraren %68 inguru da ikusgai. Arrasateko hirigunetik ikusgai diren gunek 1.9.4. *Ikusgaitasuna eta begiratokiak (hirigunea)* planoan jaso dira.
- Begiratokiak eta gailurrak: Beste ikuspuntu batzuk bilatze aldera, udalerriko paisaiaren behatoki izan daitezkeen puntuetatik ikusgai den eremua mugatu da. Horretarako, udalerriko gailur nagusiak eta Udala zein Bedoña nekazal-auzoak hartu dira. Orokorrean, ikuspuntu edo behatoki hauetatik udalerriko osoaren azaleraren %70 inguru da ikusgai. Udalerriko gailur nagusi eta nekazal-auzoetatik ikusgai diren eremuak 1.9.1. *Ikusgaitasuna eta begiratokiak (gailurrak eta nekazal auzoak)* planoan jaso dira.

3.11. KULTUR ONDAREA

3.11.1. HAPO-k babestutako kultur ondarea

Udalerriko kultura-ondareko zenbait elementu eta gune katalogatu da, eta, hortaz, berriazko babesa dute jaso dute HAPO-ren aldetik. Elementu eta gune hauen kokapena 1.10 *Kultur Ondarea* planoan identifikatu dira.

Bestalde, Arrasaten garatu diren arkeologia ikerketek udalerrian aztarnategi aberatsak daudela erakutsi dute. Arrasateko HAPO-k hiru eremu babesten ditu 'aztarnategi arkeologikoak' kategorian barruan: Kobate, Murugain eta San Andresen.

Aztarnategi aipagarriena Lezetxiki dugu (Kobate), Erdi Paleolitiko garaikoa. Aztarnategia Kobate lepotik Bostate gailurreraino luzatzen da. Euskal Herrian aurkitu den giza aztarnarik zaharrena da bertan aurkituriko emakume baten besondoa. Azpimarratzekoa ere, Labeko koba (San Andres), hau Goi Paleolitos garaikoa. GI-627 saihebidia egiterakoan desagertua indusketa bat egin ondoren. Uribesalgo lantokiaren atzealdean zegoen.

Hauetaz gain, garrantzia txikiagoa duten beste aztarnategi batzuk daude, hala nola, Oterreta, Lezetxe eta Kobatxo (Kobaten) edo Murugain antzinako giza kokagunea.

3.11.2. Euskal Kultura Ondarearen Zentroak babestutako kultur ondarea

Jarraian Eusko Jaurlaritzako Euskal Kultura Ondarearen Zentrotik esandakoaren arabera, Arrasaten kokatzen diren babestutako kultura elementuak eta guneak azaltzen dira.

A. ONDARE HISTORIKO-ARKITEKTONIKOA

- EAEk izendaturiko kultur ondasun higiezinak: deklaraturako monumentu-multzoak

Izena	Sailkapena	Argitaratua (EHAA edo BOE)
0. Alde Zaharra	Monumentu multzoa	1997ko otsailaren 24 (EHAA: 37 zk.)

- EAEk izendaturiko kultur ondasun higiezinak: kalifikaturako eta inbentariatutako monumentuak

Izena	Sailkapena	Argitaratua (EHAA edo BOE)
1. Monterron jauregia	Monumentua	1964ko otsailaren 29 (BOE: 52 zk.)
2. Okendo etxea	Monumentua	1964ko otsailaren 29 (BOE: 52 zk.)
3. San Frantzisko eliza eta Kulturate	Monumentua	1964ko otsailaren 29 (BOE: 52 zk.)
4. Gorostiza baserria	Monumentua	1994ko uztailaren 4 (EHAA)
5. Santa Ageda ospital zaharra	Monumentua	1996ko uztailaren 15 (EHAA: 135 zk.)
6. Erlojuaren eraikina	Monumentua	2004ko urriaren 20 (EHAA)

- EAEk monumentu gisa edo monumentu multzo gisa izendatzeko proposaturiko kultur ondasun higiezinak

Kultur ondasun higiezinak	
Izena	Auzoa
7. Mendiguren baserria	Gesalibar
8. Santa Ageda eliza	Gesalibar
9. Akiso zubia	Garagartza
10. San Migel eliza	Garagartza
11. Gomestio baserria	Uribarri
12. Esperanza eliza	Uribarri
13. San Balerio baseliza	Meatzerreka
14. Fagor Arrasate (eraikin nagusia)	San Andres
15. Salinas jauregia (Adan de Yarzaren etxea)	Meatzerreka
16. Zaldibar pilotalekua	Zaldibar
17. Union Cerrajerako bulegoak	Hirigunea
18. Gelmako bulegoak	Hirigunea
19. Ferrocarril vasconavarroko geltokia	Hirigunea
20. Palazio baserria	Udala
21. San Esteban eliza	Udala
22. Santa Eulalia eliza	Bedoña
23. Zabale baserria	Bedoña
24. Bidasoro baserria	Bedoña

- Udalerri mailako babesa jasotzeko Euskal Kultur Zentroak proposaturiko kultur ondasun higiezinak

Kultur ondasun higiezinak	
Izena	Auzoa
25. Etxebarri baserria	Gesalibar
26. Sanjurji baserria	Gesalibar
27. Arruaga baserria	Gesalibar
28. Auzoko errota etxea	Gesalibar
29. Sagrado Corazon eliza	Gesalibar
30. Elexgarai baserria	Gesalibar
31. Istegi baserria	Garagartza
32. Ortuzar baserria	Garagartza
33. Akiso baserria	Garagartza
34. Arteaga baserria	Garagartza
35. Bastergainazpikoa Baserria	Uribarri
36. Arriaran baserria	Uribarri
37. Santutxo otoiztegia	Uribarri
38. Salturri baserria	Meatzerreka
39. Meatzaga baserria	Meatzerreka
40. Altzaurruti baserria	Meatzerreka
41. Etxaldebarri baserria	Meatzerreka
42. Ubao baserrikoko errota	Meatzerreka
43. Askasibar baserria	Meatzerreka
44. Miraflores baserria	Meatzerreka
45. La Soledad otoiztegia	Meatzerreka
46. Zarugalde 30eko etxea	Zarugalde
47. Uarkape pilotalekua	Hirigunea
48. Otamendi baserria	San Andres
49. Maala errebala 17ko etxebizitza eraikina	Hirigunea
50. Garibai etxea	Hirigunea
51. San Juan etxe-multzoa	Hirigunea

Kultur ondasun higiezinak	
Izena	Auzoa
52. Zalgibar dorretxea – Ale baserria	Zaldibar
53. Etxe-txikiak	Hirigunea
54. Antoñako Meatz garbitokia	Musakola
55. Mojategi baserria	Musakola
56. Altzibar baserria	Musakola
57. Aranguren baserria	Musakola
58. (Barrenazar) baserriko errota	Musakola
59. Garaikoaundia baserria	Udala
60. Udala auzoko labaderoa	Udala
61. Eskola etxea eta pilotalekua	Udala
62. Dolar baserria	Udala
63. Leorrage baserria	Udala
64. Uribarren baserria	Bedoña
65. Sankristaukoa etxea	Bedoña
66. Bedoña auzoko pilotelekua	Bedoña
67. Mendibitzu baserria	Bedoña
68. Andra Mari Zuri basiliza	Bedoña

▪ Iturriak

Kultur ondasun higiezinak	
Izena	Auzoa
Bostateko iturria	Gesalibar
Salturriko iturria	Meatzerreka
Zigarrolako iturria	Musakola
Mojategiko iturria	Musakola
Besaideko iturria	Udala
Txukurriloko gastainaduiko iturria	Udala

B. ONDARE ARKEOLOGIKOA

▪ Izendatutako zona arkeologikoa

‘Arrasateko hirigune historikoa’ monumentu multzo bezala izendatua dago eta Euskal Kultura Ondarearen inbentarioan sartuta dago. Eremu hau 1999ko martxoaren 30 ko EHAA-n (60^º zk) argitaratutako mugaketa eta deskribapenaren arabera dago babestua. Izendapen honen eraginez, eta 7/1990 legearen 45.5 artikulua ezartzen duenaren arabera, eremu honengan eragina izan dezakeen edozein jarduketa edo obrak dagokion arkeologia proiektua aurkeztu beharko du Gipuzkoako Foru Aldundian onespina jaso dezan, lanak hasi aurretik beti ere.

▪ Ustezko gune arkeologikoak

Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirola sailburuaren 1997ko irailaren 4ko Ebazpen bidez izendatu zirenak (1997ko irailaren 29ko EHAA, 185 zk.).

Izendapenaren erabaki berean honako hau zehazten da: “(...) gune horietan obrarik nahi izanez gero, jabeak edo sustatzaileak orubearen edo eraikuntzaren arkeologi balioari buruzko eta obren proiektuaren gainean izan dezakeen eraginari buruzko ikerlana aurkeztu beharko duela, urriaren 8ko 234/1996 Dekretuaren 7. atalean eta horrekin bat datozenetan ezarritako baldintzen arabera.”

Arrasateko ustezko gune arkeologikoak			
Izena	Babes- eremua	Izena	Babes- eremua
Zalgibar dorretxea	A	Santiago basiliza (ez zaio egiturarik ikusten)	E
San Kristobal basiliza (egun baserria)	A	Erenuzketa baserria	A
San Joseph basiliza (hondatuta)	A	Santa Cruz basiliza(ez zaio egiturarik ikusten)	E
Osinaga errota	D	Bedoñako Santa Eulalia eliza	B
Zabaleta baserria	A	Andra Mari Zuri basiliza	B
La Esperanza eliza	B	Zaraa baserria	A
Santa Ana basiliza	A	Arteta baserria	A
San Balerio basiliza	A	Etxaluze haitzuloa	C
Dolara baserria	A	Kobatxo haitzuloa	C
Udalako San Esteban eliza	B	Lezetxe haitzuloa	C
Udalaitzeko La Ascension basiliza	B	Solozar I haitzuloa	C
Garagartzako San Migel eliza	B	Solozar II haitzuloa	C
San Bixente basiliza (ez zaio egiturarik ikusten)	E	Solozar III haitzuloa	C
Gesalibarko Santa Ageda eliza	B		

A motakoak: eraikinaren hormez barruko esparrua

B motakoak: eraikinaren hormez barruko esparrua + 15 metro inguruan, kanpoen dauden puntuetatik hasita

C motakoak: elementuak hartzen duen esparrua + 5 metro inguruan, kanpoen dauden puntuetatik hasita

D motakoak: eraikinak eta berari atxikitako instalakuntzek hartzen duten esparrua

E motakoak: planoan zehaztutako esparrua

- Babesa merezi duten zona arkeologikoen proposamena

Izendapenik jaso ez duten arren Gipuzkoa mailan interes aipagarria duten eremuak dira; Kultura Sailak beren babeserako dagokion txostena zabaltzea aurreikusten duenez, eremu hauei 7/1990 legearen 45.5 artikulua ezartzen duen babes-erregimena atxikitzea gomendatzen da, hau da: *“Zermugatutako arkeologi alde edo ondasunetan eta zerrendatutakoetan eragina izanezko edozein eratako lanen ondorioz arkeologi-jarduna beharrezko izan dadinetan, sustatzaileak, dagokion Foru Aldundiari, lan horiek egiteratu baino lehen onartzeko, dagokion arkeologia egitasmoa aurkeztu beharko dio..”*

Izena	Izena
San Frantzisko komentua	Oterreta II haitzuloa
Santa Barbara gotorlekua	Dolara haitzuloa
Santa Barbara Basiliza	Txara Leizie I haitzuloa
Atxabal haitzuloa	Murugain antzinako giza kokagunea
Lezetxikiko harpea haitzuloa	

3.12. INGURUMEN-PROZESU ETA ARRISKUAK

3.12.1. Uholde-arriskua

Kantauri ekialdeko Mugapen Hidrografikoaren eremuan uholdeei buruzko azterketa ugari egin dira. Egun 500 biztanle baino gehiagoko EAeko hirigune ia guztietako uholde-arriskuen mapak daude, etengabeko berrikusketari lotuta dauden arren.

UR-Agentziak uholde-arriskuei buruz 2009 urtean jasotako datuak *l.11a- Ingurumen arriskuak* planoan azaltzen dira. Hiru arrisku kategoria ezberdin ezarri dira, 10, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldia duten uholde-orbanen arabera.

Planoan ageri denez Aramaio eta Deba ibaien ibarretan 10 urteko orbana (arrisku oso handia), eta batez ere 100 urteko orbana (arrisku handia) hirilurra eta lurzoru hiritarraren diren esparruetan nabarmen hedatzen da.

Arrasateko hirigunea eta gunerik populatuena batik bat ibaien ibarretan garatu direnez, hautabide ezberdinak baloratzean kontu handiz begiratu beharreko gaia da hau.

3.12.2. Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna

Udalerrriak litologia aldetik duen aldakortasuna dela eta, akuiferoen urrakortasunari buruz UR-Agentziak dituen datuak ere oso aldakorak dira; izan ere, azterketa eremuan arrisku kategoria guztiak agertzen dira, txikienetik handienara.

Dena den, urrakortasun handiena kareharriak, margak eta lur alubialak azaltzen diren tokiei dagokiela nabarmendu behar da. Urrakortasun "handia" edo "oso handia" duten eremuak *1.11a- Ingurumen arriskuak* planoan azaldu dira, aukerak baloratzean kontutan hartzeko.

3.12.3. Higadura arriskua duten eremuak

Lurra ezegonkorra den tokietan, Basogintza eta Nekazaritza LAP-ak egur-landarediari eustea eskatzen du, higadura murrizteko; LAP-ean kontsulta egin eta gero, "higadura jasateko arriskua duten tokiak" kategorian dauden Arrasateko eremuak kartografiatu dira. Hareago, lur horietaz gainera, udalerriko orografiaren mapa aztertu eta %50 gainditzen duten maldak identifikatu dira, ezegonkortasun maila berdina dutela kontsideratu baita. Emaitzak *1.11a- Ingurumen arriskuak* planoan kontsultatu daitezke.

3.12.4. Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua

Kasu honetan, IHOBEn 'Lurzorua kutsatu dezaketen jarduerak jasan edo jasaten dituzten kokalekuen inbentarioa' hartu da informazio iturri gisa. IHOBEn datuen arabera, udalerrian kutsatuta egon daitezkeen 76 partzela daude, guztira 76,66 Ha-ko azalera hartzen dutenak. Partzela hauek *1.11b- Ingurumen arriskuak* planoan aurkeztu dira.

HAPOaren berrikuspenean hautabideak proposatu diren eremuetara mugatuz gero, hainbatek beren baitan kutsatuta egon daitezkeen lurrak dituztela ikus daiteke, hala nola: Uruburu, Grandenape, Agerre, Intxausti, Santamaina, Azeri, Legarre, Zabaleta, Mendibarren, Gautxori, Meatzerreka eta Zaraa-Montzon.

3.12.5. Zarata

Arrasateko Udalak 2.002 urtean udalerriko zarataren hasierako azterketa bat egin zuen⁶, gerora udalerriko Zaraten Mapa egiteko lehenengo urrats moduan. Txosten honek udalerriko zarata-iturri nagusiak eta hauek azaltzen duten zarata-maila jasotzen ditu, datu hauen arabera udalerrian indarrean dagoen HAPO-k aurreikusten dituen etxebizitza-garapen nagusiei dagokienez zarata dela-eta arazoak izan ditzaketen guneak identifikatzen dituelarik.

Aipatutako txostenak, azaltzen duten igorpen-mailaren eraginez herriguneko eraikinek zarata-maila altuegiak izatea eragin dezaketen kaleak jasotzen ditu. Gauerako 55 dB (A)-ko igorpen-maila helburutzat hartuz, zarata-maila altuagoa azaltzen duten kaleen zerrenda azaltzen du, 55-60 dB(A) bitarteko igorpen-maila eta 60-65 dB(A) bitarteko igorpen-maila duten kaleen arteko bereizketa eginez. Ondoko taulan jasotzen dira Arrasateko hirigunea zeharkatzen duten kaleen artean gauerako 55 dB(A) baino altuagoa den igorpen-maila azaltzen dutenak:

55-60 dB(A)	60-65 dB(A)
San Josepe	Gipuzkoa etorbidea
Intxausti	Otalora lizentziatua (tarte jakin batean)
Garibai etorbidea	Zarugalde
Otalora lizentziatua	Arrasate pasealekua
Bizkaia etorbidea	Uribarri etorbidea
	Alfonso VII
	Araba etorbidea
	Nafarroa etorbidea

ITURRIA: Arrasateko zarataren hasierako azterketa (ACC, 2002)

⁶ Evaluación del ruido ambiental en Arrasate-Mondragón (AAC, 2002)

Udalerrria zeharkatzen duten errepide nagusien zarata-igorpenari dagokionez, aipatutako azterketak honako errepideak hartu zituen kontuan: GI-627, GI-2620 eta GI-3551. Gauari eta egun osoari dagokion epeetarako kalkulaturako igorpen-maila ondoko taulan jasotzen da, baita kalkulu hauek egiteko oinarri bezala erabili ziren datuak ere:

Errepidea	Abiadura arinak/astunak	EBII	% Astunak	L _N dB(A)	L _{DEN} dB(A)
GI-2620 Gargarza	90/80	6.937	12	64	73,3
GI-2620 San Andres	90/80	15.314	12	65,6	74,9
GI-3551	90/80	3.144	12	60,6	69,8
GI-627	90/80	9.909	12	65,5	74,8

ITURRIA: Arrasteko zarataren hasierako azterketa (ACC, 2002)

Aipatutako azterketa 2.002 urtean gauzatu zenez, ez zituen Arrasateko mendebaldeko ingurabidea eta AP-1 autobidearen igorpen-mailak kalkulatu, ezta errepide hauek Arrasateko herrigunean izan dezaketen eragina ere, hartara oraindik ere bi azpiegitura hauek eraiki gabe zeuden eta.

Edonola ere, garaian indarrean zegoen hirigintza-plangintzak aurreikusten zituen eremu hiritargarri nagusiek errepide hauek igortzen duten zarata dela-eta izan zitezaketen arazoak aztertu zituen. Eremu hiritargarri hauek GI-627 eta GI-2620 errepideen inguruan kokatzen zirenez, hauek zaratarengatik arazoak izatea baztertu ezin zela ondorioztatu zuen aipatutako ikerlanak.

Arrasateko udalerrian industria-jarduerak duen garrantzia kontuan izanda, udalerriko zarataren hasierako azterketa honek industriari loturiko zarata-iturri nagusiak antzeman eta beren igorpen-potentzia kalkulatu zuen. Iturri hauek duten igorpen-potentzia eta hiriguneko etxebizitzekiko duten distantzia kontuan harturik, aipatutako azterketak iturri hauetariko zeinek izango lukeen etxebizitzengan eragina jaso zuen:

Igorpen-iturria	Potentzia dB(A)	Etxebizitzetara distantzia	Zaratagatik arazoak
Fagor Garagartza 2 (iturri baxuak)	100	60	Bai
Fagor Ederlan 1 (tximiniak)	109	80	Bai
Eroski (aireztatze sareta)	96	30	Bai
Fagor Mugarrieta 1 (karga eta deskargarako tximiniak)	108	90	Bai
Utilelajes Uribesalgo	97	25	Bai
Polmetasa	107	107	Bai
Fagor Ederlan-AMAT	112	80	Bai
Gelma	109	75	Bai

ITURRIA: Arrasteko zarataren hasierako azterketa (ACC, 2002)

Beste alde batetik, Gipuzkoako Zarataren Mapa Estrategikoen, 2008ko azaroaren 3ko 362-C/2008 Foru Aginduaren bidez onartuak, GI-627 errepidearen Bergara eta Arrasate hirigunearen sarreraren arteko tartea aztertu zuten. Beraz, mapa hauek ez dute GI-627 errepideak Arrasateko hirigune zeharkatzen duen tartean gaur egun azaltzen duen egoera akustikoari buruzko informazio gehiagorik ematen. Horretaz gain, mapa hauek egin ziren garaian oraindik ere AP-1 autobidea (Eibar eta Gasteiz artean) eraiki gabe zegoenez, ez dute errepide honen zarata-igorpenari buruzko informaziorik ematen.

Dena den, azpimarratu behar da Arrasateko Udalak 1984ko irailaren 28ko udalbatzarrean onartutako ingurumena babesteko udal ordenantza, zaratak eta dardarak igortzearen aurka, duela. Aipatutako udal ordenantza honek baimentzen dituen zarata-mailak honakoak dira:

- Gune publikoen kanpoaldean, lorategietan, landa-ingurunean, eskoletan eta zarata igortzen duten partzelen mugetan, egunez 60 dB (A) eta gauez 45 dB (A) onartzen dira gehienez.
- Bizitegi eta merkataritza hiriguneetan, gehienez 60 dB (A) egunez eta 50 dB (A) gauez.

- Etxebizitzetan barneratu daitekeen zarata maila altuena 45 db (A) izango da egunez, eta 30 db (A) gauzez, behin inguru-zarata kendu eta gero.

3.12.6. Airearen kalitatea

Kutsadura atmosferikoari buruz, IHOBek 2006an Deba Garaia Eskualdeko Aire Kalitatearen Diagnostikoa eta Ekintza Plana atera zuen. Orduan egindako diagnostikoaren arabera, kutsadura datuek indarrean dagoen araudia betetzen dute, aireko material partikulatuari (PM₁₀) buruzko datuak izan ezik. Hurrengo urtetako (2007-2008) datuek, 2009ko EAEko Aire Kalitatearen Ekintza Planen egoera eta garapena txostenetik jasoak, arazoak jarraitzen duela diote, zerbait apaldu bada ere.

Azken kasu honetan, urteko batez besteko maila betetzen den arren, eguneko maximoa gehiegitan gainditzen dela ikusi da. Kutsadura mota honen erantzukizuna industria, harrobi eta batez ere trafikoari egozten dio aipatutako Ekintza Planak.

Airearen kalitatea neurtzeko EAEko kontrol eta zaintza sareak denbora errealean parametro batzuk neurtzen ditu, hala nola SO₂, NO_x, PM10 eta O₃ kutsatzaileak, EAEko hainbat zonatan banatutako estazioen bidez. Horietako bat Arrasaten dago. Neurketa hauek airearen kalitate-indizea kalkulatzeko ahalbidetzen dute. Indizea sei balio-tartetan sailkatzen da: ona, onargarria, ertaina, txarra, oso txarra eta arriskutsua.

Aire-kalitatearen bilakaera Debagoiena eskualdean hurrengo taulan azaltzen da. Taula honek ere EAEko eta eskualdeko 'iraunkortasun indize' en⁷ arteko alderaketa egitea ahalbidetzen du.

Urtea	Airearen kalitatearen indizea						Iraunkortasun indizea Ibaizabal-Deba Garaia	Iraunkortasun indizea EAE
	Ona	Onargarria	Ertaina	Txarra	Oso txarra	Arriskutsua		
2005	149	170	36	9	1	0	87,40%	94,59%
2006	131	148	69	17	0	0	76,44%	92,97%
2007	132	180	41	11	1	0	85,48%	93,78%
2008	172	165	23	5	1	0	92,08%	96,77%
2009	229	123	13	0	0	0	96,44%	97,51%

3.13. ALDERDI SOZIO-EKONOMIKOAK

3.13.1. Biztanleria

2009. urteko abenduan, Arrasate-Mondragon herriak 21.833 biztanle zituen, horietatik %50,4 emakumezkoak. 1990. urtetik aurrera herrian eragin nabarmena izan duen beherapen demografiko bat egon dela azpimarratu daiteke. Garai haietan biztanleriaren maximoetara iritsi baitzen, 25.000 biztanlerekin.

Arrasateko biztanleriaren bilakaera urtetik urtera azken hamarkadan									
2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	
% -4,10	% -0,13	% -0,92	% -1,14	% -1,32	% -0,88	% -0,64	% -0,41	% -0,24	

Arrasateko Haur indizea (0-14 urte arteko biztanleak)							
2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
% 10,78	% 10,79	% 10,75	% 10,92	% 11,20	% 11,44	% 11,60	% 11,89

Arrasateko Zahartze-indizea (65 urte eta gehiagoko biztanleak)							
2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
% 18,15	% 18,51	% 18,93	% 19,38	% 18,83	% 19,93	% 20,26	% 20,92

Iturria: Udalmap

⁷ Iraunkortasun indizea Airearen kalitatea neurtzeko EAEko Kontrol eta Zaintza Sareak diseinatu du: Aire kalitate 'ona' duten egun kopurua + Aire kalitate 'onargarria' duten egun kopurua * 100 / urteko egun kopurua

3.13.2. Ekonomi egitura

Arrasateko biztanleriaren jarduera tasaren bilakaera	
2001	2006
% 50,05	% 49,09

Arrasateko emakumezkoen jarduera tasaren bilakaera	
2001	2006
% 41,61	% 42,71

Arrasateko 16-64 urte arteko biztanleriaren okupazio tasaren bilakaera	
2001	2006
% 64,05	% 65,52

Arrasateko 16-64 urte arteko emakumezko okupatuena tasaren bilakaera	
2001	2006
% 52,43	% 58,43

Okupazio-tasa: genero arteko aldearen bilakaera	
2001	2006
% 22,61	% 13,76

Arrasateko 16-24 urte arteko gazte landunen tasaren bilakaera	
2001	2006
% 31,31	% 32,08

Balio erantsi gordinaren bilakaera sektoreka Arrasaten			
Sektoreak	2000	2005	2008
Nekazaritza eta arrantza	% 0,20	% 0,12	% 0,10
Industria	% 53,40	% 45,41	% 41,86
Eraikuntza	% 2,30	% 5,28	% 4,44
Zerbitzuak	% 44,20	% 49,19	% 53,60

Okupatutako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren bilakaera sektoreka Arrasaten		
Sektoreak	2001	2006
Nekazaritza eta arrantza	% 0,59	% 0,34
Industria	% 52,68	% 49,02
Eraikuntza	% 5,38	% 5,34
Zerbitzuak	% 41,35	% 45,30

Iturria: Udalmap

3.14. MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

Mugikortasuna hiriko giroan eraginik handienetakoa duen faktoreetariko bat da. Arestian aipatu den bezala, motorizazioaren hazkundera eta ibilgailu pribatuen erabilpen zabalak hiriguneko ingurumen-kalitatean ondorio negatiboak eragiten ditu (zarata eta kutsadura atmosferikoa batez ere) eta tirabirak sortzen ditu eremu publikoaren erabiltzaileen artean.

Tokiko Agenda 21-aren Ekintza Planaren arabera, bultzatu edota indartu beharreko eremu nagusietariko bat mugikortasuna nahiz garraioa lirateke. Honako puntu hauek jorratzen dira bertan:

- Herriko trafiko-aldiak eta beronen sarbideak ordenatu.
- Oinezko nahiz bizikleta bidezko mugikortasuna bultzatu eta erraztu.
- Ezbehar edo istripu arriskuak jaitsi.
- Udal arteko garraio publikoaren zerbitzua indartu.

EUSTATEk jasotako datuen arabera, 2001 urtean, lana udalerritik kanpora zuten arrasatearrak langileen % 33,89a ziren, eta ikastera kanpora joaten zirenak, berriz, %57,32a. Arrasateko lanpostuen % 50a, ordea, udalerritik kanpora bizi zen jendeak betetzen zituen.

Autokontentzio indizeak herrian bertan lan egiten duten bertako langileen portzentaia adierazten du. Herrian bizi nahiz lan egiten duen biztanleria eta bertan bizi den biztanleria langile arteko koefiziente bidez kalkulatzen da. Arrasatek (2001 urteko datuen arabera) autokontentzio ahalmen handia du (% 65a), honela barne-bidaiek kanpora irteten diren bidaiek baino pisu handiagoa dutelarik.

Buruaskitasun indizea bertan bizi diren langileek betetako herriko lantokien portzentaia litzateke. Herrian bizi nahiz lan egiten duen biztanleria eta bertan lekutoriko lanpostu arteko koefiziente bidez kalkulatzen da. Arrasaten buruaskitasun indizea (2001 urteko datuen arabera) %50-ekoa da, beraz herriak lanpostuen erdia bakarrik osatzen du, ondorioz erakarrirako mugikortasunak indar handia du.

Lan edo ikasketa arrazoiengatik erakarrirako fluxu nagusienak honakoak ziren: Aretxabaletatik (%15,7), Bergararik (%12,6), Eskoriatzatik (%9,6), Oñatitik (%9,0) eta Vitoria-Gazteiztik (%8,3). Arrazoi beragatik eragindako fluxu nagusienak honakoak: Aretxabaleta (%23,1), Oñati (%17,1), Bergara (%15,4), Eskoriatza (%16,9), Vitoria-Gazteiz (%9,1). Behartutako mugikortasunari lotutako 12.449 barne-bidaia egin ziren guztira; haien %85a lanagatik eta beste %15 ikasketak zirela eta.

2005ean, Tokiko Agenda 21aren esparruan, Arrasaten erabilitako garraio motak aztertu ziren⁸. Emaitzen arabera, joan-etorri guztien %60a kotxean egiten zen, %35 oinez, eta garraio publikoetan %5a. Barne-bidaiei soilik zegozkien datuek antzeko proportzio bat erakusten zuten: % 56, %38 eta %6.

Herri barruko garraioaren sistema ibilgailu pribatuaren menpe dago. 58.000 joan-etorri eguneko egiten dira ibilgailu pribatuen (barne bidaiak eta kanporakoak), herritik kanpora egindako bidaiek bidai guztien %33 direlarik.

Udalerriko biztanleen artean ibilgailu motordun pribatuen erabilera oso handia da, baita udalbarri barruan ibilbide laburrak egiteko ere, eta 2009an biztanleko 0,61 ibilgailu zegoen.

Udal ekobarometroaren arabera (2008), biztanleko eguneroko desplazamendu zenbakia jaitsi egin da 2004-2008 urteen epean (2,87tik 2,65era). Epe berean, biztanleek egunero betetzen duten batz besteko distantzia zertxobait igo da (10,39Km-tik 10,98ra) ordea, eta berdina gertatu da batz besteko denborarekin (39,31 minututik 40,91ra).

3.14.1. Errepide sarea. Zirkulazioa

Arrasateko hirigunea oinarrizko eta eskualdeko sareko errepide hauekin lotuta dago: AP-1 (Eibar-Gazteiz), GI-627 (Eibar-Gazteiz), GI-632 (Beasain-Durango), GI-2620 (Arrasate-Legutiano), GI-3551 (Arrasate-Kanpanzar). Horrez gain, hirigunea eta nekazar auzoak lotzen dituztenak: GI-3552 (Hirigunea-Udala), GI-3554 (Hirigunea-Bedoña).

Errepide hauetako zirkulazioaren batz besteko intentsitatearen (BBI) bilakaera hurrengo taulan azaltzen da.

⁸ Herriko mugikortasunaren ikerketa. Análisis eta diagnóstico. 2005ko apirila. Intra ingeniería de tráfico s.l.-k egina.

Errepideetako zirkulazioaren batz besteko intentsitatearen (BBI) bilakaera (2005-2008) ⁹				
Errepidea	2005	2006	2007	2008
AP-1 (Bergara-Arrasate)	5.054	5.833	6.325	6.736
GI-627 (Elorregi)	19.800	18.032	16.956	18.143
GI-627 (Arrasate)	10.216	11.986	13.454	10.729
GI-632 (Epele-Kanpanzar)	2.812	4.625	3.133	3.647
GI-632 (Kanpanzar gaina)	7.340	6.952	6.751	5.787
GI-2620 (Garagartza)	6.519	6.601	7.081	4.993
GI-2620 (San Andres)	14.492	14.361	14.937	11.169
GI-3551 (Arrasate)	3.401	3.401	2.265	1.938

Iturria: Gipuzkoako errepideetako zirkulazio neurketen informazioa. 2008. urtea bitarteko bilketa (GFA. Bide Azpiegituretako Departamendua).

Aipatutako oinarriko errepideak hiri-zeharbideen bidez artikulatzen dira, herrian zehar Uribarri etorbidea (11.280 ibil./egun.), Bizkaia etorbidea (5.190 ibil./egun.), Gipuzkoa (11.200 ibil./egun.) eta Nafarroa etorbidea (10.200 ibil./egun.) izenez ezagutzen dira. Hirigunea inguratzen duen biribilguneak, zeina Araba (6.800 ibil./egun.), Garibai (4.300 ibil./egun.), Otalora Lizentziatua (6.200 ibil./egun.), Arrasate Pasealekua (7.200 ibil./egun.), Alfonso VIII (7.300 ibil./egun.) eta Zarugalde kaleek osatzen duten, hirigunean sakontzen den zirkulazioaren birbanaketa bideratzen du.

Bide-sarearen arazo garrantzitsuenak Arrasate pasealekua, Udala plaza eta Gipuzkoako Foruen plazaren artean eta Intxausti kalean ematen dira.

3.14.2. Garraio publikoa

Hiri autobusa

Arrasaten, hiri garraioak 2 linea dauzka eta herrigunea eta aldiriko auzoetatik ibiltzen dira autobusak. Lineetako batek erlojuaren orratzen noranzkoan egiten du ibilbidea, eta besteak, berriz, kontrako noranzkoan. 2010eko abenduaren 31ra arte, 60 minutuko maiztasuna zeukan zerbitzuak linea bakoitzean.

Emakida aldi berriarekin hasteko, Arrasateko Udalaren asmoa zerbitzuaren maiztasuna hobetzea zen, zerbitzua handituz; hala, astelehenetik ostiralera arteko lanegunetan eta urte osoan abuztuan izan ezik, kadentzia 60 minututik 30 minutura pasatu zen.

Kontzesio berritik aurrera Arrasaten ezarritako zerbitzu berria Lurraldebusen teknologia plataforma barruan eta Gipuzkoako billete bakarraren barruan dago.

Lineen diseinu berriak aukera ematen die arrasatearrei zerbitzua hobeto, samurrago eta erosoago eskuratzeko, sortu edo garatu berriak diren inguruneei, esaterako, Elma, Kiroldedia, Abaroa Berria eta Garaia Guneari ere zerbitzua ematen zaie eta.

Garraio mota honen erabiltzaileen gehiengoak¹⁰ geltokirainoko bidea oinez egiten dute (%94) 10 minutu baino gutxiagokoa (%89), beraz, geltokien sareak herriko zati gehiena estaltzen duela uler daiteke.

Hiriarteko autobusa

Arrasate-Mondragon bere inguruko herriekin hiriarteko autobusen bidez komunikatzen da. Hala, egunero nahitaezko 172 bidai egiten dira Eskoriatzara, 139 Aretxabaletara, 121 Bergarara eta 62 Oñatira¹¹. Vitoria-Gasteiz da bidai gehien erakartzen dituen hiriburua, Arrasatetik gertuen dagoena baita.

Herriarteko garraio publikoak Arrasate eskualdeko herriekin lotzen du, baita hiru hiriburu euskaldunekin ere. Eskaintza nahiko eskasa da maiztasun eta helmenari dagokionez. Honek, ibilgailu pribatuaren erabilera handitzen du bidai mota hauetarako (herri kanpoko bidaietan %82a ibilgailu pribatuan egiten da).

⁹ 2011. urterako errepide sarean aldaketa nabarmenak egin dira, hala nola AP-1 eta Olandixo tunela (GI-2620) burutu dira.

¹⁰ 2005 Herriko mugikortasunaren Ikerketaren datuak

¹¹ 2005 Herriko mugikortasunaren Ikerketaren datuak

3.14.3. Oinezkoak eta bizikletak

Orain dela urte batzuk hasita oinezko mugikortasunaren baldintzak hobetzeko ekintzak egin dira udalerrian, kale batzuk oinezkoentzako soilik jarritz. Ekintza hauek egungo bideen %14a oinezko-area moduan izendatzea ahalbidetu dute. Geratzen den %86a hurrengo moduan banatzen da: %62a ibilgailuentzako gunea (zirkulazio-bideak eta aparkalekuak) eta %38a oinezkoentzako (espaloiak). Hala ere, oinezkoentzako zona hauek ez dute loturarik, beraz, oinezkoentzako segurtasuna eta erosotasuna lortzearren proiektuen integrazioa egin beharko litzateke.

Oinezkoen intentsitate handienak herri erdian kokatzen dira, Herriko Plaza Nagusiaren inguruan: Erdiko kalea (5.000 oinezko/egun.), Iturriotz (4.800 oinezko/egun.) eta Zerkaosteta (5.400 oinezko/egun.).

HAPO-k motorgabekoen ibilbideen sarea aurreikusten du, oinezkoen eta txirrindularien erabilerarako. Hiru ardatzetako sarea diseinatu da:

- Antzinako Eibar-Gasteiz trenbidearen gainean.
- Musakola-Monterron-Gesalibar
- Etxaluze – Fagor (Garagartza). Honek aurreko biak lotzen dituen trazaduraren bidez.

Horieta bi, trenbidearen gaineko eta Etxaluze-Fagor artekoa, orokorrean bat datoz Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arlo Planak aurreikusitako Oinarrizko Sarearen I-4 'Debarroa' ibilbidea eta I-4.3 'Arrasate-Gesalibar' adarrarekin.

Gipuzkoako Bidegorrien Bistaratzailearen datuen arabera Arrasaten 13.281 m.-ko sarea dago osatua. 'Udalmap' aplikazioak berriz, 6,77 km/10.000 biztanleko zeudela 2009. urtean azaltzen du. Azpimarratzekoa da Herriko Mugikortasunaren Ikerketak plazaratutako datua: 2003-2004 urtetan gertatutako trafiko istripu guztien artean %11n txirrindulariren bat zaurituta irten zen.

3.15. UR-BALIABIDEEN KUDEAKETA

Arrasateko ur-azpiegiturak Gipuzkoako Ur Kontsortzioak kudeatzen ditu. Kontsortzioak 70 udalerrri eta 312.000 biztanleri ematen dizkie ur-hornidura eta ur-saneamenduaren zerbitzuak.

3.15.1. Hornidura

Deba Garaiko hornidura-sistema Urkuluko urtegiak eta Edateko Uren Araztegiak (Aretxabaleta) osatzen dute. Sistemak edateko uraz hornitzen ditu Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Elgeta eta Soraluze udalerriak, guztira 66.000 biztanleri zerbitzua ematen dielarik.

Urkuluko Edateko Uren Araztegia da urtegitik datorren ura arazteko erabiltzen den lekua. Arazteko ahalmena 500 l/seg da eta, urtero, 8.000.000.000 litro ur inguru banatzen dira eskualdeko udalerrietara.

3.15.2. Saneamendua

Deba Garaiko eskualdean, lehen saneamendu-sistema Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñatiri dagokiena da. Sistema Eskoriatza-Aretxabaleta-Arrasateko kolektoreek osatzen dute, Deba ibaiaren aldean, eta Oñatikoak, izen bereko ibaiaren aldean. Hondakin Uren Araztegia Epelen dago (Arrasate-Bergara).

Deba ibaira isurtzen diren ur-zikinak hartzen dituen hodi-biltzailea aurreikusia dago hormigoi armatuan, 1500 mm.-ko diametro maximoarekin, 12 km. inguruko luzerarekin eta 1500 l/seg-ko garraio ahalmen maximoarekin.

Epeleko Hondakin-Uren Araztegia (HUA) lokatz aktibokoa da eta nitrogenoa eta fosforoa biologikoki kentzen dira. Kutsadura zama 95.000 biztanle baliokideri dagokiona da eta gehienezko ahalmena aurre-tratamendurako 850 l/seg da eta biologikoa 245 l/seg. Instalakuntzak usainen tratamendua ere egiten du.

4. AINTZAT HARTUTAKO HAUTABIDEEI BURUZKO INGURUMEN-AZTERKETA

Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren Aurrerapen dokumentuaren izaera, askotariko antolamendu-aukerak – hainbat esparrutakoak eta arlotakoak- aztertzeko, alderatzeko eta baloratzeko prozesuaren pizgarria izatea da.

Egun indarrean dagoen HAPO eztabaidarako '0' hautabidea izango da, bai hirilur eta lurzoru hiritargarriari dagokien proposamenetan, baita lurzoru hiritarrezinaren zonifikazioaren inguruko hausnarketan ere.

Plan Orokorraren berrikuspenaren Aurrerapen fase honetan, Arrasateko Udalak hirilur eta lurzoru hiritargarriari buruzko eztabaida gune nagusiak indarrean dagoen HAPO-ak aurreikusten dituen honako esparru edo inguruen antolamenduaren inguruan erakartzeko asmoa erakutsi du:

1. Gesalibar
2. 'AE.7 Atxabalpe', 'AE.9 Barrutieta', 'AE.11 Akisoalde' eta 'AE.13 Bustintza'
3. Garagartza
4. Garaia
5. Mendibarren-Gautxori
6. Meatzerreka-Ugalde
7. Uruburu-Grandenape
8. Otalora Lizentziatua pasealekua
9. San Viator Txiki
10. Azeri
11. Intxausti-San Josepe Harrobia
12. Aldaiazpi
13. Etxe Txikiak
14. Zerrajera 2 – Zalduspe
15. Legarre
16. Agerre
17. Santamaina-Santa Teresa
18. Kaskonategi
19. Zabaleta
20. Bedoña
21. Kanpanzarko harrobia
22. Lurzoru hiritarrezinaren zonifikazioari buruzko eztabaidan bi hautabide izango dira nagusi. Alde batetik, indarrean dagoen HAPO-k jasotzen duena. Bestetik Basogintza eta Nekazaritza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak proposatzen duena.

4.1. HAUTABIDEEN INGURUMEN-AZTERKETARAKO METODOLOGIA

HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak ez ditu antolamendurako alternatiba zehatzik proposatzen aurreko atalean aurkeztu diren eztabaida puntu nagusiei dagokionez. Eremu hauetako batzuek berriki onartutako garapen-plangintza dute (Plan Partziala edota Plan Berezia), beraz HAPO-ren Berrikuspenak garapenerako dokumentu hauek proposatzen duten antolamendua berrestu besterik ez du egingo. Beste kasu batzuetan berriz, indarrean dagoen HAPO-k edota beste garapenerako plangintzaren dokumenturen batek egiten dituzten proposamenen inguruan eztabaida zabaltzeko beharra ikusten da; kasu hauetan, Aurrerapen Dokumentuak esparru hauetan egingo diren proposamenek jarraituko duten irizpidea ezartzen du eta, esparru batzuentzat, eztabaidarako oinarritzat erabili daitekeen antolamendu-proposamen berri bat ere. Dena den, esan beharra dago HAPO-ren Berrikuspenean eremu hauetarako egiten den behin-betiko proposamena hautabide hauen desberdina izango dela ziurrenik.

Testuinguru honetan, eremu hauentzako '0' hautabidea besterik ez dago zehaztua kasu askotan, berau indarrean dagoen HAPO-aren proposamenari baitagokio; honetaz gain, Aurrerapen Dokumentuak aipatzen

dituen irizpideak edota gutxi gorabeherako antolamenduak kontutan izango dira hautabideen azterketa egiteko garaian.

Edonola ere, proposamen zehatzak egiten ez diren artean, atal honetan garatuko den hautabideen ingurumen-azterketa hasierako hautabide bat bezala hartu beharra dago: kasuan kasu esparru bakoitzarentzako indarrean dagoen HAPO-ak ezartzen duen antolamendua deskribatzen da, baita Aurrerapen Dokumentuaren aurreikuspena esparru hauentzako proposamenak hartuko duen norabideari buruz.

Jarraian aztertzen diren esparruentzako antolamendu-proposamen zehatz bat egiten ez den artean, hautabideen ingurumen-azterketa eremu hauek gaur egun aurkezten dituzten ingurumen-baldintzatzaile nagusien deskribapen orokor batean oinarritu da. Honetaz gain, Aurrerapen Dokumentuak kasu bakoitzari buruz egiten duen hausnarketaren arabera, '0' hautabidearen eta aipatutako dokumentuan aurreikusitako proposamenen balorazio bat egiten da, alternatiba hauetako bakoitzak izango lituzkeen onura eta kalte potentzialak identifikatuz.

Garapenerako plangintzak eginiko proposamenak bereganatzen dituen kasuetan, ez da beharrezkoa ikusi hautabideen ingurumen-azterketa hau egitea, Berrikuspen dokumentuaren proposamena indarrean dagoen plangintza berrestea izango baita, berauen inguruan beste alternatibarik proposatu gabe.

Esan beharra dago Aurrerapen Dokumentuak, kasu gehienetan, norabide posible bat besterik markatzen ez duenez garapen askoren inguruan, alternatiba hauen ingurumen-balorazioa maila zabalean egin dela, batez ere Aurrerapen Dokumentuak markatzen dituen norabide hauek EAE mailan indarrean dauden ingurumen-irizpide nagusien ildo berean doazen aztertu delarik.

HAPO-aren berrikuspenaren hurrengo faseetan, proposamenek xehetasun handiago bat aurkezten duten heinean, hautabideen ingurumen-balorazio hau ere zehaztasun handiagoz garatuko da, proposamenetako bakoitzarekin espero diren ingurumenaren gaineko eraginak era zehatzagoan aurreikusi ahal izango direlarik.

Esan bezala, atal honetan garatuko den hautabideen ingurumen-azterketa HAPO-ak definitzen dituen ekintza-eremu edo esparruetako bakoitzak gaur egun aurkezten dituen ingurumen-baldintzatzaile nagusietan oinarritu da. Aurreikusten diren hirigintza garapenen ezaugarriak kontuan harturik (etxebizitza- jarduera ekonomiko- eta merkataritza-garapenak), hauek gehien baldintzatuko dituzten ingurumen-eragileak honakoak izan daitezkeela jo da:

- **Orografia:** Aztertutako esparru batzuk etorkizuneko etxebizitza- edo industria-garapenak baldintza ditzaketen erliebea dute gaur egun, malda nabarmenekin. Baldintzatzaile hau ezartzeko garaian irizpide bezala, %50 edo gehiagoko malda duten eremuentzat alderdi hau baldintzatzaile bat izan daitekeela hartu da.
- **Lurzoruaren ahalmen agrologikoa:** Aztertutako eremu batzuek ahalmen agrologiko handiko lurzorua dituzte gaur egun, bertan aurreikusitako garapenak lurzoru hauen galtzea ekarriko luketelarik. Gipuzkoako Mota Agrologikoen Mapa (GFA, 1987) eta Basogintza eta Nekazaritza Antolatzeko LAP-ak (Behin-behineko onarpenerako dokumentua, 2010) emandako informazioaren arabera, eta azterketa-eremu bakoitzak egun aurkezten duen egoera kontuan hartuta, ahalmen handiko lurzoru hauek antzeman dira. Alderdi hau baldintzatzailetzat jotzeko irizpidea lurzoru Gipuzkoako Mota Agrologikoen Maparen II edo III kategorian sailkatuta egotea, egungo egoeraren arabera eguneratu ondoren, edota aipatutako LAP-ean 'Balio estrategiko altua' kategorian sailkatuta egotea izan da.
- **Lurrazaleko ur-ibilguak:** Aztertutako eremuak lurrazaleko ur-ibilguren batek zeharkatzen dituen hartu da kontuan (ibaiak, errekek eta erreka-eremuak), aurreikusitako garapenak baldintzatuko baitituzte. Baldintzatzaile hau definitu ahal izateko irizpide bezala ibilgu iraunkorrak besterik ez dira kontuan hartu, hau da ur-isuria urte osoan zehar mantentzen duten ibilguak. Horretarako EAEko Ibai eta Erreketako Ertzen Antolamendurako LAP-aren antolakuntza planoetan ageri diren ur-ibilguak besterik ez dira hartu kontuan; hots, honek ez du esan nahi eremuren baten urte osoan ur-eremua mantentzen ez duen ur-ibilguren bat ere aurkeztea, baina kasu hauetan ibilgu hauek etorkizunean eman litezkeen hirigintza-garapenak neurri txikiago batean mugatzen dituztela hartu da kontutan.

- **Landaretza:** Aztertutako eremu batzuek interesa duen landaretza azaltzen dute gaur egun, hauen babes eta mantentzea batzuetan bateraezina delarik esparru hauetarako aurreikusten diren garapenekin. Kasu honetan, eremuak gaur egun azaltzen duten landaretza baldintzatzailea izan daiteke bertan aurreikusten diren hirigintza-garapentzat, babestu beharreko landaretza den kasuetan. Txosten honen 3.7.2. *Interes bereziko landaredia* atalean udalerrian interesa duten eta, honenbestez, babestea merezi duen formazio eta habitatak jaso dira. Orokorrean intereseko landareditzat jo dira, alde batetik 92/43/CEE Habitaten Zuzentarauko I. eranskinean definituriko Interes Komunitarioko Habitatak, eta bestetik hostozabalen baso autoktonoak (artadiak, hariztiak, pagadiak, e.a.).
- **Fauna:** Arrasateko udalerria EAeko Espezie Mehatxatuen Katalogoan dauden zenbait espezierentzat mugaturiko 'interes bereziko eremuen' edo 'lehentasuneko banaketa-eremuen' barnean sartzen da, beraz ezin da baztertu, nahiz eta probabilitate txikia izan, espezie hauetakoren bat udalerrian agertzea. Baldintzatzaile honen eragina aztertzekeo garaian, eremu ezberdinak espezie mehatxatu hauentzat definituriko 'interes bereziko eremu' edo 'lehentasunezko banaketa-eremu'-ekin bat etortzen diren hartuko da irizpidetzat.
- **Natura gune babestuak:** Arrasateko Udalerrian legearen babespean edo bestelako babesen bat duten zenbait natura-gune daude, hala nola, babestutako zuhaitz berezia (Monterongo sekuioa), LAA-k definituriko interes naturalistikoko eremuak eta EAE-ko korridore ekologikoen sarea osatzen duten zenbait elementu. Etxebizitza- eta industria-garapenetarako proposaturiko esparruek gune hauekin bat egiten duten aztertuko da baldintzatzaile hau definitzeko garaian.
- **Paisaia:** Zenbait esparrutan aurreikusten diren garapenek paisaiaren gainean eragina izan dezakete; eragin honen tamaina eremu horren paisaiaren egungo kalitatearen, inguruko paisaiaren ezaugarrien eta bere ikusgaitasunaren arabera izango da. Txosten honen 3.10. *Paisaia* atalean azaldu denaren arabera, udalerria hartzen duten ikusmen-arroen paisaiaren kalitateak balorazio txarra jasotzen duenez, aurreikusten diren garapenen paisaiaren gaineko eragina, hein handiago batean, azterketa-eremuek duten ikusgaitasunaren arabera izango dela espero da. Alderdi hau zehazte aldera, txosten honen 3.10.3 *Ikusgaitasuna* atalean udalerraren azpiegitura ezberdinetatik dagoen ikuspegia aztertu da, hala nola, hirigunetik, errepideetatik eta udalerriko behatoki nagusietatik dagoen ikuspegia zehaztu da, ikuspuntu bakoitzetik ikusgai diren eta ez diren eremuak definituz. Hartara, alde batetik Arrasateko hirigunetik bertatik ikusgai diren eremuak zehaztu dira, bestetik udalerria zeharkatzen duten errepide nagusietatik (Gipuzkoako errepide-sarearen sare gorria eta laranja) eta bigarren mailako errepideetatik (Gipuzkoako errepide-sarearen sare horia, berdea eta grisa) ikusgai direnak eta azkenik udalerriko 'begiratoki' izan daitezkeenetatik (udalerriko gailur altuenekin bat datoz) eta nekazal auzoetatik (Bedoña eta Udala auzoak) ikusgai diren eremuak definitu dira. Azterketa hauetan lorturiko emaitzak txosten hau laguntzen duten 1.9.1, 1.9.2, 1.9.3. eta 1.9.4. planoetan adierazi dira eta hauetan oinarrituz, azterketa-eremu ezberdinen ikusgarritasun-maila finkatu da, ostera garapen ezberdinen paisaiaren gaineko eraginaren balorazioa errazte aldera.
- **Ingurumen-arriskuak:** Hasiera batean aurreikusten diren garapen nagusiak hartuko dituzten eremuak dituzten ingurumen-arriskuak antzeman dira. Kasu honetan, kontuan hartu diren arrisku nagusiak honakoak dira:
 - Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna: Azterketa-esparruak akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun handia edo oso handia duten eremuen barruan ote diren aztertu da.
 - Zarata: Arrasateko Udalak 2.002 urtean egindako '*Arrasateko ingurune-zarataren ebaluaketa*' egin zuen, non udalerriko zarata-iturri nagusiak identifikatu, karakterizatu eta sortutako gatazkak antzeman ziren. Aipatutako azterketa honek errepideentzako, kaleentzako eta industria-instalazio nagusientzako ematen dituen zarata igorpen-maila eta zarata hauen eraginpean egon daitezkeen eremuak kontuan harturik, azterketa-eremuek gaur egun duten egoera akustikoa baloratu da, gerora aurreikusten diren garapenek jasango dituzten inpaktu akustikoen balorazioa errazte aldera.
 - Uholde-arriskua: Ur-Agentziak argitaratutako uholde arriskuei buruzko maparen arabera, Arrasateko hiriguneko zenbait eremu Aramaio eta Deba ibaiei lotuta birgertatze-aldi ezberdinetarako (10, 100, 500 urte) urperagarriak diren guneetan kokatzen dira. Aurreikusten diren garapen nagusiak hartuko dituzten eremuak duten uholde-arriskua aztertuko da. Ur-

- Agentziak darabiltzan irizpideak ikusirik¹², arrisku hau baldintzatzailatzat jotzeko 10 eta 100 urteko birgertatze-aldiari dagozkion eremu urperagarriak besterik ez dira kontutan hartu, hautatzat zenbait mugaketa eta baldintza ezartzen baitira hirigintza-garapen berriei dagokienez.
- Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak: Azterketa-eremu ezberdinek IHOBek eginiko *'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioan'* dauden lursailak dituzte gaur egun, beraz hau beste baldintzatzaille bat izango da aurreikusten diren garapen batzuentzat. Irizpide moduan, indarrean dagoen HAPO-aren 17. *Lurzoruaren poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentaria*o planoa erabili da, non udalerrian kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak jasotzen diren, baita aipatutako IHOBEn eginiko inbentaria ere.
 - Higadura jasateko arriskua: Basogintza eta Nekazaritza LAP-k (Behin-behineko onarpenerako dokumentua, 2010) azaltzen dituen higadura arriskua duten eremuak eta %50 gaintzen duten maldak kontuan hartuz, azterketa-eremuek jasan dezaketen higadura-arriskua baloratuko da, gerora ere aurreikusitako garapenak aurrera eramateko baldintzatzaille izango den zehazteko.
 - Kultur ondarea: Indarrean dagoen HAPO-ak udalerriko kultur ondarea identifikatzen du bi planoetan: 13. *Zaindu beharreko ondarea* eta 14. *Arkeologia gune eta elementuak*. Azterketa-eremuetan kultur ondare honen elementuren bat egoteak bertan emango diren garapenak baldintzatu lituzkeenez, garapen ezberdinetarako aurreikusten diren azterketa-eremuek duten kultur ondarea aztertuko da.
 - Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Etxebizitza- eta industria-garapen berrietarako proposaturiko esparru nagusiek eduki dezaketen mugikortasun beharra eta hirigunetik duten irisgarritasuna aztertuko dira, bereziki garraibide iraunkorrei dagokienez. Testuinguru honetan, mugikortasuna eta irisgarritasuna honela aztertuko da:
 - Gipuzkoako Bizikleta-Bideen LAP-k (Behin-behineko onarpenerako dokumentua, 2010) Arrasateko udalerrirako proposatzen duen bizikleta-bideen sarearen eta indarrean dagoen HAPO-ak antolamendu planoetan jasotzen duen motorgabeen ibilbide sarearen arabera, azterketa-eremu ezberdinek Arrasateko hirigunearekin bizikleta bidezko lotura izateko duten aukera.
 - Azterketa-eremu ezberdinen kokaleku eta erliebearen arabera, eremu hauek Arrasateko hirigunearekin oinezko lotura izateko aurkezten duten aukera aztertuko da.
 - Arrasateko hiri barnea zeharkatzen duten garraio publikoaren ibilbidea kontuan hartuz, azterketa-eremuek Arrasateko hirigunearekin garraio publikoaren bidez lotura izateko duten aukera aztertuko da, horretarako egun udalerrian martxan dauden bi autobus lineatan oinarrituz.

Hautabide bakoitzaren ingurumen-azterketan orain arte azaldutako ingurumen-eragile bakoitzak eremu bakoitzean gaur egun aurkezten duen egoera deskribatuko da modu orokor batean eta ondoren hautabide hauetako bakoitza kokatzen den inguruak gaur egun azaltzen dituen ingurumen-baldintzatzaille nagusiak zehaztuko dira, horretarako bertan aurreikusitako garapenen izaera eta inguruak egun duen egoera aintzat hartuz. Ingurumen-baldintzatzaille nagusi hauek kontutan hartu beharko dira behin-betiko alternatibak hautatzeko garaian.

Jarraian txosten honen 4.1. *Aintzat hartutako hautabideak* atalean azaldutako alternatiba bakoitzaren azterketa egingo da; hainbeste hautabide eta hain desberdinak izanda berauek planteatzen dituzten jarduerak, honako eskema erabiliko da hautabide bakoitzaren ingurumen azterketa egiteko:

- Hautabideen deskribapena
- Eragindako esparruan azaltzen diren ingurumen baldintzatzailleak
- Hautabideen ingurumen balorazioa

¹² Lurra erabiltzeko irizpideak lurra urpean gelditzeko duen arrisku-mailaren arabera (Ur-Agentzia, 2011)

4.2. '1. GESALIBAR'

4.2.1. Hautabideen deskribapena

AE.1. Gesalibar esparruak 2011 urtean onartutako Plan Berezi bat du, non aurreikusten den esparruaren hiri berrantolaketa, kalitate handiagoko hirigintza parametroak lortzeko helburuarekin.

Plan Berezi honekin hirigunea finkatu egiten da eta konfigurazio berria ematen zaio, eraikin berri bakan batzuk ahalbidetuz. Hau guztia helburu bikoitzarekin: batetik biztanleria mantentzea eta bestetik jadanik kolonizatuta dagoen lurzorua giza eta ingurumen ikuspegitik era iraunkor eta egokian okupatzea.

Kasu honetan, HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak ontzat jotzen du berriki onartutako Plan Bereziak eremu honetarako proposatzen duen antolamendua, eta berau HAPO berriari berresteko asmoa azaltzen da. Testuinguru honetan, ez da espero eremu honetarako HAPO-ren Berrikuspenean hautabiderik proposatuko direnik, beraz ez da beharrezkoa ikusten esparru honen ingurumen-azterketa bat garatzea atal honetan.

Izapideak aurrera egin ahala egoki jotzen bada, txosten honen 5. Atalean AE.1 'Gesalibar' inguruan proposaturiko antolamenduak ingurumenaren gainean izan ditzakeen eraginak era zehatzean aztertuko dira.

4.3. '2. ATXABALPE, BARRUTIETA, AKISOALDE, BUSTINTZA'

4.3.1. Hautabideen deskribapena

Indarrean dagoen Egitamu Orokorrek etxebizitza berrien garapen handia aurreikusten du inguru horretan, honako ezaugarriekin:

- 'AE.7 Atxabalpe': dentsitate handiko etxebizitza-garapena (80,3 etxe/ha-ko).
 - Hirilurra (2,8 ha).
 - 224 etxebizitza berri. Aurreikusita diren etxebizitzaren %50 salneurri mugatutakoak izango lirarteke.
 - 2S+BS+3+TP profileko etxebizitzak (goiera: 13,9 m).
 - 'Monterron-Gesalibar' motorgabeko ibilbideari jarraipena ematea, dagokion zatian.
- 'AE.9 Barrutieta': dentsitate txikiko etxebizitza-garapena (10,9 etx/ha-ko).
 - Lurzoru hiritargarria (4,7 ha).
 - 51 etxebizitza berri (banaka, familibiko, zein atxikiak).
 - S/ES+BS+1+TP profileko etxebizitzak (goiera: 7,70 m).
 - Kobate erreka era ekologiko baten bitartez ubideratzea eremu barruan.
 - Kobate aldera, harrobiaren jarduerarekiko babes gune begetal bat sortzea.
- 'AE.11 Akisoalde': dentsitate handiko etxebizitza-garapena (44 etx/ha-ko)
 - Lurzoru hiritargarria (2,4 ha).
 - 11 etxebizitza finkatu eta 96 berri eraikiko dira. Etxebizitza berrietatik 38 libreak eta 58 babes ofizialekoak izango dira.
 - (2)S+BS+2+TP profileko etxebizitzak (goiera: 12,2 m).
 - Erakin berrien behe solairuetan ezingo da bertan jarduera ekonomiko erabilerarik ezarri.
- 'AE.13 Bustintza': dentsitate txikiko etxebizitza-garapena (22,6 etx/ha-ko)
 - Lurzoru hiritargarria (4,7 ha).
 - 104 etxebizitza berri.
 - ES+BS+1+TP profileko etxebizitzak (goiera: 12,2 m).

A.2.1. *Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde, Bustintza. '0' alternatiba: indarrean dagoen HAPO planoan indarrean dagoen HAPO-k esparru hauetarako aurreikusitako antolamendua azaltzen da.*

Aurrerapen Dokumentuak hazkuntza hori guztia berrikuspenean zehar zalantzan jartzeko asmoa azaltzen du, horretarako lau alternatiba edo aukera ezberdin proposatzen dituelarik, eztabaidarako pizgarri izan daitezen:

- 0 aukera: Gaur egun indarrean dagoen Egitamu Orokorrak araututako antolamendua, hau da, Barrutieta, Akisoalde, Bustintza eta Atxabalpe eremuen etxebizitza-garapena, beti ere 2/2006 Hirigintza eta Lurzoruaren Legeak zehaztutako baldintzekin.
- A aukera: Egun indarrean dagoen Egitamu Orokorren araberako Barrutieta, Akisoalde eta Bustintza esparruetan etxebizitza-garapenak (beti ere 2/2006 legeak zehaztutako baldintzen arabera) eta Atxabalpe esparruan berriz zehaztu gabeko hornikuntza-erabilera proposatzen du hautabide honek.
- B aukera: Hautabide honek eraldatu gabeko lurzoruaren erabilera murrizteko irizpidea hartzen du, horretarako Barrutieta eta Bustintza esparruak desklasifikatu eta landa lurrera itzuliz, bertan aurreikusten diren etxebizitza-garapenak baztertzen dituelarik. Akisoalde, ordea, etxebizitza-erabileretara bideratuko litzateke (beti ere 2/2006 legeak zehaztutako baldintzen arabera) eta Atxabalpe esparruan hornikuntza erabilera aurreikusten du hautabide honek.
- C aukera: Eraldatu edota artifizializatu gabeko lurzoruaren errespetatzeko irizpidea harturik, hautabide honek Barrutieta, Akisoalde eta Bustintza esparruak desklasifikatu eta landa lurrera itzultzea proposatzen du, bertan aurreikusten diren etxebizitza-garapenak baztertuz eta horrela artifizializatu gabeko lurrak okupatzea ekidinez. Bestalde, Atxabalpe esparrua zehaztu gabeko hornikuntzarako aurreikusten du (ospitaleen handitzeak gauzatzeko edo beste batzuetarako...).

HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak aurkezten dituen hautabideek proposatzen duten antolamendua honako planoetan jaso da:

- A.2.1.a. Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde, Bustintza. 'A' alternatiba: Aurrerapenaren proposamena.
- A.2.1.b. Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde, Bustintza. 'B' alternatiba: Aurrerapenaren proposamena.
- A.2.1.c. Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde, Bustintza. 'C' alternatiba: Aurrerapenaren proposamena.

4.3.2. Ingurumen Baldintzatzaileak

Hautabideen ingurumen-azterketarako harturiko metodologia jarraiki, aipatutako lau esparruek kontutan hartutako ingurumen-eragile nagusiei dagokienez gaur egun azaltzen duten egoera jasotzen da era laburrean.

- Orografia eta maldak: Hasiera batean, ez dirudi orografia eta maldak inguru honetarako proposatu litezkeen garapenak gehiegi baldintzatuko dituztenik, eremua, hein handi batean, laua dela esan baitaiteke. AE.7 'Atxabalpe', AE. 9 'Barrutieta' eta AE. 11. 'Akisoalde' eremuak % 0 eta 10 bitarteko maldak aurkezten dituzte; AE.13 'Bustintza' eremuaren gehiengoak % 10 eta 20 bitarteko maldak ditu, nahiz eta bere hegoaldeko muturrak baldintza okerragoak azaltzen dituen, % 20 – 30 bitarteko malda aurkezten baititu.
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: AE.7 'Atxabalpe' eremua erabat hiritartua dago gaur egun, AE.9 'Barrutieta' esparruaren 4,24 ha. (azaleraren %90a), AE.11 'Akisoalde' esparruaren 1,7 ha. (azaleraren %70a) eta AE. 13 'Bustintza' esparruaren 0,6 ha. (azaleraren %13a) nekazaritzarako ahalmen handiko lurzoruak dituzte. Bestalde, Basogintza eta nekazaritzarako LAP-ak AE.9 'Barrutieta' esparruaren mendebaldeko muturra (0,46 ha.) 'Balio estrategiko altua' bezala sailkatzen du.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Aramaio ibaiak AE.9 'Barrutieta' eta AE.11 'Akisoalde' eremuen arteko muga ingurua luzeran zeharkatzen du, eta AE.7 'Atxabalpe' eremua bere iparraldetik mugatzen du; horretaz gain Kobate erreka AE.9 Barrutieta esparrua. EAeko ibai eta erreken ertzak antolatzeke LAP-ak Aramaio ibaiak I. kategoria hidraulikoan (10-50 km² bitarteko arroa) sailkatzen du azterketa-eremua zeharkatzean eta Kobate erreka berriz '0' mailan (1 eta 10 km² bitarteko arroa).
- Landareta: Azterketa-esparru hauek kokatzen diren ingurua, nahiz eta area batzuetan artifizialdua agertu, oraindik ere nekazal eta basogintza erabilerak mantentzen dituen eremu bat da, azken erabilera hau 'Bustintza' esparrura mugatzen bada ere. Honela, 'Barrutieta' esparruaren %82a behe-larre edo belaze, edota baratza eta fruta-arbolekin okupaturik dago gaur egun; 'Akisoalde' esparruaren %38a ere erabilera hauetara zuzentzen da. 'Bustintza' esparruak basogintza izaera nabarmen bat azaltzen du, bere azaleraren %80a koniferoen landaketa edo hostozabalen baso gazteentzako erabiltzen delarik. 'Atxabalpe' eremuari

dagokionez, hein handi baten artifizialdua dagoenez, landaretza gutxi agertzen du gaur egun, berau Aramaio ibaiak eremu honetan duen ibaiertzeko basora mugatzen delarik ia-ia.

Eremu hauek, guztira, interesa duen landaretza mantentzen duten 5,8 ha. inguru dituzte gaur egun, garrantzi berezia dutelarik 'Barrutieta' eta 'Akisoalde' esparruek. Izan ere, eremu hauetan garatzen da Aramaioaren ibaiertzeko basoa, zeina 92/43/CEE Habitaten zuzentarauaren I. eranskinean definitzen den 91E0*. *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-eko ibarbasaok (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*) lehentasuneko interes komunitarioko habitat bezala sailkatu daiteken. Ibaiertzeko baso honek jarraipena du 'Atxabalpe' eremuan ere. Honetaz gain, 'Barrutieta' eta 'Akisoalde' esparruek 6510. Altitude baxuetako sega-belardi txiroak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*) interes komunitarioko habitata azaltzen dute. Azkenik, EAeko Ibai eta Erreketako Ertzen Antolamendurako LAP-ak Aramaio ibaiaren ertzak 'Ondo babestutako landaredi gunea' bezala sailkatzen ditu AE.9 Barrutieta eta AE.11 Akisoalde esparruen artean.

- Fauna: Aramaio ibaia bisoi europarrarentzako (*Mustela lutreola*) mugatutako 'Lehentasuneko banaketa-eremua'-ren zati da. Honetaz gain, aztertutako lau esparruak (AE.7, AE. 9, AE.11, AE.13) baso-igel iberiarra (*Rana iberica*) eta uhandre alpetarra (*Triturus alpestris*) espezie mehatxatuentzat mugaturiko 'Lehentasuneko banaketa-eremuan' sartzen dira.
- Natura-gune babestuak: AE.7'Atxabalpe, AE.9 'Barrutieta, AE.11 'Akisoalde' eta AE.13 'Bustintza' esparruak ez dira udalerrian agertzen diren naturaguneekin bat etortzen.
- Paisaia: Aztertzen diren esparru ezberdinek paisaia nahiko desberdina azaltzen dute. Alde batetik, 'Atxabalpe' eremuaren paisaia urbanoa bezala sailkatu daiteke, futbol-zelai batek eta zenbait orubek osatzen dutelarik paisaia hau. Eremu honen paisaia kalitate eskasekoa dela esan daiteke. 'Bustintza' eremuan agintzen duen basogintza-erabileraren ondorio moduan, eremu honen paisaiaren kalitatea handiagoa da, zuhaitz estalduraren egitura eta koloreak sortzen duen eragin positiboa dela eta. Azkenik, 'Barrutieta' eta 'Akisoalde' eremuak Arrasateko hirigunean nekazale-izaera mantentzen duten gune bakanetarikoak dira; nahiz eta nekazal-paisaia oraindik ere ugaria izan Gipuzkoako Lurralde Historikoaren bazter askotan, Arrasateko hirigunean bertan azken hamarkadetan atzerakada garrantzitsua jasaten ari den paisaia mota bat da. Gauzak horrela, eremu hauen paisaiaren kalitatea altua dela esan daiteke, bere babesa eta mantenua garrantzitsua jotzen direlarik.

Eremuaren paisaiaren harrera-ahalmenari dagokionez, 'Atxabalpe' eremuak bertan aurreikusten diren garapenak hartzeko ahalmen handiagoa du, paisaia hiritar bat izaki. Edozein kasutan 'Barrutieta', 'Akisoalde' eta 'Bustintza' esparruetan proposatzen diren garapenak ere paisaian erraz egokituko lirateke, izan ere esparru hauek egungo hirigunearekin jarraian azaltzen dira, eraikita dauden hainbat eremuk inguratuta.

Azkenik, azterketa-eremuaren ikusgaitasuna altua bezala baloratu daiteke; nahiz eta lau esparruak ezin diren ikusi errepide-sare nagusitik, erabat ikusgai dira bigarren mailako errepideetatik eta Arrasateko hiriguneko zenbait tokitatik, eta neurri batean udalerrian zehazturiko gailur nagusietatik eta nekazal auzoetatik. Hori dela eta, azterketa-eremuen paisaia urrakor bezala har daiteke.

- Ingurumen-arriskuak:
 - *Akuiferoen urrakortasuna*: Lau esparruak akuiferoen urrakortasun baxua duen gune batean kokatzen dira.
 - *Zarata*: 'Atxabalpe', 'Akisoalde' eta 'Bustintza' eremuek GI-2620 errepidearekin dute muga, bertan aurreikusten diren hornikuntza- eta etxebizitza-garapenak errepide honen zarata igorpenen eraginpean geratuko direlarik. Datuen arabera, errepide honen zarataren igorpen-maila 60-65 db(A)-tan kokatzen da gauerako (LE10m, gaua) eta 73 db(A) ingurukoa da egun guztirako (LE10m, den). Datu hauen arabera, ez da espero aztertutako lau esparrutan proposatzen diren garapenek egoera akustiko txarra edukitzea, GI-2620 errepideak jasaten duen trafiko intentsitatea ez da eta oso altua (EBB (2010): 6.617 ibil./egun.). Edonola ere, errepidearen ardatzarekiko babestuago kokatzen denez, 'Barrutieta' eremuaren egoera akustikoa hobea izango dela esan daiteke. Bestalde, eremu hauetatik ez oso urrun beste zarata-iturri bat izan daitekeena kokatzen da: Fagorren industria-instalakuntzak. Industria-iturri honen potentzia 95-100 dB-tan kalkulatu da egunerako eta gauerako. Dena den, garapen-

- eremuengandik duen distantzia kontutan izanda, ez dirudi zarata-iturri honek azterketa-eremuen kalitate akustikoa gutxituko duenik.
 - *Uholde-arriskua*: Aramaio ibaiari lotutako urperagarritasun arriskuak ‘Barrutieta’, ‘Akisoalde’ eta ‘Atxabalpe’ esparruak eragiten ditu maila desberdinetan, 10, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldiei dagokienez.
 - *Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua*: Azterketa-eremuek ez dute kutsatuta egon daitezkeen lurzorurik.
 - *Higadura jasateko arriskuak*: AE. 7, AE.9, AE.11 eta AE. 13 eremuek gaur egun duten orografia kontuan hartuz, ez dirudi eremuak higadura arazo handiegirik izango dituenik.
 - Kobate harrobiak AE.9 Barrutieta eremuarekin mugatzen du iparraldetik; aintzat hartu beharko dira harrobi honek ingurumenean dituen zenbait eragin, hala nola airearen kalitatearengan, zarata eta ibilgailu astunen joan-etorriak.
- Kultur-ondarea: Azterketa-eremuek ez dute indarrean dagoen HAPO-an jasotako kultur ondarearen elementurik beren esparruan, nahiz eta Akiso Baserriak –EAEk Udalak zaintzeko proposatu dituen ondasun higiezina- AE.11 ‘Akisoalde’ esparruaren ekialdeko muga kokatzen den (ekintza-eremutik kanpo, hori bai).
 - Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Gipuzkoako Bizikleta Bideen LAP-ak eta indarrean dagoen Arrasateko HAPO-ak Garagartza-Gesalibar ingurua Arrasateko hirigunearekin lotzeko motorgabekoen ibilbide bat aurreikusten dute, biek ere azpiegitura berri honentzako ibilbide berdintsua proposatzen dutelarik. Hartara, proposaturiko etxebizitza-garapenak oinezko eta bizikleta bidezko lotura izango lukete hirigunearekin. AE-13 ‘Bustintza’ren kasuan, aldiz, eremuak malda handiagoak dituenez, baliteke bere irisgarritasuna mugatuago izatea.

Azkenik, udalerriko garraio publikoaren zerbitzua osatzen duten bi autobus lineak ez dira Garagartza eta Gesalibar auzoetara iristen, beraz, gauzak orain, inguru honetan proposatzen diren etxebizitza-garapenak ez lukete udal garraio publikoko zerbitzurik izango. Dena den, udalerriko mailako zerbitzu bat izaki, garapen hauekin batera Arrasateko Udalak berak autobus-linea hauek zabaltzeko aukera aztertu lezake, etxebizitza berri hauei ere zerbitzua emate aldera. Honenbestez, gaur egun autobus zerbitzurik ez izatea ez da baldintzatzailetzat hartu Garagartza-Gesalibar inguruan proposatzen diren garapen ezberdinentzako.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak

Aztertutako ingurumen-eragile ezberdinek azterketa-eremu ezberdinetan gaur egun duten egoera hurrengo taulan jasotzen da era laburrean.

Eragile bakoitzaren kasuan, berau eremu bakoitzean baldintzatzaile izango den edo ez adierazten da (bai zentzu negatiboan eta baita positiboan ere), baita, hala bada, zein mailatan baldintzatu edo mugatuko dituen eremu horretarako aurreikusten diren etxebizitza-garapenak (kolore berdea: maila baxua, kolore laranja: maila ertainean eta kolore gorria: maila altuan):

INGURUMEN-ERAGILEAK ETA BALDINTZATZAILAK		HAUTABIDEA: ATXABALPE, BARRUTIETA, AKISOALDE, BUSTINTZA			
		AE. 7 ‘Atxabalpe’	AE. 9 ‘Barrutieta’	AE.11 ‘Akisoalde’	AE.13 ‘Bustintza’
MALDAK (>%50ko maldak)	Balioa (Ha)	0	0	0	0
	Baldintzatzailea	Ez	Ez	Ez	Ez
AHALMEN AGROLOGIKO ALTUKO LURRAK	Balioa (Ha)	0	4,2	1,7	0,6
	Baldintzatzailea	Ez	Bai	Bai	Bai
UR-IBILGUAK	Egoera*	Bai	Bai	Bai	Ez
	Baldintzatzailea	Bai	Bai	Bai	Ez
INTERESA DUEN LANDAREDIA	Balioa (Ha)	0,18	3,1	1,15	1,4
	Baldintzatzailea	Bai	Bai	Bai	Bai
FAUNA MEHATXATUA	Egoera*	Bai	Bai	Bai	Bai
	Baldintzatzailea	Bai	Bai	Bai	Bai
NATURA GUNE BABESTUAK	Egoera*	Ez	Ez	Ez	Ez
	Baldintzatzailea	Ez	Ez	Ez	Ez
PAISAIA	Balorazioa	Baxua	Altua	Altua	Ertaina
	Baldintzatzailea	Ez	Bai	Bai	Bai

INGURUMEN-ERAGILEAK ETA BALDINTZATZAILEAK			HAUTABIDEA: ATXABALPE, BARRUTIETA, AKISOALDE, BUSTINTZA			
			AE. 7 'Atxabalpe'	AE. 9 'Barrutieta'	AE.11 'Akisoalde'	AE.13 'Bustintza'
INGURUMEN-ARRISKUAK	Akuiferoen urrakortasuna	Balioa (Ha)	0	0	0	0
		Baldintzatzailea	Ez	Ez	Ez	Ez
	Zarata	Egoera	Ona	Ona	Ona	Ona
		Baldintzatzailea	Bai	Ez	Bai	Ez
	Uholde-arriskua	Balioa (Ha)	0,2	0,19	0,76	0
		Baldintzatzailea	Bai	Bai	Bai	Ez
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak	Balioa (Ha)	0	0	0	0
		Baldintzatzailea	Ez	Ez	Ez	Ez
	Higadura-arriskua	Balioa (Ha)	0	0	0	0
		Baldintzatzailea	Ez	Ez	Ez	Ez
KULTUR ONDAREA	Egoera*	Ez	Ez	Ez	Ez	
	Baldintzatzailea	Ez	Ez	Bai	Ez	
MUGIKORTASUNA	Egoera	B/O	B/O	B/O	O	
	Baldintzatzailea	Ez	Ez	Ez	Bai	

B: Bizikleta bidezko lotura. O: Oinezko lotura.
* Kasu hauetan egoeran dagokion ingurumen-eragileraren azterketa-eremuan badagoen edo ez adierazten da.

Taula: Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde eta Bustintza esparruek dituzten ingurumen-baldintzatzaile nagusiak.

A.1.2: Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde eta Bustintza. Ingurumen baldintzatzaileak planoan esparru hauetako ingurumen baldintzatzaile nagusiak azaltzen dira.

4.3.3. Ingurumen Balorazioa

Aurreko atalean etxebizitza-garapenerako aurreikusten diren esparru ezberdinek egun azaltzen dituzten ingurumen-baldintzatzaile nagusiak jaso dira. Honekin guztiarekin, Aurrerapen dokumentuak proposatzen dituen hautabide ezberdinen ingurumen-balorazioa egingo da atal honetan, hautabide hauetako bakoitzarekin aurreikusten diren ingurumenaren gaineko eragin nabarmenetan oinarrituz horretarako.

Lehen esan den bezala, plangintzaren fase honetan eztabaidarako pizgarri moduan lau proposamen desberdin azaltzen dira, HAPO-ren Berrikuspenak azkenean egingo duen proposamena beste desberdin bat izango daitekeela baztertu gabe, dena den. Orain proposatzen diren aukera ezberdinen helburua ireki nahi den hausnarketarako oinarritzat egitea dela argi geratzen da, izan ere eremu hauen garapena oraindik ere zabalik dagoen gai bat da.

Plangintzaren fase honetan eskura dagoen informazioarekin, kasu batzuetan zaila egiten da lau aukera ezberdinek ekar litzaketen ingurumenaren gaineko eragina aurreikustea, behin-betiko proposatzen den antolamendu zehatzaren arabera eta beraz eraikitzeko beharrezkoak diren jarduketan arabera baitira kasu askotan. Dena den, nahiz eta plangintzaren fase honetan ez ezagutu eragin hauetako batzuk izango duten tamaina, argi dago eragin hauek gertatuko direla.

Edonola ere, atal honetan garatuko den hautabide ezberdinen ingurumen-balorazioa gerora zabalduko den eztabaidan erabiltzeko helburuarekin egin da, hartara ingurumenaren gaineko kaltea esparru hauetarako egiten den behin-betiko garapen-proposamena aukeratzeko orduan kontuan hartzen den irizpide bat izan dadin.

Inguru hauetako bakoitzean aurreikusten diren ingurumen-eragin nagusiak azalduko dira jarraian, esparru bakoitzean eragin hauek izan dezaketen tamaina eta garrantziaren arteko alderaketa bat eginez. Lehenik modu orokorrean esparru ezberdinetan proposaturiko etxebizitza-garapenek inguru horietan izan ditzaketen ingurumen-eragin nagusiak deskribatuko dira eta ondoren hautabide bakoitzak proposatzen dituen garapenei loturiko eraginek izan dezaketen tamaina jasotzen duen taula bat azalduko da.

AE. 7 'Atxabalpe', AE.9 'Barrutieta', AE.11 'Akisoalde' eta AE.13 'Bustintza' eremuetan aurreikusten diren etxebizitza-garapenek izango dituzten ingurumen-eragin nagusiak honakoak izan litezke:

1. Lurzoruaren okupazioa

Hautabide ezberdinek proposatzen dituzten garapenak kokatzen diren lau esparruek honako azalera aurkezten dute:

- AE. 7 'Atxabalpe': 2,8 ha.
- AE.9 'Barrutieta':4,8 ha.
- AE. 11 'Akisoalde': 2,4 ha.
- AE. 13' Bustintza': 4,6 ha.

Eremuek guztira 14,6 Ha gehitzen dituzte, udalerrian indarrean dagoen HAPO-k sailkatzen duen egoitzarako lur hiritargarriaren azalera osoaren ia %22a. Inguru honen garapenari buruzko, bere osotasunean, eztabaida zabaltzeak udalerrriaren lurzorua okupazio berrian aldaketa nabarmenak ekar litzake, egun eremu hau udalerrriak duen lurzoru hiritargarriaren erreserba nagusienetakoa baita.

'0' hautabidearekin alderatuz, Aurrerapen dokumentuak proposatzen dituen hautabide ezberdinek lurzorua erabilera murrizten dute, honek udalerrriaren lurzorua okupazio-mailan eragin positiboa izango lukeelarik.

A aukerak, nahiz eta 'Atxabalpe' eremua horniketa-erabileretarako bideratzen duen, lau esparruen okupazioa ekarriko luke, beraz '0' hautabidearen eragin ia berdina izango luke lurzorua okupazioari dagokionez.

B aukerak berriz, 'Akisoalde' eta 'Atxabalpe' eremuen garapena proposatzen du, horretarako 5,2 Ha-ko azalera okupatu litzatekeelarik. Azkenik, C hautabideak lurzorua erabilera txikiena eskatzen du, izan ere proposatzen dituen garapen bakarrak 'Atxabalpe' eremuan kokatzen dira, beraz lurzorua okupazioa 2,8 Ha-ra murriztuko litzatekeelarik.

Orokorrean, 'Barrutieta', 'Akisoalde' eta 'Bustintza' esparruak azpiegitura hiritarrez libre dauden eremuak izanik, bertan proposaturiko garapenek ingurumenaren gainean eragin nabarmenagoa izango luketela uste da. Bestalde, inguru honetan aztertutako lau garapen-esparruei dagokienez, etxebizitza-garapenak hartzeko 'Atxabalpe' eremua da egokiagoa, egun artifizialdua dagoen eremu bat delako. 'Barrutieta', 'Akisoalde' eta 'Bustintza' eremuen artean, Akisoalde lurzorua kontsumo txikiago bat ekarriko luke.

2. Lurzoruaren erabilera iraunkorra

Etxebizitza-garapenen lurzorua erabilera ez da okupatu den azalerarekin bakarrik neurtzen, baizik eta lurzoru horri ematen zaion erabilera-mailarekin ere. Kasu honetan, baliabide berriztaezin bat izaki, dentsitate ertain eta altuko garapenak lehenetsi behar dira, baliabideen erabilera iraunkor bat egiten baitute.

'0' hautabideak, indarrean dagoen HAPO-k, dentsitate txikiko garapenak aurreikusten dituzte AE.9 'Barrutieta' eta AE.13 'Bustintza' esparruetan. Lehenengo kasuan 10,9 etxe/ha-ko dentsitate bat proposatzen da, eta bigarren kasuan 22,6 etxe/ha-ko. Bi kasuek lurzorua erabilera ez iraunkor bat bultzatzen dute, eta ez datoz bat EAE mailan hartutako ingurumen-irizpide estrategikoekin¹³. Azken irizpide orokor hau errespetatuz, indarrean dagoen HAPO-k dentsitate handiko eta ertaineko etxebizitza-garapenak proposatzen ditu AE.7 'Atxabalpe' eta AE.11 'Akisoalde' eremuetan (80,3 eta 44 etxe/ha-ko).

Gauzak honela, AE.7 'Atxabalpe' eta AE.11 'Akisoalde' esparruetan proposatzen diren garapenak bateragarriak dira EAE mailan hartu diren ingurumen-irizpide nagusiekin; ez da berdin gertatzen AE.9 'Barrutieta' eta AE.13 'Bustintza' esparruetan aurreikusten diren garapenekin.

Testuinguru honetan, '0' eta 'A' hautabideek lurzorua erabilera ez-iraunkor bat bultzatu dezaketela uste da, izan ere 'Barrutieta' eta 'Bustintza' eremuetan proposaturiko dentsitate txikiko etxebizitza-garapenak mantentzen dituzte proposatzen duten antolamenduan. Bestalde, B aukerak lehentasuna ematen dio 'Akisoalde' eremuan proposaturiko dentsitate handiagoko garapenari, lurzorua erabilera iraunkorrago bat azaltzen duelarik. Azkenik, C aukerak 'Atxabalpe' eremua zehaztu gabeko hornikuntza-erabilera batera

¹³ Garapen iraunkorraren euskal ingurumen estrategia 2002-2020 eta Ingurumen esparru programak (2002-2006 2007-2010, 2011-2014).

bideratzea besterik proposatzen ez duenez, ezin da lurzoruaren erabileraren iraunkortasuna baloratu, izan ere zuzenean lurzoruaren erabilera baztertzen duen hautabide bat da.

3. Ahalmen agrologiko handiko lurrak galtzea

Azterketa eremuak kokatzen diren ingurua Arrasateko hirigunearen inguruan nekazaritzarako ahalmena duten lurzoruak mantendu eta nekazal izaera mantentzen duen gune bakarrenetarikoa da, herrigunean eman diren etxebizitza-, industria- eta azpiegitura-garapenek mota hauetako lurren desagertzea ekarri baitu.

'0' hautabideak proposatzen dituen esparruen artean, 'Barrutieta' eta 'Akisoalde' dira nekazaritza aldetik interes gehien duten lurrak. 'Barrutieta' eremuko azaleraren %90ak inguru ahalmen agrologiko handiko lurrak ditu, eta oraindik ere baratza eta fruta-arboletarako erabiltzen diren zenbait lursail mantentzen dira. 'Akisoalde' eremuko azaleraren %70ak inguru ere ahalmen handiko lurrak ditu, nahiz eta ez duen nekazaritza-erabilera garbirik azaltzen gaur egun.

Kasu honetan, bai '0' hautabideak bai 'A' hautabideak egiten duten proposamenak guztira ahalmen agrologiko lurren 6,5 Ha inguru galtzea ekarriko lukete; eragin hau 1,7 Ha-ra murrizten da B aukeraren kasuan eta C hautabideak ez luke ahalmen agrologiko handiko lurrengan eraginik izango, 'Atxabalpe' eremuak ez baitu mota honetako lurrik azaltzen gaur egun.

Kontuan izanda udalerrri osoan ahalmen agrologiko handiko lurrek gehitzen duten azalera osoa 29 ha direla, indarrean dagoen HAPO-k aurreikusten dituen garapenak aurrera eramateak udalerriko ahalmen agrologiko handiko lurren %20a inguru galtzea ekarriko luke, ingurumen-eragin nabarmena izan daitekeena.

4. Lurrazaleko ur-ibilguengan eragina

Eremuan aurreikusten diren etxebizitza-garapenen obra fasean bertan dauden lurrazaleko ur-ibilguen kalitatea kaltetua izan daiteke, emari ezberdinen eraginez. Honetaz gain, esparru hauetarako proposatzen den antolamenduak kontuak hartu beharko du kasu bakoitzerako EAEko ibai eta erreken ertzak antolatzeke LAP-ak ezartzen dituen gutxieneko tartek urbanizaziotik eta eraikuntzatik.

'0' hautabideak proposatzen dituen garapen-esparruen inguruan azaltzen den ur-ibilgu garrantzitsuena Aramaio ibai da, zeinak AE. 7' Atxabalpe' eta AE.11 'Akisoalde' esparruak berauen iparraldetik mugatzen dituen eta AE.9 'Barrutieta' bere hegoaldeetik. Honetaz gain, Kobate errekek ere azken esparru hau zeharkatzen du.

Kasu honetan '0' eta A hautabideek lurrazaleko ur-ibilguengan eragin nabarmenak izango dituzte, lau esparruetan garapenak proposatzen baitituzte; bestalde, B aukerak ere Aramaio ibaiarengan eragina izango luke, 'Atxabalpe' eta 'Akisoalde' eremuetan proposaturiko garapen biek ur-ibilgu honengan eraginago luketelako. Azkenik, C aukerak 'Atxabalpe' eremuan proposaturiko hornikuntza-garapenek Aramaio ibaiarengan eragina izango lukete, nahiz eta hau txikiagoa izango litzatekeen gainontzeko hautabideekin alderatuz.

5. Interesa duen landaretzarengan eragina

Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde eta Bustintza eremuen interesa duen landaretzako zenbait gune azaltzen dituzte gaur egun. Nahiz eta landaretzaren gaineko eragina esparruaren antolamendu zehatzaren araberakoa izaten den azkenean, hasierako fase honetan kasurik okerrera hartu da beti, hau da, garapenek azterketa-esparruak egun azaltzen duen interesa duen landaretza erabat galduko litzatekeela.

Kasu honetan, 0 eta A hautabideek proposaturiko garapenek guztira mota honetako landaretzaren 5,83 Ha galtzea ekarriko lukete, B hautabidearekin eragin hau 1,33 Ha-ra gutxituko litzateke eta C hautabideak berriz Aramaio ibaiaren ertzeko haltzadiaren 0,18 Ha galtzea ekar lezake.

Aztertutako garapen-esparruek gaur egun azaltzen duten landaretzaren artean lehentasunezkotzat jotzen da Aramaio ibaiaren ertzetan garatzen den haltzadiaren babesa eta mantentzea. Aramaio ibaiak 'Atxabalpe', 'Akisoalde' eta 'Barrutieta' esparruak zeharkatzen dituen neurrian, haien garapenak aipatutako haltzadiarengan eragin zuzenak eta zeharkakoak ekar ditzake. Bestalde, 'Bustintza' eremuak zuhaitz estaldura mantentzen du oraindik ere, eta hostozabalen baso gazte batek hartzen du eremuaren ia herena. Bertan aurreikusitako

etxebizitza-garapenak landaredi honen galtzea ekarriko lukete, kontuan hartu beharreko ingurumen-eragina izanez.

Interesa duen landaretza babesteko irizpidea harturik etxebizitza-garapenerako eremurik egokiena 'Atxabalpe' dela uste da, dagoeneko artifizialdua den eremua baita. Honen atzetik, eta aurkezten duten landaretzaren interes-mailaren arabera, 'Akisoalde', 'Barrutieta' eta, azkenik, 'Bustintza' esparruetan aurreikusten diren garapenak leudeke.

6. Fauna mehatxatuarengan eragina

Aztertutako lau garapen-esparruak bisoi europarrarentzako (*Mustela lutreola*), baso-igel iberiarrarentzako (*Rana iberica*) eta uhandre alpetarrarentzako (*Triturus alpestris*) mugatutako 'Lehentasuneko banaketa-eremua'-ren zati dira, nahiz eta ez den oso probablea ikusten espezie mehatxatu hauek eremu hauetan aurkitzea. Nahiz eta eragile hau ingurumen-baldintzatzaile bat den inguru honetan proposatu daitezkeen garapen ezberdinentzat, ez dira kontuan hartzeko eraginik espero fauna mehatxatuarengan.

7. Paisaiaren gaineko eragina

Lehenago azaldu den moduan, lau azterketa-esparru ezberdinetan proposatzen diren etxebizitza-garapenak paisaiaren gainean izango duten eragina paisaiak egun duen kalitatearen, bere harrera-ahalmenaren eta urrakortasunaren arabera izango da.

Eremu guztien ikusgaitasun-maila altua izanik, denek paisaia urrakorra dutela esan daiteke, garapenak sortuko duten begi-inpaktua ikusgai izango baita udalerriko puntu askotatik. Bestalde, egungo hirigunearen jarraipen modura proposatzen direnez, lau esparruek duten harrera-ahalmena egokia dela iritzi da, alde honetatik eraginik espero ez direlarik.

Kasu honetan, paisaiaren gaineko eraginik txikiena AE.7 'Atxabalpe' eremuaren garapenak izango luke, lehendik ere artifizialdua dagoen eremu bat izanez gaur egun duen paisaiaren kalitate nahiko baxua delako. Ostera, beste eremuetan proposatzen diren garapenak paisaiaren gaineko eragin aipagarria izan dezakete, arrazoi desberdinak direla medio:

- 'Akisoalde' eta 'Barrutieta' esparruak Arrasateko hirigunean nekazal-paisaia mantentzen duten eremu bakarrenetarikoak dira, babestu beharko litzatekeen paisaia bat aurkezten dutelarik. Hirigunean eskasa den paisaia bat galtzea ekarriko lukete.
- 'Bustintza' eremuak gaur egun dituen maldak ikusirik, espero daiteke bertan aurreikusten diren garapenak aurrera eramateko egun duen erliebe aldatu beharra izango dela indusketa edo betetze lanen bidez, zuhaitz-estaldura ere galduko litzateke, eta honek kontutan izateko begi-inpaktua sortu dezakeela aurreikusten da.

Proposatzen duten garapenak duten tamainaren arabera, hautabide ezberdinek paisaiarengan izango duten eragina ere handitzen joango da. O eta A aukerek lau esparruetan aurreikusitako garapenak eragin handienak izango dituzte paisaiarengan, B hautabideak sortutako eragina txikiagoa izango litzateke eta C hautabideak paisaiarengan izango lukeen eragina ia ez litzateke aipagarria izango.

8. Ingurumen-arriskuak

- a. *Zarata*: eskura dagoen informazioaren arabera, ez da espero aztertutako lau garapen-esparruek egoera akustiko desegokia izatea etorkizun batean. GI-2620 errepideak jasaten duen trafiko-intentsitateari erreparatuz, ez da espero eremu hauetan aurreikusten diren etxebizitzetan indarrean dagoen legediak¹⁴ ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak gainditzea. Edonola ere, GI-2620 errepidearekiko duten kokalekuaren arabera, ezin da baztertu AE.9 'Barrutieta' eta AE. 13 'Bustintza' eremuek egoera akustiko zertxobait hobea izatea, errepidearen soinu-igorpenarekiko babestuagoak geratzen baitira.

¹⁴ Urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan, Azaroaren 17ko 37/2003 Legea, Zaratarri buruzkoa, hain zuzen ere zonifikazio akustikoaren, kalitate-helburuen eta emisio akustikoen eremuetan garatzen duenean.

- b. *Uholde-arriskua*: arrisku hau benetan baldintzatzailea izan daiteke aurreikusten diren garapenentzat 10 urteko birgertatze-aldirako definituriko eremu urperagarriari dagokienez, gune hauetan etxebizitza-erabilera berriak debekatuak geratzen baitira. Bestalde, 100 urteko birgertatze-aldia duten eremu urperagarriek ere zenbait muga dituzte lurzoruaren erabilera aldetik.

'0' hautabideak proposatzen dituen eremuen artean, AE. 11 'Akisoalde' da arrisku honen menpe era nabariagoan geratzen den eremua, bere azaleraren %31a 10 edo 100 urterako uholde-arriskua duten eremuen gainean geratzen delarik. AE.7 'Atxabalpe' eta AE. 9 'Barrutieta' esparruak ere uholde-arrisku honen eraginpean daude, bi kasuetan 0,2 ha. inguru dituztelarik 10 edo 100 urterako uholde-arriskua duten eremuan gainean. Uholde-arriskuari dagokionez, hautabide egokiena AE.13 'Bustintza' litzateke, ez baitu horrelako arriskurik azaltzen.

9. Mugikortasunaren hazkundera eta garraibide iraunkorren erabilera

Lau garapen-esparruetan aurreikusten diren jarduketa guztiak aurrera eginez gero, esparru hauek kokatzen diren inguruan populazioaren igoera nabarmen bat emango litzateke. Populazioaren hazkundera honek mugikortasun beharren hazkundera ere ekarriko luke inguruan. Orokorrean, esparru bakoitzerako aurreikusten diren garapenak kontutan izanda, ez da uste mugikortasunaren igoera honek eragin adierazgarri bat sortuko lukeenik.

Dena den, joan-etorri hauek ingurumenaren izan dezaketen eragina, berauek egiteko erabiltzen den garraio motaren arabera ere izango da. Auto pribatuaren erabilera gutxitze aldera, aldeko eran baloratu da garapen-esparruak Arrasateko hirigunearekin oinezko edo bizikleta bidezko lotura edukitzeko aukera izatea, baita etorkizunean herriko autobus zerbitzuarekin ere.

Nahiz eta bizikleta-bide bat bertara iritea aurreikusita dagoen, beren kokapena eta erliebeagatik, AE.7 'Atxabalpe', AE.9 'Barrutieta' eta AE.11 'Akisoalde' eremuek irisgarritasun handiagoa izango dutela iritzi da, baita bizikleta-bideak lotura errazago bat ere. Izan ere, AE.13 'Bustintza' esparruak egun duen maldek bizikleta eta oinezkoen joan-etorriak oztopatu ditzaketela uste da.

Hautabideen hasierako ingurumen-balorazioa

Orain arte esandakoaren arabera, ondoko taulan aintzat hartu diren hautabide bakoitzaren kasuen ingurumenaren gaineko eragin hauek izan dezaketen tamaina jasotzen da, hautabideen ingurumen-eraginaren balorazio alderatu bat izan daitekeena.

Orokorrean, hautabideetako bakoitzak proposatzen dituen garapenak geroz eta tamaina txikiagoa izan, aurreikusitako ingurumenaren gaineko eraginak nabarmen murrizten dira, zenbait esparruren garapena baztertzek berauek egun azaltzen dituzten ingurumen-balioak mantentzea ahalbidetzen baitu.

INGURUMENAREN GAINKO ERAGINAK		HAUTABIDEA: ATXABALPE, BARRUTIETA, AKISOALDE, BUSTINTZA			
		<i>O</i> <i>hautabidea</i>	<i>A</i> <i>hautabidea</i>	<i>B</i> <i>hautabidea</i>	<i>C</i> <i>hautabidea</i>
Lurzoruaren okupazioa		Na	Na	Ba	Ba
Lurzoruaren erabilera iraunkorra		La	La	Ba	-
Ahalmen agrológico handiko lurrak		La	La	Ba	-
Lurrazaleko ur-ibilguak		Na	Na	Na	Ba
Interesa duen landaretzarengan eragina		Na	Na	Ba	Ba
Fauna mehatxatuarengan eragina		Ba	Ba	Ba	Ba
Paisaiaren gaineko eragina		La	La	Na	Ba
Ingurumen-arriskuak	Zarata	Ba	Ba	Ba	Ba
	Uholde-arriskua	La	La	La	Na
Mugikortasunaren hazkundera eta garraibide iraunkorren erabilera		Ba	Ba	+	+

Taula. Garagartza-Gesalibar inguruan aintzat hartu diren alternatiben ingurumen-balorazioa.

4.4. '3. GARAGARTZA'

4.4.1. Hautabideen deskribapena

AE.12. Garagartza esparruan Hiri Antolamenduzko Plan Bereziaren onarpena izapidetzen ari da Udala gaur egun, zeinak ondoko ildo edo helburu nagusiak zehazten dituen:

- Garagartza auzoko nekazal hirigunea antolatzea, etxe bakan berri batzuk eraikitzea ahalbideratuz ere
- Auzunearen erdialdea finkatzea, oinezkoen erabilera gailenduz, eta gaur egungo eraikinen fatxadak mantenduz, hauek osatzen baitute erreferentziako espazio hori. Eraikin nagusiei atxikitutako gorputzak antolatzea.
- Auzoko biztanleria mantentzea eta jadanik kolonizatuta dagoen lurzorua giza eta ingurumen ikuspegitik era iraunkor eta egokian okupatzea.
- Titulartasun publikoko hornikuntzen eskaintza indartzea. Besteak beste, kirolgune txiki bat antolatzea.
- Lehendik dauden etxebizitza erabilera eta landa erabilera, hauekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoko erabilera batzuekin (merkataritza eta beste batzuk) uztartzea.
- Biztanleriaren gehikuntza endogenoa jaso ahal izateko hirigintza mekanismoak jartzea.
- Auzora heltzeko dauden oinezkoen eta motordunen sarbideak hobetzea eta auzoko esparru guztiak elkar lotzeko iraganbide egokiak egitea.
- Monterron-Gesalibar motorgabekoen ibilbidea auzoan zehar jarraitzea eta bertan adarkatzea.
- Teknologia berrien ezarpena eta lurzoruaren erabilera berriak, inguruari balorea ematen dioten elementuekin uztartzea.

Kasu honetan, HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak ontzat jotzen du une honetan izapidetzen ari den Plan Bereziak eremu honetarako proposatzen duen antolamendua, eta berau HAPO berrian berresteko asmoa azaltzen du. Testuinguru honetan, ez da espero eremu honetarako HAPO-ren Berrikuspenean hautabiderik proposatuko direnik, beraz ez da beharrezkoa ikusten esparru honen ingurumen-azterketa bat garatzea atal honetan. Izapideak aurrera egin ahala egoki jotzen bada, txosten honen 5. Atalean AE.12 'Garagartza' inguruan proposaturiko antolamenduak ingurumenaren gainean izan ditzakeen eraginak era zehatzean aztertuko dira.

4.5. '4. GARAIA'

4.5.1. Hautabideen deskribapena

AE.18. Garaia esparrua parke teknologiko bezala egituratua azaltzen da indarrean dagoen plangintzan. Lurzoru hiritargarria izanik, esparrua antolatzen duen Plan Partziala onartua dago gaur egun, honako helburuak ezartzen dituen:

- Berrikuntza teknologikoa sustatuko duen nazioarte mailako puntako gunee berezia eratzea, unibertsitateak eta enpresetako I + G unitateak egunero kontaktuan jarritz.
- Hirigintza eta paisaiagintza alorretan eredugarri bihurtu daitekeen kalitatezko esparrua bultzatzea.
- Udalerrriaren hiri egiturarekin era egokian bateratu eta hura osatzea.
- Monterron-Gesalibar motorgabekoen ibilbideari jarraipena ematea, Ibarreta esparruraino.
- Garaia, Mendibarren eta Gautxori esparruak Uribarri etorbidearekin lotuko dituen biribilgunea gauzatzea.
- Ohartarazten da esparruan lurzoru kutsatua egon daitekeela.

Kasu honetan, HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak ontzat jotzen du Plan Partzialak eremu honetarako proposatzen duen antolamendua, eta berau HAPO berrian berresteko asmoa azaltzen du. Testuinguru honetan, ez da espero eremu honetarako HAPO-ren Berrikuspenean hautabiderik proposatuko direnik, beraz ez da beharrezkoa ikusten esparru honen ingurumen-azterketa bat garatzea atal honetan. Izapideak aurrera egin ahala egoki jotzen bada, txosten honen 5. Atalean AE.18 'Garaia' inguruan proposaturiko antolamenduak ingurumenaren gainean izan ditzakeen eraginak era zehatzean aztertuko dira.

4.6. '5. MENDIBARREN-GAUTXORI'

4.6.1. Hautabideen deskribapena

Inguru hauetan eraberritze prozesu bat aurrera eramateko asmoa azaltzen du HAPO-aren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak. Indarrean dagoen HAPO-ak ('0' hautabidea) honako antolamendua eta hirigintza helburuak ezartzen ditu bi eremu hauentzako:

- AE. 22 'Mendibarren':
 - Hirilurra (2,7 ha).
 - Erabilera nagusia: jarduera ekonomikoak.
 - Bertan dagoen industria eraikina finkatzen du, eraikin nagusia dagoenetan irautea onartzeaz gain bere handitzea ere ahalbidetuz, horretarako 9.740 m²(a)-ko industria aprobetxamendua ezarriz.
 - Balio gabeko zenbait gorputz ezegoki eraistea.
 - Antolamendu egoki bati oztopo egiten ez dioten baserriak finkatzea. Gautxori eta Mendibarren esparruak antolatuko dituen Egitamu Berezi bakarrak argitu beharko du Mendibarren baserria finkatua ala antolamenduz kanpo geratzen den.
 - Dagokion Aramaio ibaiaren ibaiertz zatia era ekologiko batean berreskuratzea.

- AE. 23 'Gautxori':
 - Hirilurra (2,6 ha).
 - Erabilera nagusia: irakaskuntza hornikuntza.
 - Hiri eraberritze ekintzaren barruan hirigunerako egokiak diren jarduerak ezartzea.
 - Mondragon Unibertsitatearen hazkundera bermatuko duen lur gordespena egitea helburu duen esparru hau definitzen da, 25.000 m² (t)-ko ekipamendu pribaturako guztirako aprobetxamendurekin.
 - Dagokion Aramaio ibaiaren ibaiertz zatia era ekologiko batean berreskuratzea eta goialdetik ['Garaia'tik] datorren erreka azaleratzea bertan, eta luzera guztian, 20 m-ko zabalera duen eremu zabal bat sortuz.

A.5.1. Mendibarren-Gautxori. '0' hautabidea: onartutako Plan Berezia planoan aipatutako Plan Bereziak esparru hauetarako aurreikusitako antolamendua azaltzen da.

Bi esparru hauen antolamendu zehaztua arautzen duen Plan Berezia onartua dago jadanik, nahiz eta bere zehaztapenak ez diren oraindik garatu. Plan Honek, honako aurreikuspen nagusiak jasotzen ditu:

- Mondragon Unibertsitatea hazi ahal izateko lurzorua gordespena.
- Fagor Ederlan, S. Coop. enpresaren industri eraikina finkatzea, baliogabeko hainbat gorputz ezegokiren eraispenaren kaltetan gabe.
- Hainbat baserri finkatzea ere bai.
- Ingurugiro ikuspuntutik birsorkuntza egitea, Aramaio ibaiaren ibaiertzak era ekologikoan berreskuratzea eta Arrasateko erdigunerako egokiago diren erabilerak ezarriz.
- Goialdetik datorren erreka azaleratzea.
- Ohartarazten da esparruan kutsatutako lurzorua egon daitekeela.

Aurrerapen Dokumentuaren arabera, komenigarria da Berrikuspenean zehar unibertsitaterako garapenerako esparrua (Gautxori) nahikoa den ala ez eztabaidatzea, baita AMAT-eko fundizio zaharra (Mendibarren) hortik desagertzeko bide juridikoa zabaltzeko garaia den ala ez, nahiz eta azken hau ez litzateke berehala gauzatzekoa. Honela, Aurrerapen Dokumentuak Plan Bereziak proposatzen duen antolamendua eztabaidarako mahai gainean jarriko da, azken emaitza gaur egun aurreikusitakoa izan daitekeelarik, edo zati batean bai eta bestean ez, edo eta beste aukera desberdinen bat ere jaso daiteken.

4.6.2. Ingurumen Baldintzatzaileak

- Orografia: eremua erabat laua da, Deba ibaiaren haraneko terraza alubialean kokatua, beraz, orografiak ez ditu eremu hauetarako proposatu litezkeen garapenak baldintzatuko.
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: Gautxori esparrua erabat hiritartua dago, Uribe Behekoa baserriaren inguruan 600 m² duen baratza izan ezik. Mendibarren esparruan ere zatirik handienez lurzorua ez du ahalmen agrologikorik, desagertu egin baita industria eta azpiegituren garapenekin batera. Mendigain, Mendiazpi eta Mendibarren baserri eta etxearen inguruetan baratzak edukitzeko erabiltzen diren partzela batzuk geratzen dira eta bertan ahalmen agrologiko handiko lurrak kontserbatzen dira (0,4 ha inguru).
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Aramaio ibaiak bi esparruak mugatzen ditu hegoaldetik. EAeko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko LAP-ak 'I' maila hidraulikoan sailkatzen du Aramaio ibaiaren tarte hau (10 eta 50 km² bitarteko artoa). Aramaio ibaia tarte honetan erabat bideratuta dago eta ez du ibai ertzetako landaredia kontserbatzen. Bestalde, Mendibarren esparrua 'Garaia' esparrutik datorren eta egun estalirik dagoen erreka batek zeharkatzen du. Indarrean dagoen HAPO-k bi ur-ibilgu hauen dagozkien ibaiertz zatiak era ekologiko batean berreskuratzea aurreikusten du.
- Landaretza: AE.22 'Mendibarren' eta AE.23 'Gautxori' eremuak erabat hiritartuak agertzen dira gaur egun, bertan ematen den lurzorua erabilera ia bakarra hiritarra delarik. Dena den, Mendigain, Mendiazpi eta Mendibarren baserrien inguruan baratza batzuk ere azaltzen dira, guztira 0,4 ha-ko azalera hartzen dutenak. Egoera honetan, horrenbestez, aztertutako eremuan ez dela intereseko landaretzarik identifikatu esan daiteke.
- Fauna: Eremua erabat hiritartua dago eta ez da intereseko edo mehatxatutako fauna agertzen. Hala ere, Aramaio ibaia bisoi europarrarentzako (*Mustela lutreola*) mugatutako 'Lehentasuneko banaketa-eremua'-ren zati da, Gipuzkoa osoko sare hidrologikoa den moduan.
- Natura-gune babestuak: eremua ez da udalerrian agertzen diren naturaguneekin bat etortzen.
- Paisaia: Uribarri auzoko eremu hauetan paisaia hiritarra gailendu dela esan daiteke, inguruan geratzen ziren nekazal ezaugarriak zituzten hainbat eremu azken urteetan hiritartuak izan direlarik; gauzak honela, esparru honen ezaugarria ez da paisaiaren kalitate handi bat, industria-eraikinak, baserriak eta aparkaleku zabalak modu desordenatuan agertzen direlarik.

Izaera hiritarra duen paisaia edukitzeak, hori bai, eremu honetan eman daitezkeen industri- eta hornikuntza-garapenak inguruneke paisaian integratzea erraztuko du. Bestalde, azterketa-eremuaren ikusgaitasuna altua bezala baloratu daiteke; bi esparruak erabat ikusgai dira errepide sare-nagusitik (Olandixo tunelaren irteera, GI-2620) eta Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarritzko Saretik. Hori dela eta, azterketa-eremuko paisaia urrakortasun ertainekoa har daiteke.

- Ingurumen-arriskuak:

- Akuiferoen urrakortasuna: Bi esparruak urrakortasun handia duen gune batean kokatzen dira.
- Zarata: Bi esparruek GI-2620 errepidearekin mugatzen dute beren iparraldean eta 'Mendibarren' eremuak Arrasateko mendebaldeko ingurubidearekin bere mendebaldeko muturrean, azpiegitura hauek sortzen dituzten zarata-igorpenek eraginda egon daitezkeelarik. Honetaz gain, industriak sortutako zarata dagokionez, zarata-iturri nagusi bat antzematen da AE.22 'Mendibarren' eremuan: AMAT industria-instalakuntza.

Datuen arabera, GI-2620 errepideak duen zarataren igorpen-maila 60-65 db(A)-tan kokatzen da gauerako (LE10m, gaua) eta 73 db(A) ingurukoa da egun guztirako (LE10m, den). GI-2620 errepideak jasaten duen trafiko intentsitatea ez da eta oso altua (EBB (2010): 6.617 ibilgailu/egunean). AMAT industria-instalakuntzari dagokionez, industria-iturri honen potentzia 110-115 dB-tan kalkulatu da egunerako eta gauerako.

Egoera honetan, eremu hauek errepideen igorpen-iturriei dagokienez egoera akustiko egokia azaldu dezaketela uste da, GI-2620 errepidearen igorpen datuak ez baitira oso altuak. Bestalde, AMAT industriaren igorpen-datuak igorpen-maila altu bat azaltzen dute.

- *Uholde-arriskua:* Aramaio ibaiari lotutako urperagarritasun arriskuak AE.22 'Mendibarren' eremuari eragiten dio batez ere. Balizko arrisku handiko uholdeak, 10 urteko birgertatze-aldiari dagokionak, esparruaren mendebaldeko zati nabarmen bati eragingo lioke. Dena den, Arrasateko mendebaldeko ingurubidearen eraikuntzari lotuta Aramaio ibaian egin diren ubideraketen eraginez baldintza hidrauliko hauetan aldaketak egon daitezke.
 - *Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua:* IHOBek eginiko 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioaren' eta indarrean dagoen HAPO-k udalerrian antzematen dituen kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen arabera bi esparruetan kutsatutako lurzorua egon daiteke. AE.22 'Mendibarren' eremuan lurzoru mota honek 1,15 Ha-ko azalera hartzen du (IHOBek eginiko inbentarioan 20055-00089 kodearekin) eta AE.23 'Gautxori' eremuan 1,9 Ha-ko azalera (IHOBek eginiko inbentarioan 20055-00090 eta 20055-00088 kodearekin).
 - *Higadura jasateko arriskuak:* Esparruek gaur egun duten orografia eta maldak kontuan hartuz, eremuak ez du higadura arazorik.
- Kultur ondarea: Aztertutako eremuan ez da kultur ondarearen elementurik identifikatu.
 - Mugikortasuna eta iriskortasuna: Esparru biak hirigunean bertan egotea motorgabeko joan-etorriak ahalbidetzen ditu (oinez edo bizikletaz), hiriguneko auzo gehienetatik. Ingurua laua izateak ere horretan laguntzen du.

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planaren behin-behineko onspeneko dokumentuak 6,7 km luzera duen oinarrizko sarearen udal titulartasunezko bidegorri tarte proposatzen du. Kasu honetan, proposamena bat egiten du Arrasateko HAPO-ak aurreikusten dituen motorgabeko ibilbideekin, eta oinezko-bizikletentzako sareak bi esparruetara iristea ahalbidetzen du. Beraz, alde horretatik inguru honetan proposatzen diren garapen berriek Arrasateko gainontzeko hirigunearekin edo Garagartza-Gesalibar inguruarekin motorgabeko ibilbide-lotura edukiko lukete.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak

Aزتututako ingurumen-eragile ezberdinek azterketa-eremu ezberdinetan gaur egun duten egoera hurrengo taulan jasotzen da era laburrean.

Eragile bakoitzaren kasuan, eremu bakoitzean baldintzatzailea izango den edo ez adierazten da (bai zentzu negatiboan eta baita positiboan ere), baita, hala bada, zein mailatan baldintzatu edo mugatuko dituen eremu horretarako aurreikusten diren garapenak (kolore berdea: maila baxuan, kolore laranja: maila ertainean eta kolore gorria: maila altuan):

INGURUMEN-ERAGILEAK ETA BALDINTZATZAILEAK		HAUTABIDEA: MENDIBARREN-GAUTXORI	
		AE.22 'Mendibarren'	AE.23 'Gautxori'
MALDAK (>%50ko maldak)	Balioa (Ha)	0	0
	Baldintzatzailea	Ez	Ez
AHALMEN AGROLOGIKO ALTUKO LURRAK	Balioa (Ha)	0,4	0
	Baldintzatzailea	Bai	Ez
UR-IBILGUAK	Egoera*	Bai	Bai
	Baldintzatzailea	Bai	Bai
INTERESA DUEN LANDAREDIA	Balioa (Ha)	0	0
	Baldintzatzailea	Ez	Ez
FAUNA MEHATXATUA	Egoera*	Bai	Bai
	Baldintzatzailea	Bai	Bai
NATURA GUNE BABESTUAK	Egoera*	Ez	Ez
	Baldintzatzailea	Ez	Ez

INGURUMEN-ERAGILEAK ETA BALDINTZATZAILEAK		HAUTABIDEA: MENDIBARREN-GAUTXORI		
		AE.22 'Mendibarren'	AE.23 'Gautxori'	
PAISAIA		Balorazioa	Baxua	Baxua
		Baldintzatzailea	Bai	Bai
INGURUMEN-ARRISKUAK	Akuiferoen urrakortasuna	Balioa (Ha)	2,45	2,53
		Baldintzatzailea	Bai	Bai
	Zarata	Egoera	Egokia	Egokia
		Baldintzatzailea	Bai	Bai
	Uholde-arriskua	Balioa (Ha)	0,85	1,15
		Baldintzatzailea	Bai	Bai
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua	Balioa (Ha)	1,15	1,9
		Baldintzatzailea	Bai	Bai
Higadura-arriskua	Balioa (Ha)	0	0	
	Baldintzatzailea	Ez	Ez	
KULTUR ONDAREA		Egoera*	Ez	Ez
		Baldintzatzailea	Ez	Ez
MUGIKORTASUNA		Egoera	A/B/O	A/B/O
		Baldintzatzailea	Ez	Ez

Taula: Eraberritze-prozesutarako proposaturiko eremuen ingurumen-baldintzatzaile nagusiak.

A.5.2: Mendibarren-Gautxori. Ingurumen baldintzatzaileak planoan esparru hauetako ingurumen-baldintzatzaile nagusiak azaltzen dira.

4.6.3. Ingurumen Balorazioa

Aurreko ataletan HAPO-ren berrikuspenean Mendibarren-Gautxori ingururako indarrean dagoen plangintzak aurreikusten dituen eraberritze-prozesuen inguruan dauden hautabide ezberdinak eta inguru honek dituen ingurumen-baldintzatzaile nagusiak jaso dira. Informazio honen arabera, hautabide hauen ingurumen-balorazioa egingo da honako atalean, hautabide hauetako bakoitzarekin aurreikusten diren ingurumenaren gaineko eragin nagusienetan oinarrituz horretarako.

Lehenago aipatu bezala, plangintzaren hasierako fase honetan '0' hautabidea besterik ez dago zehazturik, indarrean dagoen HAPOK eta berau garatzen duen Plan Bereziak proposatzen duten antolamenduari dagokiona. Kasu honetan, 'Mendibarren' eremuan bertan dagoen industria-eraikina finkatu eta zabaltzea ahalbidetzen du, eta 'Gautxori' eremuan Mondragon Unibertsitateak bertan dituen instalakuntzen balizko zabalpen baterako lur-erreserba egiten du.

Aurrerapen Dokumentuak ez du proposamen argirik egiten eremu hauen inguruan; dena den, 'Gautxori' eremuan aurreikusitako azalera Mondragon Unibertsitateak izan litzakeen beharrak asetzeko nahikoa izango den eztabaidatzea proposatzen du, baita AMAT industria-instalakuntzak 'Mendibarren' eremutik ateratzeko prozedura hasteko egokitasuna aztertzea.

Honela, hautabideen ingurumen-balorazio honetan '0' hautabideak izango litzakeen ingurumen-eraginak besterik ezin dira baloratu, gainontzekoan ez baita alternatiba zehatzik proposatu oraindik. '0' hautabide honek proposatzen dituen jarduketan tamaina eta ezaugarriak kontuan hartuz, hauen ingurumenaren gaineko eragin nagusiak jarduketa hauei loturiko obrek eragindakoak izango direla aurreikusten da.

AE.22 'Mendibarren' eta AE.23 'Gautxori' eremuetan proposatzen diren garapenek izango litzaketen ingurumen-eragin nagusiak honakoak lirateke:

1. Lurzoruaren okupazioa

Hirigunean proposatzen diren berreskuratze-operazioak hartuko dituzten eremuek honako azalera dituzte:

- AE.22 'Mendibarren': 2,7 Ha
- AE.23 'Gautxori': 2,6 Ha

Bi eremuak hirilur bezala sailkatuta daude indarrean dagoen HAPO-n eta erabat hiritartuak daudela esan daiteke, ia azalera osoan zoladura agertzen dutelarik. Beraz, esparru hauetan proposatzen diren berrikuntza-jarduketek eta bai industria eta bai hezkuntza-ekipamenduaren garapenek ez lukete landa-lurzoruaren okupaziorik beharko, hartara ez litzatekeela udalerraren hirilurraren edo lurzoru hiritargarriaren gehikuntzarik emango.

2. Ahalmen agrologiko handiko lurrak galtzea

Gaur egun hirilurra izanez, Gipuzkoako Mota Agrologikoen Mapak ez ditu ahalmen agrologiko handiko lurzorurik sailkatzen eremu hauetan, nahiz eta AE.22 'Mendibarren' eremuaren iparraldean baratzak izateko erabiltzen diren 0,4 Ha inguru azaltzen diren. Baratza hauek hartzen dituen lurzoru honek bere ahalmen agrologikoa mantentzen duela ondorioztatu daiteke beraz.

'0' hautabideak eremu honetarako proposatzen duen antolamendua aintzat hartuz, badirudi bertan proposatzen diren garapenak bateragarriak direla baratza hauen mantenuarekin, ez direlarik ahalmen agrologiko handiko lurren eragin nabarmenik espero indarrean dagoen HAPO-k bi eremu hauetan aurreikusten dituen berrikuntza operazioekin.

3. Lurrazaleko ur-ibilguengan eragina

Lehen aipatu den bezala, 'Mendibarren' eta 'Gautxori' eremuek Aramaio ibaiarekin mugatzen dute beren hegoaldean. Honetaz gain 'Gautxori' eremua 'Garai' eremutik datorren erreka batek zeharkatzen du, nahiz eta hau estalia agertzen den gaur egun.

Indarrean dagoen HAPO-k eremu hauetarako proposatzen dituen jarduketan artean eremu hauekin mugatzen duen tartean Aramaio ibaiaren ertzak era ekologikoan berreskuratzea eta lehen aipatutako erreka 'Gautxori' eremuaren luzera guztian azaleratzea daude.

Proposamen hauek bi ur-ibilguengan eragin nabarmen izan dezakete obra fasean zehar, emari ezberdinen eraginez. Alabaina, behin lan hauek bukatzerakoan ur-ibilguak gaur egun azaltzen duen egoerarekiko hobekuntza bat egongo dela espero da, behintzat berreskurapen-lan hauek ingurumen-irizpide egoki batzuekin egiten badira.

Testuinguru honetan, nahiz eta ezin diren baztertu bi ur-ibilguen uraren kalitateak obra fasean jasan dezaketen eragina, era orokorrean '0' hautabideak bi eremu hauetan proposatzen dituen jarduerak ur-ibilguengan eragin positiboa izango dutela uste da, Aramaio ibaiaren ertzen hobekuntza eta beste erreka toren azaleratzea ahalbidetuko baititu.

4. Interesa duen landaretzarengan eragina

AE.22 'Mendibarren' eta AE.23 'Gautxori' eremuek ez dute interesa duen landaretzarik mantentzen bere baitan. '0' hautabideak bertan proposatzen dituen garapenak kontutan harturik, ez da espero eragin zuzenik edota zeharkakorik inguruko eremutan antzeman diren interesa duen landaretza mantentzen duten guneeetan.

5. Fauna mehatxatuarengan eragina

Aramaio ibaia bisoi europarrarentzako (*Mustela lutreola*) 'Lehentasuneko banaketa-eremua'-ren zati da, nahiz eta ez den espezie hau Aramaio ibaiaren tarte honetan egotea espero.

Nahiz eta eragile hau ingurumen-baldintzatzaile bat den inguru honetan proposatu daitezkeen garapen ezberdinentzat, ez dira kontuan hartzeko eraginik espero fauna mehatxatuarengan.

6. Paisaiaren gaineko eragina

AE.22 'Mendibarren' eta AE.23 'Gautxori' eremuek kalitate nahiko eskaseko hiri-paisaia azaltzen dute gaur egun. '0' hautabideak, hurrenez hurren, industria-eraikinaren garapena eta hezkuntza-ekimenduaren zabalpena aurreikusten ditu eremu hauetan, hauek denak Aramaio ibaiaren berreskurapenarekin batera.

Inguruak azaltzen dituen ezaugarriak kontuan izanda, garapen hauek paisaiarengan eragin txikia izango dutela aurreikusten da, inguruko paisaian erraz egokituko direlarik. Honetaz gain, Aramaio ibaiaren ertzen berreskurapena eta 'Gautxori' eremuan proposatzen den erreka-stoaren azaleratze eta 20 metro zabaleko eremu libre baten sorrerak paisaiarengan eragin positibo bat izan dezaketela uste da. Kasu honetan, ur-ibilguaren egoera hobetzeak eta ibaiertzetako landaredia sustatzeak eremuaren paisaia hobetu egingo du, begi-inkaktu positiboa sortuko duten elementuak izaki.

Honetaz gain, Aurrerapen Dokumentuak AMAT industria 'Mendibarren' eremutik ateratzeko prozedura hasteari buruz aipatzen duena kontuan hartuta, esan beharra dago industria-eraikin honen desagertzeak eta eremuaren berrantolatzeak ere eragin positibo nabarmena izan dezaketela hirigunearen paisaiaren kalitatea, beti ere ondorengo garapenak estetika-irizpideak kontuan hartuta egiten badira.

Horrenbestez, indarrean dagoen HAPO-k eremu hauetarako proposatzen dituen jarduerak bi esparruek gaur egun azaltzen duten paisaiaren kalitatea hobetu dezaketela uste da, bereziki ur-ibilguak era ekologikoan berreskuratzeko proposamenek.

7. Ingurumen-arriskuak

- a. *Zarata*: Bi eremuak GI-2620 errepedearekin mugatzen dute beren iparraldean eta AE.22 'Mendibarren' eremuak Arrasateko ingurubidearekin bere mendebaldean. Eremuek, beraz, bi errepede hauen zarata-igorpenek eraginda geratuko dira. Errepide hauek ez dute trafiko intentsitate oso handirik jasaten, nahiz eta eremuakiko duten hurbiltasuna ikusirik ezin den baztertu hauek eragitea.

'Mendibarren' eremuaren kasuan, industria-erabilera duen esparru bat izanez, indarrean dagoen legediak¹⁵ kalitate akustikorako helburu malguago batzuk ezartzen ditu, honela baliteke eremu honek aipatutako helburu hauek betetzea. Dena den, AMAT industria aintzat hartu beharreko igorpen-iturria da, 'Mendibarren' eremuak egoera akustiko desegokia edukitzea eragin dezakeena.

Bestetik 'Gautxori' eremuak hezkuntza-erabilera bat azaltzen du gaur egun, eta 'O' hautabideak erabilera hau zabaltzea aurreikusten du. Indarrean dagoen legediak erabilera-mota hauetarako ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak dauden zorrotzenak dira, beraz ezin da baztertu eremu honek aipatutako helburu hauek gainditzea.

Edonola ere, esan beharra dago ez dagoela daturik Arrasateko ingurabideak igortzen duen zarataren inguruan, ezta bere eragin-eremuari buruz ere. Gauzak horrela, plangintzaren fase honetan zaila egiten da eremu hauetan proposatzen diren garapenak izango duten egoera akustikoa aurreikustea, eta bertan legeak ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak beteko ote diren aurreikusitako ahal izatea.

HAPO-ren Berrikuspenaren izapideak aurrera egin ahala, behin eremu hauetarako proposamen zehatz bat egiten denean, honako txostena eremu hauen egoera akustikoa zehazten saiatuko da, jasan dezaketen zarata-mailak izan ditzakeen eraginak zehazte aldera.

- b. *Uholde-arriskua*: AE.22 'Mendibarren' eremua Aramaio ibaiak 10 urteko birgertatze-aldirako azaltzen duen eremu urperagarriak nahiko baldintzatua ageri da gaur egun. Dena den, lehen aipatu den moduan, Arrasateko mendebaldeko ingurabideak Aramaio ibaiaren ur-ibilguan sortu ahal izan dituen aldaketa edota ubideraketek egoera hidraulikoa aldatu egin ahal izan dute.

Edonola ere, ezin da baztertu 'Mendibarren' eremuan proposatzen diren garapenak uholde-arriskua dela eta arazoak izatea behin bertan aurreikusten diren jarduketak eraiki ostean. Kasu honetan, ingurumen-arrisku honek kontuan hartzeko eragina izan dezakeela uste da.

Bestalde, AE.23 'Gautxori' eremuan, nahiz eta uholde-arriskua duen gunek bat azaltzen duen, ez da uste ingurumen-arrisku honek aintzat hartzeko eraginak sor ditzakeenik bertan, 'O' hautabideak proposatzen

¹⁵ Urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan, Azaroaren 17ko 37/2003 Legea, Zaratarri buruzkoa, hain zuzen ere zonifikazio akustikoaren, kalitate-helburuen eta emisio akustikoen eremuetan garatzen duenean.

duen antolamenduaren arabera kokapen-gune guztiak urperagarria den gune honetatik kanpo mugatzen baitira.

Honetaz gain, plangintzaren hurrengo faseetan eremu hauen tartean Aramaio ibaian eta 'Gautxori' zeharkatzen duen errekaetan aurreikusten diren berreskurapen-jarduerek bi ur-ibilgu hauen baldintza hidraulikoetan eta, horrenbestez, beraien eremu urperagarrietan sortu ditzaketen aldaketak sakontasun handiagoarekin aztertu beharko dira.

- c. *Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak*: Lehenago azaldu den moduan, IHOBek egindako 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioaren' arabera, AE.22 'Mendibarren' eremuaren 1,15 Ha eta AE.23 'Gautxori' eremuaren 1,9 Ha mota honetako lurzoruekin azaltzen dira.

Legeak ezartzen duena bete ezean, AE.22 'Mendibarren' eta AE.23 'Gautxori' eremuetan aurreikusitako garapenek aintzat hartzeko ingurumen-eragina izan lezakete, ezin baita baztertu kutsatuta egon daitezkeen lurren indusketa behar izatea, eta honek hondakin arriskutsuen sorrera ekarriko luke, lurzoru hauek era berezian kudeatu beharko bailirateke. Edonola ere, eremu honen jarduera ekonomikoetarako garapenak aurrera eramaten badira, bertan proposatzen diren jarduketak guztiak 1/2005 legeak, otsailaren 4koa, lurzoru ez kutsatzeko eta kutsatuta garbitzeko, ezartzen duenaren menpe egongo dira.

8. Mugikortasunaren hazkundera eta irisgarritasuna

Indarrean dagoen HAPO-k industria-eraikin baten zapalpena aurreikusten du 'Mendibarren' inguruan eta Mondragon Unibertsitatearen zapalpena 'Gautxori' inguruan. Mugikortasunari dagokionez, bigarren garapen honek eragin handiagoak izan ditzakeela uste da, joan-etorri gehiago sortuko dituen ekipamendu bat izanik. Nahiz eta unibertsitateko ikasleen mugikortasun beharrak oinez, bizikletaz edo autobusez asetzeko joera handiagoa den, garapen hauek auto pribatuaren erabilerekin hazkundera ere ekarri dezakete. Dena den, eremuak Arrasateko hirigunearekin oinez eta bizikletaz lotuta egoteko aurreikuspenak eremuaren irisgarritasun-baldintzak hobetzen ditu, honek mugikortasunaren hazkundera izan dezakeen eragina gutxitzen lagundu dezakeelarik.

Hautabideen hasierako ingurumen-balorazioa

Orain arte esandakoaren arabera, ondoko taulan aintzat hartu diren hautabide bakoitzaren kasuan ingurumenaren gaineko eragin hauek izan dezaketen tamaina jasotzen da, hautabideen ingurumen-eraginaren balorazio alderatu bat izan daitekeena.

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAK		HAUTABIDEA: MENDIBARREN-GAUTXORI	
		AE.22 'Mendibarren'	AE.23 'Gautxori'
Lurzoruaren okupazioa		-	-
Ahalmen agrologiko handiko lurrak galtzea		Ba	-
Lurrazaleko ur-ibilguak		+	+
Interesa duen landareztarengan eragina		-	-
Fauna mehatxatuarengan eragina		Ba	Ba
Paisaiaren gaineko eragina		+	+
Ingurumen-arriskuak	Zarata	Na	Na
	Uholde-arriskua	La	Ba
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak	Na	Na
Mugikortasunaren hazkundera eta garraiobide iraunkorren erabilera		Ba	Ba

Taula: Eraberritze-prozesutarako proposaturiko alternatiben ingurumen-balorazioa.

4.7. '6.MEATZERREKA-UGALDE'

4.7.1. Hautabideen deskribapena

Indarrean dagoen HAPO-ak zenbait eremu berri aurreikusten ditu industria jardueretarako, hala nola:

- AE. 36 'Meatzerreka 1':
 - Hirilurra (0,7 ha).
 - Erabilera nagusia: jarduera ekonomikoak.
 - Hirurok, OMU eta Udalarenak diren pabiloiak finkatzen dira, hirilurra bezala sailkatzen den 6.800 m²-ko azalera duen eremu hau definituz.
- AE. 37 'Meatzerreka 2':
 - Lurzoru hiritargarria (4,1 ha).
 - Erabilera nagusia: jarduera ekonomikoak.
 - Meatzerrekan dagoen industria gunea finkatu eta zabaltzeko helburuarekin 40.629 m²-ko azalera duen jarduera ekonomikoetarako eremu hiritargarria definitzen da.
 - Errekari dagokionez ahal den esku-harmerik ekologikoena garatzea da helburuetariko bat.
 - Bertako bidea berrantolatuko da, beste esparruekiko lotura barne.
 - Gune barruan dagoen otoiztegia mantendu egin beharko da, agian lekuz aldatu behar baldin bada ere.
 - Zurodena eta Soruetxe baserriak ezingo dira eraitsi eta zatiko antolamenduak finkatuko du beraien erabilera.
 - CIVISA zenaren eraikina eta Etxehortu baserria antolamenduz kanpo geratuko dira.
- AE. 38 'Ugalde':
 - Lurzoru hiritargarria (2,3 ha).
 - Erabilera nagusia: jarduera ekonomikoak.
 - Egungo jarduerak aurre egin dezan eta Meatzerreka industria-gunea herrirantz zabaltzea ahalbidetzeko 23.123 m²-ko azalera duen jarduera ekonomikoetarako eremu hiritargarria definitzen da.
 - Meatzerreka erreka era ekologiko baten bitartez ubideratu beharko da.
 - Ugaldegain baserriaren aurrealdean ez da eraikinik jasoko, berdegunea bertan kokatuko delarik.

A.6.1. Meatzerreka-Ugalde. '0' alternatiba: indarrean dagoen HAPO planoan indarrean dagoen HAPO-k esparru hauetarako aurreikusitako antolamendua azaltzen da.

Eremu hauek ez dute inolako garapenik izan indarrean dagoen HAPO-a behin-betiko onartu zenetik, ezta plangintzaren ikuspegitik ere. Egoera honetan, Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak indarrean dagoen HAPO-aren proposamena jasotzen du eztabaida zabaltzeko asmoz, izan ere, eremu hauen antolamenduaren inguruan Berrikuspenean zehar beste aukera batzuk ere egon daitezkeela aipatzen du Aurrerapen Dokumentuak.

4.7.2. Ingurumen Baldintzatzaileak

- Orografia eta maldak: Hasiara batean, ez dirudi orografia eta maldak inguru honetarako proposatu litezkeen garapenak gehiegi baldintzatuko dituztenik, azaleraren ia %85-k malda txiki edo ertainak baititu, beti ere %30ko maldak baina txikiagoak, eta azaleraren %60a nahiko laua dela esan daiteke, %10ko baina gutxiagoko maldak dituena.
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: hiritartua dagoen 2,5 ha kenduz gero (eremuaren %35a), gainontzeko azaleraren zatirik handiena ahalmen agrologiko handiko lurrez osatua dago. Alubio estuetako lur sakoneko 2,9 ha identifikatu dira (eremuaren %41a) AE.37 'Meatzerreka-2' eta AE.38 'Ugalde' esparruetan banatuak, baratza edo larretarako bideratuta daudenak.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Meatzerreka erreka bi esparruak luzeran zeharkatzen ditu, zenbait tarteetan egin diren jarduera ekonomikorako garapenak ubidea estali badute ere. EAeko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatuzeko LAP-ak '0' maila hidraulikoan (1 eta 10 km² bitarteko artoa) sailkatzen ditu ur-ibilgu hauek.

- Landareta: Kontsulta egin den informazioaren arabera AE.37 'Meatzerreka-2' eta AE.38 'Ugalde' esparruek 92/43/CEE Zuzentarauaren I. eranskinean definituriko 6510. Altitude baxuetako sega-belardi txiroak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*) interes komunitarioko habitata azaltzen dute, beste motatako larreekin nahasturik, 1,8 ha-ko azalera duten eremuetan. Bestalde, bai errekaren ertzetan bai maldak bizkortzen diren gunetan hostozabalen zuhaiztiak eta bertako espezieen heskaiak identifikatu dira, guztira 0,8 Ha hartzen dituztelarik. Azkenik, zenbait tokitan hariztien zati txiki batzuk aztertutako eremuen baitan geratzen dira (0,1 Ha).
- Fauna: Aztertutako hiru esparruak, bere osotasunean, baso-igel iberiarra (*Rana iberica*) espezie mehatxatuarentzat mugaturiko 'Lehentasuneko banaketa-eremuan' sartzen dira.
- Natura-gune babestuak: Esparru hauek ez dira udalerrian agertzen diren babestutako Naturaguneekin bat etortzen.
- Paisaia: Ugalde-Meatzerreka eremuan aztertzen diren esparruek ezaugarri nahiko desberdinak azaltzen dituzte paisaiari dagokionez. Orokorrean, nekazal ezaugarri argiak dituen auzune bat dela esan daiteke, baina azken hamarkadetan eremu honetan eraiki diren jarduera ekonomikotarako eremuek jatorrizko paisaia hau nabarmen eraldatu dute. Eremu hauek garatzeko egindako errekaren ubideraketa eta estaltzeak, baita ibaiertzetako landarediaren desagerpenak, paisaiaren kalitatearen murrizketa eragin dute. Orokorrean, inguru hau, oraindik ere paisaia-elementu baliotsu batzuk mantendu arren, itxura nahasi bat duen paisaiatzat jo daiteke. Gauzak horrela, eremu hauen paisaiaren kalitatea gaur egun ertaina dela esan daiteke, bere berreskuratzea garrantzitsua jotzen direlarik.

Eremuaren paisaiaren harrera-ahalmenari dagokionez, aurreikusten diren garapenak hartzeko ahalmena baduela esan daiteke, paisaian industria-jarduerak ez direlako arrotzak, batez ere egun dauden industria-eraikinen inguruetan proposatzen badira.

Azkenik, azterketa-eremuaren ikusgaitasuna baxua bezala baloratu daiteke; hiru esparruak ez dira ikusgai udalerrira zeharkatzen duen errepide sare-nagusitik, Arrasteko hirigunetik, edota udalerriko gailur nagusietatik zein nekazal auzoetatik. Kasu honetan, inguru hau bigarren mailako errepide-saretik besterik ez da ikusgaia. Honekin, eremu honetako paisaiaren urrakortasuna ertaina bezala baloratu daiteke.

- Ingurumen-arriskuak:

- Akuiferoen urrakortasuna: Akuiferoen urrakortasun handia duen gunen batean kokatzen da AE.38 'Ugalde' esparruaren hegoaldeko erdialdea.
- Zarata: AE.37 'Meatzerreka 2' eta AE.38 'Ugalde' eremuek GI-3551 errepidearekin mugatzen dute beren ekialdean eta, bestalde, Bizkaia Etorbideak goitik behera zeharkatzen du eremu hau. Kasu honetan, hiru esparruak bi azpiegitura hauek igortzen duten zarataren eraginpean egon daitezkeela uste da.

Datuen arabera, GI-3551 errepidearen zarataren igorpen-maila 60-65 dB(A) bitartean kokatzen da gauerako (LE10m, g_{aua}) eta 65-70 dB(A) bitartean egun guztirako (LE10m, DEN). Errepideak jasaten duen trafiko-intentsitatea 3.000 ibilgailu/egunean ingurukoa da.

Bestalde Bizkaia Etorbidearen zarataren igorpen maila 55-60 dB(A) bitartean kokatzen da gauerako (LE10m, g_{aua}) Ugalde eremuari dagokion tartean, eta 50-55 dB(A) bitartean 'Meatzerreka 2' eremua zeharkatzen duen tartean. Egundako datuek (LE10m, DEN) 65-70 dB(A) bitarteko igorpen-maila azaltzen dute 'Ugalde' eremua zeharkatzen duen tartean eta 50-55 dB(A) bitartekoa 'Meatzerreka 2' eremua zeharkatzen duen tartean.

Datu hauek kontuan hartuta, ez da uste hiru azterketa eremuen egoera akustikoa desagokia izango dutenik.

- Uholde-arriskua: Ur-Agentziak uholde-arriskuei buruz egindako informazioaren arabera aztertutako eremuan ez da mota honetako arriskurik identifikatu.

- *Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak:* IHOBek eginiko 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioaren' arabera, AE.37 'Meatzerreka-2' esparruan kutsatutako mota honetako lurzoruek 0,45 ha hartzen dituzte (inbentarioan 20055-00006 eta 20055-00007 kodeak jasotzen dituzte) eta AE.38 'Ugalde' eremuak 0,25 ha hartzen ditu (inbentarioan 20055-00024 kodearekin). Dena den, 'Meatzerreka 1' eremuak bere baitan dituen industria-jarduerak ikusirik ezin da baztertu eremu honek ere kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak edukitzea.
 - *Higadura jasateko arriskuak:* Esparruek gaur egun duten orografia eta maldak kontuan hartuz, eremuak ez du higadura arriskua dela-eta arazorik aurkeztuko.
- Kultur ondarea: Aztertutako eremuaren barruan babestutako kultur ondarearen elementu bakarra identifikatu da, kultur ondare katalogoan agertzen den 'La Soledad' otoiztegia, AE.37 'Meatzerreka-2' esparruan kokatua dagoena.
 - Mugikortasuna eta irisgarritasuna: hirigunetik, zehazki Santa Barbara inguruko biribilgunetik, ez da distantzia handiegirik esparru hauetara heltzeko, 500 m kasu hoberenean (Ugaldeko hegoaldeko sarrera), 850 m inguru eremuaren erdialdera heltzeko (Meatzaerreka-1 ingurua) eta ia 1,5 km Meatzerreka-2 esparruaren iparraldeko muturrera irteteko. Halere, GI-3551 errepideko bazterrak ez dute motordun ibilgailuak ez diren joan-etorriak egiteko bestelako modutarako segurtasunik ematen, ez oinezkoentzako, ezta bizikletentzako ere. Arazo honi, koten diferentziak ez duela horretarako laguntzen gehitu behar zaio. Ingurura ez da garraio publikorik linearik iristen.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak

Aزتتutako ingurumen-eragile ezberdinek azterketa-eremu ezberdinetan gaur egun duten egoera hurrengo taulan jasotzen da era laburrean.

Eragile bakoitzaren kasuan, eremu bakoitzean baldintzatzailea izango den edo ez adierazten da (bai zentzu negatiboan eta baita positiboan ere), baita, hala bada, zein mailatan baldintzatu edo mugatuko dituen eremu horretarako aurreikusten diren garapenak (kolore berdea: maila baxuan, kolore laranja: maila ertainean eta kolore gorria: maila altuan):

INGURUMEN-ERAGILEAK ETA BALDINTZATZAILEAK		HAUTABIDEA: MEATZERREKA-UGALDE			
		AE. 36 'Meatzerreka 1'	AE. 37 'Meatzerreka 2'	AE.38 'Ugalde'	
MALDAK (>%50ko maldak)	Balioa (Ha)	0	0,01	0,05	
	Baldintzatzailea	Ez	Ez	Ez	
AHALMEN AGROLOGIKO ALTUKO LURRAK	Balioa (Ha)	0	2,1	0,83	
	Baldintzatzailea	Ez	Bai	Bai	
UR-IBILGUAK	Egoera*	Bai	Bai	Bai	
	Baldintzatzailea	Bai	Bai	Bai	
INTERESA DUEN LANDAREDIA	Balioa (Ha)	0,08	1,75	0,93	
	Baldintzatzailea	Bai	Bai	Bai	
FAUNA MEHATXATUA	Egoera*	Bai	Bai	Bai	
	Baldintzatzailea	Bai	Bai	Bai	
NATURA GUNE BABESTUAK	Egoera*	Ez	Ez	Ez	
	Baldintzatzailea	Ez	Ez	Ez	
PAISAIA	Balorazioa	Ertaina	Ertaina	Baxua	
	Baldintzatzailea	Bai	Bai	Ez	
INGURUMEN-ARRISKUAK	Akuiferoen urrakortasuna	Balioa (Ha)	0	0,95	
		Baldintzatzailea	Ez	Bai	
	Zarata	Egoera	Egokia	Egokia	Egokia
		Baldintzatzailea	Ez	Ez	Ez
	Uholde-arriskua	Balioa (Ha)	0	0	0
		Baldintzatzailea	Ez	Ez	Ez
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak	Balioa (Ha)	0	0,45	0,25
		Baldintzatzailea	Ez	Bai	Bai
	Higadura-arriskua	Balioa (Ha)	0	0	0
		Baldintzatzailea	Ez	Ez	Ez

INGURUMEN-ERAGILEAK ETA BALDINTZATZAILEAK		HAUTABIDEA: MEATZERREKA-UGALDE		
		AE. 36 'Meatzerreka 1'	AE. 37 'Meatzerreka 2'	AE. 38 'Ugalde'
KULTUR ONDAREA	Egoera*	Ez	Bai	Ez
	Baldintzatzailea	Ez	Bai	Ez
MUGIKORTASUNA	Egoera	-	-	-
	Baldintzatzailea	Bai	Bai	Bai

A: Autobusa; B: Bizikleta bidezko lotura; O: Oinezko lotura.
* Kasu hauetan egoeran dagokion ingurumen-eragileren azterketa-eremuan badagoen edo ez adierazten da.

Taula: Industria jardueretako eremuentzat proposaturiko eremuen ingurumen-baldintzatzaile nagusiak.

A.6.2. Meatzerreka-Ugalde. Ingurumen-baldintzatzaileak planoan esparru hauetako ingurumen-baldintzatzaile nagusiak azaltzen dira.

4.7.3. Ingurumen Balorazioa

Aurreko ataletan HAPO-ren berrikuspenean Ugalde-Meatzerreka industria-eremurako proposatzen diren hautabide ezberdinak eta inguru honek dituen ingurumen-baldintzatzaile nagusiak jaso dira. Honekin guztiarekin, hautabide hauen ingurumen-balorazioa egingo da jarraian, hautabide hauetako bakoitzarekin aurreikusten diren ingurumenaren gaineko eragin nabarmenetan oinarrituz horretarako.

Lehen esan den bezala, plangintzaren fase honetan '0' hautabidea besterik ez da zehaztu inguru honetarako; dena den Berrikuspenearen Aurrerapen Dokumentuak inguru honetan indarrean dagoen HAPO-k aurreikusten dituen industria-garapenen beharrari buruzko gogoeta zabaltzea proposatzen du.

Ingurumari honetan, fase honetan daukagun informazioarekin kasu batzuetan zaila egiten da esparru hauetako bakoitzaren garapenean ekar litzaketen ingurumenaren gaineko eraginak aurreikustea, behin-betiko proposatzen den antolamendu zehatzaren arabera eta beraz eraikitze beharrezkoak diren jarduketan arabera baitira kasu askotan. Dena den, nahiz eta plangintzaren fase honetan ez ezagutu eragin hauetako batzuk izango duten tamaina, argi dago eragin hauek gertatuko direla.

'0' hautabideak, indarrean dagoen HAPO-k, esparru hauetarako bakoitzerako proposatzen duen antolamenduan oinarrituz, inguru hauetako bakoitzean aurreikusten diren ingurumen-eragin nagusiak azalduko dira jarraian, esparru bakoitzean eragin hauek izan dezaketen tamaina eta garrantziaren arteko alderaketa bat eginez. Lehenik modu orokorrean industria-garapenean inguru honetan izan ditzaketen ingurumen-eragin nagusiak deskribatuko dira eta ondoren esparru bakoitzean eragin hauek izan dezaketen tamaina jasotzen duen taula bat azalduko.

Ugalde-Meatzerreka inguruan aurreikusten diren industria-garapenean izango dituzten ingurumen-eragin nagusiak honakoak izan litezke:

1. Lurzoruaren okupazioa

Ugalde-Meatzerreka inguruan proposatzen diren hiru eremuak honako azalera aurkezten dute:

- AE. 36 'Meatzerreka 1': 0,7 Ha
- AE. 37 'Meatzerreka 2': 4,1 Ha
- AE. 38 'Ugalde': 2,3 Ha

Kasu honetan, 'Meatzerreka 1' eremua hirilur bezala sailkatua dago indarrean dagoen HAPO-n eta gaur egun hiritartua agertzen da. Beste bi esparruak, ordea, lurzoru hiritargarri bezala daude sailkatua eta ez dute zoladurarik azaltzen eremuaren azalera gehienez.

Honela, '0' hautabideak 'Meatzerreka 2' eta 'Ugalde' eremuetan proposatzen dituen industria-garapenean 6,4 Ha-ren hiritartzea ekarriko lukete. Eremu honek indarrean dagoen HAPO-k sailkatzen duen jarduera ekonomikoetarako lur hiritargarriaren azalera osoaren ia %4ri besterik ez dagokio. Nahiz eta inguru hau ez den

indarrean dagoen HAPO-k jarduera ekonomikotarako garapenentarako aurreikusten duen eremu nagusia, berrikuspen honetan 6,4 Ha hiritartzeko garapenei buruzko gogoeta zabaltzea egokia ikusten da, EAE mailan hartutako ingurumen-irizpide nagusiek lurzorua erabilera ahalik eta gehien mugatzeko konpromisoa azaltzen baitute, berau benetan dauden beharrei ahal den neurrian moldatu dadin.

Kasu honetan, egun hiritarragoa denez eta azalera txikiagoa duenez, egokiagoa ikusten da 'Ugalde' eremuaren garapena, 'Meatzerreka 2' eremuarekin alderatuz.

2. Ahalmen agrologiko handiko lurrak galtzea

'Ugalde' eta 'Meatzerreka 2' eremuek, ahalmen agrologiko lurrak dituzten gunek mantendu ez ezik, nekazal-jarduera azaltzen dute gaur egun, lurzoru hauek baratza eta nekazal-jarduerentarako erabiltzen direlarik.

'0' hautabideak bi eremu hauetan aurreikusten dituen industria-garapenek nekazal-jarduera hauen desagertzea eta lurzoruak ahalmen agrologikoa galtzea ekarriko lukete, hauek bateraezinak direlako bertan proposatzen den hiritartze-prozesuarekin.

Kontuan izanda udalerrri osoan ahalmen agrologiko handiko lurrek gehitzen duten azalera osoa 29 Ha direla, indarrean dagoen HAPO-k inguru honetan proposatzen dituen garapenek udalerriko ahalmen agrologiko handiko lurren %10a inguru galtzea ekarriko luke, ingurumen-eragin nabarmena izan daitekeena. Komenigarria ikusten da, beraz, inguru hauen garapenari buruzko hausnarketa bat egitea HAPO-ren berrikuspenaren lehenengo fase honetan.

Edonola ere, mota honetako lurzoru gutxiago azaltzen duenez, AE.38 'Ugalde' eremuaren garapenak eragin gutxiago ekarriko lituzke 'Meatzerreka 2' eremuaren garapenak baino.

3. Lurrazaleko ur-ibilguengan eragina

Eremuan aurreikusten diren industria-garapenen obra fasean bertan dauden lurrazaleko ur-ibilguen kalitatea kaltetua izan daiteke, emari ezberdinen eraginez. Honetaz gain, esparru hauentarako proposatzen den antolamenduak kontuan hartu beharko du kasu bakoitzerako EAEko Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko LAP-ak ezartzen dituen gutxieneko tartek urbanizaziotik eta eraikuntzatik.

'0' hautabideak proposatzen dituen garapen-esparruen inguruan dauden ur-ibilguen artoa ez da oso handia, beraz ez dira eragin larririk espero alde honetatik.

4. Interesa duen landaretzarengan eragina

'0' hautabideak eremu ezberdinetarako proposatzen duen antolamenduaren arabera, ezin da ziurtatu interesa duen landaretzaren babesa bateragarria denik bertan aurreikusten diren garapenekin.

Interesa duen landaretzarengan eragina 'Meatzerreka 2' eremuan proposaturiko jarduketan ondorioz izango dira, guztira mota honetako landarediak eremuaren 1,75 Ha estaltzen baitu gaur egun. Edonola ere, landaredi honen zati handi bat 6510. Altitude baxuetako sega-belardi txiroak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*) interes komunitarioko habitatak hartutako guneei dagokio.

'Ugalde' eremuaren egoera berdintsua da; nahiz eta intereseko landaretzak azalera gutxiago hartzen duen (0,9 Ha), hau batik bat 6510 habitatak hartzen dituen guneei dagokie.

Bestalde, ez da intereseko landaretzarengan eraginik espero 'Meatzerreka 1' eremuan proposatu daitezkeen jarduketekin, gaur egun hiritartua dagoen eremua izanik.

Kasurik okerreanean, 'Ugalde' eta 'Meatzerreka 2' eremuetan '0' hautabideak proposatzen dituen garapenek 0,8 Ha hostozabalen baso gazte eta heskai, baita 0,1 Ha harizti galtzea ekarriko luke, ingurumen-eragin onargarria delarik. Bestalde, eremu hauen garapenak ere guztira 6510 habitata duten 1,8 Ha desagertzea ekarriko lukete. Habitat honek Arrasateko udalerrian guztira hartzen duen azalera kontuan izanda (27 Ha inguru), proposatzen

diren garapenek habitat honek udalerrian azaltzen duen azaleraren %6a galtzea ekarriko luke. Honela, ingurumenaren gaineko eragin hau bateragarria izango litzatekeela baloratzen da.

Irizpide orokor modura, lehenasunezkoztat jotzen de harizti eta hostozabalen baso gazteak dituzten guneak babestea, hauen desagertzea ekarri dezaketen garapenak moldatuz eta, ahal den neurrian, jarduera ekonomikotarako garapen hauentzako proposaturiko antolamendua landaredi-gune hauen mantentzearekin bateragarria eginez.

5. Fauna mehatxatuarengan eragina

Azterketa-esparruak baso-igel iberiarrarentzako (*Rana iberica*) mugatutako 'Lehentasuneko banaketa-eremua'-ren zati diren arren, ez da espezie mehatxatu hauek eremu hauetan aurkitzea espero.

Nahiz eta eragile honek ingurumen-baldintzatzaile bat den inguru honetan proposatu daitezkeen garapen ezberdinentzat, ez dira fauna mehatxatuarengan aintzat hartzeko eraginik espero eremu hauetan proposatzen diren proposamenekin.

6. Paisaiaren gaineko eragina

Lehen azaldu den moduan, Meatzerreka-Ugalde eremua oraindik ere landa-paisaia mantentzen duen inguru bat da, nahiz eta azkeneko urteetan bertan eginiko jarduera ekonomikotarako garapenek nekazal-paisaia honen kalitatea gutxitu duten.

Edonola ere, 'Meatzerreka 2' eta 'Ugalde' eremuetan proposaturiko garapenek paisaiarengan eragin nabarmena izango luketela uste da. Izan ere, jarduera ekonomikotarako eremu hauek ingurunearen aldaketa sakona ekarriko lukete, lurzoruaren-erabilerari dagokionez aldaketa handia aurreikusten da eta.

Eremu hauek duten ikusgaitasun-mailak eta bere harrera-ahalmenak beren paisaiaren urrakortasuna ertaina izatea lortzen dute, bertan aurreikusten diren jarduera ekonomikotarako eremu berriak ingurunean modu errazagoan egokitzea eta sortzen duten begi-inpaktuak ikusle gutxiago izatea ekartzen duelarik.

Hirigunetik gertuago kokatzen denez eta azalera gutxiago hartzen duenez, kasu honetan 'Ugalde' eremuan aurreikusitako garapenek paisaiarengan eragin arinagoa izango luketela uste da, 'Meatzerreka 2' eremuarekin alderatuz.

Edonola ere, modu orokorrean jarduera ekonomikotarako indarrean dagoen HAPO-k inguru honetan proposatzen dituen garapenek paisaiarengan eragin nabarmena izango luketela uste da, bereziki 'Meatzerreka 2' eremuari dagokionez.

7. Ingurumen-arriskuak

a. *Akuiferoen urrakortasuna*: AE.38 'Ugalde' eremuaren hegoaldea akuiferoen urrakortasun handia duen eremu baten baitan kokatzen da. Egun azalera honek zoladurarik azaltzen ez duenez, ezin da akuiferoen kalitatearengan eraginik baztertu '0' hautabideak bertan proposaturiko garapenen obra fasean. Meatzerrekako esparruetan ez dira akuiferoengan eraginik espero bertan proposatutako garapenekin.

b. *Zarata*: Lehenago esan denaren arabera, eskura dagoen informazioaren arabera, ez da espero '0' hautabideak proposatzen dituen garapen-esparruek egoera akustiko desegokia izatea etorkizun batera. GI-3551 jasaten duen trafiko-intentsitateari erreparatuz, ez da espero eremu hauetan aurreikusten diren jarduera ekonomikotarako eremuetan indarrean dagoen legediak¹⁶ ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak gainditzea. Bestalde, Bizkaia Etorbideak eragindako zaratak ere ez du eragin nabaririk izango bertan definituriko esparruen egoera akustikoarengan.

¹⁶ Urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan, Azaroaren 17ko 37/2003 Legea, Zaratari buruzkoa, hain zuzen ere zonifikazio akustikoaren, kalitate-helburuen eta emisio akustikoen eremuetan garatzen duenean.

- c. *Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak*: Lehenago azaldu den moduan, IHOBek egindako ‘Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioaren’ arabera, AE.22 ‘Mendibarren’ eremuaren 1,15 Ha eta AE.23 ‘Gautxori’ eremuaren 1,9 Ha mota honetako lurzoruekin azaltzen dira.

Legeak ezartzen duena bete ezean, AE.22 ‘Mendibarren’ eta AE.23 ‘Gautxori’ eremuan aurreikusitako garapenek aintzat hartzeko ingurumen-eragina izan lezakete, ezin baita baztertu kutsatuta egon daitezkeen lurren indusketa behar izatea, eta honek hondakin arriskutsuen sorrera ekarriko luke, lurzoru hauek era berezian kudeatu beharko bailirateke. Edonola ere, eremu honen jarduera ekonomikotarako garapenak aurrera eramaten badira, bertan proposatzen diren jarduketa guztiak 1/2005 legeak, otsailaren 4koa, lurzoru ez kutsatzeko eta kutsatuta garbitzeko, ezartzen duenaren menpe egongo dira.

8. Mugikortasunaren hazkundera eta garraiobide iraunkorren erabilera

‘0’ hautabideak ‘Meatzerreka 2’ eta ‘Ugalde’ eremuetan aurreikusten dituen jarduera ekonomikotarako garapenek aurrera eginez gero, inguru honek egun azaltzen dituen joan-etorriak nabarmen ugalduko direla espero da. Jarduera ekonomikotarako eremu berrietako langileen gehiengoa bere lanpostura auto pribatuan joango dela uste da, ez baitago bertara iristen den garraio publikorik, eta inguruaren oinezko edo bizikleta bidezko irisgarritasunak ere ez ditu baldintza egokiak aurkezten gaur egun.

Egoera honetan, esparru berrien garapenak mugikortasunaren hazkunde bat ekarriko du eta udalerrian auto pribatuan egiten diren joan-etorrien zenbakia igoaraziko du. Dena den, garapen-eremu honen tamaina ere ez da joan-etorrien hazkunde honek eragin larriak sortzeko modukoa, ez direlarik hainbeste langile espero eremu berri hau garatzekotan ere.

Hautabideen hasierako ingurumen-balorazioa

Orain arte esandakoaren arabera, ondoko taulan aintzat hartu diren hautabide bakoitzaren kasuan ingurumenaren gaineko eragin hauek izan dezaketen tamaina jasotzen da, hautabideen ingurumen-eraginaren balorazio alderatu bat izan daitekeena.

INGURUMENAREN GAINKO ERAGINAK		HAUTABIDEA: MEATZERREKA-UGALDE		
		AE. 36 ‘Meatzerreka 1’	AE. 37 ‘Meatzerreka 2’	AE. 38 ‘Ugalde’
Lurzoruaren okupazioa		-	Ba	Ba
Ahalmen agrologiko handiko lurzoruak galtzea		-	Na	Ba
Lurrazaleko ur-ibilguengan eragina		Ba	Ba	Ba
Interesa duen landaretzarengan eragina		-	Na	Ba
Fauna mehatxatuzarengan eragina		Ba	Ba	Ba
Paisaiaren gaineko eragina		Ba	La	Na
Ingurumen- arriskuak	Akuiferoen urrakortasuna	-	-	Ba
	Zarata	Ba	Ba	Ba
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak	-	Ba	Ba
Mugikortasunaren hazkundera eta garraiobide iraunkorren erabilera		Ba	Ba	Ba

Taula. Industria jardueretako eremuentzat aintzat hartu diren alternatiben ingurumen-balorazioa.

4.8. ‘7. URUBURU-GRANDENAPE’

4.8.1. Hautabideen deskribapena

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30ko 2/2006 legeak ez ditu onartzen dentsitate txikiko garapenak. Kontuan harturik indarrean dagoen HAPO-ak mota honetako zenbait garapen aurreikusten dituela, Aurrerapen Dokumentuak beharrezkotzat jotzen du eremu hauen antolaketa aldatzea HAPO-aren Berrikuspenarekin.

Kasu honetan, ‘0’ hautabidea indarrean dagoen HAPO-ak eremu hauetarako ezartzen dituen proposamena izango litzateke, era laburrean:

- AE. 25 'Uruburu': dentsitate txikiko etxebizitza-garapena
 - Lurzoru hiritargarria (5,2 ha).
 - 14,9 etx/ha-ko dentsitatea ezartzen du, banaka eta trinkotasun txikiz, bi bizitzako etxe berriak eraikitzeke (S+BA+1+TP profila).
 - Uribarriko elizaurrea eta Udalara doan errepidea lotzen dituen bidexka oinezkoentzat berreskuratzea.
 - Dauden txabola guztiak antolamenduz kanpo geratzen dira. Larratxo eta Uriburu baserriak mantendu egiten dira.

- AE. 29 'Grandenape': ekipamendurako gordespena
 - Lurzoru hiritargarria (0,5 ha).
 - Irakaskuntza ekipamendua aurreikusten da, Erguin Herri-Eskola handitzeko gordespena.
 - Esparruan dauden txabola guztiak antolamenduz kanpo geratzen dira.
 - Monterron-Gesalibar motorgabekoen ibilbidea luzatuko da, esparruari dagokion zatian.

A.7.1. Uruburu-Grandenape. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO planoan Egitamu Orokorrak esparru hauetarako aurreikusitako antolamendua azaltzen da.

Aurrerapen agiriak AE. 25 'Uruburu' eremuaren antolamendua aldatzeko beharra azaltzen du, eremu honetarako proposamen berri bat aurkezten duelarik: trinkotasun handiko etxebizitza-garapena, bertan garapen iraunkorra uztartuko duena (giza, ekonomi eta ingurumen iraunkortasunaren oreka bermatzen duena). Horrela, etxebizitzaren %75a babes publikokoa (%55 BOE eta %20 salneurri mugatukoa) izango litzateke, eta gainerako %25a librea.

Indarrean dagoen HAPO-k egiten dituen proposamenak barneratuz, Aurrerapen Dokumentuak Uribarriko elizaurrea eta Udalara doan errepidea lotzen dituen oinezkoen bidexka berreskuratzea proposatzen du. Azken finean, Aurrerapen Dokumentuak proposatzen duen antolamendua berri honekin dentsitate handiagoa eman zaio AE. 25 Uruburu esparruari, Lurzoruaren Legeak agintzen duena betez, bai trinkotasunari dagokionean eta baita babes publikoko etxebizitzaren gutxieneko kopuruari dagokionean ere. Eraikinen kokapena eta antolamendua bera, malda eta eguzkiari egokitzuz aurreikusitako litzateke; kasu honetan, Aurrerapen Dokumentuak eraikinentzat proposatzen duen antolamendua gutxi gorabeherakoa bezala hartu behar da, HAPO-ren Berrikuspenean zehar zehaztuko baita.

A.7.1.a Uruburu-Grandenape. 'A' alternatiba: Aurrerapenaren proposamena planoan HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak esparru hauetan proposatzen duen antolamendua azaltzen da.

4.8.2. Ingurumen Baldintzatzaileak

- Orografia: gaur egun duten egoera aintzat harturik, erliebea baldintzatzaile bat izan daiteke 'Uruburu' eremuaren garapenerako, izan ere %10-30 bitarteko maldak. Dena den, azterketa-eremuan ez da %50ko malda gainditzen duen gunerik.
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: Eremuak azaltzen dituen malda eta erliebea dela eta, esparruaren gehiengoa VI mota agrologiko bezala sailkatua geratzen da, nahiz eta esparruaren zati bat IV mota bezala ere sailkatuta geratzen den. Denak ere ahalmen agrologiko eskasa edo baxua duten lurzoruei dagokien kategoriak dira.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Ez da ur-ibilgu iraunkorrik antzeman azterketa-eremuan.
- Landaretza: arlo honetan, AE.29 'Grandenape' eremua izango litzateke pobreena, izan ere, esparrua baratzat txiki eta txabolaz beterik ageri da gaur egun. AE.25 'Uruburu' esparruaren zati bat ere, 0,6 ha. inguru, baratzek eta txabolek okupatzen dute. Gainontzeko 2,5 ha. behe-larre eta belazeetarako erabiltzen dira, eta mendebaldeko muturrean kokatzen diren 1,3 ha. berriz koniferoen landaketetarako.

Udalerrian zehaztu den babestu beharreko landarediari dagokionez, eremu hauek guztira 2,6 ha. (azaleraren %50) hartzen dituzte AE.25 'Uruburu' esparruan, zehazki heskaiek eta belazeek hartzen duten eremuari dagokiona. Azken hau 92/43/CEE Habitaten zuzentarauaren I. eranskinean definitzen den 6510.

Altuera txikiko sega-larre pobreak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*) interes komunitarioko habitat bezala sailkatu daiteke.

- **Fauna:** Aztertutako esparruak (AE.25, AE.29), bere osotasunean, baso-igel iberiarra (*Rana iberica*) espezie mehatxatuarentzat mugaturiko 'Lehentasuneko banaketa-eremuan' sartzen dira.
- **Natura-gune babestuak:** Esparru hauek ez dira udalerrian agertzen diren naturaguneen barnean geratzen.
- **Paisaia:** Esparru hauek, bereziki AE.25 'Uruburu'-ren kasuan, duten erliebeak eta kokapenak hirigintza-garapenetatik babestu ditu gaur egun arte, hartara bertan nekazaritza eta abeltzaintza erabileren mantentzea ahalbidetuz. Honela, esparru hauen paisaia nekazal-paisaia bezala sailkatu daiteke, nahiz eta AE.29 'Grandenape', AE.25 'Uruburu' esparruaren hegoaldean biltzen diren baratza eta txabola eremuek paisaiak egoera eskasagoa azaltzen duen. Kasu honetan, kokatzen diren ingurunea kontutan izanda, 'Uruburu' esparruaren paisaiaren kalitatea ertaina-handia bezala baloratu daiteke eta 'Grandenape'rena txikia bezala.

Garapen-esparru hauek hirigunearen jarraipen moduan aurreikusten ditu indarrean dagoen HAPO-ak, beraz bertan proposatzen diren etxebizitza-garapenak inguruko paisaian egokituko lirateke. Dena den, 'Grandenape' esparrua egun dagoen hirigunearekin mugatuz proposatzen da, bere paisaiaren harrera-ahalmena 'Uruburu' esparruari dagokiona baino zertxobait handiagoa izango delarik.

Azterketa-eremuen ikusgaitasunari dagokionez, 'Uruburu' eta 'Grandenape' eremuen ikusgaitasun-maila altua dela esan daiteke: Uruburu eremuaren ekialdeko muturra izan ezik, esparru hauek ikusgai dira errepide-sare nagusitik, bigarren mailako errepide-saretik, hirigunetik eta udalerriko gailur nagusi zein nezakal-auzoetatik.

- **Ingurumen-arriskuak:**
 - **Akuiferoen urrakortasuna:** bi esparruak akuiferoen urrakortasun baxua edo ertaina duen gune batean kokatzen dira; halaber, 'Uruburu' eremuaren iparraldeko muturreko 0,02 ha akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun oso handia duen eremu batean sartzen da, nahiz eta eremu hau errepide batek okupatuta agertzen den gaur egun.
 - **Zarata:** Ez da sare-nagusiko ez bigarren mailako sareko errepiderik azaltzen azterketa-eremuaren inguruan, ezta zarata-iturburu izan daitekeen industria-instalakuntzarik ere. Honela, eremu hauek jasoko duten zarata bakarria inguruko kaleetako trafikoak igorritakoa izango da. Kontuan izanda kale hauek jasaten duten trafiko intentsitatea 1.300 ibilgailu/egunean dela gehenez, beren igorpen-maila 50 dB(A)-ren azpitik kokatzen da gauerako (LE10m, gaur) eta 55-60 dB(A) bitartean egun guztirako (LE10m, DEN). Honen arabera, esparru hauetan proposatzen diren etxebizitza-garapenek izango luketen egoera akustikoa ona dela aurreratu daiteke. Edonola ere, egungo hiriguneko kaleetatik babestuago kokatzen denez, 'Uruburu' eremuak oraindik ere zarata-maila baxuagoak dituela esan daiteke.
 - **Uholde-arriskua:** bi azterketa-eremuek ez dute inolako uholde-arriskurik agertzen, eskuragarri dagoen informazioaren arabera.
 - **Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua:** IHOBek eginiko 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioaren' eta indarrean dagoen HAPO-k udalerrian antzematen dituen kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen arabera, AE.29 'Grandenape' eremuak lurzoruen poluitzaile izan daitezkeen jarduera bat jasaten du edo jasan izan du eta AE.25 'Uruburu' eremuak ez du kutsatuta egon daitezkeen lurzorurik agertzen, nahiz eta mota honetako lursail batekin mugatzen duen bere hegoaldean (IHOBek eginiko inbentarioan 20055-00064 kodearekin).
 - **Higadura jasateko arriskuak:** Nahiz eta AE. 25 eta AE.29 eremuek gaur egun %30rainoko malda duten, Basogintza eta nekazaritzarako LAP-ak ez du higadura jasateko arriskua duen gunerik sailkatzen azterketa-eremu hauetan.
- **Kultur ondarea:** Esparru hauek ez dute HAPO-k jasotzen dituen kultur ondarearen elementurik.
- **Mugikortasuna eta irisgarritasuna:** Uruburu esparrua maldan kokatzen da, hau oztopo izan daitekeelarik eremu honen mugikortasun eta irisgarritasunerako, bereziki mugikortasun iraunkorrari dagokionez.

Eremua hirigunearen jarraibide moduan proposatzen da, eta indarrean dagoen HAPO-ak oinezko zein bizikleta-bideak bertara iristea aurreikusten du, Monterron-Gesalibar motorgabekoen ibilbidearen bidez. Honetaz gain, Arrasateko udalerrria zeharkatzen duten bi autobus-lineak AE.25 'Uruburu' eta AE.29 'Grandenape' esparruetatik gertu igarotzen dira, beraz eremu hauek garraio publikoaren bidezko lotura izango lukete bai hirigunearekin bai eta udalerriko beste zenbait gunerekin ere.

Dena den, bai bizikletaz edo oinez eremu hauen barnera iristea baliteke zailtasun gehiago izatea, eremu hauek duten malda dela eta. Kasuan kasu, esparru hauen irisgarritasun-maila etxebizitza-garapenak egiteko garaian eremuan proposatzen den antolamenduaren eta etxebizitza hauek eraikitzeke egin beharko diren plataformek izango duten altueraren arabera geratuko da beti ere. Bere kokalekua dela eta, oinezko eta bizikleta bidezko irisgarritasuna 'Uruburu' esparruaren goialdeko zatian zailagoa izan daitekeela esan daiteke; kasu honetan, badirudi bizikleta eta oinezkoen lotura izateko egoera lagungarriena 'Grandenape' eremuak azaltzen duela.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak

Azterturako ingurumen-eragile ezberdinek azterketa-eremu ezberdinetan gaur egun duten egoera hurrengo taulan jasotzen da era laburrean.

Eragile bakoitzaren kasuan, berau eremu bakoitzean baldintzatzaile izango den edo ez adierazten da (bai zentzu negatiboan eta baita positiboan ere), baita, hala bada, zein mailatan baldintzatu edo mugatuko dituen eremu horretarako aurreikusten diren etxebizitza-garapenak (kolore berdea: maila baxuan, kolore laranja: maila ertainean eta kolore gorria: maila altuan):

INGURUMEN-ERAGILEAK ETA BALDINTZATZAILEAK		HAUTABIDEA: URUBURU-GRANDENAPE		
		AE. 25 'Uruburu'	AE. 29 'Grandenape'	
MALDAK (>%50ko maldak)	Balioa (Ha)	0	0	
	Baldintzatzailea	Ez	Ez	
AHALMEN AGROLOGIKO ALTUKO LURRAK	Balioa (Ha)	0	0	
	Baldintzatzailea	Ez	Ez	
UR-IBILGUAK	Egoera*	Ez	Ez	
	Baldintzatzailea	Ez	Ez	
INTERESA DUEN LANDAREDIA	Balioa (Ha)	2,39	0,02	
	Baldintzatzailea	Bai	Bai	
FAUNA MEHATXATUA	Egoera*	Bai	Bai	
	Baldintzatzailea	Bai	Bai	
NATURA GUNE BABESTUAK	Egoera*	Ez	Ez	
	Baldintzatzailea	Ez	Ez	
PAISAIA	Balorazioa	Altua	Baxua	
	Baldintzatzailea	Bai	Ez	
INGURUMEN-ARRISKUAK	Akuiferoen urrakortasuna	Balioa (Ha)	0,02	
		Baldintzatzailea	Ez	
	Zarata	Egoera	Oso ona	Ona
		Baldintzatzailea	Ez	Ez
	Uholde-arriskua	Balioa (Ha)	0	0
		Baldintzatzailea	Ez	Ez
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua	Balioa (Ha)	0	0,04
		Baldintzatzailea	Ez	Bai
Higadura-arriskua	Balioa (Ha)	0	0	
	Baldintzatzailea	Ez	Ez	
KULTUR ONDAREA	Egoera*	Ez	Ez	
	Baldintzatzailea	Ez	Ez	
MUGIKORTASUNA	Egoera	A/O	A/B/O	
	Baldintzatzailea	Bai	Ez	

A: Autobusa; B: Bizikleta bidezko lotura; O: Oinezko lotura.
* Kasu hauetan egoeran dagokion ingurumen-eragilerak azterketa-eremuan badagoen edo ez adierazten da.

Taula: Uruburu-Grandenape inguruak azaltzen dituen ingurumen-baldintzatzaile nagusiak.

A.7.2: Uruburu-Grandenape. Ingurumen-baldintzatzaileak planoan esparru hauetako ingurumen-baldintzatzaile nagusiak azaltzen dira.

4.8.3. Ingurumen-Balorazioa

Aurreko ataletan Uruburu eta Grandenape eremuek dituzten ingurumen-baldintzatzaile nagusiak jaso dira. Informazio honen arabera, hautabide hauen ingurumen-balorazioa egingo da honako atalean, hautabide hauekako bakoitzarekin aurreikusten diren ingurumenaren gaineko eragin nabarmenetan oinarrituz horretarako.

Plangintzaren fase honetan, '0' hautabideak zehaztasun handiagoa azaltzen du Aurrerapen Dokumentuak Uruburu esparruaren inguruan egiten duen proposamenarekin alderatuz. Bi hautabide hauen arteko desberdintasun nabarmenena proposatzen den etxebizitza-garapenak duen trinkotasunean datza: indarrean dagoen HAPO-k dentsitate txikiko etxebizitza-garapena aurreikusten du Uruburu eremuan; Aurrerapen Dokumentuak berriz trinkotasun handiko garapena proposatzen du, Lurzoruaren Legeak agintzen duena betez, bai trinkotasunari dagokionean eta baita babes publikoko etxebizitzaren gutxieneko kopuruari dagokionean ere.

HAPO-ren berrikuspenean proposatzen den trinkotasun handiko etxebizitza-garapenak ingurumenaren gainean izango lituzkeen eraginak eraikinen kokapen zehatzaren arabera izango dira hein handi batean. Oraindik ere zehaztu gabeko alderdi bat den arren, HAPO-ren Berrikuspenak Uruburu eremuan proposatzen dituen garapenak ingurumenaren gainean izango dituen eraginak txosten honen 5. Atalean jasoko dira plangintzaren hurrengo faseetan, proposamenak zehaztasun handiagoa hartzen duenean.

Edonola ere, hautabide ezberdinen ingurumen-balorazioa trinkotasun txikiko eta handiko garapenen arteko alderaketa batean oinarrituko da, hautabideen arteko aukeraketa egitean irizpide bezala kontuan hartua izan dadin.

AE.25 'Uruburu' eta AE.29 'Grandenape' eremuetan proposatzen diren hautabide ezberdinek izango lituzketen ingurumen-eragin nagusiak honakoak lirateke:

1. Lurzoruaren okupazioa

Eremu honetan definituriko esparruek honako azalera dute:

- AE. 25 'Uruburu': 5,2 ha.
- AE.29 'Grandenape': 0,5 ha.

Eremuek guztira 5,7 ha gehitzen dituzte, udalerrian indarrean dagoen HAPO-k sailkatzen duen egoitzarako lur hiritargarriaren azalera osoaren %8a.

Aztartzen diren bi hautabideek (indarrean dagoen HAPO eta Aurrerapen Dokumentua) Uruburu esparruan etxebizitza-garapen bat aurreikusten dute, bi kasuetan eremu honetan lurzorua okupazioa gertatuko litzakeelarik.

Uruburu eremuaren azalera udalerriko lurzoru hiritargarriaren zati txiki bat besterik ez du osatzen, beraz eremu honen okupazioak udalerraren lurzorua okupazio-mailan eragin txikia izango luke bi kasuetan. Honetaz gain, Uruburu eremua egun artifizialdua dagoen esparru bat izateak ere ingurumenaren gaineko eragin hau gutxitzen lagunduko du.

2. Lurzoruaren erabilera iraunkorra

Lurzoruaren erabilera iraunkor batek zentzuzko erabilera bat behar du izan, non dentsitate ertain eta altuko garapenak lehenesten diren, baliabideen erabilera iraunkor bat egiten baitute. '0' hautabideak –indarrean dagoen HAPO-k- dentsitate txikiko garapenak aurreikusten ditu 'Uruburu' esparruan, eta ekipamendu-garapena 'Grandenape'n. Kasu honetan, deigarria da 'Uruburu' eremuan proposatzen den dentsitate benetan baxua, 14,9 etxebizitza/Ha-ko.

Dentsitate txikiko garapen honek lurzuaren erabilera ez iraunkor bat bultzatzen du, eta ez dator bat EAE mailan hartutako ingurumen-irizpide estrategikoekin¹⁷.

Aurrerapen Dokumentuak proposatzen duen hautabideak trinkotasun handiko garapen bat aurreikusten du, nahiz eta plangintzaren fase honetan oraindik ere ez duen eremu honen trinkotasun hau finkatu. Edonola ere, Uruburu eremuan trinkotasun handiko garapen hau egokiagoa dela uste da, lurzuaren erabilera iraunkorrago bat egiten baitu, hartara EAE mailan harturiko ingurumen-irizpide estrategikoekin bat eginez.

Bi hautabideen arteko alderaketa eginez, era positiboan baloratu da Aurrerapen Dokumentuak eremu honen garapenerako proposatzen duen aldaketa sakona, dentsitate txikiko garapen bat ordez trinkotasun handiko garapen bat proposatuz.

3. Interesa duen landaretzarengan eragina

Aztertutako bi hautabideek 'Uruburu' eremuan proposatzen duten garapenak 6510 kodearekin sailkatutako interes komunitarioko habitata den behe-larrearen 2,4 Ha galtzea ekarriko lukete, bi kasuetan proposaturiko antolamenduekin ezin baita landaretza honen babesa eta mantenua ziurtatu.

Habitat honek udalerrian azaltzen duen azalera osoa kontuan harturik (27 Ha) AE.25 'Uruburu' eremuan proposatzen diren etxebizitza-garapenek 6510 habitatak udalerrian duen azalera %8 inguru murriztea ekarriko luke, hau kontuan hartzeko eragin bat delarik.

Proposaturiko bi hautabideek landaretzarengan eragin berdintsua izango luketela uste da, biek ere 'Uruburu' eremuaren garapena proposatzen baitute. Edonola ere, nabarmendu beharra dago esparrua zati batean artifizialdua dagoela gaur egun, zenbait txabola eta baratze hegoaldeko muturra hartzen baitute. Honek landaretzaren gaineko eragina gutxitzen duela ere kontuan hartu beharra dago.

'Grandenape' eremuari dagokionez, bertan eman daitezkeen garapenek ez lukete eragin aipagarririk izango interesa duen landaretzarengan.

4. Fauna mehatxatuarengan eragina

Bi esparruak baso-igel iberiarrarentzako (*Rana iberica*) mugatutako 'Lehentasuneko banaketa-eremua'-ren zati dira, dena den ez da espero espezie mehatxatu hauek eremu hauetan aurkitzea. Nahiz eta eragile honek ingurumen-baldintzatzaile bat den inguru honetan proposatu daitezkeen garapen ezberdinentzat, ez dira fauna mehatxatuarengan aintzat hartzeko eraginik espero eremu hauetan proposatzen diren proposamenekin.

5. Paisaiaren gaineko eragina

'O'hautabideak proposatzen dituen etxebizitza-garapen ezberdinek paisaiaren gainean izango duten eragina paisaiak egun duen kalitatearen, bere harrera-ahalmenaren eta urrakortasunaren arabera izango da.

Egungo hirigunearen jarraipen modura proposatzen denez, 'Uruburu' eremuak bi hautabideek proposatzen dituzten garapenak hartzeko hiru esparruen harrera-ahalmen egokia duela iritzi da, alde honetatik eraginik espero ez delarik, garapen berriak inguruko paisaian era aipagarriaren egokituko baitira.

Ikusgaitasunari dagokionez, lehenago esan den moduan, 'Uruburu' eremuaren ikusgaitasun-maila altua da, bertan aurreikusten dituen garapenek sortuko lituzketen begi-inpaktuak ikusle askok jasango lituzkelarik, ingurumen-eragin honen tamaina handituz.

Edonola ere, kasu honetan paisaiaren gaineko eragina esparru honek egun mantentzen duen paisaiaren kalitatearen gutxitzean egongo dela aurreikusten da. Izan ere, 'Uruburu' eremuak paisaia nahiko egoera onean mantentzen du gaur egun. Aztertutako bi hautabideek aurreikusten dituzten etxebizitza-garapenek eremu honek duen paisaiaren izaera galtzea ekarriko luke, nekazal- eta basogintza-paisaia batetik hiri-paisaia batera

¹⁷ Garapen iraunkorraren euskal ingurumen estrategia 2002-2020 eta Ingurumen esparru programak (2002-2006 2007-2010, 2011-2014).

pasatuko litzateke eta. Paisaiak egun inguru honetan dituen balore nagusiak nekazal-erabilerekin lotuta agertzen dira 'Uruburu' kasuan, beraz bi kasuetan proposatutako etxebizitza-garapenek balore hauen narriadura edo desagerpena ekar lezakete.

'Uruburu' eremuan aurreikusten den etxebizitza-garapenaren inguruan proposaturiko bi aukerak kontuan hartuta, dentsitate txikiko garapenak begi-inpaktu txikiago bat sor lezakeela uste da, etxebizitza-eraikinak altuera txikiagoak izanik ez direlako hain ikusgaiak izango. Haatik, era berean kontuan izan behar da dentsitate txikiko garapenak aurreikusten direla kontuan izanik, paisaiaren gainean sor daiteken eragina ekonomikoki eta sozialki arrazoitua geratzen ez dela, paisaiaren gainean eragin nabarmenak egon baitaitezke, bertan etxebizitza beharraren zati txiki bati erantzuna eman ahalko dizkieten dentsitate txikiko garapenak ezartzeko.

6. Ingurumen-arriskuak

- a. *Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua*: Lehenago azaldu den moduan, indarrean dagoen HAPOk lurzoruaren poluitzaile izan daitezkeen jarduera bat antzematen du AE.29 'Grandenape' eremuan.

Legeak ezartzen duena bete ezean, AE.29 'Grandenape' eremuan aurreikusitako garapenek aintzat hartzeko ingurumen-eragina izan lezakete, kutsatuta egon daitezkeen lurren indusketa beharko bailuke, eta honek hondakin arriskutsuen sorrera ekarriko luke, lurzoru hauek era berezian kudeatu beharko bailirateke. Edonola ere, eremu honen etxebizitza-garapena aurrera eramaten bada, bertan proposatzen diren jarduketak guztiak 1/2005 legea, otsailaren 4koa, lurzoru ez kutsatzeko eta kutsatuta garbitzeko ezartzen duenaren menpe egongo dira.

- b. *Zarata*: Lehenago esan bezala, eskura dagoen informazioaren arabera 'Uruburu' eta 'Grandenape' esparruek egoera akustiko ona izatea espero da, inguruan ez baitago aipatzeko moduko zarata-ituririk. Datuen arabera inguruko kaleek duten igorpen-maila kontuan hartuta, esparru honen antolamenduari dagokionez eginiko bi hautabideek proposatzen dituzten etxebizitza-garapenek indarrean dagoen legediak¹⁸ ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak beteko dituztela aurreikusten da.

7. Mugikortasunaren hazkundera eta garraibide iraunkorren erabilera

Indarrean dagoen HAPOk 'Uruburu' eremuan proposatzen duen dentsitate txikiko garapenek ez lukete populazioaren igoera nabarmen bat sortuko udalerrian, Aurrerapen Dokumentuak proposatzen duen trinkotasun handiko garapenak igoera handiago bat ekarriko lukeen bitartean. Esparru honetan bi hautabideen kasuan etxebizitza berrien mugikortasuna ibilgailu pribatuaren menpe geratzea erraza dela aurreikusten da. Izan ere AE.25 'Uruburu' esparrua maldan kokatzen da, honek oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna baldintzatzen duen delarik. Eremuek garraio-mota hauekiko izango duten irisgarritasun-maila mugatua izan daiteke batzuetan, honek bertako biztanleek joan-etorriak autoan egitea lagunduko luke delarik.

'Grandenape' eremutik oso gertu Arrasateko udal-zerbitzua osatzen duten bi autobus lineak pasatzen dira, beraz 'Uruburu' eremuak garraio publikoarekin lotura era nahiko errazean eduki lezake. Dena den, autobus-linea hauen geltokiak eremu hauek kokatzen direna baino altura baxuagoan kokatzen dira, geltoki eta etxebizitza berrien artean malda bat egotea aurreikusten delarik. Kasu askotan malda hau egotea ibilbide hau oinez egiteko oztopo bat izango litzatekeela ere aintzat hartu behar da.

Hautabideen hasierako ingurumen-balorazioa

Orain arte esandakoaren arabera, ondoko taulan 'Uruburu' eremuan aurreikusten den etxebizitza-garapenaren inguruan aintzat hartu diren hautabide bakoitzaren ingurumenaren gaineko eragin hauek izan dezaketen tamaina jasotzen da, hautabideen ingurumen-eraginaren balorazio alderatu bat izan daitekeena.

¹⁸ Urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan, Azaroaren 17ko 37/2003 Legea, Zarataru buruzkoa, hain zuzen ere zonifikazio akustikoaren, kalitate-helburuen eta emisio akustikoen eremuetan geratzen duenean.

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAK		HAUTABIDEA: URUBURU-GRANDENAPE	
		<i>O</i> hautabidea (HAPO)	<i>A</i> hautabidea (Aurrerapen Dokumentua)
Lurzoruaren okupazioa		Na	Na
Lurzoruaren erabilera iraunkorra		La	Na
Interesa duen landaretzarengan eragina		Na	Na
Fauna mehatxatuarengan eragina		Ba	Ba
Paisaiaren gaineko eragina		Na	La
Ingurumen -arriskuak	Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak	Ba	Ba
	Zarata	-	-
Mugikortasunaren hazkundera eta garraiobide iraunkorren erabilera		Ba	Ba

Taula. Uruburu-Grandenape inguruaren garapenerako aintzat hartu diren alternatiben ingurumen-balorazioa.

4.9. '8. OTALORA LIZENTZIATUA PASEALEKUA'

4.9.1. Hautabideen deskribapena

HAPO-ren berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak proposamen berritzailea jasotzen du Otalora Lizentziatua pasealekuari dagokionez, ekonomikoki kostu handikoa baina teknikoki bideragarria den proposamena.

Aurrerapen Dokumentuak Otalora Lizentziatua kalean ibaia azaleratzea proposatzen du, Arbolapeta eta Amaia Antzokiaren artean, tarte hori oinezkoentzako pasealeku bihurtuz zati honetan. Honekin batera, tarte honetan ibilgailuentzako lurrazpiko pasabide bat egitea proposatzen da, bertan aparkalekuak ere aurreikusten direlarik.

Tamaina handiko proposamena izanik, bere inguruan eztabaida piztuko dela espero du Aurrerapen Dokumentuak. Dokumentu honek jarduketa honetarako hasierako proposamena besterik ez du egiten, HAPO-ren Berrikuspenean zehar proposamen hau Plan Orokorrean bertan sartu behar ote den eztabaida zabalduko da eta, era berean, proposamena barneratzen bada eremu honen antolamenduaren inguruko hausnarketa egingo da.

Gauzak horrela, plangintzaren fase honetan oraindik ere bi alternatiba edo hautabide definitu daitezke:

- 'O' hautabidea: Indarrean dagoen HAPO-k Otalora Lizentziatua pasealekuaren tarte honetarako zehazten duen antolamenduari dagokiona.
- A hautabidea: HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak eztabaida pizteko eremu honen antolamenduari buruz egiten duen hasierako proposamena.

Otalora Lizentziatua pasealekuaren inguruan aintzat hartu diren hautabideek proposatzen duten antolamendua honako planoetan jaso da:

- A.8.1. Otalora lizentziatua pasealekua. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO.
- A.8.1a. Otalora lizentziatua pasealekua. 'A' alternatiba: Aurrerapenaren proposamena.

4.9.2. Ingurumen Baldintzatzaileak

- Orografia: Aztertutako eremua erabat laua da, %0-10 bitarteko malda azaltzen dutelarik.
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: Esparru hau erabat hiritartua dago gaur egun, lurzoruaren ahalmen agrologikoa galdu egin delarik.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Aramaio ibaiak Otalora Lizentziatua pasealekua lurperaturik zeharkatzen du gaur egun. EAEko Ibaian eta Erreken Ertzak antolatzeke LAP-ak 'I' maila hidraulikoan sailkatzen du Aramaio ibaiaren tarte hau (10 eta 50 km² bitarteko artoa). Aramaio ibaia Otalora Lizentziatua pasealekuaren hasieran lurperatzen da, eta horrela zeharkatzen du kale guztia, Maalako biribilgunea pasa arte ez delarik berriro ere azaleratzen. Oraindano, Frantziskotarren komentuan egindako lanak aprobetxatuz Aramaio

ibaiaren tarte txiki bat (30 metro inguru) azaleratu ziren, ur-ibilguaren ingurumen-berreskuraketarako zenbait jarduketa egin zirelarik.

- Landaretza: Azterketa-esparruak gaur egun azaltzen duen erabilera bakarra hiri-erabilerari dagokiona da. Horrenbestez, ez da intereseko landaredia mantentzen duen gunerik antzeman esparru honetan. Kasu honetan, esparruan agertzen den landaretza-estaldura bakarra orain gutxi azaleratu zen Aramaio ibaiaren tarteak bere inguruan azaltzen duen lorategi edo hiri-parke txikiari dagokio, bertan zuhaitz batzuk agertzen direlarik.
- Fauna: Otolara Lizentziatua pasealekua baso-igel iberiarra (*Rana iberica*) espezie mehatxatuarentzat mugaturiko 'Lehentasuneko banaketa-eremuan' sartzen da.
- Natura-gune babestuak: Esparru hau ez da udalerrian agertzen diren naturaguneen baitan geratzen.
- Paisaia: Esparru honen paisaia erabat hiritarra da gaur egun, eta ezin da esan paisaiaren kalitatea nabarmentzekoa denik. Lehen aipatu den azaleratutako Aramaio ibaiaren tarteak eta beren ertzetan garatutako parkeak, dena den, eremuko paisaiaren kalitatea zertxobait igotzen duela esan beharra dago.

Hiri-paisaia edukitzeak, hori bai, eremu honetan eman daitezkeen jarduketak ingurunekeo paisaian integratzea erraztuko du. Bestalde, azterketa-eremuaren ikusgaitasuna oso altua bezala baloratu daiteke; inguru hau ikusgaia da errepide-sare nagusitik, bigarren mailako errepide-saretik, Arrasateko hirigunetik eta udalerriko gailur nagusi zein nekazal-auzoetatik. Bi ezaugarri hauek kontuan harturik, urrakortasun ertaineko eremu bezala har daiteke aztertutakoa.

- Ingurumen-arriskuak
 - *Akuiferoen urrakortasuna*: Otolara Lizentziatua pasealekuan proposaturiko jarduketak akuiferoen urrakortasun handia duen eremu bati eragin dezakete, pasealeku honen hegoaldeak urrakortasun handiko eremu batekin mugatzen baitu.
 - *Zarata*: Otolara Lizentziatua pasealekua bera, gaur egun duen egoerarekin, zarata-iturri bat dela esna daiteke, berau zeharkatzen duten ibilgailuek igortzen duten zarata dela-eta. Eskura dauden datuen arabera, Arrasate pasealekuaren igorpen-maila 60-65 dB(A) bitartean kokatzen da gauerako (LE10m, gaua) eta 70-75 dB(A) bitartean egun guztirako (LE10m, DEN). Errepideak jasaten duen trafiko-intentsitate 24.000 ibilgailu/egunean ingurukoa dela kontuan hartuta, pasealeku hau egun Arrasateko herrigunean antzematen diren zarata-iturri nagusien artean dagoela esan daiteke.
 - *Uholde-arriskua*: Aurrerapen Dokumentuak ibaiaren azalratzea eta oinezkoen bidea sortzeko proposatzen duen Otolara pasealekuaren tarte Aramaio ibaiari dagokion 100 eta 500 urteko birgertatze-aldirako urperagarriak diren eremuak eraginda azaltzen da gaur egun.
 - *Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak*: IHOBek eginiko 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoru inbentarioak' mota honetako 0,02 Ha hartzen dituen lurzoru bat antzematen du inguru honetan (inbentarioan 20055-00031 kodea jasotzen duena). Dena den indarrean dagoen HAPO-k ez du mota honetako lurzorurik antzematen eremu honetan.
 - *Higadura jasateko arriskuak*: Eremuak egun azaltzen duen egoera eta erliebea kontuan hartuta, ez da mota honetako arriskurik aurreikusten azterketa-eremuan.
- Kultur ondarea: Indarrean dagoen HAPO-k jasotzen dituen kultur ondarearen zenbait elementu Otolara pasealekua zeharkatzen duen errepidearen hegoaldean kokatzen dira, hala nola:
 - Arkeologia elementuak: San Frantzisko komentua.
 - Arkitektura elementuak: San Frantzisko eliza eta Kulturatea "Monumentu" bezala izendatua dago eta HAPO-ren berrikuspenak Uarkabe Pilotalekua udal babeserako elementu bezala jasotzen du.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Otolara kalea Arrasateko hiriguneko errepide-sarearen trafiko-elementu banatzailea da. Arestian aipatu den bezala, trafikoa-intentsitate handiko kalea izanda erdialdea eta

iparraldeko auzoen arteko oinezkoen irisgarristasunerako oztopo bat da, segurtasun arloaren aldetik bereziki. Otalora kalearen iparraldetik indarrean dagoen HAPO-k proposatzen duen motorgabekoan iparraldeko ibilbidea kokatzen da. Honetaz gain, herriko autobusaren bi lineak San Frantzisko geltokia azaltzen dute inguru honetan, beraz eremuak autobus publiko bidezko lotura ere azaltzen du Arrasateko beste zenbait gunerekin.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak

Aztertutako ingurumen-eragile ezberdinek azterketa-eremuan gaur egun duten egoera hurrengo taulan jasotzen da era laburrean.

Eragile bakoitzaren kasuan, berau eremuan baldintzatzaile izango den edo ez adierazten da (bai zentzu negatiboan eta baita positiboan ere), baita, hala bada, zein mailatan baldintzatu edo mugatuko dituen eremu horretarako aurreikusten diren etxebizitza-garapenak (kolore berdea: maila baxuan, kolore laranja: maila ertainean eta kolore gorria: maila altuan):

INGURUMEN-ERAGILEAK ETA BALDINTZATZAILEAK		HAUTABIDEA: OTALORA LIZENTZIATUA PASEALEKUA	
MALDAK (>%50ko maldak)	Balioa (Ha)	0	
	Baldintzatzailea	Ez	
AHALMEN AGROLOGIKO ALTUKO LURRAK	Balioa (Ha)	0	
	Baldintzatzailea	Ez	
UR-IBILGUAK	Egoera*	Bai	
	Baldintzatzailea	Bai	
INTERESA DUEN LANDAREDIA	Balioa (Ha)	0	
	Baldintzatzailea	Ez	
FAUNA MEHATXATUA	Egoera*	Bai	
	Baldintzatzailea	Bai	
NATURA GUNE BABESTUAK	Egoera*	Ez	
	Baldintzatzailea	Ez	
PAISAIA	Balorazioa	Baxua	
	Baldintzatzailea	Bai	
INGURUMEN-ARRISKUAK	Akuiferoen urrakortasuna	Balioa (Ha)	-
		Baldintzatzailea	Bai
	Zarata	Egoera	Desegokia
		Baldintzatzailea	Bai
	Uholde-arriskua	Balioa (Ha)	-
		Baldintzatzailea	Bai
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak	Balioa (Ha)	0
		Baldintzatzailea	Ez
Higadura-arriskua	Balioa (Ha)	0	
	Baldintzatzailea	Ez	
KULTUR ONDAREA	Egoera*	Bai	
	Baldintzatzailea	Bai	
MUGIKORTASUNA	Egoera	A/B/O	
	Baldintzatzailea	Bai	

Taula: AE.41 'San Viator Txiki' eremuaren ingurumen-baldintzatzaile nagusiak.

A.8.2. Otalora lizentziatua pasealekua. Ingurumen-baldintzatzaileak planoan esparru hauetako ingurumen-baldintzatzaile nagusiak azaltzen dira.

4.9.3. Ingurumen-Balorazioa

Otalora Lizentziatua pasealekurako egindako proposamena HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak egiten dituen artean ausartenetarikoa da, tamaina handiko proposamen bat dela esan baitaiteke.

Kasu honetan, '0' hautabidea egoera gaur egun dagoen bezala mantentzeari dagokio, izan ere indarrean dagoen HAPO-k Otolara kalea Sistema Orokorren barruan 'Bide-azpiegiturak: errepideak eta kaleak' bezala sailkatzen du. Orokorrean, nahiz eta '0' hautabidearekin edozein garapen aurrera eramateko beharrezkoa den obra fase ekiditen den, eremuak gaur egun azaltzen dituen ingurumen-arazoak ere mantentzea ekarriko luke, hala nola:

- Aramaio ibaiaren kalitatea oso eskasa da tarte honetan, lurperatua agertzen baita.
- Jasaten duen trafiko-intentsitate handia dela-eta Otolara kalea Arrasateko herrigunearantz antzeman diren zarata-iturri nagusien artean azaltzen da.
- Pasealekuak egun azaltzen duen egoerak ez duela oinezko edo bizikleta-bidezko mugikortasun jasagarria sustatzen uste da.

HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak behin-behineko proposamen bat egiten du eremu honetarako, antolamendua zehazteko helburuarekin baino gehiago bertan egin nahi diren jarduketak zeintzuk diren ezartzeko asmoarekin, hau Aurrerapen Fasean zehar eztabaidatua izan dadin.

Gauzak horrela, Aurrerapen Dokumentuak egiten duen ingurumen-balorazioa ez da hainbeste antolamenduan oinarrituko, baizik eta proposamenak aurreikusten dituen helburu eta jarduketetan baizik. Orain arte zehaztutako helburuak aintzat harturik, Otolara pasealekuan proposatzen diren jarduketak aurrera eramateko beharrezkoak diren lanek tamaina handia hartuko luketela uste da, obra fase honetan ingurumenaren gaineko eragin negatibo nagusiak bilduko lirakeelarik.

Aurrerapen Dokumentuak egiten duen proposamenak, ordea, emaitza bezala eremu honen ingurumenaren kalitatearen hobekuntza edukiko lukeela uste da. Alde batetik, Aramaio ibaiaren azaleratzean ur-ibilgu honek egun azaltzen duen kalitatea nabarmen hobetzea ekarriko luke, ibilgua eta bere ertzen berreskurapena eta uraren kalitatearen hobekuntza ekarriko bailuke. Beste alde batetik, ur-ibilgu honen azaleratzea, oinezkoen pasabide bat eratzea eta egungo errepidea lurperatzeak herriguneko paisaiarengan eta landaretzarengan eragin positiboa izan lezakeela iritzi da, gune berdeak sortzeko aukera egongo bailitzateke. Azkenik, etorbide hau oinezkoentzako pasabide bihurtzeak herriguneko oinezko eta bizikleta-bidezko mugikortasuna erraztuko luke, egun motordun ibilgailuentzako lehenesten den kale bat oinezkoentzako bideratuz, are gehiago Otolara pasealekua hirigunea zeharkatzen duen kale nagusienetako bat dela kontuan izanda.

1. Lurzoruaren okupazioa

Otolara Lizentziatua pasealekua egun erabat hiritartua dagoen eremua da, indarrean dagoen HAPO-n Sistema Orokorren barruan bide-sari nagusia: errepide eta kaleak bezala sailkatua. Aurrerapen Dokumentuak egiten duen proposamena oraindik ere nahiko orokorra da, eztabaida piztea besterik ez baitu helburu. Honela, plangintzaren fase honetan zaila egiten da jarduketa honek zenbaterainoko azalera hartuko lukeen jakitea.

Edonola ere, Aurrerapen Dokumentuak egiten duen proposamenak ez du lurzoru berriaren okupaziorik ekarriko, egun hiritartua dagoen eremu baten baitan proposatzen baita. Beraz, asmo handiko jarduketa hau aurrera eramanez gero, ez da espero udalerraren lurzoruaren-okupazio mailaren hazkundera sortuko lukeenik.

2. Interesa duen landaretzarengan eragina

Lehenago aipatu den bezala eremuak ez du intereseko landaretza mantentzen duen gunerik azaltzen gaur egun, landaretza-estaldura bakarra Aramaio ibaia azaleratzerakoan bere ertzetan eratutako parkeari dagokiolarik.

Honetaz gain, Otolara pasealekuaren inguruan ere ez da intereseko landaretza duen gunerik azaltzen, beraz ez dira mota honetako landaretzarengan zeharkako eraginik espero Aurrerapen Dokumentuak egiten duen proposamena aurrera eramateko beharko den obra fasean.

Proposamen hau aintzat harturik, berau aurrera eramateko lanak tamaina handia izango dutela aurreikusten da, beraz ezin da makineriaren joan-etorrien edota lurren pilaketan eraginez Otolara pasealekuaren inguruan azaltzen den landaretza zeharka eragitea, nahiz eta, dena den, aldi baterako eragin bat izango litzatekeen.

Bestalde, Aurrerapen Dokumentuaren proposamena aurrera eraman ondoren Aramaio ibaiaren ertzak bertako espezieekin landatzen badira eta oinezkoentzako ibilbidean gune berdeak sortzen badira, landaretzari

dagokionez bukaerako egoera egungoa baino hobea izan daitekeela uste da, eremuak egun ez baitu inolako landaretza-estaldurarik azaltzen.

3. Fauna mehatxatuarengan eragina

Esparrua baso-igel iberiarrantzako (*Rana iberica*) mugatutako 'Lehentasuneko banaketa-eremua'-ren zati da, dena den ez da espero espezie mehatxatu hau eremu honetan aurkitzerik. Nahiz eta eragile hau ingurumen-baldintzatzaile bat den inguru honetan proposatu daitezkeen garapen ezberdinentzat, ez dira fauna mehatxatuarengan aintzat hartzeko eraginik espero eremu hauetan proposatzen diren proposamenekin.

4. Paisaiaren gaineko eragina

Lehen aipatu den bezala, Otalora pasealekua Arrasateko hirigunea zeharkatzen duen kale nagusienetako bat da, egun kalitate nahiko baxuko paisaia hiritarra aurkezten duelarik.

Aurrerapen dokumentuak egiten duen proposamena aintzat harturik, berau aurrera eramateko garatu beharrek lanek tamaina nabarmena izango dutela uste da, jarduketa nahiko konplexuak aurreikusten baititu. Testuinguru honetan, obra fasean eremu honetan egongo litzatekeen makineriak, lur-pilaketak, obretarako instalazio lagungarriak...hiriguneko paisaiarengan eragin negatiboa izan dezakete, nahiz eta eragin hau, beti ere, obrak irauten duten bitartean besterik ez den gertatuko.

Lanak bukatzean, ordea, Aramaio ibaiaren azaleratze eta bere ibilguren berreskurapenak eta oinezkoen pasabide berri bat eratzeak herriguneko paisaia hobetzen lagunduko dutela uste da, are gehiago inguru honetan berde guneak edo zuhaitz eta zuhaixken landaketak lehenesten badira.

5. Ingurumen-arriskuak

- a. *Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua*: Lehenago azaldu den moduan, IHOBK egindako inbentarioaren arabera Aurrerapen Dokumentuak eremu honetan egiten duen proposamenak kutsatuta egon daitezkeen lurzorua duen 0,45 Ha-ko azalera eragiten du.

Legeak ezartzen duena bete ezean, Otalora pasealekuak aurreikusitako garapenek aintzat hartzeko ingurumen-eragina izan lezakete, kutsatuta egon daitezkeen lurren indusketa beharko bailukete, eta honek hondakin arriskutsuen sorrera ekarriko luke, lurzoru hauek era berezian kudeatu beharko bailirateke. Edonola ere, eremu honen etxebizitza-garapena aurrera eramaten bada, bertan proposatzen diren jarduketa guztiak 1/2005 legea, otsailaren 4koa, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatuta garbitzeko ezartzen duenaren menpe egongo dira.

- b. *Zarata*: Lehenago esan bezala, Otalora Lizentziatua pasealekua Arrasateko hirigunean antzemandako zarata-iturri nagusien artean dago, beren zarataren igorpen-maila nahik altua baita jasaten duen trafikointentsitatea dela-eta.

Nahiz eta azterketa sakonago bat beharko litzatekeen hau baieztatzeko, '0' hautabidearen kasuan ezin da baztertu errepide honetatik gertuen kokatzen diren eraikinetan indarrean dagoen legediak ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak gainditzeko direnik.

Aurrerapen dokumentuak egiten duen proposamena aintzat harturik, bi eragin-mota aurreikusten dira zaratari dagokionez: alde batetik, obra fasean makineriak eta lanek igorritako zaratak bertako bizilagunengan eragozpenak sortu ditzakeela uste da, nahiz eta lanek irauten duten bitartean besterik gertatuko ez den arazo bat den. Beste alde batetik, behin lanak bukatzean, egungo errepidea lurperatzea eta etorbide hau oinezkoentzako pasabide bihurtzeak egungo zarataren igorpen-maila nabarmen jaitsiko luke, zarata-igorleak (autoak) lurpean egongo liratekeelako. Kontuan harturik eremu honek egun egoera akustiko desegokia azaltzen duela, Aurrerapen Dokumentuak bertan egiten duen proposamenak, azkenera, egoera akustiko hau hobetzen lagunduko luke, nahiz eta berau aurrera eramateko beharrezkoak diren lanek izango duten tamainaren ondorioz aldi batean zarata dela-eta bizilagunengan eragozpenak sortuko direla aurreikusten den.

- c. *Uholde-arriskua*: Lehen aipatu den moduan, Otalora Lizenziatua pasealekuaren tarte hau Aramaio ibaiaren 100 urteko birgertatze-aldirako urperagarria den gunearen baitan geratzen da. Nahiz eta balizko arrisku hau oso altua izan, Aramaio ibaia tarte honetan azalertzeko jarduketek egungo egoera hidraulikoa aldatu egingo dutela aurreikusten da.

Plangintzaren fase honetan ez dakigu zeintzuk izango diren Aramaio ibaiak tarte honetan izango lukeen ur-ibilgu berriaren baldintza hidraulikoak, ezta ibilgu honen birgertatze-aldi desberdinetarako eremu urperagarriek izango duten irismena. Kasu honetan, Aurrerapen Dokumentuak Otalora pasealekurako egiten duen proposamena garatuz gero, eremu honen azterketa hidrauliko bat egitea komenigarria litzatekeela uste da, egoera berriak azalduko lukeen uholde-arriskuaren nondik-norakoak zehazte aldera.

6. Mugikortasunaren hazkundera eta garraiobide iraunkorren erabilera

Lehen aipatu den moduan, Otalora pasealekuak gaur egun azaltzen dituen arazoaren artean, mugikortasunari dagokiona legoke, kale honetan motordun ibilgailuak erabat lehenestuak azaltzen baitira gaur egun.

Aurrerapen Dokumentuak eremu honetan proposatzen duen oinezkoentzako pasabideak herriguneko mugikortasunean eragin benetan positiboa izango lukeela uste da. Arrasateko herrigunea zeharkatzen duen ardatz nagusietako bat izanik, beraz oinezkoentzako-bidea bihurtzeak herriguneko barneko oinez eta bizikleta-bidezko joan-etorriak nabarmen lagunduko litzatekeela aurreikusten da, hartara udalerrian mugikortasun iraunkorra sustatuz.

Hautabideen hasierako ingurumen-balorazioa

Orain arte esandakoaren arabera, ondoko taulan Otalora Lizenziatua pasealekuan Aurrerapen Dokumentuak egiten duen proposamenak ingurumenaren gainean izango litzatekeen eragin nagusiak biltzen dira, baita '0' hautabidearentzat –gaur egungo egoera mantendu- antzeman diren ingurumen-eragin nagusiak ere. Bi kasuetan ingurumenaren gaineko eragin hauek izan dezaketen tamaina jasotzen da, hautabideen ingurumen-eraginaren balorazio alderatu bat izan daitekeena.

INGURUMENAREN GAINKO ERAGINAK		HAUTABIDEA: OTALORA LIZENTZIATUA	
		0 hautabidea (HAPO)	A hautabidea (Aurrerapen Dokumentua)
Lurzoruaren okupazioa		-	-
Interesa duen landaretzarengan eragina		-	+
Fauna mehatxatuarengan eragina		Ba	Ba
Paisaiaren gaineko eragina		-	+
Ingurumen-arriskuak	Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua	-	Ba
	Zarata	La	+
	Uholde-arriskua	Na	*
Mugikortasunaren hazkundera eta garraiobide iraunkorren erabilera		Na	+

* Proposamena garatuz gero aztertu beharreko alderdi bat litzateke.

Taula. Otalora lizenziatuaren pasealekuan aintzat hartu diren alternatiben ingurumen-balorazioa.

4.10. '9. SAN VIATOR TXIKI'

4.10.1. Hautabideen deskribapena

Indarrean dagoen HAPO-k AE.41 'San Viator Txiki' esparruan irakaskuntza eraikinak finkatu egiten ditu (ordezkatzeko aukera emanaz, hala behar izanez gero) eta, horrez gain, eliza handitzeko aukera ematen du.

HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak eliza handitzeko proposamenaren inguruan eztabaida zabaltzeko asmoa azaltzen du, handitze honek parkearengan eragina baitu. Eztabaida honen emaitza bezala eremu honen antolamenduari dagokionez hautabide ezberdinak sortzeko aukera ikusten den arren, plangintzaren fase honetan oraindik ere ez da proposamen zehatzik egin esparru honetarako. Testuinguru honetan, gaur gaurkoz zehaztu daiteken proposamen bakarra '0' hautabidea da, indarrean dagoen HAPO-ri dagokiona:

- AE. 41 'San Viator Txiki'
 - Hirilurra (0,45 Ha)
 - Erabilera nagusia: Irakaskuntza hornikuntza
 - Hirigintza helburuak:
 - Irakaskuntzara zuzendutako esparrua finkatzea
 - Eraikinak finkatu eta ordezkatzeko aukera ematea
 - Eliza handitzeko aukera ematea
 - Esparrua eta Santa Barbara parkearen lotura eta mugaketa egokitzea

A.9.1. *San Viator Txiki. '0' alternatiba: indarrean dagoen HAPO planoan Egitamu Orokorrak esparru honetarako aurreikusitako antolamendua azaltzen da.*

4.10.2. Ingurumen Baldintzatzaileak

- Orografia: Aztertutako eremua erabat laua da, %0-10 bitarteko malda azaltzen dutelarik.
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: Esparru hau erabat hiritartua dago gaur egun, lurzorua ren ahalmen agrologikoa galdu egin delarik.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Aramaio ibaiaren ibilgua AE.41 'San Viator Txiki' esparruaren iparraldeko muturretik gertu kokatzen da, nahiz eta ez duen esparrua bera zeharkatzen. EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzen LAP-ak 'I' maila hidraulikoan sailkatzen du Aramaio ibaiaren tarte hau (10 eta 50 km² bitarteko artoa). Aramaio ibaia tarte honetan erabat bideratuta dago eta ez du ibai ertzetako landaredia kontserbatzen.
- Landaretza: Azterketa-esparruak gaur egun azaltzen duen erabilera bakarra hiri-erabilerari dagokiona da. Horrenbestez, ez da intereseko landaredia mantentzen duen gunerik antzeman esparru honetan. Kasu honetan, esparruan agertzen den landaretza-estaldura bakarra hegoaldeko muturren azaltzen den lorategi edo hiri-parke txikiari dagokio, bertan zuhaitz apaingarri batzuk agertzen direlarik.
- Fauna: AE.41 'San Viator Txiki' esparrua, bere osotasunean, baso-igel iberiarra (*Rana iberica*) espezie mehatxatuarentzat mugaturiko 'Lehentasuneko banaketa-eremuan' sartzen da. Honetaz gain Aramaio ibaia, esparruaren iparraldean kokatzen den tartean bisoi europarrarentzako (*Mustela lutreola*) zehaztutako 'Lehentasuneko banaketa-eremuaren' zati da.
- Natura-gune babestuak: Esparru hau ez da udalerrian agertzen diren naturaguneen baitan geratzen.
- Paisaia: Esparru honen paisaia erabat hiritarra da gaur egun, eta ezin da esan paisaiaren kalitatea nabarmentzekoa denik. Dena den 'San Viator Txiki' esparrua Santa Barbara parkearen ondoan kokatzen da eta iparraldeko muturrak Aramaioaren ibaiertzeko parkearekin muga egiten du. Aipatutako gune berde hauek hiriguneko paisaiaren kalitatea zertxobait igotzen dutela esan beharra dago.

Hiri-paisaia edukitzeak, hori bai, eremu honetan eman daitezkeen jarduketak inguruneko paisaian integratzea erraztuko du. Bestalde, azterketa-eremuaren ikusgaitasuna altua bezala baloratu daiteke; errepide-sare nagusitik ikusgaia ez den arren, eremua erabat ikusten da bigarren mailako errepide-saretik, Arrasateko hirigunetik eta udalerriko gailur nagusi zein nekazal-auzoetatik. Bi ezaugarri hauek kontuan harturik, urrakortasun ertaineko eremu bezala har daiteke aztertutakoa.

- Ingurumen-arriskuak

- *Akuiferoen urrakortasuna:* AE.41 'San Viator Txiki' esparrua akuiferoen urrakortasun handia duen gune batean kokatzen da.
- *Zarata:* A41 'San Viator Txiki' esparruak Arrasate pasealekuarekin mugatzen du bere hegoaldean, kale honek igortzen duen zarata zuzenean jasotzen duelarik. Eskura dauden datuen arabera, Arrasate pasealekuaren igorpen-maila 60-65 dB(A) bitartean kokatzen da gauerako (LE10m, gaua) eta 70-75 dB(A) bitartean egun guztirako (LE10m, DEN). Errepideak jasaten duen trafiko-intentsitatea 24.000 ibilgailu/egunean ingurukoa dela kontuan hartuta, 'San Viator Txiki' eremuaren egoera akustikoa desegokia dela esan daiteke.
- *Uholde-arriskua:* AE. 41 'San Viator Txiki' esparrua Aramaio ibaiari dagokion 500 urteko birgertatze-aldirako urperagarria den gunearen baitan geratzen da. Zehazki uholde-arrisku honek gaur egun eskolaren jolastoki ia osoa hartzen du.
- *Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua:* IHOBek eginiko 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioak' baita indarrean dagoen HAPO-k ez dituzte mota honetako lurzorurik antzematen AE.41 'San Viator Txiki' esparruan.
- *Higadura jasateko arriskuak:* Eremuak egun azaltzen duen egoera eta erliebea kontuan hartuta, ez da mota honetako arriskurik aurreikusten 'San Viator Txiki' esparruan.

- Kultur ondarea: Ez da indarrean dagoen HAPO-k jasotzen dituen kultur ondarearen elementurik identifikatu esparru honen baitan.

- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Hiriguneko esparrua izaki, bertan garatu daitezkeen erabilera berrien eraginez sortu daitezkeen garraio beharrak gutxitu egingo dira eta bideragarriagoa da eremu honen lotura Arrasateko gainontzeko hirigunearekin garraio-mota iraunkorragoen bidez, hala nola, oinez edo bizikletan. Esparruak garraio publikoko zerbitzua du gaur egun, herriko autobusaren bi lineak Arimazubi geltokia baitute esparru honetatik oso gertu. HAPO-k proposatzen duen motorgabekoen hegoaldeko ibilbidea ere gertu dago 'San Viator Txiki' esparrutik.

Honetaz gain, aipatutako motorgabekoen hegoaldeko ia ibilbide berdinarekin Gipuzkoako Bizikleta-Bideen LAP-aren behin-behineko onarpenerako dokumentuak bizikleta-bidea proposatzen du bertatik, Arrasateko udal-sareari dagokiona eta, hortaz, Gipuzkoako oinarritzko udal-sarearen zati dena.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak

Aztertutako ingurumen-eragile ezberdinek azterketa-eremuan gaur egun duten egoera hurrengo taulan jasotzen da era laburrean.

Eragile bakoitzaren kasuan, berau eremuan baldintzatzaile izango den edo ez adierazten da (bai zentzu negatiboan eta baita positiboan ere), baita, hala bada, zein mailatan baldintzatu edo mugatuko dituen eremu horretarako aurreikusten diren etxebizitza-garapenak (kolore berdea: maila baxuan, kolore laranja: maila ertainean eta kolore gorria: maila altuan):

INGURUMEN-ERAGILEAK ETA BALDINTZATZAILEAK		HAUTABIDEA: SAN VIATOR TXIKI		
		AE.41 'San Viator Txiki'		
MALDAK (>%50ko maldak)	Balioa (Ha)	0		
	Baldintzatzailea	Ez		
AHALMEN AGROLOGIKO ALTUKO LURRAK	Balioa (Ha)	0		
	Baldintzatzailea	Ez		
UR-IBILGUAK	Egoera*	Bai		
	Baldintzatzailea	Ez		
INTERESA DUEN LANDAREDIA	Balioa (Ha)	0		
	Baldintzatzailea	Ez		
FAUNA MEHATXATUA	Egoera*	Bai		
	Baldintzatzailea	Bai		
NATURA GUNE BABESTUAK	Egoera*	Ez		
	Baldintzatzailea	Ez		
PAISAIA	Balorazioa	Baxua		
	Baldintzatzailea	Bai		
INGURUMEN-ARRISKUAK	Akuiferoen urrakortasuna	Balioa (Ha)	0,45	
		Baldintzatzailea	Bai	
	Zarata	Egoera	Desegokia	
		Baldintzatzailea	Bai	
	Uholde-arriskua	Balioa (Ha)	0	
		Baldintzatzailea	Ez	
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak	Balioa (Ha)	0	
		Baldintzatzailea	Ez	
Higadura-arriskua	Balioa (Ha)	0		
	Baldintzatzailea	Ez		
KULTUR ONDAREA	Egoera*	Ez		
	Baldintzatzailea	Ez		
MUGIKORTASUNA	Egoera	A/B/O		
	Baldintzatzailea	Ez		

Taula: AE.41 'San Viator Txiki' eremuaren ingurumen-baldintzatzaile nagusiak.

A.9.2. San Viator Txiki. Ingurumen-baldintzatzaileak planoan esparru honetako ingurumen-baldintzatzaile nagusiak azaltzen dira.

4.10.3. Ingurumen-Balorazioa

Aurreko ataletan AE.41 'San Viator Txiki' eremuaren inguruan proposatu diren hautabide ezberdinak eta esparru honek egun azaltzen dituen ingurumen-baldintzatzaile nagusiak jaso dira. Kasu honetan, eremu honen inguruan dagoen hautabide bakarra '0' hautabidea da, indarrean dagoen HAPO-ri dagokiona.

HAPO-ren berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak eremu honetan proposatzen den elizaren zabalpenari buruzko eztabaida zabaltzeko asmoa azaltzen du, jarduketa honek parkearengan eragina izango baitu. Testuinguru honetan, plangintzaren fase honetan '0' hautabidearen ingurumen-balorazioa besterik ezin da garatu, proposamen zehatz bat egiten duen hautabide bakarra izanik. HAPO-ren izapidetzan zehar esparru honetarako antolamendu zehatza proposatzen bada, aukera berri honen ingurumen-balorazio bat gehituko da atal honetan bertan. Edonola ere, esparru honi buruz piztu nahi den eztabaidan baliagarri izan daiteke '0' hautabideak ingurumenaren gainean izan ditzakeen eraginak aintzat hartzea, behin-betiko proposamena aukeratzeko garaian ingurumen-irizpidea ere kontutan hartua izan dadin.

Indarrean dagoen HAPO-k eremu honetarako proposatzen duen antolamenduan oinarrituz, jarraian '0' hautabidean ingurumenaren gainean izan ditzakeen eragin nagusiak aztertzen dira:

1. Lurzoruaren okupazioa

Indarrean dagoen HAPO-k zehaztutako AE. 41 'San Viator Txiki' esparruak 0,45 Ha-ko azalera du, egun hirilur bezala sailkatua. Bertan proposatzen den antolamenduak irakaskuntza eraikina ordezkatzeko aukera ematen du, horrela behar izanez gero, eta horrez gain eliza handitzeko eremu bat zehazten du.

Esparrua egun hiritartua azaltzen da, erabat artifizialdua dagoelarik eta bere azalera ia osoan zoladura azaltzen duelarik. Kasu honetan, indarrean dagoen HAPO-k bertan proposatzen dituen ordezkapen edo handitze-jarduketak ez dute lurzoruaren okupazio berri bat beharko, egun hiritartua dagoen esparru baten baitan proposatzen baitira.

Honela, indarrean dagoen HAPO-k 'San Viator Txiki' eremuan proposatzen duen antolamenduak ez luke eraginik izango udalerraren lurzoruaren okupazio-mailan, ez bailuke hirilur edo lurzoru hiritargarriaren hazkunderik ekarriko.

2. Lurzoruaren erabilera iraunkorra

Indarrean dagoen HAPO-k egun hiritartua dagoen esparruan bertan proposatzen ditu elizaren hazkundera edota ikaskuntzarako eraikinaren ordezkatzeari, bi erabilera hauen inguruan sortu daitezkeen beharrei lurzoru gehiago artifizialdu gabe erantzunez.

HAPO-k eremu honetan proposatzen duen antolamenduak lurzoruaren erabilera trinkoago bat ekarriko luke, hau EAE mailan hartu diren ingurumen-irizpide estrategikoei markatzen duten norabidean egongo litzatekeelarik. Hartara, esparru honetan '0' hautabideak egiten duen proposamenak eragin positiboa izango luke lurzoruaren erabilera iraunkorrean, bide batez landa-lur berria behar hauek asetzeko artifizializatzea ekidinez.

3. Interesa duen landaretzarengan eragina

Lehen aipatu den moduan AE. 41 'San Viator Txiki' esparruak ez du interesa duen landaretza mantentzen duen gunerik azaltzen gaur egun, landaretza-estaldura bakarra parke eta lorategiei dagokiena delarik. '0' hautabideak proposatzen duen antolamendua aintzat harturik, aurreikusitako elizaren zabalpenak irakaskuntza eraikinaren jolastokia eragingo luke, baina ez da espero eragin nabarmenik izango lukeenik esparruaren iparraldeko muturrarekin muga egiten duen parkearengan, ez eta eremuaren hegoaldean azaltzen den lorategiarengan ere.

Kasu honetan, '0' hautabideak landaretzarengan izan dezakeen eragina oso txikia izango dela uste da, obra fasea dela-eta batez ere.

4. Fauna mehatxatuarengan eragina

Esparrua baso-igel iberiarrarentzako (*Rana iberica*) mugatutako 'Lehentasuneko banaketa-eremua'-ren zati da, dena den ez da espero espezie mehatxatu hauek eremu honetan aurkitzerik. Nahiz eta eragile hau ingurumen-baldintzatzaile bat den inguru honetan proposatu daitezkeen garapen ezberdinentzat, ez dira fauna mehatxatuarengan aintzat hartzeko eraginik espero eremu hauetan proposatzen diren proposamenekin.

5. Paisaiaren gaineko eragina

Eremuak egun paisaia erabat hiritarra azaltzen du, nahiko kalitate baxukoa. Kasu honetan, '0' hautabideak proposatzen duen elizaren zabalpenak begi-inpaktu berri bat sortuko luke hirigunean, baina ez da uste esparruaren paisaia nabarmen aldatuko lukeenik.

Kasu honetan, '0' hautabideak elizaren zabalpena egun dagoen jolastokiaren gainean proposatzen du, beraz ez da uste jarduketa honek eremuko paisaiarengan eragin nabarmenik izango duenik. Eremuko paisaiarengan baino, jarduketa honek inguruan zabaltzen den parkearen paisaiarengan eragin nabarmenagoa izan dezakeela uste da. Izan ere, elizaren zabalpen honek parkearen jarriapenerako oztopoztat egingo luke, sortuko lukeen begi-inpaktua dela eta. Eraikin berri hau egungo berdegunearen paisaiaren kalitatea gutxituko lukeen elementu

berri bat izango litzateke, eragin hau aintzat hartu beharko delarik 'San Viator Txiki' eremuan bertan garapenen bat proposatzeko garaian.

Edonola ere, begi-inpaktu honen tamaina zabalpenerako eraikinak izango duen altuera eta itxuraren arabera izango da, eta ez da uste eragin larrik sortuko duenik Arrasateko herriguneko paisaiarengan.

6. Ingurumen-arriskuak

- a. *Akuiferoen urrakortasuna*: Esparruak egun zoladura azaltzen duenez, lurzorua iragazkortasun-maila txikia duela esan daiteke. '0' hautabideak bertan proposatzen dituen jarduketan zenbaterainokoa aintzat harturik, ez da espero akuiferoengan eragin aipagarririk izango dutenik, beti ere obra fasean akuiferoak babesteko beharrezko neurrian hartzen diren bitartean.
- b. *Zarata*: Lehenago esan bezala, eskura dagoen informazioaren arabera, ezin da baztertu San Viator Txiki' eremuaren egungo egoera akustikoa desegokia izatea, Arrasate pasealekuaren zarata zuzenean jasotzen baitu. Esparruak egun azaltzen dituen erabilerak kontuan izanda, kasu honetan indarrean dagoen legediak¹⁹ "e. Batez ere osasungintza, irakaskuntza eta kultura-erabilera duten lurzoruentzat" ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak izango dira baliozkoak, hau da, helburu guztien artean zorrotzenak. Esparruaren egungo egoera akustikoa eta legeak ezartzen dituen helburuak kontuan hartuta, ezin da baztertu esparru honetan kalitate akustikorako helburu hauek gainditzea, beraz hau kontutan hartzeko alderdi bat izango da esparru honetan zabalpen- edo ordezkapen-jarduketak proposatzerako garaian.
- c. *Uholde-arriskua*: Lehen aipatu den moduan, '0' hautabideak elizaren zabalpenerako proposatzen duen azalera Aramaio ibaiak 500 urteko birgertatze.-aldirako duen eremu urperagarrian kokatzen da. Hasiera batean, ez dirudi egoera honek arazo berezirik sortuko dituenik garapen hauek aurrera eramateko garaian, izan ere uholde-arrisku honek ez ditu lurzorua-erabileran murrizketa askorik sortzen egun hirihartua dagoen eremu baten kasuan. Bestalde, 'San Viator Txiki' eremuan aurreikusitako jarduketak aurrera eramanda, ez da espero uholde-arriskua dela-eta ingurumen eragin aipagarririk egongo direnik esparru honetan.

7. Mugikortasunaren hazkundera eta garraio bide iraunkorren erabilera

'0' hautabideak irakaskuntza eraikina ordezkatzeko eta eliza zabaltzeko aukera zabalik uzten ditu 'San Viator Txiki' esparruan. Jarduketa hauen norainokoak aintzat harturik, ez da espero garapen hauek esparru honi dagozkion joan-etorrien hazkunde nabarmen bat ekarriko dutenik.

Edonola ere, esparru honen kokapena eta erliebea ikusirik, sor litezkeen mugikortasun behar berri hauen garraio-mota iraunkorren bidez erraz egin ahal izango direla aurreikusten da, izan ere eremuak oinezko eta bizikleta-bidezko lotura du Arrasateko hiriguneko beste guneekin. Honetaz gain udalerriko bi autobus lineek ere geltoki bat azaltzen duten esparru honetan bertan, beraz sor litezkeen joan-etorri berriak autobus publikoan egiteko aukera ere egongo litzateke.

Hautabideen hasierako ingurumen-balorazioa

Orain arte esandakoaren arabera, ondoko taulan 'San Viator Txiki' eremuan aurreikusten diren zabalpen-jarduketan inguruan aintzat hartu diren hautabide bakoitzaren ingurumenaren gaineko eragin hauek izan dezaketen tamaina jasotzen da, hautabideen ingurumen-eraginaren balorazio alderatu bat izan daitekeena.

¹⁹ Urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan, Azaroaren 17ko 37/2003 Legea, Zaratari buruzkoa, hain zuzen ere zonifikazio akustikoaren, kalitate-helburuen eta emisio akustikoen eremuetan garatzen duenean.

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAK		HAUTABIDEA: SAN VIATOR TXIKI
		<i>0 hautabidea (HAPO)</i>
Lurzoruaren okupazioa		Na
Lurzoruaren erabilera iraunkorra		La
Interesa duen landaretzarengan eragina		Na
Fauna mehatxatuzarengan eragina		Ba
Paisaiaren gaineko eragina		Na
Ingurumen -arriskuak	Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak	Ba
	Zarata	-
Mugikortasunaren hazkundera eta garraiobide iraunkorren erabilera		Ba

Taula. 'San Viator Txiki' esparruan proposatzen diren garapenezako aintzat hartu diren alternatiben ingurumen-balorazioa.

4.11. '10. AZERI'

4.11.1. Hautabideen deskribapena

Indarrean dagoen HAPO-an bitokitarako antolamendua aurreikusita dago esparru honetan, eremuaren Hiria Antolamenduzko Plan Berezia ere onartua dago jadanik eta garatu egin behar dira. Dena den, artean jarduketa hauek martxan jarri ez direnez, Aurrerapen Dokumentuak mahai gainean jarri nahi du berriro ere esparru honen antolamendua, etorkizunera begira hazkuntza mugatua egin ahal izateko lekua baita, herri barruko eraberrikuntza eramangarria gauzatzeko ere lagungarri.

Aurrerapen dokumentuak proposamen zehatzik ez du azaltzen eremu honetarako, hartara '0' hautabidea bakarrik definitu daiteke plangintzaren fase honetan, indarrean dagoen HAPO-ak eremu honetarako ezartzen duenari dagokiona:

- AE. 50 'Azeri':

- Hirilurra (1,5 ha).
- Erabilera nagusia: etxebizitza.
- Herriaren etxebizitza eremuari hegoaldeetik amaiera emango dion gunea behar bezala antolatzea eta osatzea da hirigintza helburuetariko bat. Bide batez Polmetasa enpresaren lekualdatzea bideragarri egitea.
- Dentsitatea: 145,1 Etx/ha. Dentsitate handiko etxebizitza-garapena, 220 etxebizitza berrirekin. Profila eta goiera: nS+BS+7; 29 m (gorenean). Etxebizitza berrietatik 66 babes ofizialeko etxebizitzak izango dira.
- San Andrea auzoak duen aparkaleku gabeziari aurre egiteko, gainean erabilera publikoa izango duen lurrazpiko aparkaleku osagarria eraikitzea.
- Azeri etxea finkatu egin den arren, hura ordezkatu ahal izateko hirigintza parametroak jasoko ditu Egitamu Bereziak, muga hauekin: 8 etxebizitza eta 120 m² (e) merkataritzaren erabilerekin.

A.10.1. Azeri. '0' alternatiba: indarrean dagoen HAPO planoan Plan Bereziak esparru honetarako aurreikusitako antolamendua azaltzen da.

4.11.2. Ingurumen Baldintzatzaileak

- Orografia: Aztertutako eremua erabat laua da, %0-10 bitarteko malda azaltzen dutelarik.
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: Esparru hau erabat hiritartua dago gaur egun, lurzoruaren ahalmen agrologikoa galdu egin delarik.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: EAEko ibai eta erreken ertzak antolatzeko LAP-ak ez du ur-ibilgurik antzematen AE.50 'Azeri' esparruaren baitan.
- Landaretza: Azterketa-esparruak gaur egun azaltzen duen erabilera bakarra hiri-erabilerari dagokiona da. Horrenbestez, ez da intereseko landaredia mantentzen duen gunerik antzeman esparru honetan.

- Fauna: AE. 50 'Azeri' esparrua, bere osotasunean, baso-igel iberiarra (*Rana iberica*) espezie mehatxatuarentzat mugaturiko 'Lehentasuneko banaketa-eremuan' sartzen da.
- Natura-gune babestuak: Esparru hau ez da udalerrian agertzen diren naturaguneekin bat etortzen.
- Paisaia: Esparru honen paisaia erabat hiritarra eta kalitate eskasekoa dela esan daiteke. Azken urteotan inguruan eman diren eraberritze-lanek eta garapen berriek hirigintza eta estetika-irizpideei garrantzi handiagoa eman izanak esparru honen paisaiaren kalitate eskasa agerian uzten du, esparruak gaur egun itxura desordenatua ematen duelarik, beren inguruarekin alderatuz.

Hiri-paisaia edukitzeak, hori bai, eremu honetan eman daitezkeen jarduketak inguruneke paisaian integratzea erraztuko du. Bestalde, azterketa-eremuaren ikusgaitasuna oso altua bezala baloratu daiteke; esparruak erabat ikusgaia da errepide-sare nagusitik, bigarren mailako errepide-saretik eta Arrasateko hirigunearen erdialdetik. Hori dela eta, bi ezaugarriak kontuan harturik, urrakortasun ertaineko eremu bezala har daiteke aztertutakoa.

- Ingurumen-arriskuak
 - *Akuiferoen urrakortasuna*: AE.50 'Azeri' esparrua akuiferoen urrakortasun handia duen gune batean kokatzen da.
 - *Zarata*: A50 'Azeri' eremuak GI-2620 eremuarekin mugatzen du mendebaldean eta Araba Etorbidearekin ekialdean. GI-2620 errepidearen zarataren igorpen-mailari dagokionez, 65-70 dB(A) bitartean kokatzen da gauerako (LE10m, gaua) eta 70-75 dB(A) bitartean egun guztirako (LE10m, DEN). Errepideak jasaten duen trafiko-intentsitatea 15.000 ibilgailu/egunean ingurukoa dela kontuan hartuta, 'Azeri' eremuaren egoera akustikoa desegokia dela esan daiteke. Honi gainera hiriguneko kaleek jasaten duten trafikoak sortzen duen zarata gehitu behar zaio. Kasu honetan Araba etorbidea izango da eremu honengan eragin zuzenena izango duen kalea; bere igorpen-maila 60-65 dB(A) bitartean azpitik kokatzen da gauerako (LE10m, gaua) eta 70-75 dB(A) bitartean egun guztirako (LE10m, DEN).
 - *Uholde-arriskua*: Deba ibaiari lotutako urperagarritasun arriskuak AE.50 'Azeri' esparruari eragiten dio, 10 eta 100 urte bitarteko birgertatze-aldiko (balizko arrisku handia) uholde batek eremuaren %80ari eragingo liokeelako.
 - *Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak*: IHOBek eginiko 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioaren' arabera AE.50 'Azeri' eremuaren 0,99 Hak mota honetako lurzoruak azaltzen ditu (inbentarioan 20055-00095 kodea).
 - *Higadura jasateko arriskuak*: Eremuak egun azaltzen duen egoera eta erliebea kontuan hartuta, ez da mota honetako arriskurik aurreikusten 'Azeri' esparruan.
- Kultur ondarea: Ez da indarrean dagoen HAPO-k jasotzen dituen kultur ondarearen elementurik identifikatu esparru honen baitan.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Hiriguneko esparrua izaki, proposaturiko garapen berrietako biztanleei garraio beharra gutxitu egiten zaie eta bideragarriagoa egiten du eremu honen lotura Arrasateko gainontzeko hirigunearekin garraio-mota iraunkorragoen bidez, hala nola, oinez edo bizikletan. Esparruak garraio publikoko zerbitzua du gaur egun, herriko autobusaren bi lineak Legarre geltokia baitute inguruan edo oso gertu. HAPO-k proposatzen duen motorgabekoen hegoaldeko ibilbidea ere gertu dago 'Azeri' esparrutik.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak

Aztertutako ingurumen-eragile ezberdinek azterketa-eremuan gaur egun duten egoera hurrengo taulan jasotzen da era laburrean.

Eragile bakoitzaren kasuan, berau eremuan baldintzatzaile izango den edo ez adierazten da (bai zentzu negatiboan eta baita positiboan ere), baita, hala bada, zein mailatan baldintzatu edo mugatuko dituen eremu

horretarako aurreikusten diren etxebizitza-garapenak (kolore berdea: maila baxuan, kolore laranja: maila ertainean eta kolore gorria: maila altuan):

INGURUMEN-ERAGILEAK ETA BALDINTZATZAILEAK		HAUTABIDEA: AZERI		
		AE.50 'Azeri'		
MALDAK (>%50ko maldak)	Balioa (Ha)	0		
	Baldintzatzailea	Ez		
AHALMEN AGROLOGIKO ALTUKO LURRAK	Balioa (Ha)	0		
	Baldintzatzailea	Ez		
UR-IBILGUAK	Egoera*	Ez		
	Baldintzatzailea	Ez		
INTERESA DUEN LANDAREDIA	Balioa (Ha)	0		
	Baldintzatzailea	Ez		
FAUNA MEHATXATUA	Egoera*	Bai		
	Baldintzatzailea	Bai		
NATURA GUEN BABESTUAK	Egoera*	Ez		
	Baldintzatzailea	Ez		
PAISAIA	Balorazioa	Baxua		
	Baldintzatzailea	Bai		
INGURUMEN-ARRISKUAK	Akuiferoen urrakortasuna	Balioa (Ha)	1,5	
		Baldintzatzailea	Bai	
	Zarata	Egoera	Desegokia	
		Baldintzatzailea	Bai	
	Uholde-arriskua	Balioa (Ha)	1,24	
		Baldintzatzailea	Bai	
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak	Balioa (Ha)	0,99	
		Baldintzatzailea	Bai	
	Higadura-arriskua	Balioa (Ha)	0	
		Baldintzatzailea	Ez	
KULTUR ONDAREA	Egoera*	Ez		
	Baldintzatzailea	Ez		
MUGIKORTASUNA	Egoera	A/B/O		
	Baldintzatzailea	Ez		

Taula: Bizitokietako barne-operazioetarako proposaturiko eremuen ingurumen-baldintzatzaile nagusiak.

A.10.2. Azeri. Ingurumen baldintzatzaileak planoan esparru hauetako ingurumen-baldintzatzaile nagusiak azaltzen dira.

4.11.3. Ingurumen Balorazioa

1. Lurzoruaren okupazioa

'0' hautabideak eremu honetan aurreikusten dituen eraberritze-jarduketak, edota HAPO-ren berrikuspenean zehar eremu honetarako sortu daitezkeen beste edozein proposamenez ez du lurzoruaren okupazio-mailaren hazkunderik ekarriko, dagoeneko hiritartuak dagoen eremua izanik.

2. Fauna mehatxatuarengan eragina

Azterketa-esparrua baso-igela iberiarrarentzako (*Rana iberica*) mugatutako 'Lehentasuneko banaketa-eremua'-ren zati den arren, ez da espezie mehatxatu hau eremu honetan aurkitzerik espero. Nahiz eta eragile hau ingurumen-baldintzatzaile bat den inguru honetan proposatu daitezkeen garapen ezberdinentzat, ez dira fauna mehatxatuarengan aintzat hartzeko eraginik espero eremu honetan proposatzen diren garapenekin.

3. Paisaiarengan eragina

'Azeri' eremuak gaur egun duen egoera eta paisaia ikusirik '0' hautabideak bertan proposatzen dituen barne-operazioek paisaiarengan eragin positibo bat izan dezaketela uste da. Esparru honetan aurreikusten diren

garapen berriek estetika aldetik kalitate handiagoa izango dutela aurreikusi daiteke eta, plangintzaren lehen faseetatik helburu hau izanez gero, ez dute arazorik izango inguruko hiri-eremuen artean egokitzeke.

4. Ingurumen-arriskuak

- a. *Akuiferoen urrakortasuna*: Azterketa-esparrua hirilur bezala sailkatuak dago eta zoladura azaltzen du gaur egun. Nahiz eta akuiferoen urrakortasun handia azaltzen duen eremu baten baitan geratzen den, ez da espero esparru honetarako '0' hautabideak proposatzen dituen garapenek akuiferoengan eragin nabarmenik izango dutenik. Kasu honetan, obra fasean komenigarri diren neurri babesleak hartuz gero, ez da uste garapen hauek akuiferoen kalitatearengan eraginik izango dutenik.
- b. *Zarata*: Aurreko atalean emandako datuen arabera, AE.50 'Azeri' eremuak egoera akustiko desegokiagoa aurkezten du gaur egun, GI-2620 errepidearen zaratak eremu hau eragin dezakeelarik. Nahiz eta eragina eremu honetarako proposatzen den antolamendu zehatzaren arabera izango den, '0' hautabidea oinarri hartuz ezin da baztertu eremu honetan ematen diren etxebizitza-garapenek indarrean dagoen legediak²⁰ ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak gaindituko dituztenik. Plangintzaren fase honetan ezin denez oraindik ere eragin hau ongi baloratu, berrikuspenaren hurrengo faseetan zehaztu beharreko guzetako bat izango, AE.50 'Azeri' eremurako proposamena zehazten doan heinean.
- c. *Uholde-arriskua*: AE.50 'Azeri' eremua, bere osotasunean, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldiarentzat urperagarria den gunearen baitan geratzen da. Uholde-arrisku hau ez denez hain handia, ez da espero 'Azeri' eremuan '0' hautabideak proposatzen dituen garapenak arazo nabarmenak izango dituenik urperagarritasunari dagokionez.
- d. *Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua*: Lehenago azaldu den moduan, IHOBek egindako 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioaren' arabera, AE.50 'Azeri' eremuaren 1 Ha mota honetako lurzoruekin azaltzen da.

Legeak ezartzen duena bete ezean, AE.50 'Azeri' eremuan aurreikusitako garapenek aintzat hartzeko ingurumen-eragina izan lezakete, ezin baita baztertu kutsatuta egon daitezkeen lurren indusketa behar izatea, eta honek hondakin arriskutsuen sorrera ekarriko luke, lurzoru hauek era berezian kudeatu beharko bailirateke. Edonola ere, eremu honen jarduera ekonomikotarako garapenak aurrera eramaten badira, bertan proposatzen diren jarduketa guztiak 1/2005 legea, otsailaren 4koa, lurzoru ez kutsatzeko eta kutsatuta garbitzeko ezartzen duenaren menpe egongo dira.

5. Mugikortasunaren hazkundera eta garraiobide iraunkorren erabilera

Hirilur bezala sailkatuta dagoen eremu hau hirigunean bertan kokatzen da, bertan proposatzen diren garapen berrietako biztanleei garraio-beharra gutxituz.

Edonola ere, eremuak ez ditu arazorik azalduko Arrasateko gainontzeko hirigunearekin garraio-mota iraunkorren (oinez, bizikletaz) edota autobus publikoaren bidezko lotura izateko. Honekin guztiarekin, eremu honetan proposatzen diren garapenek izango dituzten irisgarritasun eta mugikortasun baldintzek ez dute ingurumen-eragin negatiborik sortuko. Alderantziz, '0' hautabideak eremu honetan proposatzen duen barne-operazioak mugikortasunaren aldetik udalerrri mailan eragin positibo bat izan dezakeela uste da, esparruak oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna bultzatu dezaketean baldintzak baititu.

Hautabideen hasierako ingurumen-balorazioa

Orain arte esandakoaren arabera, ondoko taulan 'Azeri' esparruaren garapenaren inguruan aintzat hartu den hautabide bakoitzak ingurumenaren gainean izango dituen eraginen tamaina jasotzen da, hautabideen ingurumen-eraginaren balorazio alderatu bat izan daitekeena.

²⁰ Urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan, Azaroaren 17ko 37/2003 Legea, Zaratari buruzkoa, hain zuzen ere zonifikazio akustikoaren, kalitate-helburuen eta emisio akustikoen eremuetan geratzen duenean.

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAK		HAUTABIDEA: AZERI
		'0' hautabidea (HAPO)
Lurzoruaren okupazioa		-
Fauna mehatxatua eragina		Ba
Paisaiaren gaineko eragina		+
Ingurumen-arriskuak	Akuiferoen urrakortasuna	Ba
	Zarata	Na
	Uholde-arriskua	Ba
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua	Na
Mugikortasunaren hazkundera eta garraiobide iraunkorren erabilera		+

Taula. Azeri esparruan proposaturiko garapenaren ingurumen-balorazioa.

4.12. '11. INTXAUSTI-SAN JOSEPE HARROBIA'

4.12.1. Hautabideen deskribapena

AE. 58 'San Jose Harrobia' esparruan, harrobiaren ustiapena amaitu ostean azalera handi bat gelditu da hiritartzeko. Azalera honen handitasuna eta harrobiak inguruarengan duen eragina dela-eta, Udalak Ideien Lehiaketa bat antolatu zuen bertan gauzatu litezkeen jarduketak planteatu zitezten. Ideien lehiaketatik hainbat ondorio atera ziren, besteak beste, erabilera anitzak kokatu beharko liritekeela bertan, ingurua irisgarria izan beharko litzakeela, herriarekin uztartu beharra, komunikazioak jorratu beharra, inguruan ere ezinbestez esku hartu beharra, ibaiaren inguruan berreskurapen esku-harmena egiteko aukera... Lehiaketa haren ostean ez da antolamendu zehatz bat finkatu Intxausti-San Josepe Harrobia ingururako, ideia orokor baten norabidea baizik. Alternatibak nahi bezainbeste izan daitezkeela aipatzen du berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak, baita gaia zehazten joateko asmoa ere.

Kasu honetan, '0' hautabidea indarrean dagoen HAPO-ak eremu hauetarako ezartzen duen antolamenduari dagokio:

- AE. 56 'Intxausti': jarduera ekonomikoko erabilera nagusia.
 - Hirilurra (3,8 ha).
 - Martxan dauden industria eremuak finkatu eta industria eraikinak jaso ahal izateko, ahalik eta ezarrierarik hedatuena lortzea da helburua.
 - Profil librea (16 m.ko gehienezko goiera).
 - 'Trenbide zaharra' motorgabekoen ibilbidea luzatzea, dagokion zatian.
- AE 58 'San Josepe Harrobia': jarduera ekonomikoko erabilera nagusia.
 - Lurzoru hiritargaria (9,2 ha).
 - Harrobiaren jarduera bertan behera utzi, tokia berreskuratu eta eraiki ahal izateko bidea zabaltzea.
 - Mendi-hegala inguru berreskuratua izaki, aisialdirako gune izan dadin antolatzea.
 - Bertako lagapen edo zama gisa, eskaladarako azpiegitura berezia eraikitzea.
 - San Josepe baserriaren aurriak eta inguruko txabola guztiak antolamenduz kanpo geratzen dira.

A.11.1: Intxausti – San Josepe Harrobia. '0' alternatiba: indarrean dagoen HAPO planoan indarrean dagoen HAPO-k esparru hauetarako aurreikusitako antolamendua azaltzen da.

Aurrerapen Dokumentuak, norabide hau harturik, eremu honetarako proposamen bat garatzeko eztabaida zabaltzearen antolamendu bat proposatzen du. Edonola ere, dokumentuan aipatzen den bezala, antolamendu hau ez da behin-betikoa, ez eta eztabaidatu beharrekoa ere. Udalaren asmoa eremu honetarako ideia orokorraren inguruan hausnarketa bat egitea da: erabilera anitzak sustatzeko beharra, harrobia eta Intxausti eremuaren arteko lotura, oinezkoen mugikortasuna eta errepidearen arteko harremana. Esparru honen inguruan HAPO-ren berrikuspenaren abiapuntua, hortaz, bertan garatu behar diren erabilerei buruzko ideia orokorraren inguruan hausnarketa egitea da.

4.12.2. Ingurumen Baldintzatzaileak

- Orografia eta erliebea: AE. 56 'Intxausti' eremua Deba ibaiaren uholde ibarrean kokatzen da, erliebe laua duen eremua. AE.58 'San Josepe Harrobia' eremuak berriz malda handiagoak ditu, antzina emandako meatzaritza-erabilerekin emaitza bezala utzi duten horma bertikalak direla eta. Honela, esparruaren 3,77 ha (azaleraren %41a) %50 gaineko malda du, harrobiko hormak hartzen duen eremuari dagokion gunean. Honela, harrobiak egun aurkezten duen erliebea ingurumen-baldintzatzaile garrantzitsu bat izango da bertan egingo diren garapenak proposatzerako garaian.
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: Hiri-erabilerak edo meatzaritza-erabilerak jasan dituzten eremuak izanik, bi esparruak lurzoru artifizialdu moduan hartu daitezke eta, beraz, ez dute ahalmen agrologiko handiko lurzorurik aurkezten gaur egun. Basogintza eta nekazaritzarako LAP-ak ere ez du eremu hauetan 'Balio estrategiko altuko' gunerik sailkatzen.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Deba ibaiak AE.56 'Intxausti' eremua zeharkatzen du hegoalde-iparraldera. EAEko ibai eta erreken ertzak antolatzekeo LAP-ak Deba ibaia II. kategoria hidraulikoan sailkatzen du azterketa-eremuan, 50 eta 100 km² bitarteko arroari dagokiona.
- Landaretza: AE.56 'Intxausti' eremua hirigunean bertan kokatzen da, eta hiritartuak agertzen dira gaur egun, bertan erabilera ezberdinak ematen direlarik.

Honetaz gain AE.58 'San Josepe harrobia' ingurumen-aldetik egoera txarrean dagoen eremua da, meatzaritza jarduerak jasan dituen eremuak ez duelarik inolako landaretzarik agertzen gaur egun. Indarrean dagoen HAPOk definitzen duen eremuaren ipar-mendebaldeko muturrak (AE. 57 eremutik gertuen dagoen gunea) hostozabalen baso gaztea bezala sailkatuta dagoen zuhaitz-estaldura mantentzen duen 0,7 ha. inguruko gune bat mantentzen du, baita txilardi bat azaltzen duen 0,05 ha. dituen eremu bat ere. Edonola ere, eremu honen azaleraren %90tik gora lur artifizialdua bezala sailkatu daiteke.

AE.56 'Intxausti' eremuaren kasuan ere bere azaleraren %55 inguru (2,08 ha.) lur artifizialduak hartzen dituzte. Honetaz gain bertako baserrien inguruan kokatzen diren baratza eta fruta arbolek 0,65 ha. hartzen dituzte (azaleraren %17a), eta behe-larreek berriz 0,1 ha. (%2,7). Eremuaren iparraldean harizti bat mantentzen duen 0,1 ha. inguruko eremua azaltzen da, baita hostozabalen baso gaztea bezala sailkatu daiteken masa mantentzen duen beste 0,1 ha. dituen gune bat ere eremuaren hegoaldean. Honetaz gain Deba ibaiak ibaiertzeko baso bezala haltzadi bat mantentzen du esparruaren erdigunean, honek 0,18 ha-ekin eremuaren azaleraren ia %5a hartzen duelarik.

Intxausti-San Josepe eremua ez da landaretza-estaldura egoera onean mantentzeagatik nabarmentzen, beraz ez ditu udalerrian babestu beharreko landaredi bezala hartu diren gune asko edukiko. Eremu hauetan azaltzen den interesa duen landaretzak guztira 1,22 ha. hartzen ditu, gehienbat 'Intxausti' eremuan eta 'San Josepe Harrobia' eremuaren iparraldean kokatzen direlarik. Honela Intxausti gunea zeharkatzen duenean Deba ibaian garatzen den ibaiertzeko basoa 92/43/CEE Habitaten zuzentarauaren I. eranskinean definitzen den 91E0*. *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-eko *ibarbasoak* (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*) lehentasuneko interes komunitarioko habitat bezala sailkatu daiteke. Honetaz gain, eremu honen hegoaldean kokatzen den behe-larrea 6510. Altitude baxuetako sega-belardi txiroak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*) interes komunitarioko habitata bezala sailkatuta dago, eta intereseko landareditzat hartzen dira 'Intxausti' eta 'San Josepe Harrobiak' azaltzen dituzten hariztia eta hostozabalen baso gaztea.

- Fauna: Aztertutako bi esparruak (AE.56, AE.58), bere osotasunean, baso-igel iberiarra (*Rana iberica*) espezie mehatxatuarentzat mugaturiko 'Lehentasuneko banaketa-eremuan' sartzen dira.
- Natura-gune babestuak: Esparruak ez dira udalerrian agertzen diren Naturaguneen barnean geratzen.
- Paisaia: Aztertzen diren bi esparruak artifizialduak izan dira maila handi batean, eta Arrasateko hirigunean bertan kokatzen dira. Honela, 'Intxausti' eremuak hiri-paisaia bat azaltzen du gaur egun, kalitate baxukoa dela esan daitekeena. Nahiz eta eremua Deba ibaiak zeharkatzen duen, ur-ibilguaren eta bere ertzeko landaretzaren egoera nahiko kaskarrak dira kasu honetan, ez duelarik laguntzen inguruko paisaiaren kalitatea hobetzen.

Bestalde, San Josepe harrobiak paisaia erabat eraldatua azaltzen du bertan eman diren meatzaritza jardueren eraginez. Jarduera hau bertan behera utzi den arren, oraindik ere ez dira bertako paisaia errekuiperatzeko neurririk hartu, harrobiak sortzen duen begi-inpaktuak bere horretan dirauelarik. Kasu honetan, harrobiaren paisaiaren kalitatea oso baxua dela esan daiteke.

‘Intxausti’ esparrua hirigunean bertan kokatzen denez, bertan ematen diren industria-garapenek ez dute arazorik izango inguruan egokitzeko. Ostera, ‘San Josepe Harrobia’ eremuan ‘0’ hautabideak proposatzen dituen industria-garapenak, edota Aurrerapen Dokumentuak aipatzen dituen erabilera-mistoei eremu honen lurzoruaren erabilerearen aldaketa sakon bat ekarriko dute. Kasu honetan, paisaia honen harrera-ahalmena ertaintzat jo da, izan ere garapen mota batzuk inguruko landa-paisaian egokitzeko zenbait jarduketa egitea eskatuko lukete.

Eremuaren ikusgaitasun-mailari dagokionez, AE. 58 ‘San Josepe Harrobia’ren ikusgaitasun-maila altua daitekeela esan daiteke, ikusgai izanik errepide-sare nagusitik, bigarren mailako errepide-saretik, hirigunetik eta udalerriko gailur garaienetatik zein nekazal-auzoetatik. AE.56 ‘Intxausti’ eremuaren ikusgaitasun-maila ere nahiko altua da, ikusgai baita errepide-sare nagusitik, bigarren mailako errepideetatik eta hirigunetik, baina ia ez da ikusgai udalerriko gailur zein nekazal-auzoetatik. Ikusgaitasun-maila hauek kontutan hartuta, bi esparru hauen paisaia urrakorra dela iritzi da.

- Ingurumen-arriskuak:

- *Akuiferoen urrakortasuna:* ‘Intxausti’ eta ‘San Josepe Harrobia’ esparruen azalera osoa akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun handia edo oso handia duten eremuetan kokatzen da.
- *Zarata:* GI-627 errepidea AE.57 ‘San Josepe etxeak’ eta AE.58 ‘San Josepe harrobia’ eremuen artean zeharkatzen du inguru hau, eta AP-1 errepidea San Josepe harrobiaren azpitik pasatzen da, biak inguru honetan antzeman diren zarata-iturri nagusitzat jo daitezkeelarik. Honetaz gain, ‘Intxausti’ eremuak egun dituen industria-eraikinen artean, eskuragarri dago ‘Uttillajes Uribealgo’ eraikinaren soinu igorpenari buruzko datua. Zarata-iturri honen potentzia 90-95 dBkoa da egunean zehar eta 85-90 dBkoa gauean.

GI-627 errepidearen zarataren igorpen-mailari dagokionez, 65-70 dB(A) bitartean kokatzen da gauerako (LE10m, *gaua*) eta 70-75 dB(A) bitartean egun guztirako (LE10m, DEN). Errepideak jasaten duen trafiko-intentsitate 9.900 ibilgailu/egunean ingurukoa dela kontuan hartuta, baliteke aztertutako bi esparru hauen egoera akustikoa errepide honek igortzen duen zaratarekin eraginda egotea. Hori gainera hiriguneko kaleek jasaten duten trafikoak sortzen duen zarata gehitu behar zaio. Kasu honetan San Andres eta Araba etorbidea izango dira eremu honengan eragin zuzenena izango duten kaleak; lehenengoaren kasuan bere igorpen-maila 55-60 dB(A) bitartean kokatzen da gauerako (LE10m, *gaua*) eta 65-70 dB(A) bitartean egun guztirako (LE10m, DEN); Araba etorbidearen igorpen-maila 60-65 dB(A) bitartean azpitik kokatzen da gauerako (LE10m, *gaua*) eta 70-75 dB(A) bitartean egun guztirako (LE10m, DEN).

Honekin guztiarekin, ‘Intxausti’ eremuak egoera akustiko desegokia edo txarra izan dezakeela ezin da baztertu. ‘San Josepe Harrobia’ eremuak, berriz, egoera akustiko zerbait lasaia duela iritzi da, nahiz eta AP-1-ren zarataren igorpen-maila ere kontuan hartu beharko dela antolamenduan.

- *Uholde-arriskua:* AE.56 ‘Intxausti’ esparrua Deba ibaiarentzat definituriko uholde-arriskua duten eremuak eraginda geratzen da. Zehazki, ‘Intxausti’ eremuaren mendebaldeko erdialdea 10 eta 100 urteko birgertatze-aldirako urperagarriak diren eremuetan kokatzen da, honela esparru honen 2,4 ha (azalaren %65a inguru) uholde-arriskua dute 10 eta 100 urteko birgertatze-aldirako.
- *Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua:* IHOBek eginiko ‘Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioaren’ eta indarrean dagoen HAPO-k udalerrian antzematen dituen kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen arabera, AE.56 ‘Intxausti’ esparruak kutsatuta egon daitezkeen lau lursail azaltzen ditu (aipatutako inbentarioan 20055-00094, 20055-00096, 20055-00099 eta 20055-00101 kodeak dituztenak), lurzoru hauek guztira 0,82 ha-ko azalera gehitzen dutelarik (eremuaren azalera osoaren %22a). ‘San Josepe Harrobia’ eremuak ez dute mota honetako lurzorurik azaltzen.

- *Higadura jasateko arriskuak*: Basogintza eta nekazaritzarako LAP-ak ez du higadura jasateko arriskua duen gunerik sailkatzen azterketa-eremu hauetan.
- Kultur ondarea: Indarrean dagoen HAPOk jasotzen duen kultur ondarearen arabera, 'Intxausti' eremuak ez du mota honetako elementurik gordetzen. Bestalde, AE.58 'San Josepe harrobiai' arkeologia ondarearen zenbait elementu azaltzen ditu bere mugen barruan, hala nola: San Joseph Baseliza, Solozar I haitzuloa, Solozar II haitzuloa eta Solozar III haitzuloa.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Intxausti-San Josepe inguruan aztertu diren hiru garapen-eremuak hirigunean bertan kokatzen direla esan daiteke eta erliebe nahiko laua azaltzen dute. Honen ondorioz, eremu hauen mugikortasun aukerak eta beren irisgarritasuna inguruko beste zenbait eremuren berdina izango dela jotzen da.

Aztertutako esparruek, bereziki 'Intxausti' eremuak, oinezko lotura badu Arrasateko hirigunearekin, eta joan-etorriak bizikletaz egitea ere posible izango litzateke. Honetaz gain, HAPO-an 'Antzinako Eibar-Gasteiz trenbidearen gaineko ibilbidea' iparretik hegora zeharkatuko duen bizikleta-bide baten eraikuntza aurreikusten da, Gipuzkoako Bizikleta Bideen LAP-ean ere jasotzen dena, zeinak inguru honen bizikleta bidezko mugikortasuna erraztuko duen.

Bestalde, hirian garraio publikoko zerbitzua ematen duten bi autobus-lineak ere hirigunea inguru honetatik gertu pasatzen dira, nahiz eta ez dituzten azterketa-eremuak zeharkatzen. Lotura hobetu egin liteke linea hauetako baten ibilbidea luzatuz azterketa-eremuak zeharkatu ditzan eta, bide batez, San Josepe harrobira iristea ere errazagoa izan dadin.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak

Azterturako ingurumen-eragile ezberdinek azterketa-eremuetan gaur egun duten egoera hurrengo taulan jasotzen da era laburrean. Eragile bakoitzaren kasuan, berau eremu bakoitzean baldintzatzaile izango den edo ez adierazten da (bai zentzu negatiboan eta baita positiboan ere), baita, hala bada, zein mailatan baldintzatu edo mugatuko dituen eremu horretarako aurreikusten diren garapenak (kolore berdea: maila baxua, kolore laranja: maila ertainean eta kolore gorria: maila altuan):

INGURUMEN-ERAGILEAK ETA BALDINTZATZAILAK		HAUTABIDEA: INTXAUSTI-SAN JOSEPE HARROBIA		
		AE. 56 'Intxausti'	AE.58 'San Josepe harrobia'	
MALDAK (>%50ko maldak)	Balioa (Ha)	0	3,77	
	Baldintzatzailea	Ez	Bai	
AHALMEN AGROLOGIKO ALTUKO LURRAK	Balioa (Ha)	0	0	
	Baldintzatzailea	Ez	Ez	
UR-IBILGUAK	Egoera*	Bai	Ez	
	Baldintzatzailea	Bai	Ez	
INTERESA DUEN LANDAREDIA	Balioa (Ha)	0,59	0,73	
	Baldintzatzailea	Bai	Bai	
FAUNA MEHATXATUA	Egoera*	Bai	Bai	
	Baldintzatzailea	Bai	Bai	
NATURA GUEN BABESTUAK	Egoera*	Ez	Ez	
	Baldintzatzailea	Ez	Ez	
PAISAIA	Balorazioa	Baxua	Oso baxua	
	Baldintzatzailea	Ez	Bai	
INGURUMEN-ARRISKUAK	Akuiferoen urrakortasuna	Balioa (Ha)	3,8	
		Baldintzatzailea	Bai	
	Zarata	Egoera	Txarra	Desegokia
		Baldintzatzailea	Bai	Bai
	Uholde-arriskua	Balioa (Ha)	2,42	0
		Baldintzatzailea	Bai	Ez
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak	Balioa (Ha)	0,82	0
		Baldintzatzailea	Bai	Ez
	Higadura-arriskua	Balioa (Ha)	0	0
		Baldintzatzailea	Ez	Ez

INGURUMEN-ERAGILEAK ETA BALDINTZATZAILEAK		HAUTABIDEA: INTXAUSTI-SAN JOSEPE HARROBIA	
		AE. 56 'Intxausti'	AE.58 'San Josepe harrobia'
KULTUR ONDAREA	Egoera*	Ez	Bai
	Baldintzatzaila	Ez	Bai
MUGIKORTASUNA	Egoera	A/B/O	A/B/O
	Baldintzatzaila	Ez	Ez

Taula: Intxausti-San Josepe inguruan proposaturiko eremuen ingurumen-baldintzatzaille nagusiak.

A.11.2. *Intxausti – San Josepe Harrobia*. Ingurumen baldintzatzailleak planoan esparru hauetako ingurumen-baldintzatzaille nagusiak azaltzen dira.

4.12.3. Ingurumen Balorazioa

Aurreko ataletan hautabide ezberdinak eta inguru honek dituen ingurumen-baldintzatzaille nagusiak jaso dira. Informazio honen arabera, hautabide hauen ingurumen-balorazioa egingo da honako atalean, hautabide hauetako bakoitzarekin aurreikusten diren ingurumenaren gaineko eragin nagusienetan oinarrituz horretarako.

Plangintzaren hasierako fase honetan '0' hautabidea besterik ez dago zehazturik, indarrean dagoen HAPOk proposatzen duen antolamenduari dagokiona. Kasu honetan, inguru honetako garapen nagusia San Josepe harrobiari dagokiona da. Nahiz eta Aurrerapen Dokumentuak aipatu Arrasateko Udalak ideia-lehiaketa bat martxan jarri zuela harrobi honen antolamenduaren inguruan, ez du zehazten zein aurreikuspen dituzten eremu honi emango zaion erabilera berriaren inguruan, ezta antolamendu berria aurrera eramateko behar izango diren jarduketak ere. Aurrerapen Dokumentuak eremu honen erabilerei buruzko ideia nagusiaren inguruan hausnarketa bat egiteko beharra azaltzen du: erabilera anitzak sustatu, oinezkoen mugikortasuna eta errepidearen arteko harremana, etc.

Honela, hautabideen ingurumen-balorazio honetan '0' hautabideak izango lituzkeen ingurumen-eraginak besterik ezin dira baloratu, gainontzekoak ez baita alternatiba zehatzik proposatu oraindik. Indarrean dagoen HAPO-k, esparru hauetarako bakoitzerako proposatzen duen antolamenduan oinarrituz, inguru hauetako bakoitzean aurreikusten diren ingurumen-eragin nagusiak azalduko dira jarraian, esparru bakoitzean eragin hauek izan dezaketen tamaina eta garrantziaren arteko alderaketa bat eginez. Lehenik modu orokorrean garapenek inguru honetan izan ditzaketen ingurumen-eragin nagusiak deskribatuko dira eta ondoren esparru bakoitzean eragin hauek izan dezaketen tamaina jasotzen duen taula bat azalduko.

AE.56 'Intxausti' eta AE.58 'San Josepe harrobia' eremuetan proposatzen diren garapenek izango lituzketen ingurumen-eragin nagusiak honakoak lirakeke:

1. Lurzoruaren okupazioa

San Josepe-Intxausti inguruan proposatzen diren jarduerak hartzen dituzten eremuek honako azalera dituzte:

- AE. 56 'Intxausti': 3,8 Ha
- AE.58 'San Josepe harrobia': 9,2 Ha

Bi kasuetan eremua gaur egun artifizialdua dagoela esan daiteke, 'Intxaustik' hiri-erabilera bat du gaur egun eta 'San Josepe Harrobiak' meatzaritza-erabilera bat jasan du orain arte. Aurrerapen Dokumentuan ez da ezer zehatzik aurreikusten harrobi honen erabileren inguruan. Dena den, eremu honen garapenak edota erabilera-aldaketak ez luke udalerriko lurzoruaren okupazioa igoko, lurzoruaren erabilerearen aldaketa bat besterik ez bailitzateke izango. Gauzak horrela, garapenek ez luke lurzoruaren okupazioa handitzea ekarriko.

2. Lurrazaleko ur-ibilguengan eragina

Deba ibaiak iparretik hegora zeharkatzen du AE.56 'Intxausti' eremua. Ur-ibilgua nahiko egoera txarrean agertzen da, bideratua agertzen delarik ia eremu osoan zehar. Aurreikusten diren industria-garapenen obra fasean ibaiaren uraren kalitatea kaltetua izan daiteke emari ezberdinen eraginez. Honetaz gain, eremu honetan proposatzen den antolamendua ere aintzat izan beharko du kasu honetarako EAEko ibai eta erreken ertzak antolatzeke LAP-ak ezartzen dituen gutxienezko tartek urbanizaziotik eta eraikuntzatik.

'0' hautabideak jarduera ekonomiko berrietarako proposatzen dituen kokapenak kontuan hartuta, ez da espero hauek Deba ibaian eragin larrik sortuko dutenik, eragin hauek obra fasean mugatutako behin-behineko emariak izango direlarik. Honetaz gain, eremuan proposaturiko urbanizazio-jarduketek ez dute Deba ibaiaren ertzetan eragin gehiagorik sortuko, izan ere gaur egun nahiko egoera txarrean dago ur-ibilgua, hormigoizko hormen bidez bideratua, batez ere ezker aldeko ertzean.

3. Interesa duen landaretzarengan eragina

'Intxausti' eremuak 0,59 ha. inguru ditu interesa duen landaretzak hartzen dituenak, Deba ibaiaren ertzetan eta hegoaldeko muturrean kokaturik. '0' hautabideak proposatzen duen antolamenduan oinarrituz, badirudi berau bateragarria izan ahal litzatekeela landaretza gune hauetariko batzuekin, nahiz eta hau azkenean proposatzen den antolamenduaren arabera geratuko den eragina izan.

Bestalde, 'San Josepe Harrobia' eremuaren iparraldean 0,7 ha. inguru hartzen dituen hostozabalen baso gazte bat azaltzen da. '0' hautabideak jarduera ekonomikoaren garapen berrientzat proposatzen dituen kokapenak kontuan harturik, antolamendu hau ere bateragarria litzateke baso honen mantentzearekin.

Kasu honetan Aurrerapen Dokumentuak ez du proposamen zehatzik egiten eremu honetarako, beraz ezin da aurreikusi hautabide hauek interesa duen landaretzarengan izan dezaketen eragina. Dena den, eta kasurik okerreanean jarriz, intereseko landaretzaren 1,3 ha galtzea ez da proposamena baztertzera bultzatu dezakeen eragin larritzat jotzen.

4. Fauna mehatxatuarengan eragina

'0' hautabidean Intxausti-San Josepe inguruan proposatzen dituen garapen-esparruak baso-igel iberiarrarentzako (*Rana iberica*) mugatutako 'Lehentasuneko banaketa-eremua'-ren zati dira, nahiz eta ez den espezie mehatxatu hau eremuan aurkitzerik espero. Nahiz eta eragile hau ingurumen-baldintzatzaile bat den inguru honetan proposatu daitezkeen garapen ezberdinentzat, ez dira kontuan hartzeko eraginik espero fauna mehatxatuarengan.

5. Paisaiaren gaineko eragina

'0' hautabideak 'Intxausti' eremua betetzea proposatzen du, egun dauden jarduera ekonomikoak finkatu eta mota honetako garapen berrietarako lursailak zehaztuz. Eremuak egun erabilera nahasiak aurkezten ditu, jarduera ekonomikotaz gain etxebizitza-erabilerak ere ematen baitira bertan. Dena dela, 'Intxausti' eremuan proposatzen diren garapenak egun hiritartuta dagoen gune batean kokatzen dira, beraz ez da uste jarduketa hauek paisaian eragin nabarmenik sortuko luketenik, beti ere eraikin berriak egun eremuan daudenen tipologiarekin bat etortzen badira.

AE.58 'San Josepe harrobia' eremuaren kasuan, '0' hautabideak eremu honetan proposatzen dituen garapenak paisaiarengan eragin nabarmena izan lezakete. Alde batetik, nahiz eta eremuaren paisaia gaur egun oso kaltetua egon bertan eman diren meatzaritza-erabileren eraginez, '0' hautabideak proposatzen duen garapenak ez luke bertako paisaiaren berreskurapen oso bat ahalbidetuko. Garapen hauek aurrera eramateko beharrezkoak lirateke zenbait betelan egitea, eremuaren erliebea aldatuz. Beste aldetik, indarrean dagoen HAPO-k mendi hegalarren ingurumen-berreskurapena aurreikusten du, honek gaur egun eremu honek duen begi-inpaktua desagertu eta bere paisaiaren eraberritzea ahalbidetuko lukeelarik.

Orokorrean, harrobiak gaur egun azaltzen duen paisaiaren gaineko eraginaren erabateko errekuperatzea lortzeko, beharrezkoa litzateke eremu guztiaren ingurumen- eta paisaia-berreskurapen proiektu bat abian jartzea. Gaur egun begi-inpaktu nagusia sortzen duen eremua izaki, gune honen berreskurapena lehentasunezkoztat hartzen da AE.58 'San Josepe Harrobia' eremuaren baitan. Honekin guztiarekin, gaur egun eremuak aurkezten duen paisaia kontuan hartuta, '0' hautabideak proposatzen duen garapenak paisaiaren gainean eragin positibo bat izango lukeela pentsatzen da.

6. Ingurumen-arriskuak

- a. *Akuiferoen urrakortasuna*: Bi eremuak akuiferoek kutsadurarekiko urrakortasun handia azaltzen duten guneetan daude. 'Intxausti' gunearen kasuan, egun hiritartua dagoen eremu bat izaki, ez da uste 'O' hautabideak eremu honetan proposatzen dituen garapenek eraginik izango luketenik akuiferoengan. Dena den, obra fasean beharrezko neurri babesleak hartu beharko dira, eragin hau ekidite aldera.

AE.58 'San Josepe harrobia' eremuaren kasuan egoera zertxobait aldatzen da. Egundoladurarik ez duen eremu bat denez, bertako garapenek akuiferoengan eragin dezakete, bereziki obra fasean. 'O' hautabideak proposatzen dituen jarduera ekonomikotarako garapenak aurrera eramateko beharrezkoak diren eraikitze-lanek hartu lezaketen tamaina aurreikusirik, ezin da baztertu hauek akuiferoen kalitatearengan eraginik izatea.

- b. *Zarata*: Aurreko atalean azaldu den bezala, datuak ikusirik ezin da baztertu 'Intxausti' esparruak egoera akustiko desegoki bat azaltzea. 'O' hautabideak bertan proposaturiko garapenak jarduera ekonomikoei dagozkienak izanik, garapen berri hautentzat indarrean dagoen legediak²¹ ezartzen dituen baliozko kalitate akustikorako helburuak lasaiagoak dira etxebizitza berriei dagozkienak baino, beraz berrikuspenaren hurrengo faseetan, edota plangintzaren garapenean, eremuak egundoladurarik ez duen egoera akustikoa eta garapen berri hauek aipatutako kalitate akustikorako helburuak gaitzetzeko duten arriskua zehaztu beharko dira.

'San Josepe Harrobia' ere GI-627 eta AP-1 errepideek igortzen duten zarataren eraginpean egon daiteke, nahiz eta eskuragarri dauden datuekin zaila den eremu honek izango duen egoera akustikoa aurreikustea. Edonola ere, HAPOn berrikuspenean eremua aisialdi-erabileretara bideratzea erabakiko balitz, lehenago aipatu den legediak ez ditu kalitate akustikorako helburu zehatzik ezartzen aisialdi-gune eta espazio libreei dagokienez.

Honela, plangintzaren fase honetan ezin da 'O' hautabideak eremu honetan proposatzen dituen garapenek izango luketen egoera akustikoa era egokian zehaztu. Dena den, ezin da baztertu garapen-eremu hauek guneraren batean aipatutako kalitate akustikorako helburuak gaitzetzea (bereziki, GI-627 eta AP-1 errepideetatik hurbilen geratzen diren eremuetan). Bestalde, hautabide honek mendi magalean aurreikusten duen gune-libreak berriz bateragarria dirudi eremuak izan ditzakeen zarata arazoekin, izan ere legediak ez ditu ezartzen helburu akustikorik mota honetako erabileretako.

- c. *Uholde-arriskua*: Lehenago esan bezala, arrisku hau benetan baldintzatzailea izan daiteke aurreikusten diren garapenentzat 10 urteko birgertatze-aldirako definituriko eremu urperagarriei dagokienez, gune hauek eraikuntza-jarduketak debekatuak baitaude. Bestalde, 100 urteko birgertatze-aldia duten eremu urperagarriek ere zenbait muga dituzte lurzoruen erabilera aldetik.

'Intxausti' eremuan 'O' hautabideak jarduera ekonomikotarako garapenentzat proposatzen duen lurzoruen kokalekua kontuan harturik, horietako batzuk 10 urteko birgertatze-aldiko eremu urperagarrian daudela ikusten da, beraz ezin da baztertu ingurumen-arrisku honen ondorioz eragin bat ematea. Honetaz gain, beste garapen asko 100 urteari dagokion eremu urperagarrien gainean daude, eta hau ere kontuan hartzeko egoera bat da. Nahiz eta ingurumen-arrisku hau era egokian baloratu ahal izateko beharrezkoa den eremuaren antolamendu zehatza ezagutzea, plangintzaren fase honetan ezin dira baztertu uholde-arriskua dela eta eremuan aintzat hartzeko ingurumen-eraginak izatea.

Aitzitik, AE.58 'San Josepe Harrobia' eremuak, uholde-arriskurik azaltzen ez duenez, ez du mota honetako ingurumen-eraginik jasango.

- d. *Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruek*: Lehenago azaldu den moduan, IHOBek egindako 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioaren' arabera, AE.56 'Intxausti' eremuaren 0,82 ha. mota honetako lurzoruekin azaltzen dira.

Legeak ezartzen duena bete ezean, AE.56 'Intxausti' eremuan aurreikusitako garapenek aintzat hartzeko ingurumen-eragina izan lezakete, ezin baita baztertu kutsatuta egon daitezkeen lurren indusketa behar

²¹ Urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan, Azaroaren 17ko 37/2003 Legea, Zaratar buruzkoa, hain zuzen ere zonifikazio akustikoaren, kalitate-helburuen eta emisio akustikoen eremuetan geratzen duenean.

izatea, eta honek hondakin arriskutsuen sorrera ekarriko luke, lurzoru hauek era berezian kudeatu beharko bailirateke. Edonola ere, eremu honen jarduera ekonomikotarako garapenak aurrera eramaten badira, bertan proposatzen diren jarduketa guztiak 1/2005 legea, otsailaren 4koa, lurzoria ez kutsatzeko eta kutsatuta garbitzeko ezartzen duenaren menpe egongo dira.

7. Kultur ondarearen gaineko eragina

AE.58 'San Josepe Harrobia' eremuak arkeologia ondarearen zenbait elementu azaltzen ditu bere mugen barnean. '0' hautabideak eremu honetan proposatzen dituen garapenen kokapena kontuan harturik, eta garapen hauek aurrera eramateko beharko liriatekeen obren ezaugarriak kontuan harturik, ezin da baztertu elementu hauen gaineko eragina, nahiz eta hau beti ere antolamendu zehatzaren arabera geratuko den. Edonola ere, kultur ondarearen gaineko eragina berrikuspenaren hurrengo faseetan zehaztu beharreko alderdi bat izango da, eragina izateko arriskuak behar diren neurri babesleak hartzea eskatzen baitu.

8. Mugikortasunaren hazkundera eta garraio bide iraunkorren erabilera

'Intxausti' gunea Arrasateko hirigunean kokatzen da, egun oinezko, bizikleta eta garraio publiko bidezko mugikortasuna eta irisgarritasuna ziurtatuak dituen eremua delarik. HAPO-ak gainera eremu hau bizikleta-bide berri batek zeharkatuko duela aurreikusten du. Beraz, eremuak egokia dirudi bertan ematen diren garapenei lotutako joan-etorriak garraio-mota iraunkorrekin egitea ahalbidetzeko.

Beste aldetik, 'San Josepe harrobia' eremuak mugikortasun eta irisgarritasun baldintza okerragoak ditu gaur egun. '0' hautabideak proposatzen dituen jarduera ekonomikorako eremu berriei loturiko joan-etorriak, gaur gaurkoz, auto pribatuan egin beharko liriateke. Dena den, horrelako garapen-mota bat udalerriko autobus zerbitzu publikoaren hobekuntza batekin batera emango balitz, ez da uste eremuak arazo berezirik aurkezten duenik bertara garraio publikoa iritsi ahal izateko.

Bestalde, eremu honetan proposatzen den aisialdirako gunek sortuko lituzkeen joan-etorriak izaera erabat desberdinekoak izango liriateke. Izan ere, aisialdiari lotutako mugikortasunak beste ezaugarri eta baldintza batzuk aurkezten ditu, hartara joan-etorri hauek errazago egiten direlarik oinez edo bizikletaz. Eremu honen garapenak kontuan hartzen badu oinez eta bizikleta bidezko irisgarritasuna eremuaren antolamendua proposatzerako garaian, ez da zaila ikusten eremu honetara garraio mota iraunkorrekin iristea, are gehiago hirigunetik gertu kokatzen den eremu bat dela kontuan harturik.

Hautabideen hasierako ingurumen-balorazioa

Orain arte esandakoaren arabera, ondoko taulan aintzat hartu diren hautabide bakoitzaren kasuan ingurumenaren gaineko eragin hauek izan dezaketen tamaina jasotzen da, hautabideen ingurumen-eraginaren balorazio alderatu bat izan daitekeena.

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAK		HAUTABIDEA: INTXAUSTI-SAN JOSEPE HARROBIA	
		AE.56 'Intxausti'	AE.58 'San Josepe Harrobia'
Lurzoruaren okupazioa		Ba	Ba
Lurrazaleko ur-ibilguak		Na	-
Interesa duen landaretzarengan eragina		Ba	Ba
Fauna mehatxatuarengan eragina		Ba	Ba
Paisaiaren gaineko eragina		Ba	+
Ingurumen-arriskuak	Akuiferoen urrakortasuna	Ba	Ba
	Zarata	Na	Na
	Uholde-arriskua	Na	-
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua	Na	-
Mugikortasunaren hazkundera eta garraio bide iraunkorren erabilera		Ba	Ba

Taula. Intxausti-San Josepe inguruan aintzat hartu diren alternatiben ingurumen-balorazioa.

4.13. '12. ALDAIAZPI'

4.13.1. Hautabideen deskribapena

Etxebizitza finkatuak dituzten eremuak diren arren, etxebizitza hauek duela 40 urte inguru egin ziren eta auzoek hiritartze eta irisgarritasun baldintza nahiko kaskarrak dituzte gaur egun, Aurrerapen Dokumentuak epe ertain-luzera eremu hauetan berreskuratze-lanak egiteko beharra nabarmentzen duelarik.

Kasu honetan Aurrerapeneko fasean esparru hauen inguruko eztabaida mahai gainean jartzeko asmoa dago, nahiz eta esku-harmen hauek hobeto aztertu beharreko operazioak izango diren ezinbestean. Aurrerapen agirian jasotako proposamenean Aldaiazpi kaleak Gipuzkoa etorbidearekin bat egiten du. Horrela, etxebizitzaren irisgarritasun baldintzak hobetu eta Gipuzkoa etorbidearen kale-profila samurtuko litzateke. Honek, besteak beste, oinezkoentzako etorbidearen erabilera atseginagoa bihurtuko luke, eta hiri erdia eta goiko auzoen arteko harremana errazten lagunduko luke.

Dena den, luzera begirako proposamena da, gune horretarako etorkizunean lurzoru publikoaren ikuspegitik antolamendua hobetzeko asmoz.

'0' hautabidea indarrean dagoen HAPO-ak eremu honetarako ezartzen dituen parametro eta helburuak honakoak dira:

- AE. 77 'Aldaiazpi':

- Hirilurra (0,8 ha).
- Erabilera nagusia: etxebizitza.
- Egungo eraikinak finkatzen dira.
- Ibilgailuen iraganbidea erraztuko duen hiritartze mailako lanak egitea.

A.12.1. Aldaiazpi. '0' alternatiba: indarrean dagoen HAPO planoan Egitamu Orokorrek esparru honetarako aurreikusitako antolamendua azaltzen da.

Kasu honetan Aurrerapen Dokumentuak eremu honetarako proposamena luzera begirako antolamendu bati dagokio, eztabaida zabaltzerakoan oinarritzat hartu dadin. Kontuan hartuta eraberritze-operazio honek hartu dezaken tamaina, ez da espero HAPO-ren Berrikuspenean zehar proposamen zehatzik lortzea eremu honen inguruan, soilik hausnarketa bat egiteko baliatu nahi da berrikuspene-prozesu hau.

Testuinguru honetan, ez da aurreikusten HAPO-ren berrikuspenean 'Aldaiazpi' eremuarentzako antolamendu-proposamen zehatzik egingo denik, beraz ez da beharrezkoa ikusten hautabideen ingurumen-balorazio bat egitea atal honetan.

Edonola ere, esparru honen inguruan zabaltzea daitekeen eztabaidan bertan azaltzen diren ingurumen-baldintzatzaile nagusiak zeintzuk diren ezagutzea baliagarria izan daitekeela pentsatu da, sor daitezkeen proposamen ezberdinek ingurumen-irizpidea kontutan izan dezaten.

4.13.2. Ingurumen Baldintzatzaileak

- Orografia eta maldak: Aztertutako eremuaren erdia baino gehiago %20 baina malda handiagoko mazeletan dago finkatuta, eta horietatik %30 inguru %30 baino gehiagoko aldapetan. Beraz, nabarmena da orografiak esparru hauetan aurreikusten diren zenbait jarduketara hein batean baldintza ditzakeela.
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: erabat hiritartutako esparrua izanik, lurzoruak ez du ahalmen agrologikorik.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Ez da ur-ibilgu iraunkorrik antzematen azterketa-eremuan.
- Landaretza: Gaur egun erabat hiritartutako esparru honek ez du landaretza-estaldurarik mantentzen.

- Fauna: Aztertutako esparrua, bere osotasunean, baso-igel iberiarra (*Rana iberica*) espezie mehatxatuarentzat mugaturiko 'Lehentasuneko banaketa-eremuan' sartzen da.
- Natura-gune babestuak: Esparru hau ez da udalerrian agertzen diren naturaguneen baitan kokatzen.
- Paisaia: Paisaia erabat hiritarra duen esparru honek gaur egun azaltzen dituen ezaugarrien arabera, ezin da esan paisaiaren kalitatea handia denik. Edonola ere, hiri-ingurune bat izateak, eremu honetan eman daitezkeen jarduketak inguruneke paisaian erraz egokitzea lagunduko du. Bestalde, azterketa-eremuaren ikusgaitasuna altua bezala baloratu daiteke; esparrua ez bada ere erabat ikusgaiak bigarren mailako errepide-saretik eta udalerriko gailur nagusi zein nekazal-auzoetatik, erabat ikusgai da errepide sare-nagusitik eta Arrasateko hirigunearen erdialdetik. Honela, bi ezaugarri hauek kontuan harturik, aztertutako eremu honen urrakortasuna ertaina bezala har daiteke.
- Ingurumen-arriskuak
 - *Akuiferoen urrakortasuna*: Aldaiazpi inguruaren 0,5 ha (esparruaren azaleraren %60 inguru) akuiferoen urrakortasun handia duen gune batean kokatzen da.
 - *Zarata*: AE.77 'Aldaiazpi' eremuak Gipuzkoa Etorbidearekin mugatzen du. Dagoen informazioaren arabera, Gipuzkoa Etorbidearen igorpen-maila 60-65 dB(A) bitartean azpitik kokatzen da gauerako (LE10m, gaua) eta 70-75 dB(A) bitartean egun guztirako (LE10m, DEN).
 - *Uholde-arriskua*: Aramaio ibaiari lotutako urperagarritasun arriskuak AE.77 'Aldaiazpi' esparruari eragiten dio, 100 eta 500 urte bitarteko birgertatze-aldiari dagokionez. Balizko arriskuak oso txikiak dira eta esparruaren zati txiki bati besterik ez lioke eragingo uholdeak.
 - *Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua*., IHOBek eginiko 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioaren' arabera esparru honetan ez da kutsatutako lurzorurik identifikatzen.
 - *Higadura jasateko arriskuak*: Eremuak egun azaltzen duen egoera eta erliebe kontutan hartuta ez dira mota honetako arriskurik espero.
- Kultur ondarea: ez da kultur ondarearen elementurik identifikatu esparru honetan.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Aldaiazpi esparrua hirigunetik gertu kokatzen denez, honek hango biztanleei lotutako garraio beharra gutxitu egiten du eta bideragarriagoa egiten du eremu hauen lotura Arrasateko hirigunearekin garraio-mota jasangarriagoen bidez, hala nola, oinez edo bizikletan.

Esparruak garraio publikoko zerbitzua du, herriko autobusaren 1. lineak Obenerreka, Santa Marina, Galizia eta Legarre geltokiak baititu inguruan; 2. lineak berriz Joan Bengoa, Santa Teresa, Agerre, Obenerreka eta Legarre geltokiak dituelarik. Monterron-Gesalibar motorgabeko ibilbidea ere gertu dago esparru hauetatik, Santamaina eta Aldaiazpi artean igarotzen baita.

Arazorik izatekotan bi aipatu beharko lirateke. Alde batetik, goialdean kokatuta dauden zenbait zonatarako, garraio publiko bertikalak oinezkoei eta bizikletan mugitzen direnei lagunduko liekeela koten diferentzia gaintzen. Bestaldetik, eta indarrean dagoen HAPO-ak azpimarratzen duen bezala motordun ibilgailuak arazoak dituzte inguru hauetan, beraien igarabideak direla edota aparkalekuen faltagatik.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak

Aztertutako ingurumen-eragile ezberdinek azterketa-eremu ezberdinetan gaur egun duten egoera hurrengo taulan jasotzen da era laburrean.

Eragile bakoitzaren kasuan, berau eremu bakoitzean baldintzatzaile izango den edo ez adierazten da (bai zentzu negatiboan eta baita positiboan ere), baita, hala bada, zein mailatan baldintzatu edo mugatuko dituen eremu horretarako aurrekusten diren jarduketak (kolore berdea: maila baxuan, kolore laranja: maila ertainean eta kolore gorria: maila altuan):

INGURUMEN-ERAGILEAK ETA BALDINTZATZAILEAK		HAUTABIDEA: ALDAIAZPI		
		AE. 77 'Aldiaizpi'		
MALDAK (>%50ko maldak)	Balioa (Ha)		0	
	Baldintzatzailea		Ez	
AHALMEN AGROLOGIKO ALTUKO LURRAK	Balioa (Ha)		0	
	Baldintzatzailea		Ez	
UR-IBILGUAK	Egoera*		Ez	
	Baldintzatzailea		Ez	
INTERESA DUEN LANDAREDIA	Balioa (Ha)		0	
	Baldintzatzailea		Ez	
FAUNA MEHATXATUA	Egoera*		Bai	
	Baldintzatzailea		Bai	
NATURGUNE BABESTUAK	Egoera*		Ez	
	Baldintzatzailea		Ez	
PAISAIA	Balorazioa		Baxua	
	Baldintzatzailea		Ez	
INGURUMEN-ARRISKUAK	Akuiferoen urrakortasuna	Balioa (Ha)	0,49	
		Baldintzatzailea	Bai	
	Zarata	Egoera		Ona
		Baldintzatzailea		Ez
	Uholde-arriskua	Balioa (Ha)		0
		Baldintzatzailea		Ez
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua	Balioa (Ha)		0
		Baldintzatzailea		Ez
	Higadura-arriskua	Balioa (Ha)		0
		Baldintzatzailea		Ez
KULTUR ONDAREA	Egoera*		Ez	
	Baldintzatzailea		Ez	
MUGIKORTASUNA	Egoera		A/B/O	
	Baldintzatzailea		Ez	

A: Autobusa; B: Bizikleta bidezko lotura; O: Oinezko lotura.
* Kasu hauetan egoeran dagokion ingurumen-eragileraz azterketa-eremuan badagoen edo ez adierazten da.

Taula: Berreskuratze-operazioetarako Aldiaizpi eremuaren ingurumen-baldintzatzaile nagusiak.

A.12.2. Aldiaizpi. Ingurumen baldintzatzaileak planoan esparru honetako ingurumen-baldintzatzaile nagusiak azaltzen dira.

4.14. '13. ETXE TXIKIAK'

4.14.1. Hautabideen deskribapena

HAPO-ren berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak bi helburu nagusi ezartzen ditu esparru honetarako: alde batetik industria iraultza garaiko adibide den langile etxe-multoz ahalik eta gehien finkatu eta gordetzea, bizi kalitatea hobetearren eranskinak eraikitzea ahalbidetuz, beti ere modu mugatuan eta multzoaren berezko itxura aldatu gabe; eta beste aldetik Zerrajera ingurua eta hiri-erdiaren arteko komunikazioa hobetzea.

Kasu honetan, '0' hautabidea indarrean dagoen HAPO-k esparru honetarako ezartzen duen antolamenduari dagokio:

- AE.78 'Etxe Txikiak'

- Hirilurra (1,14 Ha)
- Erabilera nagusia: Etxebizitza
- Hirigintza helburuak:
 - Iraultza industrialeko adibide den langile etxeen-multzoa gordetzea
 - Multzo hori osatzen duten etxe guztiak finkatzea
 - Aipatu etxeen berezko tipologia gorde eta eraberritzea, atxekitutako gorputz ezegokiak eraitsiz eta eranskinak era antolatu batean jasotzeko aukera emanaz.

Aurrerapen Dokumentuak '0' hautabide hau neurri batean besterik ez du barneratzen, izan ere Zerrajera inguruaren eta hiri-erdiaren artean esparru honetan kokatutako etxebizitza kopuru txikiaren eragingo dion errepide-lotura bat egitea proposatzen du, Nafarroa etorbidea eta Maalako biribilgunea era zuzenean lotuko dituen. Aurrerapen Dokumentu honek hasiera batean esparru honetan proposaturiko antolamendua A hautabidea bezala deitu da atal honetan garatzen den hautabideen ingurumen-azterketan.

A.13.1. Etxe Txikiak. 'A' alternatiba: Aurrerapenaren proposamena planoan esparru honetarako Aurrerapen dokumentuak aurreikusitako antolamendua azaltzen da.

4.14.2. Ingurumen Baldintzatzaileak

- Orografia eta maldak: Azterketa-eremua erabat laua da %0-10 bitarteko maldak azaltzen dituelarik.
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: erabat hiritartutako esparruak izanik, lurzoruak ez du ahalmen agrologikorik mantentzen. Edonola ere, esparruko eraikin ia guztien alboan baratza txiki batzuk daude gaur egun.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Esparrua Aramaio ibaiak mugatzen du mendebaldetik. z da ur-ibilgu iraunkorrik antzematen azterketa-eremuan. EAEko ibai eta erreken ertzak antolatzeke LAP-ak Aramaio ibaia I. kategoria hidraulikoan sailkatzen du azterketa-eremuan, 10 eta 50 km² bitarteko arroari dagokiona eta ibaia tarte honetan erabat bideratua dagoela aipatzen du.
- Landaretza: Gaur egun erabat hiritartutako ingurua izanik ez du ia landaretza-estaldurarik mantentzen. Honela, eremu honetan antzematen den landaretza bakarria etxebizitzaren inguruan kokatzen diren lorategi eta baratzei dagokie. Nabarmenezkoa da Aramaio ibaiak, erabat bideratua dagoenez, ez duela ia landaretzarik mantentzen bere ertzetan azterketa-eremua zeharkatzen duen tartean.
- Fauna: AE. 78 'Etxe Txikiak' esparrua, bere osotasunean, baso-igel iberiarra (*Rana iberica*) espezie mehatxatuarentzat mugaturiko 'Lehentasuneko banaketa-eremua'ren baitan geratzen da. Horretaz gain, Aramaio ibaiak bisoi europarrarentzat (Mustela lutreola) mugaturiko 'Lehentasuneko banaketa-eremua'ren zati da azterketa-eremua zeharkatzen duen tartean.
- Natura-gune babestuak: Azterketa-esparrua ez da udalerrian agertzen diren naturaguneen baitan geratzen.

- Paisaia: Eremuak paisaia erabat hiritarra azaltzen du gaur egun. Hala ere, 'Etxe Txikiak' eremua Arrasateko herri-gunearen baitan paisaia nahiko berezia azaltzen duen eremu bat da: hau da, eremua industri-iraultza garaiko ondare arkitektonikoa da, hain zuzen, 'Ciudad-jardin' deritzon mugimenduaren adierazle argia. Bai indarrean dagoen HAPO-k baita Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak paisaia hau mantentzeak duen interesa adierazten dute. Beraz, eremu honen paisaia hiritarra, nahiz eta oso kalitate altukoa ez izan, mantendu eta babestu beharreko paisaia bat da Arrasateko hirigunearen baitan.

Edonola ere, hiri-ingurune bat izateak, eremu honetan eman daitezkeen jarduketak inguruneko paisaian erraz egokitzea lagunduko du. Bestalde, azterketa-eremuaren ikusgaitasuna oso altua bezala baloratu daiteke; esparrua erabat ikusgai da errepide-sare nagusitik, bigarren mailako errepide-saretik, Arrasateko herrigunetik eta udalerriko gailur nagusi zein nekazal-auzoetatik. Orain arte aipatutako ezaugarriak kontuan harturik, aztertutako eremu honen urrakortasuna ertaina dela esan daiteke.

- Ingurumen-arriskuak
 - *Akuiferoen urrakortasuna*: AE.78 'Etxe Txikiak' esparru osoa akuiferoen urrakortasun altua deun gune batean kokatzen da.
 - *Zarata*: 'Etxe Txikiak' esparruak jasaten dituen zarata-iturri nagusiak Gipuzkoa Etorbidea eta Maala kalea izango lirarteke. Dagoen informazioaren arabera, Gipuzkoa Etorbidearen igorpen-maila 60-65 dB(A) bitartean kokatzen da gauerako (LE10m, *gaua*) eta 70-75 dB(A) bitartean egun guztirako (LE10m, DEN). Maala kalearen igorpen-maila berriz 50-55 dB(A) bitartean kokatzen da gauerako (LE10m, *gaua*) eta egun guztirako (LE10m, DEN). Honekin guztiarekin, eremu honen egungo egoera akustikoa nahiko ona dela esan daiteke.
 - *Uholde-arriskua*: Azterketa-eremu ia osoa Aramaio ibaiaren 100 urteko birgertatze-aldirako eremu urperagarriaren baitan geratzen da, ur-ibilguarekin muga egiten duten gune batzuk 10 urteko birgertatze-aldirako eremu urperagarrian geratzen diren bitartean.
 - *Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua*:, IHOBEk eginiko 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioak' eta baita indarrean dagoen HAPO-k ez dute mota honetako lurzorurik jasotzen AE.78 'Etxe Txikiak' esparruan.
 - *Higadura jasateko arriskuak*: Esparru honek gaur egun azaltzen duen egoera eta erliebea kontutan izanda, ez da espero higadura dela-eta arazorik izango direnik bertan proposatzen diren jarduketak garatzerakoan.
- Kultur ondarea: Indarrean dagoen HAPO-k jasotzen dituen kultur ondarearen elementu bat AE.78 'Etxe Txikiak' eremuaren iparraldean kokatzen da:
 - o Arkeologia elementuak: Maalako Baseliza.

Bestalde, "Etxe Txikiak" eremuaren zati handi bat udal babeserako arkitektura elementu bezala jasotzen da HAPOren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuan.

- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Hirigunetik gertu kokatzen den esparrua denez, hango biztanleei lotutako garraio beharra gutxitu egiten du eta bideragarriagoa egiten du eremu honen lotura Arrasateko hirigunearekin garraio-mota jasangarriagoen bidez, hala nola, oinez edo bizikletan.

Esparruak garraio publikoko zerbitzua du, herriko autobusaren 1. eta 2. Lineek Maala eta Elma geltokiak baitituzte inguruan. Bestalde, eremu honen hegoaldean Indarrean dagoen HAPO-k proposatzen duen motorgabeko hegoaldeko ibilbidea kokatzen da. Honetaz gain, indrrean dagoen HAPO-k definituriko motorgabeko ibilbideak Nafarroan Etorbidean bizikleta-bide bat proposatzen du, eremu honetatik nahiko urbil.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak

Hurrengo taulan aztertutako ingurumen-eragile ezberdinek AE.78 'Etxe Txikiak' eremuan gaur egun azaltzen duten egoera jasotzen da ere laburrean.

Eragile bakoitzaren kasuan, berau eremu honetan baldintzatzaile izango den edo ez adierazten da (bai zentzu negatiboan eta baita positiboan ere), baita, hala bada, zein mailatan baldintzatu edo mugatuko dituen eremu

horretarako aurreikusten diren jarduketak (kolore berdea: maila baxuan, kolore laranja: maila ertainean eta kolore gorria: maila altuan):

INGURUMEN-ERAGILEAK ETA BALDINTZATZAILEAK		HAUTABIDEA: ETXE-TXIKIAK		
		AE.78 'Etxe Txikiak'		
MALDAK (>%50ko maldak)	Balioa (Ha)		0	
	Baldintzatzailea		Ez	
AHALMEN AGROLOGIKO ALTUKO LURRAK	Balioa (Ha)		0	
	Baldintzatzailea		Ez	
UR-IBILGUAK	Egoera*		Bai	
	Baldintzatzailea		Bai	
INTERESA DUEN LANDAREDIA	Balioa (Ha)		0	
	Baldintzatzailea		Ez	
FAUNA MEHATXATUA	Egoera*		Bai	
	Baldintzatzailea		Bai	
NATURA GUNE BABESTUAK	Egoera*		Ez	
	Baldintzatzailea		Ez	
PAISAIA	Balorazioa		Baxua	
	Baldintzatzailea		Bai	
INGURUMEN-ARRISKUAK	Akuiferoen urrakortasuna	Balioa (Ha)	1,14 Ha	
		Baldintzatzailea	Bai	
	Zarata	Egoera		Ona
		Baldintzatzailea		Ez
	Uholde-arriskua	Balioa (Ha)		1,14
		Baldintzatzailea		Bai
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua	Balioa (Ha)		0
		Baldintzatzailea		Ez
	Higadura-arriskua	Balioa (Ha)		0
		Baldintzatzailea		Ez
KULTUR ONDAREA	Egoera*		Bai	
	Baldintzatzailea		Bai	
MUGIKORTASUNA	Egoera		A/B/O	
	Baldintzatzailea		Ez	

A: Autobusa; B: Bizikleta bidezko lotura; O: Oinezko lotura.
* Kasu hauetan egoeran dagokion ingurumen-eragilerak azterketa-eremuan badagoen edo ez adierazten da.

Taula: 'Etxe Txikiak' inguruak azaltzen dituen ingurumen-baldintzatzaile nagusiak.

A.13.2.Etxe Txikiak. Ingurumen baldintzatzaileak planoan esparru honetako ingurumen-baldintzatzaile nagusiak azaltzen dira.

4.14.3. Ingurumen-Balorazioa

Orain arte AE.78 'Etxe Txikiak' eremuaren inguruan proposatu diren hautabide ezberdinak eta esparru honek azaltzen dituen ingurumen-baldintzatzaile nagusiak aztertu dira. Informazio honekin, esparru honen antolamenduaren inguruan proposatu diren hautabide ezberdinen ingurumen-balorazio bat egingo da, hautabide hauetako bakoitzak izan litzakeen ingurumenaren gaineko eragin nagusietan oinarrituz horretarako.

Kasu honetan, '0' hautabideak –indarrean dagoen HAPO- ez du jarduketa aipagarrikerik aurreikusten eremu honetan, egun bertan dauden etxebizitzak finkatu eta hauei loturiko eranskinak eraikitzea ahalbidetuz. '0' hautabideak, ondorioz, esparruak gaur egun duen egoera bere horretan mantentzea suposatuko luke. Gaur egun ez da ingurumenaren gaineko eragin aipagarrikerik antzeman eremu honetan, beraz '0' hautabideak beste edozein proposamen garatzeko beharrezkoak liratekeen eraikitze-lanak ekiditea ahalbidetuko luke.

Aurrerapen Dokumentuak eremu honetarako proposatzen duen antolamenduak esparru honetako bi edo hiru etxebizitza desagertzea ekarriko luke, Maalako biribilgunea eta Nafarroa etorbidea zuzenean lotuko lituzkeen errepidea eraiki ahal izateko.

Orokorrean, errepide-lotura honen ingurumenaren gaineko eragin nagusiak obra fasean elkartuko dira, nahiz eta errepide hau martxan jartzean ere tamaina txikiagoko zenbait ingurumen-eragin ere aurreikusten diren. 'O' hautabideak, aldiz, jarduketarik proposatzen ez duenez, ez ditu obra hauei loturiko ingurumen-eraginik sortuko, ezta jarduketa honekin lortu nahi diren hiri-ingurumenaren hobekuntzarik ere.

HAPO-ren berrikuspenaren Aurrerapen fase honetan ingurumen-eraginen eta lortu daitezkeen onuren inguruan hausnartu eta A hautabideak proposatzen dituen jarduketak aurrera eramateak merezi ote duen edo ez eztabaidatzea komenigarritzat jotzen da.

Jarraian aintzat hartutako hautabide bakoitzak ingurumenaren gainean izan ditzakeen eraginak aztertzen dira, AE. 78 'Etxe Txikiak' esparruaren antolamenduaren inguruan piztu daitezkeen eztabaidan irizpide bezala erabili ahal izateko.

1. Lurzoruaren okupazioa

Indarrean dagoen HAPO-k zehaztutako AE.78 'Etxe Txikiak' esparruak 1,14 Ha-ko azalera du, egun hirilur bezala sailkatua. 'O' hautabideak proposatzen duen antolamenduak bertako etxebizitzak finkatu eta, gehienera, eraikin hauei loturiko eranskinak eraikitzea ahalbidetzen du.

A hautabideak proposatzen duen errepide-loturak biribilgune berri bat aurreikusten du esparru honen ipar-ekialdeko muturrean, horretarako egun bertan dauden bi edo hiru etxebizitza-eraikin desagerraraziz. Kasu honetan proposamen honek esparru honek egun duen lurzoruaren erabileran aldaketa bat ekarriko luke, etxebizitzarako erabileratik bide-azpiegituren erabilerara pasako litzatekeelarik errepide berriak eragindako eremua. Gauzak horrela, egun hirilur bezala sailkatutako lurzoruaren zati bat Sistema Orokorra bezala sailkatuta geratuko litzateke.

Esan bezala A hautabideak proposaturiko errepide-loturak egun hirilur bezala sailkaturiko gunek bat eragingo luke eta, funtsean, lurzoruaren erabileran aldaketa bat besterik ez da proposatzen. Honekin guztiarekin, A hautabideak proposatzen duen antolamenduak ez luke egun lurzoru hiritarrezinaren edo landa-lurraren okupazio berririk ekarriko, honela ez lukeelarik udalerriko lurzoruaren okupazio-mailan hazkunderik sortuko.

Ondorioz, aztertutako bi hautabideek lurzoruaren okupazioarengan eraginik izango ez luketela ondorioztatu daiteke.

2. Lurzoruaren erabilera iraunkorra

Indarrean dagoen HAPO-k trinkotasun txikiko esparru hau finkatu egiten du egungo egoeretan eta A hautabideak errepide-lotura berri bat sortzeko bertako bi edo hiru eraikin desagertzea proposatzen du.

Nahiz eta eremu honek duen trinkotasuna egun indarrean dagoen hirigintza-ereduarekin bat ez etorri, 'O' hautabideak ez du dentsitate txikiko hirigintza-garapen berririk sustatzen.

Bestalde, A hautabideak errepide-lotura berri bat sortzeko egun hiritartua dagoen lurzoruaren erabiltzea proposatzen du, egun artifizialdu gabe dagoen landa-lurzoru berria erabiltzea ekidinez. Irizpide hau bat dator EAE-n harturiko ingurumen-irizpide estrategikoekin, beraz ez da espero A hautabideak proposatzen duen antolamenduak lurzoruaren erabilera ez-iraunkorrik sustatuko lukeenik.

3. Ur-ibilguengan eragina

Aramaio ibaiak 'Etxe Txikiak' esparruarekin mugatzen du bere ekialdean, ur-ibilguak egun egoera nahiko desagokia azaltzen duelarik. Bai 'O' hautabideak baita 'A' hautabideak ere ez dute ibaiaren ibilguaren egoera hobetzeko proposamen zehatzik jasotzen, beraz ez dira eragin positiborik espero Aramaio ibaiarengan.

Beste aldetik, A hautabideak proposatzen duen errepide-lotura eraikitzeko lanek Aramaio ibaiaren uraren kalitatearengan eragina izan dezakete, emari ezberdinak direla eta. Aurrerapen Dokumentuan aurkezten duen hasierako antolamendua aintzat hartuta, ez dira eragin nabarmenik espero obra fasean, biribilgune berria eta errepide berria ur-ibilgutik nahiko aldentuta kokatzen baitira. Edonola ere, obra fasean egongo den

makineriaren joan-etorriak eta eraikuntza-lanek berak Aramaioren ur-kalitatea gutxitu dezakete, aldi baterako eragin bat izango den arren.

4. Interesa duen landaretzarengan eragina

Lehen aipatu den moduan AE.78 'Etxe Txikiak' esparruak ez du interesa duen landaretza mantentzen duen eremurik azaltzen gaur egun, landaretza estaldura bakarra bertako etxebizitzaren inguruan dauden baratza eta lorategiak direlarik.

Indarrean dagoen HAPO-k esparrua egungo egoeran mantentzea proposatzen duenez, ez dira aipatu landaretza eragin dezaketen jarduketarik aurreikusten.

Aurrerapen Dokumentuak eremu honetan proposatzen duen errepide-lotura berriak berriz eragina izango du baratze eta lorategi hauengan. Zehazki, inguru honetan aurreikusten den biribilgune berria eraikitzeko esparruko ipar-ekialdeko muturreko bi edo hiru etxebizitza bota beharko lirateke, berauen lorategi edo baratza ere desagertu egingo liratekeelarik.

Hala ere, ez da uste A hautabideak AE.78 'Etxe Txiki' esparruan proposatzen dituen jarduketek landaretzarengan eragin nabarmenik izango luketenik.

5. Fauna mehatxatuarengan eragina

Esparrua baso-igel iberiarrarentzako (*Rana iberica*) mugatutako 'Lehentasuneko banaketa-eremua'-ren zati da eta Aramaio ibaia ere bisoi europarrarentzako (Mustela lutreola) zehazturiko 'Lehentasuneko banaketa eremua'-ren zati da AE.78 'Etxe Txikiak' esparrua zeharkatzen duen tartean, nahiz eta ez den espero espezie mehatxatu hauek eremu honetan aurkitzerik. Eragile hau ingurumen-baldintzatzaile bat den arren inguru honetan proposatu daitezkeen garapen ezberdinentzat, ez dira fauna mehatxatuarengan aintzat hartzeko eraginik espero A hautabideak eremu honetan proposatzen dituen jarduketekin.

6. Paisaiaren gaineko eragina

Lehen aipatu den moduan, AE.78 'Etxe Txikiak' esparruan paisaia erabat hiritarra mantentzen du, berez kalitate handikoa ez dena, baina herrigunean berezia dena, eremuaren ezaugarri hau mantentzea indarrean dagoen HAPO-k ezartzen duen hirigintza helburu bat delarik.

Gaur egun esparru honetan azaltzen diren etxebizitza-eraikinek azaltzen duten tipologia Arrasateko herrigunean bakarra izanik, indarrean dagoen HAPO-k interesekotzat jotzen du esparru honen paisaia babestu eta mantentzea, hiri-inguruneke paisaiaren dibertsitatea handitzen laguntzen duen eremu bat baita.

Etxetxiki bakoitzak, independenteki ez dauka balore arkitektonikorik: txikiak dira, eta materiale merkeekin eraikiak daude. Helburua eremua bera babestea da: etxe-multzoa. Hau da, eremua industri-iraultza garaiko ondare arkitektonikoa da; hain zuzen, "Ciudad-jardin" deritzon mugimenduaren adierazle argia da. Mugimendu honen ezaugarriak ziren, besteak beste, etxe txikiak eraikitzea eta "naturarekin" kontaktua bultzatzea: hirian landa-lurreko bizimodua sustatzea, alegia. Horrela, bizilagunen arteko harremana sustatzea zen helburua, baita industri-iraultza garaian sortutako langile-auzoen bizi-baldintzak eta kalitatea hobetzea. Bestalde, lurren jabegoa amankomuna zen beti, izan ere espekulazioa ekidin nahi baitzen. Baldintza hauek Etxe Txikiak eremuak errespetatzen ditu gaur egun.

A hautabideak eremu honetan proposatzen duen errepide-lotura berriak ipar-ekialdeko muturreko bi edo hiri eraikin desagertzea ekarriko luke. Eremu honetan aurreikusten den biribilgune berria egungo bide-azpiegiturarekin jarraian proposatzen denez, ez da uste jarduketa honek AE.78 'Etxe Txikiak' esparruan elementu arrotz bat sartzea ekarriko lukeenik. Aurrerapen dokumentuak inguru honetan egiten duen proposamenak gainera 'Etxe Txikiak' esparruko gainontzeko etxebizitzak finkatu eta bertako paisaia mantendu eta babesteko irizpidea ere barneratzen du.

Gauzak horrela, nahiz eta A hautabideak proposatzen dituen jarduketek 'Etxe Txikiak' esparruaren paisaiarengan eraginak izango lituzketen, errepide-lotura berriak inguruko paisaian egokitzeko arazorik izango ez lukeela uste da, eremu hiritartu bat izanik.

7. Ingurumen-arriskuak

- a. *Akuiferoen urrakortasuna*: Esparruak egun zoladura azaltzen duenez, lurzoruaren iragazkortasun-maila txikia duela esan daiteke. 'A' hautabideak bertan proposatzen dituen jarduketan zenbaterainokoa aintzat harturik, ez da espero akuiferoengan eragin aipagarriarik izango dutenik, beti ere obra fasean akuiferoak babesteko beharrezko neurrian hartzen diren bitartean.
- b. *Zarata*: Lehenago esan bezala, eskura dagoen informazioaren arabera, 'Etxe Txiki' esparruak egoera akustiko nahiko ona azaltzen du gaur egun. 'O' hautabideak inguru honetan proposatzen duen antolamenduarekin egoera akustiko hau mantendu egingo litzateke, beraz ez dira eragin nabarmenik espero zarata dela-eta.
'A' hautabideak errepide-lotura berri bat proposatzen du eremu honetan. Bide-azpiegiturak, orokorrean, hiri-inguruneetan azaltzen diren zarata-iturri nagusiak dira eta, kasu honetan, errepide hau 'Etxe Txiki' eremuan kokatzen diren etxebizitzetatik gertu kokatzen dela kontutan izanda, ezin da baztertu errepide berri honek etxebizitza hauek egun azaltzen duten egoera akustikoa okertuko duenik, indarrean dagoen legediak²² ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak gainditzeko aukera dagoelarik.
- c. *Uholde-arriskua*: Lehen aipatu den moduan, 'Etxe Txiki' esparrua Aramaio ibaiaren 100 eta 500 urte bitarteko birgertatze-aldirako urperagarria den eremuaren baitan kokatzen da. Ur-Agentziak ezartzen dituen irizpideak aintzat harturik²³ egun uholde-arrisku hau azaldu eta egun urbanizazio finkatua duten eremuetan egungo erabilerak mantendu ahalko dira. Testuinguru honetan, hasierako fase honetan ez dirudi Aurrerapen Dokumentuak esparru honetarako egiten duen proposamena aipatu irizpideekin bateragarria dela dirudi, eta ez dira eragin larriarik espero esparru honetan uholde arriskuaren eraginez.

8. Mugikortasunaren hazkundera eta garraio-bide iraunkorren erabilera

Aurreko atalean aipatu den bezala, esparru honek ez ditu arazorik azaltzen gaur egun garraio-mota jasangarrien bidez Arrasateko hiriguneko beste guneekin lotura izateko.

'O' hautabideak proposatzen duen antolamenduak ez ditu esparru honetan egun azaltzen diren mugikortasun beharrak igoko, eta mugikortasunari dagokion azaltzen dituen loturak bere horretan mantenduko lirateke.

Bestalde, 'A' hautabideak proposatzen duen errepide-lotura berriak Arrasateko herriguneko mugikortasun-baldintzak hobetuko lituzkeela uste da, Maala Biribilgunea eta Nafarroa etorbidea era zuzenean lotzea ahalbidetuko bailuke. Plangintzaren fase honetan lotura berri honek mugikortasunarengan izango lukeen eragina zehazki baloratzea zaila egiten den arren, hurrengo faseetan txosten honek lotura berri honek mortodun ibilgailuen joan-etorriak are gehiago sustatuko ote dituen aztertzea egoki ikusten da.

Hautabideen hasierako ingurumen-balorazioa

Orain arte esandakoaren arabera, ondoko taulan 'Etxe Txikiak' eremuaren antolamenduaren inguruan aintzat hartu diren bi hautabideek ingurumenaren gainean izan ditzaketan eraginaren tamaina jasotzen da, hautabideen ingurumen-eraginaren balorazio alderatu bat izan daitekeena.

²² Urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan, Azaroaren 17ko 37/2003 Legea, Zaratarri buruzkoa, hain zuzen ere zonifikazio akustikoaren, kalitate-helburuen eta emisio akustikoen eremuetan garatzen duenean.

²³ "Lurra erabiltzeko irizpideak, lurra urpean gelditzeko duen arrisku-mailaren arabera" (Ur-Agentzia, 2011)

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAK		HAUTABIDEA: ETXE TXIKIAK	
		0 hautabidea (HAPO)	A hautabidea (Aurrerapen Dokumentua)
Lurzoruaren okupazioa		-	-
Lurzoruaren erabilera iraunkorra		-	+
Ur-ibilguengan eragina		-	Na
Interesa duen landaretzarengan eragina		-	-
Fauna mehatxatuarengan eragina		Ba	Ba
Paisaiaren gaineko eragina		-	Na
Ingurumen-arriskuak	Akuiferoen urrakortasuna	Na	Na
	Zarata	-	Ba
	Uholde-arriskua	Na	Na
Mugikortasunaren hazkundea eta garraio bide iraunkorren erabilera		-	Ba

Taula. 'Etxe Txikiak' esparruan aintzat hartu diren alternatiben ingurumen-balorazioa.

4.15. '14. ZERRAJERA 2 – ZALDUSPE'

4.15.1. Hautabideen deskribapena

Bi esparruen kasuan '0' hautabidea indarrean dagoen HAPO-k eta bere garapeneko plangintzak ezartzen duten antolamenduari dagokio. '0' hautabideak honako ezaugarriekin ezartzen du esparru hauen antolamendua:

- AE. 80 'Zerrajera 2'

- Hirilurra (6,09 Ha)
- Erabilera nagusia: Etxebizitza
- Hirigintza helburuak:
 - Erdigunean babestutako etxebizitza gune berezi bat antolatzea.
 - Lehen laurtekoa, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke berebiziko ekintza kudeatzea, alokairua bultzatzeko etxe txiki kopuru garrantzitsu bat aurreikusiz.
 - Hiri eraberritze ekintzaren barruan hirigunerako egokiak diren jarduera ekonomikoak ezartzea.
 - Oraindik zehaztu gabeko erabilera izango duen hornikuntza aurreikustea.
 - Geltoki zaharren atzealdean eta Nafarroa etorbidearen ardatza eremu zabala bezala eratzea.
 - Kale sarea indartzeko Etxaluzetik Zaldusperaino irekiko den kale berria eraikitzea, esparruari dagokion zatian.
 - Trenbide Zaharra motorgabekoen ibilbidea luzatzea, esparruari dagokion zatian.
 - Eremu zabal berri bat sortzea hegoaldean, esparruaren mugan.

- AE. 86 'Zalduspe'

- Hirilurra (2,9 Ha)
- Erabilera nagusia: Jarduera ekonomikoak
- Hirigintza helburuak:
 - Industria hondamen eta jarduera ezegoki batzuk kokatzen diren lurzoru antolatzea, jarduera egokiak finkatu eta ezegokiak ordezkatzuz, beti ere igarobideak, aparkalekuak, e.a. ongi zainduz.
 - Toki izaerako bi berdegune sortzea
 - Nafarroa etorbidearekiko sarrera-itteerak murriztasunez egokitzea, gunea bera bertako trafikoa antolatzeko gauza izan dadin.
 - Etxaluze inguruan bide-sare nagusiarekin bat egin duen, Zerrajera 1 eta 2 esparruen atzealdetik doan bidea luzatzea, sahiesbidearen lotunearekin bat egin arte.
 - Trenbide Zaharra motorgabekoen ibilbidea luzatzea, Zigarrola industrigunetik hasi eta Zerrajeraraino.

HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak jasotzen duen bezala, AE 80.-Zerrajera 2 eta AE 86.-Zalduspe esparruen planeamendu xehekatua onartuta dago jadanik.

AE 80.- Zerrajera 2-ren kasuan babes publikoko etxebizitzak aurreikusten dira bertan, hauetako batzuk alokairuan. Beste helburu batzuk dira Etxaluzetik Zalduspera irekiko den kale berria eraikitzea, eta "Trenbide Zaharra" motorgabekoen ibilbidea luzatzea. Oraindik 325 etxebizitza falta dira eraikitzeko. "Aprendiz-eskola" delako eraikina mantendu edo ordezkatzeko aukera aurreikusten da, eta ordezkatzuz gero eraikina lerrokadura berrietara egokitu beharko da.

AE 86.- Zalduspe esparruan duela gutxi onartu da Hiri Antolamenduzko Plan Berezia. Plan honek guztiz narriaturik dagoen Zalduspeko industri gunea berrantolatzea aurreikusten du. Erabilerak ere gaur egun daukan kokapenarekin (erdialdetik gertu) bateragarri izango dira. Horrez gain, Nafarroa etorbidearekiko sarrera-irteerak murriztasunez egokituko dira, eta aurreko esparruan bezala Etxaluzetik Zalduspera irekiko den kale berria eraiki eta "Trenbide Zaharra" motorgabekoen ibilbidea luzatzea aurreikusi du.

Kasu honetan, HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak gaur egun eremu hauetan indarrean dauden antolamenduak jaso ditu. Testuinguru honetan, ez da espero eremu honetarako HAPO-ren Berrikuspenean hautabiderik proposatuko direnik, beraz ez da beharrezkoa ikusten esparru hauen ingurumen-azterketa bat garatzea atal honetan.

4.16. '15. LEGARRE'

4.16.1. Hautabideen deskribapena

Indarrean dagoen HAPO-k etxebizitzetarako antolamendua aurreikusten du AE 82. Legarre esparruan, eta bertako antolamendua garatzen duen Plan berezia ere onartua dago jadanik. Plan Berezi honen helburuak honakoak dira:

- Erdigunean 80 etxebizitza berriko gune berri bat antolatzea
- Dena ibaiaren ibilgua era ekologikoan berreskuratzea
- Gune osoa ibai berreskuratuari aurpegia emanez egituratzea
- Oinezko zein motordunen igarobideak antolatzea

Kasu honetan, HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak aipatutako Plan Berezi horretan aurreikusitako antolamendua jasotzen du eta ez da espero eremu honetarako HAPO-ren Berrikuspenean hautabiderik proposatuko direnik, beraz ez da beharrezkoa ikusten esparru hauen ingurumen-azterketa bat garatzea atal honetan.

Izapideak aurrera egin ahala egoki jotzen bada, txosten honen 5. Atalean AE.82 'Legarre' inguruan proposaturiko antolamenduak ingurumenaren gainean izan ditzakeen eraginak era zehatzean aztertuko dira.

4.17. '16. AGERRE'

4.17.1. Hautabideen deskribapena

AE 89.- Agerre esparruan, lurzoru hiritargarria izanik, onartuta dago jadanik Plan Partziala, hau da, antolamendu xehekatua zehaztuta dauka.

Etxebizitzetara zuzendutako esparrua da. Bertan aurreikusten dira bi tipologia: bai trinkotasun handikoak eta bai babes publikokoak. 80 etxebizitza libreak dira eta 20-k salneurri mugatua daukate. Horrez gain, dauden txabola guztiak antolamenduz kanpo geratu dira. Bideriari buruz, aurreikusten dira bi bide, bat nagusia, Santamaina eta Santa Teresa kaleak lotzen dituenak, eta bestea bigarren mailakoa, aurreko bidea eta Makatzena kalea lotzen dituenak. Antolamenduak aurreikusten du 400 m²ko sistema orokorra, esparru zabal eta berdeguneetara zuzendua. Baita ere, giza hornikuntza lurzatia eta zuzkidurazko bizitokietarako lurzatia.

Kasu honetan, HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak aipatutako Plan Partzial horretan aurreikusitako antolamendua jasotzen du eta ez da espero eremu honetarako HAPO-ren Berrikuspenaren hautabiderik proposatuko direnik, beraz ez da beharrezkoa ikusten esparru hauen ingurumen-azterketa bat garatzea atal honetan.

Izapideak aurrera egin ahala egoki jotzen bada, txosten honen 5. Atalean AE.89 'Agerre' inguruan proposaturiko antolamenduak ingurumenaren gainean izan ditzakeen eraginak era zehatzean aztertuko dira.

Plangintzaren fase honetan esparru hauen antolaketa aldatzearen beharra besterik ez da ikusten, oraindik ere esparru hauen inguruan alternatiba zehatzik proposatzen ez delarik. Dena den, kontuan izan behar da inguru hauek gatazkatsuak direla (antolatu gabeko txabolak daude, lur kutsatuak egon daitezke, etab).

4.18. '17. SANTAMAINA-SANTA TERESA'

4.18.1. Hautabideen deskribapena

Etxebizitza finkatuak dituzten eremuak diren arren, etxebizitza hauek duela 40 urte inguru egin ziren eta auzoek hiritartze eta irisgarritasun baldintza nahiko kaskarrak dituzte gaur egun, Aurrerapen Dokumentuak epe ertain-luzera eremu hauetan berreskuratze-lanak egiteko beharra nabarmentzen duelarik. Kasu honetan Aurrerapeneko fasean esparru hauen inguruko eztabaida mahai gainean jartzeko asmoa dago, nahiz eta esku-harmen hauek hobeto aztertu beharreko operazioak izango diren ezinbestean.

Oinezkoen erabilera sustatzeko, eta auzoaren kalitatea hobetzeko azterketa sakona egitea beharrezko ikusten da. Aurrerapen honetan jasotako proposamenaren helburua ez da antolamendu zehatza aurkeztea, azterketa sakon bat gauzatzeko dagoen beharra azalaztea baizik. Proposamenaren, besteak beste, hiri erdia auzoko kale ezberdinekin zuzenean komunikatuko duen gunea antolatzea aurreikusten da. Espazio hau Aldaiko parkearen kota berebean hasi eta maila desberdinetan antolatuta egongo litzateke. Horrela, Santamaina ingurua bai Aldai inguruko bidegorriarekin, bai parkearekin eta bai Gipuzkoa etorbidearekin ere erraz komunikaturik egongo litzateke. Bestetik, gunek honetako hornikuntza eta aisialdirako gunek garrantzitsuenak jasoko litzateke; bai eta auzoan irisgarritasun-baldintzak bermatzeko beharrezkoak liratekeen igogailu eta elementuak ere.

Luzera begira bada ere, antolamenduaren ordezkari aukeraren bat zehatzea interesgarria izango da.

Beste alternatiba bat Santamaina eta Santa Teresa esparruetako eraikinak finkatu eta birgaitze operazioak bultzatzea da. Agian eraikin bat edo beste kentzea planteatu daiteke, beti ere espazio publikoa zabaldu eta irisgarritasun baldintzak hobetzeko helburuarekin.

Aurrerapen dokumentuak esandakoaren arabera beraz, hasiera batean hiru ideia nagusi edo hautabide antzeman daitezke eremu honetan:

- '0' hautabidea: Eremu hauetarako indarrean dagoen HAPO-k zehazten duen antolamendua.
- A hautabidea: Auzoaren erabateko eraberritze-operazioa, egungo eraikinak ordezkatzu eta auzoaren antolamendu berri bat proposatu, lehen aipatutako irizpideekin.
- B hautabidea: Auzoaren birgaitzea, horretarako eraikinak finkatu eta birgaitze operazioak bultzatu, agian eraikinen bat edo beste kendu beharko litzatekeelarik.

Plangintzaren hasierako fase honetan aipatzen diren hautabide hauentzako oraindik ere antolamendu zehatzik proposatu ez denez, kasu honetan ezin da hautabide hauen ingurumen-balorazio bat egin. HAPO-ren berrikuspenak aurrera egin ahala, eremu honetarako proposamen zehatzen bat egiten bada, beraien ingurumen-balorazioa garatuko da atal honetan bertan.

Edonola ere, Aurrerapen Fase honetan Udalak auzoaren inguruan zabaldu nahi duen eztabaidarako baliagarri izango delakoan, egokia iruditu zaigu eremuak egun dituen ingurumen-baldintzatzaile nagusiak azalaztea, gerora ere ingurumen-irizpidea erabakiak hartzeko garaian kontutan hartua izan dadin.

A.17.1. *Santamaina-Santa Teresa. '0' alternatiba: indarrean dagoen HAPO planoan indarrean dagoen HAPO-k esparru honetarako aurreikusitako antolamendua azaltzen da.*

4.18.2. Ingurumen Baldintzatzaileak

- Orografia eta maldak: Aztertutako eremuaren erdia baino gehiago %20 baina malda handiagoko mazeletan dago finkatuta, eta horietatik %30 inguru %30 baino gehiagoko aldapetan. Beraz, nabarmena da orografiak esparru hauetan aurreikusten diren zenbait jarduketa hein batean baldintza ditzakeela.
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: erabat hiritartutako esparruak izanik, lurzoruak ez du ahalmen agrologikorik.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Ez da ur-ibilgu iraunkorrik antzematen azterketa-eremuan.
- Landaretza: Gaur egun erabat hiritartutako ingurua izanik ez du ia landaretza-estaldurarik mantentzen. Honela, eremu honetan antzematen den landaretza bakarra etxebizitzaren inguruan kokatzen diren lorategiei dagokie, zeinak guztira 0,59 ha inguru hartzen dituzten AE.90 'Santamaina 1' eta AE.92 'Santamaina 2' esparruetan.
- Fauna: Santamaina-Santa Teresa ingurua, bere osotasunean, baso-igela iberiarra (*Rana iberica*) espezie mehatxatuarentzat mugaturiko 'Lehentasuneko banaketa-eremuan' sartzen dira.
- Natura-gune babestuak: Santamaina-Santa Teresa ingura ez da udalerrian agertzen diren naturaguneen baitan geratzen.
- Paisaia: Paisaia erabat hiritarra duen eremu hau Arrasateko hiriguneko goialdeko muturtzat har daiteke, bere iparraldean hasten direlarik nekazal ezaugarriak dituzten bazterrak. Auzoak gaur egun azaltzen dituen ezaugarrien arabera, ezin da esan paisaiaren kalitatea handia denik. Edonola ere, hiri-ingurune bat izateak, eremu honetan eman daitezkeen jarduketak inguruneke paisaian erraz egokitzea lagunduko du. Bestalde, azterketa-eremuaren ikusgaitasuna altua bezala baloratu daiteke; esparrua ez bada ere erabat ikusgaia bigarren mailako errepide-saretik eta udalerriko gailur nagusi zein nekazal-auzoetatik, erabat ikusgaia da errepide sare-nagusitik eta Arrasateko hirigunearen erdialdetik. Honela, bi ezaugarri hauek kontuan harturik, aztertutako eremu honen urrakortasuna ertaina bezala har daiteke.
- Ingurumen-arriskuak
 - *Akuiferoen urrakortasuna*: Santamaina-Santa Teresa eremua akuiferoen urrakortasun ertaina zein txikia duen gune batean kokatzen da.
 - *Zarata*: Santamaina-Santa Teresa eremuak jasaten dituen zarata-iturri nagusiak berau zeharkatzen dituzten hiri-errepide edo kaleak dira. Dagoen informazioaren arabera, ingurua zeharkatzen dituzten kaleen igorpen-maila 50-55 dB(A) bitartean kokatzen da gauerako (LE10m, *gaur*) eta 55-60 dB(A) bitartean egun guztirako (LE10m, DEN). Honekin guztiarekin, eremu honen egungo egoera akustikoa nahiko ona dela esan daiteke.
 - *Uholde-arriskua*: Azterketa-eremuak ez du uholde-arriskurik azaltzen.
 - *Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak*: IHOBek eginiko 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioaren' arabera esparru honetan ez da kutsatutako lurzorurik identifikatzen.
 - *Higadura jasateko arriskuak*: Esparru hauetako zenbait zatik duten orografia kontuan hartuz, baliteke higadura arazorik izatea zenbait jarduketa bertan garatu ahal izateko behintzat.
- Kultur ondarea: ez da kultur ondarearen elementurik identifikatu esparru honetan.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Hirigunetik gertu kokatzen den esparrua denez, hango biztanleei lotutako garraio beharra gutxiti egiten du eta bideragarrigoa egiten du eremu hauen lotura Arrasateko hirigunearrekin garraio-mota jasangarriagoen bidez, hala nola, oinez edo bizikletan.

Esparruak garraio publikoko zerbitzua du, herriko autobusaren 1. lineak Obenerreka, Santa Marina, Galizia eta Legarre geltokiak baititu inguruan; 2. lineak berriz Joan Bengoa, Santa Teresa, Agerre, Obenerreka eta

Legarre geltokiak dituelarik. Monterron-Gesalibar motorgabekoen ibilbidea ere gertu dago esparru hauetatik, Santamaina eta Aldaiazpi artean igarotzen baita.

Arazorik izatekotan bi aipatu beharko lirateke. Alde batetik, goialdean kokatuta dauden zenbait zonatarako, garraio publiko bertikalak oinezkoei eta bizikletan mugitzen direnei lagunduko liekeela koten diferentzia gaintzen. Bestaldetik, eta indarrean dagoen HAPO-ak azpimarratzen duen bezala motordun ibilgailuak arazoak dituzte inguru hauetan, beraien igaranbideak direla edota aparkalekuen faltagatik. Honetaz gain, Aurrerapen Dokumentuak nabarmentzen du Santamaina-Santa Teresa eremuak egun azaltzen dituen irisgarritasun baldintza orokorrak nahiko kaskarrak direla.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak

Aztertutako ingurumen-eragile ezberdinek azterketa-eremu ezberdinetan gaur egun duten egoera hurrengo taulan jasotzen da era laburrean.

Eragile bakoitzaren kasuan, berau eremu bakoitzean baldintzatzaile izango den edo ez adierazten da (bai zentzu negatiboan eta baita positiboan ere), baita, hala bada, zein mailatan baldintzatu edo mugatuko dituen eremu horretarako aurreikusten diren jarduketak (kolore berdea: maila baxuan, kolore laranja: maila ertainean eta kolore gorria: maila altuan):

INGURUMEN-ERAGILEAK ETA BALDINTZATZAILEAK		HAUTABIDEA: SANTAMAINA-SANTA TERESA		
		<i>Santamaina – Santa Teresa</i>		
MALDAK (>%50ko maldak)	Balioa (Ha)		0	
	Baldintzatzailea		Ez	
AHALMEN AGROLOGIKO ALTUKO LURRAK	Balioa (Ha)		0	
	Baldintzatzailea		Ez	
UR-IBILGUAK	Egoera*		Ez	
	Baldintzatzailea		Ez	
INTERESA DUEN LANDAREEDIA	Balioa (Ha)		0,04	
	Baldintzatzailea		Bai	
FAUNA MEHATXATUA	Egoera*		Bai	
	Baldintzatzailea		Bai	
NATURGUNE BABESTUAK	Egoera*		Ez	
	Baldintzatzailea		Ez	
PAISAIA	Balorazioa		Baxua	
	Baldintzatzailea		Ez	
INGURUMEN-ARRISKUAK	Akuiferoen urrakortasuna	Balioa (Ha)	0	
		Baldintzatzailea	Ez	
	Zarata	Egoera		Ona
		Baldintzatzailea		Ez
	Uholde-arriskua	Balioa (Ha)		0
		Baldintzatzailea		Ez
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua	Balioa (Ha)		0
		Baldintzatzailea		Ez
	Higadura-arriskua	Balioa (Ha)		0
		Baldintzatzailea		Ez
KULTUR ONDAREA	Egoera*		Ez	
	Baldintzatzailea		Ez	
MUGIKORTASUNA	Egoera		A/B/O	
	Baldintzatzailea		Ez	
A: Autobusa; B: Bizikleta bidezko lotura; O: Oinezko lotura. * Kasu hauetan egoeran dagokion ingurumen-eragileraz azterketa-eremuan badagoen edo ez adierazten da.				

Taula: Santamaina-Santa Teresa inguruak azaltzen dituen ingurumen-baldintzatzaile nagusiak.

A.17.2. Santamaina-Santa Teresa. Ingurumen baldintzatzaileak planoan esparru honen ingurumen-baldintzatzaile nagusiak azaltzen dira.

4.19. '18. KASKONATEGI'

4.19.1. Hautabideen deskribapena

AE 103.- Kaskonategi esparruan merkatal zentro handi bat dago eta indarrean dagoen HAPOk bertan gehiago eraikitzeko aukera ematen du. Era laburrean indarrean dagoen HAPO-k ('0' hautabidea) eremu honetarako aurreikusten duen proposamena honakoa litzateke:

- '0' hautabidea:
 - Hirilurra (3,8 ha).
 - Erabilera nagusia: jarduera ekonomikoak.
 - Erabilera xehetua: azalera handiko merkataritza jarduera.
 - Esparruaren eraikigarritasunaren goimuga 28.000 m² (e)-n egongo da. Goiera: 12,0 m. Zineak kokatzeko eraikinak egin ezkeru, hauen goiera bestelako eraikinena baino 5 m gehiagokoa izan daiteke.
 - Azalera handiko merkataritza erabileraren araudiak gasolindegia erabilera onartzen du, beraz, baimendua gelditzen da esparruan dagoen gasolindegia, gaur egungo kokapena eta azalera finkatuz.
 - Eraikuntzan handitze lanak egiten badira, hein berean aparkalekuak gehitu beharko dira, dagokion proportzioan, hala behar bada lur-azpian kokatuz.
 - Gunean dauden jarduera ekonomikotarako eraikin eta erabilerak finkatu eta haien handitzea edo zabaltzea ahalbidetzen du, lurzorua okupazio berria 7.381 m² (a) finkatuz.

A.18.1. Kaskonategi. '0' alternatiba: indarrean dagoen HAPO planoan indarrean dagoen HAPO-k esparru honetarako aurreikusitako antolamendua azaltzen da.

Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak inguru hauetan aurreikusten diren merkataritza erabilera berriak zalantzan jartzea proposatzen du. AE. 103 'Kaskonategi'-ren kasuan, jadanik merkatu zentro handi bat dago bertan, eta Egitamua hura handitzeko aukera ematen du. Testuinguru honetan Aurrerapen Dokumentuak eztabaida zabaltzeko asmoa azaltzen du Eroski merkatal gunearen garapena eta geltoki intermodala eraikitzearen aukera uztartzeari buruz. Hausnartu beharko da geltoki hau garatzea merezi duen, luzera begira zer ekar dezakeen, eta garatzekotan zein neurritan, edo beste edozein aukera den egokiagoa. Baita ere merkatal zentroaren hazkundea nora arte izan behar duen zehaztu beharko da. Bata eta bestearen arteko lotura zenbateraino den ezinbestekoa, edo sos publikoekin bakarrik finantzatu daitezkeen geltoki intermodala eta azpiegituren aldaketa.

Aurrerapen Dokumentuak geltoki intermodala eraikitzea proposatu du. Hau da, garraiobide mota guztiak uztartuko dituen gunea antolatzea. Eroski kokatzen den eraikuntza zabaldu eta ondorioz aparkaleku kopurua handituz gero, hauek disuasio-aparkaleku moduan erabili ahal izango lirateke. Horrela, autoa bertan utzi eta intermodalak eskainiko lituzkeen baliabideak aprobetxatzeko aukera sortuko litzateke: ibilbide luzeko autobusa, tranbia edo eskualdeko autobusa, hiribusa edo bizikleta, eta baita garraio diskrezionalaren topagune gisa ere. Edonola ere, hau hasierako proposamen bat besterik ez litzateke, eztabaidarako pizgarri beti ere.

HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak eremu honetan proposatzen duen hasierako antolamendua beti ere indarrean dagoen HAPO-k ezartzen duen antolamenduan oinarritu denez, ez da hautabide berri bat bezala aintzat hartu, izan ere Aurrerapen Fase honetan indarrean dagoen HAPO-k eremu honetarako aurreikusten dituen proposamen batzuekin aurrera egite erabaki dela esan daiteke.

4.19.2. Ingurumen Baldintzatzaileak

- Orografia: orografiak ez ditu eremu hauetarako proposatu litezkeen garapenak baldintzatuko, nahiko lauak direlako. Eremuaren gehiengoak, azaleraren ia %95ak, %10 baino txikiagoko malda du.
- Lurzorua ahalmen agrologikoa: 'AE.103 Kaskonategi' eremua erabat hiritartua dago, bertako lurzorua ahalmen agrologikoa erabat galdu duelarik.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: Deba ibaiak mugatzen du Kaskonategi iparraldetik, baita Kaskonategi eta Zabaletaren eremuen arteko zatiketa ere. Eremu hauek zeharkatzen dituen tarte honetan EAEko ibai eta

erreken ertzak antolatzeke LAP-k Deba ibaia III. maila hidraulikoan sailkatzen du (100-200 km² bitarteko arroa), osagai hidraulikoaren arabera.

- Landaretza: 'Kaskonategi' gaur egun erabat hiritartua agertzen dela esan daiteke, bertan ematen den erabilera nagusia hiritarra delarik. Modu orokorrean, intereseko landareditzat hartzen da ibai ertzetako landaredia. Zehazki, Deba ibaiaren ertzek eremu honetako zenbait tarteetan azaltzen duten landaretza 92/43/CEE Habitaten zuzentarauaren I. eranskinean definitzen den 91E0*. *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-eko *ibarbasoak* (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*) lehentasunezko interes komunitarioko habitata bezala sailkatuta geratzen da. Horietako tarte bat EAeko Ibai eta Erreketako Ertzen Antolamendurako LAP-ak '*Ondo babestutako landaredi gunea*' bezala sailkatzen du AE.103 Kaskonategi eremuko Deba ibaiaren ezker aldeko ertzean.
- Fauna: Kaskonategi eremua zeharkatzen duen tartean Deba ibaia bisoi europarrarentzako (*Mustela lutreola*) mugatutako 'Lehentasuneko banaketa-eremua'-ren baitan sartzen da.
- Natura-gune babestuak: Azterketa-esparrua ez da udalerrian agertzen diren naturaguneen baitan geratzen.
- Paisaia: Kaskonategi eremuaren paisaia erabat hiritarra dela esan daiteke, inguruan industrialde eta bide azpiegiturak ugaltzen direlarik. Ezin da paisaiaren kalitate handia duenik esan. Izaera nabarmenki hiritarra duen paisaia edukitzeak, hori bai, eremu honetan eman daitezkeen garapenak inguruneke paisaian egokitzea erraztuko du. Bestalde, azterketa-eremuaren ikusgaitasuna oso altua bezala baloratu daiteke; Kaskonategi esparrua erabat ikusgaia da errepide sare-nagusitik eta Arrasateko hirigunearen sarreratik. Hori dela eta, bi ezaugarriak kontuan harturik urrakortasun ertaineko eremu bezala har daiteke aztertutakoa.
- Ingurumen-arriskuak
 - *Akuiferoen urrakortasuna*: Esparruak urrakortasun txikia azaltzen duen gune batean kokatzen dira.
 - *Zarata*: Eremuak GI-627 errepidearekin egiten du muga ekialdean, beraz errepide honek sortutako zarataren eraginpean geratzen da. Datuen arabera GI-627 errepidearen zarataren igorpen-maila 65-70 dB(A) bitartean kokatzen da gauerako (LE10m, g_{aua}) eta 70-75 dB(A) bitartean egun guztirako (LE10m, DEN). Errepideak jasaten duen trafiko-intentsitatea 10.000 ibilgailu/egunean ingurukoa dela kontuan hartuta, ezin da baztertu 'Kaskonategi' eremuaren egoera akustikoa desegokia izaterik.
 - *Uholde-arriskua*: Deba ibaiari lotutako urperagarritasun arriskuak 'Kaskonategi' esparrua eragiten du maila desberdinetan, 10, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldiei dagokienez. Kasu honetan balizko arriskua oso handia da eremu osoan, 10 eta 100 urte bitarteko birgertatze-aldiko uholdeak eragiten baitio.
 - *Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua*: IHOBek eginiko 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioaren' arabera AE.103 'Kaskonategi' eremuaren 1,3 ha inguruk mota honetako lurzorua azaltzen dituzte (inbentarioan 20055-00018 kodearekin). Ostera, indarrean dagoen HAPO-k jasotzen dituen kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen artean ez da 'Kaskonategi' eremurako aipatutako lurzoru hau agertzen.
 - *Higadura jasateko arriskuak*: AE. 103 eremuak gaur egun duten orografia kontuan hartuz, ez dirudi eremuak higadura arazorik izango dituenik.
- Kultur ondarea: ez da kultur ondarearen elementurik identifikatu esparru honetan.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: Hirigunetik gertu dagoen esparrua da. Horrek motorgabeko joan-etorriak ahalbidetzen ditu (oinez edo bizikletaz) hiriguneko auzo gehienetatik. Inguru laua izateak ere horretan laguntzen du. Bestalde, merkataritza zentro handi baten erabilzaileek motordun ibilgailu pribatuak erabiliko dituzte kasu gehienetan, erosketak direla eta.

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planaren behin-behineko onespeneko dokumentuak Elorregi eta Arrasateko Musakola auzoaren artean 2,8 km luzera izango duen bizikleta-bide bat aurrekusten du, udal sarearekin bat egingo duena. Beraz, alde horretatik inguru honetan proposatzen diren garapen berriek Arrasateko hirigunearekin edo Elorregirekin bizikleta-bidezko lotura edukiko lukete.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak

Aztertutako ingurumen-eragile ezberdinek azterketa-eremuan gaur egun duten egoera hurrengo taulan jasotzen da era laburrean. Eragile bakoitzaren kasuan, berau eremu bakoitzean baldintzatzaile izango den edo ez adierazten da (bai zentzu negatiboan eta baita positiboan ere), baita, hala bada, zein mailatan baldintzatu edo mugatuko dituen eremu horretarako aurreikusten diren garapenak (kolore berdea: maila baxua, kolore laranja: maila ertainean eta kolore gorria: maila altuan):

INGURUMEN-ERAGILEAK ETA BALDINTZATZAILEAK		HAUTABIDEA: KASKONATEGI		
		<i>AE.93 'Kaskonategi'</i>		
MALDAK (>%50ko maldak)	Balioa (Ha)	0		
	Baldintzatzailea	Ez		
AHALMEN AGROLOGIKO ALTUKO LURRAK	Balioa (Ha)	0		
	Baldintzatzailea	Ez		
UR-IBILGUAK	Egoera*	Bai		
	Baldintzatzailea	Bai		
INTERESA DUEN LANDAREDIA	Balioa (Ha)	0,09		
	Baldintzatzailea	Bai		
FAUNA MEHATXATUA	Egoera*	Bai		
	Baldintzatzailea	Bai		
NATURA GUEN BABESTUAK	Egoera*	Ez		
	Baldintzatzailea	Ez		
PAISAIA	Balorazioa	Baxua		
	Baldintzatzailea	Bai		
INGURUMEN-ARRISKUAK	Akuiferoen urrakortasuna	Balioa (Ha)	0	
		Baldintzatzailea	Ez	
	Zarata	Egoera	Desegokia	
		Baldintzatzailea	Bai	
	Uholde-arriskua	Balioa (Ha)	3,7	
		Baldintzatzailea	Bai	
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua	Balioa (Ha)	1,38	
		Baldintzatzailea	Bai	
	Higadura-arriskua	Balioa (Ha)	0	
		Baldintzatzailea	Ez	
KULTUR ONDAREA	Egoera*	Ez		
	Baldintzatzailea	Ez		
MUGIKORTASUNA	Egoera	A/B/O		
	Baldintzatzailea	Ez		

Taula: Kaskonategi eremuaren ingurumen-baldintzatzaile nagusiak.

A.18.2. *Kaskonategi. Ingurumen baldintzatzaileak* planoan esparru honen ingurumen-baldintzatzaile nagusiak azaltzen dira.

4.19.3. Ingurumen Balorazioa

Aurreko ataletan Kaskonategi esparruak dituen ingurumen-baldintzatzaile nagusiak jaso dira eta bertako antolamenduaren inguruan proposatu diren hautabideak aurkeztu dira. Kasu honetan, Aurrerapen Dokumentuak aurkezten duen proposamena indarrean dagoen HAPO-k aurreikusten dituen zenbait jarduketekin aurrera egitean datza, eta ondorioz berau ez da hautabide berri bat bezala aintzat hartu.

Testuinguru honetan, plangintzaren fase honetan zehaztuta dagoen hautabide bakarra '0' hautabidea da, Aurrerapen Fasean honek proposatzen duen antolamenduaren inguruan eztabaida piztea aurreikusten delarik.

Honela, hautabideen ingurumen-balorazio honetan '0' hautabideak izango lituzkeen ingurumen-eraginak besterik ezin dira baloratu, gainontzekoan ez baita alternatiba zehatzik proposatu oraindik. '0' hautabide honek proposatzen dituen jarduketan tamaina eta ezaugarriak kontuan hartuz, hauen ingurumenaren gaineko eragin nagusiak jarduketa hauei loturiko obrek eragindakoa ez ezik merkataritza-gune honi loturikoak ere izango direla aurreikusten da, batik bat mugikortasunari eta baliabideen erabilerrari dagokionez.

AE.93 'Kaskonategi' esparruan proposatzen diren garapenek izango lituzketen ingurumen-eragin nagusiak honakoak liriateke:

1. Lurzoruaren okupazioa

AE. 93 'Kaskonategi' esparruak 3,8 Ha-ko azalera du, egun hirilur bezala sailkatua dagoena. Eremua erabat hiritartua azaltzen da gaur egun, azalera osoan zoladura agertzen duelarik.

Beraz, esparru honetan proposatzen diren merkataritza-garapenek ez lukete landa-lurzoruaren okupazio handirik beharko, hartara ez litzatekeela udalerrriaren hirilurraren edo lurzoru hiritargarriaren gehikuntzarik emango.

2. Lurrazaleko ur-ibilguengan eragina

Lehen aipatu den bezala, Deba ibaiak 'Kaskonategi' eremua mugatzen du iparraldetik eta bere bereizketa zehazten du 'Zabaltegi' eremuarekiko. Eremu honetan 'O' hautabideak proposatzen dituen jarduketak ikusirik, ezin da baztertu Deba ibaiaren ur-kalitatearengan eragitea obra fasean, emari ezberdinak direla eta. Edonola ere, eragin hauek aldi baterakoak izango direla espero da, eraikuntza-lanek irauten duten bitartean.

Gainontzekoan, esparru honetan proposatzen den antolamenduak kontuan hartu beharko du kasu bakoitzerako EAEko ibai eta erreken ertzak antolatzeke LAP-ak ezartzen dituen gutxienekeo tartek urbanizaziotik eta eraikuntzatik.

3. Interesa duen landaretzarengan eragina

'Kaskonategi' esparruan 'O' hautabideak proposatzen duen merkataritza-gunearen handitzeak ez da uste Deba ibaiaren ertzak tarte honetan azaltzen duten haltzadiarengan eragin zuzenik izango lukeenik, indarrean dagoen HAPO-k aurreikusten duen antolamendua oinarritzat hartuz behintzat. Dena den, ezin da baztertu handitze-lan horiek ibaiertzeko landarediarengan zeharkako eraginik sortuko ez dutenik, beraz behar diren neurri babesleak hartu beharko dira obra fasean zehar.

4. Fauna mehatxatuarengan eragina

Deba ibaia bisoi europarrarentzako (*Mustela lutreola*) 'Lehentasuneko banaketa-eremua'-ren zati da, nahiz eta ez den espezie hau Deba ibaiaren tarte honetan egotea espero. Eragile hau inguru honetan proposatu daitezkeen garapen ezberdinentzat ingurumen-baldintzatzaile bat den arren, ez dira kontuan hartzeko eraginik espero fauna mehatxatuarengan.

5. Paisaiaren gaineko eragina

AE.103 'Kaskonategi' eremua hirigunearen zati da eta kalitate nahiko baxua duen hiri-paisaia bat aurkezten du gaur egun. Esparruak merkataritza gune handi bat eta honen aparkalekua ditu bere baitan gaur egun, indarrean dagoen HAPO-k merkataritza gune honen zabalpena ahalbidetuko lukeen lurzoria aurreikusten duelarik. Edonola ere, zabalpen hauek ez lukete paisaiarengan eragin nabarmenik izango, egun badagoen eraikin baten handitzea besterik izango ez zelako. Nahiz eta eraikin mota hauek eragiten duten begi-inpaktua nahiko handia den beti, inguru honetan merkataritza- eta industria- pabilioi asko daude, beraz ez da uste zabalpen honek inguruko paisaian egokitzeko arazorik izango zukeenik.

6. Ingurumen-arriskuak

a. *Zarata*: Eremuak GI-627 errepidearekin mugatzen du bere ekialdean, honek igorritako zarata azterketa-eremuan jasoko delarik. Errepide honen igorpen-datuen arabera, egun esparru honek azaltzen duen egoera akustikoa desegokia izan daitekeela uste da, nahiz eta informazio eguneratua beharko litzatekeen erabat ziurtatzeko. Eremu honen erabilerak ikusirik, indarrean dagoen legediak²⁴ 'Industria erabilerarako eremu' berri edo badirenentzat ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak izango liriateke aplikagarri.

²⁴ Urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan, Azaroaren 17ko 37/2003 Legea, Zaratarri buruzkoa, hain zuzen ere zonifikazio akustikoaren, kalitate-helburuen eta emisio akustikoen eremuetan garatzen duenean.

Kontuan harturik helburu hauek bigunagoak direla etxebizitza-erabilerei dagozkienak baino, baliteke garapen-eremu hauek aipatutako helburuak betetzea.

Bere kokapena ikusirik, gainera, ezin da baztertu eremua GI-627 errepidearen zorgune akustikoaren baitan geratzea. Alabaina, gai honen inguruan eskumena duen administrazioak zorgune hau definitzen ez duen bitartean, ezingo da hau ziurtasun osoz jakin, eta horrenbestez zaila egiten da 'Kaskonategi' eremuan '0' hautabideak proposatzen dituen jarduera ekonomikoetarako garapenak gerora legeak ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak beteko ote dituen aurreikustea.

- b. *Uholde-arriskua*: Nahiz eta egun hiritartua azaldu eta merkataritza-jarduerak hartzen dituen, AE.93 'Kaskonategi' eremuak kontuan hartzeko uholde-arriskua du. '0' hautabideak eremu honetan proposatzen dituen garapenak hasiera batean Ur-Agentziak eremu urperagarrientzako idatziriko lurra-erabilerarako irizpideekin bat datozen arren, ezin dira uholdeak direla-eta eraginak baztertu epe ertainera begira.
- c. *Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak*: Lehenago azaldu den moduan, IHOBek egindako 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioaren' arabera, AE.93 'Kaskonategi' eremuaren 1,38 Ha mota honetako lurzoruekin azaltzen dira.

Legeak ezartzen duena bete ezean, AE.93 'Kaskonategi' eremuan aurreikusitako garapenak aintzat hartzeko ingurumen-eragina izan lezakete, ezin baita baztertu kutsatuta egon daitezkeen lurren indusketa behar izatea, eta honek hondakin arriskutsuen sorrera ekarriko luke, lurzoru hauek era berezian kudeatu beharko bailirateke. Edonola ere, eremu honen jarduera ekonomikoetarako garapenak aurrera eramaten badira, bertan proposatzen diren jarduketak guztiak 1/2005 legeak, otsailaren 4koa, lurzoru ez kutsatzeko eta kutsatuta garbitzeko, ezartzen duenaren menpe egongo dira.

7. Mugikortasunaren hazkundera eta irisgarritasuna

Indarrean dagoen HAPO-k merkataritza eta ekonomia-jarduerentzako garapenak aurreikusten ditu esparru honetan. Esparru honetan dagoen merkataritza-gune honek mugikortasun handia sortzen du, bere zabalpenak mugikortasun behar honen hazkundera ere ekar lezakeelarik. Honetaz gain, garapen mota hauei loturiko mugikortasun-beharrak zaila izaten da garraio-mota iraunkorren bidez betetzea (oinez edo bizikletaz), beraz ezin da baztertu garapen hauek udalerrian auto pribatuan egiten diren joan-etorrien hazkundera eragitea, nahiz eta hau, ematekotan, ez zen oso altua izango.

Edonola ere, eremuak baldintza onak azaltzen ditu oinezko, bizikleta eta garraio publikoarekin lotura edukitzeko, hau modu positiboan baloratua izan delarik.

Hautabideen hasierako ingurumen-balorazioa

Orain arte esandakoaren arabera, ondoko taulan 'Kaskonategi' eremuaren antolamenduaren inguruan '0' hautabideak ingurumenaren gainean izan ditzakeen eraginen tamaina jasotzen da, hautabide honen ingurumen-eraginaren balorazioa izan daitekeena.

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAK		HAUTABIDEA: KASKONATEGI
		'0' hautabidea (HAPO)
Lurzoruaren okupazioa		-
Ahalmen agrologiko handiko lurra galtzea		-
Lurrazaleko ur-ibilguak		Na
Interesa duen landaretzarengan eragina		Ba
Fauna mehatxatuarengan eragina		Ba
Paisaiaren gaineko eragina		Ba
Ingurumen-arriskuak	Zarata	Na
	Uholde-arriskua	Na
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak	Na
Mugikortasunaren hazkundera eta garraio-bide iraunkorren erabilera		Ba

Taula: Kaskonategi eremurako proposaturiko alternatiben ingurumen-balorazioa.

4.20. '19. ZABALETA'

4.20.1. Hautabideen deskribapena

AE 104.- Zabaleta esparruan jarduera ekonomiko erabilerak aurreikusten ditu egun indarrean dagoen HAPO-k eta bertako antolamendua zehazten duen Hiri Antolamenduzko Plan Berezia orain gutxi onartu zen.

Plan Berezi honek, esan bezala, jarduera ekonomikoak garatzeko esparru berri bat antolatzen du, nahiz eta Zabaleta baserria ezin izango da eraitsi.

Kasu honetan, HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak aipatutako Plan Berezi horretan aurreikusitako antolamendua jasotzen du eta ez da espero eremu honetarako HAPO-ren Berrikuspenean hautabiderik proposatuko direnik, beraz ez da beharrezkoa ikusten esparru hauen ingurumen-azterketa bat garatzea atal honetan.

Izapideak aurrera egin ahala egoki jotzen bada, txosten honen 5. Atalean AE.104 'Zabaleta' inguruan proposaturiko antolamenduak ingurumenaren gainean izan ditzakeen eraginak era zehatzean aztertuko dira.

4.21. '20. BEDOÑA'

4.21.1. Hautabideen deskribapena

Indarrean dagoen HAPO-ak ('0' hautabidea) Bedoña Auzoko nekazal hirigunea antolatzeko helburuarekin definitzen du AE. 111 'Bedoña' esparrua. Eremu honetan trinkotasun txikiz eta inguruarekin bat datozen etxe bakan berri batzuk ezartzeko aukera ematen du, aldi berean pilotalekua eta aparkalekua eraiki ahal izateko gordespina egiten duelarik. Eremua hirilurtzat sailkatuta dago. 8 ha-ko eremu honek 2,6 etx/ha-ko dentsitatea du.

Bertan garatu daitekeen etxebizitza berrien kopurua 4 etxebizitzetara mugatzen da, lurzoruaren okupazio berria 1.725 m²(a)-tan ezarriz. Beste 17 etxebizitza finkatzen dira.

A.20.1. Bedoña. '0' alternatiba: indarrean dagoen HAPO planoan indarrean dagoen HAPO-k esparru honetako aurreikusitako antolamendua azaltzen da.

Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak Bedoña nekazal auzunearen antolamendua eta hirigintza garapenaren nondik norakoak zehazteko beharra mahai gainean jartzea proposatzen du, aldi berean gainontzeko nekazal auzoek ildo berdina jarraitu behar duten ala ez ere eztabaidatuz.

4.21.2. Ingurumen Baldintzatzaileak

- Lurralde antolamendua: Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek '*lurraldean sartzeko gune*' izendatzen dute auzunea. LAA-ek gune hauen bideragarritasuna ziurtatzeko honako proposamenak aipatzen dituzte, irizpide gisa beti ere: *irudi hiritarra hobetzeko neurriak; ondare eraikia berriztatu eta balioz antolatzeko neurriak; azpiegitura eta ekipamenduen arloko jarduerak; Eskualde Egituran proposatzen diren motordun ibilgailu-, bizikleta- eta oinezkoentzako ibilbideetara lotzea.*

Lurralde Zatiko Planak Bedoña auzunea '*landa asentamendu barreiatu*'tzat jotzen du, eta ez du aparteko proposamenik jasotzen Bedoñaren garapenerako.

- Orografia: azaleraren %25 inguru, 2.1 ha zehatz esanda, %30 baino gehiagoko maldak ditu, batez ere hegoaldeko magalean errekabarreneta aldera jaisten den mazelan agertzen direlarik.
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoa: hirilurtzat hartutako eremuan ez dira ahalmen agrologiko handiko lurrak azaltzen. Azaleraren %25 inguru, IV mota agrologikoak dira, %20 baino gutxiagoko malda duten mendi-hegaletan pilotutako lurrak alegia. Gaur egun dauden baratza gehienak lur mota horietan kokatzen

dira. Beste horrenbesteko azalera du lurzoru hiritartuak, dauden baserri eta etxebizitzak okupatzen duten lurzoruetan eta beraien inguruetan. Gainontzeko azalera VI kategoriako lurrek hartzen dute, lantzeko zailak diren lurrak, %20 baino gehiagoko maldak dituzten mendi-hegalak, batez ere larretarako erabiltzen direnak.

- Lurrazaleko ur-ibilguak: Bedoña auzoa Oria eta Urkulu arroen arteko mendi bizkarrean kokatzen da. Eremuan ez da ur-ibilgurik azaltzen.
- Fauna: AE.111 'Bedoña' eremua, bere osotasunean, baso-igel iberiarra (*Rana iberica*) espezie mehatxatuarentzat mugaturiko 'Lehentasuneko banaketa-eremuaren' baitan geratzen da.
- Landaretza: eremuaren azaleraren erdia baino gehiago, 4,6 ha zehazki, larreak dira, fruitu-arbolak dituen partzela bat ere (0,2 ha) horren barruan gehituta. Larre hauetan zehar, eta berauek zatitzen, bertako espezieen heskai luzexkak agertzen dira. Baratzak eta laboreak ere ugariak dira, denen artean ia hektarea bat okupatzen dutelarik. Aurrez azaldu den bezala lurzoru hiritartua 2 ha inguru betetzen du.

Udalerrian zehaztu den babestu beharreko landarediari dagokionez, eremu hauek guztira 4,6 ha (azaleraren %57) hartzen dituzte AE.111 'Bedoña' esparruan; azalera honen 0,2 ha inguru aipatutako heskaiei dagokie eta 4,4 ha 92/43/CEE Habitaten zuzentarauaren I. eranskinean definitzen den 6510. Altuera txikiko segalarre pobreak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*) interes komunitarioko habitat bezala sailkatuta geratzen diren guneei.

- Natura-gune babestuak: Esparrua ez da udalerrian agertzen diren babestutako Naturaguneeekin bat etortzen.
- Paisaia: Bedoña eta bere ingurua, artean nekazal-ezaugarriak mantentzen dituen landazabaleko paisaia izanik, paisaiaren kalitate handia duen eremua da. Nekazal-auzoak egun zenbait baserri eta mota honetako eraikin dituen erdigune bat azaltzen du, non etxebizitza-erabilera berriekiko paisaiaren harrera-ahalmena ertaina izan daitekeen.

Bestalde, bere kokapena dela eta ikusgaitasun handiko eremua dela esan daiteke: hego-ekialdeko muturra izan ezik, eremua ikusgaia da errepide-sare nagusitik, bigarren mailako errepide-saretik, hiriguneko zenbait puntutik baita udalerriko gailur nagusi zein gainontzeko nekazal-auzoetatik ere. Honekin guztiarekin, eremu honen paisaia urrakor bezala hartu daiteke.

- Ingurumen-arriskuak
 - Akuiferoen urrakortasuna: hirilur bezala sailkatutako eremuaren ekialdeko muturra akuiferoen urrakortasun oso handia duen gune baten baitan geratzen da.
 - Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak: IHOBek egindako 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioaren' arabera eremuak ez du mota honetako lurzorurik azaltzen.
 - Zarata: AE.111 'Bedoña' eremuak azaltzen dituen zarata-iturri nagusiak berau zeharkatzen duten errepideak dira. Alde batetik eremura GI-3554 errepidea iristen da eta, bestetik, nekazal-auzo barneko mugikortasuna ahalbidetzen duten kaleak daude. Errepide hauen zarataren igorpen-mailari buruzko daturik ez dagoenez, zaila egiten da bere egoera akustikoa baloratzea. Dena den, auzo lasaia da zaratari dagokionez, eremua zeharkatzen duten errepideek jasaten dute trafiko intentsitatea oso baxua izango dela espero baita: trafiko hau auzoko bizilagunen joan-etorriei dagokie batez ere, eta 100 pertsona inguru bizi direla kontuan hartuta, trafiko intentsitate hau ez da 500 ibilg./egun. baino altuagoa izango inondik inora. Trafiko-intentsitate horrek sor lezakeen igorpen-maila beti ere baxua izango dela uste da, eremuaren egoera akustikoa ona dela esan daitekeelarik.
 - Uholde-arriskua: Orografia dela eta eremuak ez du uholde-arriskurik jasaten.
 - Higadura jasateko arriskua: Eremuak gaur egun duen orografia eta maldak kontuan hartuz, ez dirudi higadura arazo handiegirik izango duenik. Honetaz gain, Basogintza eta nekazaritzarako LAP-ak ez ditu 'Higadura jasateko arriskua' duten eremurik antzematen eremu hauetan.
- Kultur ondarea: Hirilurratzat hartutako eremuan kultur ondarearen honako elementuak azaltzen dira:
 - Arkitektura-elementuak:
 - Deklaratzeko proposatutako monumentuak: Bidasoro baserria, Bedoñako Santa Eulalia Eliza,

- Udal babeserako elementuak: Otamendi baserria, Uribarren baserria, Sakristaukoa etxea, Bedoñako pilotalekua.
- Mendi-ibilbide katalogatuak: Jarraian aipatuko diren mendi-ibilbideak Bedoña auzunea zeharkatzen dute:
 - PR-GI-106 'Erromesbidea' mendi ibilbideak, Arrasate eta Arantzazuko monasterioaren artekoa, 16 km-ko luzera du.
 - PR-GI-91 'Erregebidea', 8 km-ko mendi ibilbidea.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna: hirigunetik kanpo dagoen auzo bat izanda -San Andresetik pare bat kilometroko distantziara dagoena (1,8 km, GI-3554)- joan-etorri gehienak motordun ibilgailu pribatuan egin beharko dituzte bertako biztanleek, are gehiago biztanle gutxi direla eta zerbitzu publikorik ez dagoenean. Debako bailara eta Bedoña auzoaren arteko altueraren diferentziak ere ez du garraio-mota iraunkorragoan (hala nola oinez edo bizikletaz) erabilpena laguntzen.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak

Aztertutako ingurumen-eragile ezberdinek azterketa-eremu ezberdinetan gaur egun duten egoera hurrengo taulan jasotzen da era laburrean.

Eragile bakoitzaren kasuan, berau eremu bakoitzean baldintzatzaile izango den edo ez adierazten da (bai zentzu negatiboan eta baita positiboan ere), baita, hala bada, zein mailatan baldintzatu edo mugatuko dituen eremu horretarako aurreikusten diren etxebizitza-garapenak (kolore berdea: maila baxuan, kolore laranja: maila ertainean eta kolore gorria: maila altuan):

INGURUMEN-ERAGILEAK ETA BALDINTZATZAILEAK		HAUTABIDEA: BEDOÑA		
		AE. 111 'Bedoña'		
MALDAK (>%50ko maldak)	Balioa (Ha)		0,1	
	Baldintzatzailea		Bai	
AHALMEN AGROLOGIKO ALTUKO LURRAK	Balioa (Ha)		0	
	Baldintzatzailea		Ez	
UR-IBILGUAK	Egoera*		Ez	
	Baldintzatzailea		Ez	
INTERESA DUEN LANDAREDIA	Balioa (Ha)		4,63	
	Baldintzatzailea		Bai	
FAUNA MEHATXATUA	Egoera*		Bai	
	Baldintzatzailea		Bai	
NATURGUNE BABESTUAK	Egoera*		Ez	
	Baldintzatzailea		Ez	
PAISAIA	Balorazioa		Altua	
	Baldintzatzailea		Bai	
INGURUMEN-ARRISKUAK	Akuiferoen urrakortasuna	Balioa (Ha)	1,45	
		Baldintzatzailea	Bai	
	Zarata	Egoera		Ona
		Baldintzatzailea		Ez
	Uholde-arriskua	Balioa (Ha)		0
		Baldintzatzailea		Ez
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua	Balioa (Ha)		0
		Baldintzatzailea		Ez
Higadura-arriskua	Balioa (Ha)		0	
	Baldintzatzailea		Ez	
KULTUR ONDAREA	Egoera*		Bai	
	Baldintzatzailea		Bai	
MUGIKORTASUNA	Egoera		-	
	Baldintzatzailea		Bai	

A: Autobusa; B: Bizikleta bidezko lotura; O: Oinezko lotura.
* Kasu hauetan egoeran dagokion ingurumen-eragileraren azterketa-eremuan badagoen edo ez adierazten da.

Taula: Bedoña nekazal-auzoaren ingurumen-baldintzatzaile nagusiak.

A.20.2. Bedoña. Ingurumen baldintzatzaileak planoan esparru honen ingurumen-baldintzatzaile nagusiak azaltzen dira.

4.21.3. Ingurumen Balorazioa

Aurreko ataletan HAPO-ren berrikuspenean Bedoña nekazal-auzoan proposatzen diren etxebizitza-garapenen eta antolamendu orokorraren hautabide ezberdinak eta inguru honek dituen ingurumen-baldintzatzaile nagusiak jaso dira. Honekin guztiarekin, hautabide hauen ingurumen-balorazioa egingo da jarraian, hautabide hauetako bakoitzarekin aurreikusten diren ingurumenaren gaineko eragin nabarmenetan oinarrituz horretarako.

Lehen esan den bezala, plangintzaren fase honetan '0' hautabidea besterik ez da zehaztu inguru honetarako; dena den Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak inguru honetan indarrean dagoen HAPO-k nekazal-auzo honen antolamenduari buruzko gogoeta zabaltea proposatzen du eta, era berean, udalerriko beste nekazal-auzoei Bedoñaren plangintza-mota berdina ematea aztertzea aurreikusten du.

Eremu honetan eman daiteken garapenari buruz dugun informazioarekin, hauek sortu ditzaketen ingurumen-eraginak txikiak izango direla uste da, eta batez ere obra fasean emango direla. '0' hautabideak eremuan gehienez 4 etxebizitza berri aurreikusten ditu, denak ere hirigunearen barnean proposatzen direlarik.

Bedoña inguruan aurreikusten diren etxebizitza-garapenek izango dituzten ingurumen-eragin nagusiak honakoak izan litezke:

1. Lurzoruaren okupazioa

Indarrean dagoen HAPO-k definitzen duen AE.111 'Bedoña' eremuak 8 ha inguruko azalera du, hirilur bezala sailkatua. '0' hautabideak bertan proposatzen dituen etxebizitza-garapenak ez dute udalerriko lurzoru hiritartuaren hazkunderik ekarriko, indarrean dagoen plangintzan hirilur bezala sailkatuta dagoen eremu honen baitan proposatzen baitira.

'0' hautabide honek proposatzen duen antolamenduaren arabera, etxebizitza-garapen hauek egun zoladurarik azaltzen ez duen eremuetan kokatzen dira. Dena den, gehienezko garapena 4 etxebizitzatakoa izango dela kontuan izanda, ingurumen-eragin hau bateragarria izango dela uste da.

2. Interesa duen landaretzarengan eragina

'0' hautabideak Bedoña auzoan proposatzen dituen etxebizitza-garapenak egun 6510. Altuera txikiko sega-larre pobreak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*) interes komunitarioko habitat duten guneeetan kokatzen dira, jarduketak hauek landaretza hauen desagertzea ekarriko dutelarik proposaturiko garapen-eremuetan.

Etxebizitza-garapen hauek 6510 interes komunitarioko habitatak egun hartzen dituen 1,3 ha.-tik zati baten desagertzea ekarriko luke, kasurik okerreanean. Nahiz eta aintzat hartzeko moduko ingurumen-eragin bat dela uste den, habitat honek udalerriri osoan azaltzen duen azalera kontuan izanda (27 ha) ez da eragin larri bat izango denik aurreikusten.

3. Fauna mehatxatuarengan eragina

AE.111 'Bedoña' eremua, bere osotasunean, baso-igel iberiarra (*Rana iberica*) espezie mehatxatuarentzat mugaturiko 'Lehentasuneko banaketa-eremuaren' baitan geratzen da. Dena den, ez da espezie mehatxatu hau eremu honetan aurkitzea espero. Nahiz eta eragile honek ingurumen-baldintzatzaile bat den inguru honetan proposatu daitezkeen garapen ezberdinentzat, ez dira fauna mehatxatuarengan aintzat hartzeko eraginik espero eremu hauetan proposatzen diren proposamenekin.

4. Paisaiaren gaineko eragina

Lehen aipatu den moduan Bedoña nekazal-auzoa landazabal-paisaia mantentzen duen eremu bat da, paisaia-kalitate altua azaltzen duena.

'0' hautabideak eremu honetan proposatzen dituen etxebizitza-garapenak egun dagoen auzunearen inguruan proposatzen dira, paisaiak harrera-ahalmen altuena azaltzen duen guneekin bat eginez. Honetaz gain, garapen hauek benetan txikiak izango dira, aurreikuspenek 4 etxebizitzatan ezartzen dutelarik garapen hau. Kasu

honetan indarrean dagoen HAPO-k AE.111 'Bedoña' eremuan proposatzen duen antolamenduak paisaiarengan eragin arinak izango lituzkeela uste da.

5. Ingurumen-arriskuak

- a. *Akuiferoen urrakortasuna*: AE.111 'Bedoña' eremuaren ekialdeko muturrak akuiferoen urrakortasun oso handia azaltzen du. '0' hautabideak eremu honetan proposatzen dituen etxebizitza-garapenak mendebaldeko muturrean kokatzen dira, beraz antolamendu hau garatzeko obrek ez da uste akuiferoengan eraginik izango luketenik. Dena den, ekialdeko mutur honek egun zoladurarik agertzen ez duenez, eremu honetan etxebizitza-garapenen bat proposatzen bada, akuiferoengan eraginen bat ekar lezake.
- b. *Zarata*: Lehen aipatu den moduan, ez dago daturik Bedoña auzoa zeharkatzen duten errepideek gaur egun azaltzen duten igorpen-mailari buruz. Dena dela, errepide hauentzako balioztatu den trafiko-intentsitatea aintzat hartuta, eremuak jasaten duen zarata-maila baxua dela iragarri da. Testuinguru honetan, AE:111 'Bedoña' eremuan proposatzen diren etxebizitza-garapen berrik indarrean dagoen legediak ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak beteko dituztela uste da, bertan zarataren aldetik arazorik ez direlarik aurreikusten.

6. Kultur ondarearengan eragina

'0' hautabideak AE.111 'Bedoña' eremuan proposatzen duen antolamenduaren arabera ez da eraginik espero bere baitan dauden kultur ondarearen elementu desberdinegan.

7. Mugikortasunaren hazkundera eta garraibide iraunkorren erabilera

Aurreko atalean aipatu den moduan, eremuak gaur egun ez ditu mugikortasun eta irisgarritasun baldintza egokirik azaltzen, bereziki garraio-mota iraunkorragoei dagokionez (oinez, bizikletaz, autobusez). Indarrean dagoen HAPO-k eremu honetan proposatzen dituen etxebizitza-garapenek zertxobait igo dezakete gaur egun auzoan ematen diren joan-etorrien kopurua. Dena den, '0' hautabideak 4 etxebizitza berriren garapena besterik proposatzen duenez, hauei loturiko mugikortasun beharren hazkundera oso txikia izango dela espero da, hauek eragindako ingurumenaren gaineko eragina bateragarria dela baloratu delarik.

Orain arte esandakoaren arabera, ondoko taulan aintzat hartu diren hautabide bakoitzaren kasuen ingurumenaren gaineko eragin hauek izan dezaketen tamaina jasotzen da, hautabideen ingurumen-eraginaren balorazio alderatu bat izan daitekeena.

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAK		HAUTABIDEA: BEDOÑA
		'0' hautabidea (HAPO)
Lurzoruaren okupazioa		-
Interesa duen landaretzarengan eragina		Na
Fauna mehatxatuarengan eragina		Ba
Paisaiaren gaineko eragina		Na
Ingurumen-arriskuak	Akuiferoen urrakortasuna	Ba
	Zarata	-
Kultur ondarearengan eragina		-
Mugikortasunaren hazkundera eta garraibide iraunkorren erabilera		Ba

Taula. Bedoña nezakal-auzoko eremuaren hautabideen ingurumen-balorazioa.

4.22. '21. KANPANZARKO HARROBIA'

4.22.1. Hautabideen deskribapena

HAPO-aren Berrikuspenaren harian, harrobia ustiatzen duen enpresak aurkeztu berri duen lurrazpiko meatzaritza proiektuaren inguruan dagokion eztabaida abian jartzeko helburua azaltzen du Aurrerapen Dokumentuak.

Enpresa horrek, hain zuzen, Udalari aurkeztu dio harrobi ustiapena lur-azpian edo meatzaritza eran egiteko proposamena, hau da, kareharria lur-azpitik ateratzeko proposamena. Enpresaren esanetan lan egiteko modu honek saihesten ditu paisaiari eragindako kalteak eta lurzorua gainaldea suntsitzea. Era berean, gutxitu egiten ditu zarata eta hauts igorpenak.

Kanpanzar harrobiak honoko faktoreak hartu ditu aintzat:

- Inguruan ezaugarri geomekaniko onak dauzka, eta horiei esker posible da sostengurik behar ez duten hutsune handiak diseinatzea.
- Aukeraturiko metodoak lurrazpiko urei ahalik eta gutxien eragin beharko die.
- Nahi da ustiatutako gunek gero beste erabilera batera zuzentzea.
- Ganbera eta zutabeen metodoa jo da egokiena. Hutsune edo ganberak maila desberdinak izango dituzte eta bi motatako zutabeak egongo dira, bertikalak, maila bakoitzean, eta horizontalak, ateratze mailak banantzen dituztenak.
- Ganberak izan daitezke 20 metroko zabalera eta 25 metroko altuerakoak.

A.21.1. Kanpanzar harrobia. '0' alternatiba: indarrean dagoen HAPO planoan indarrean dagoen HAPO-ren arabera esparru honi dagozkion mugak azaltzen dira.

Aurrerapen Dokumentuak aipatzen duenaren arabera eztabaidaren beste aldean jarri beharko lirateke iraunkortasunaren ikuspegitik hau ote den etorkizuna eta, batez ere, hau ote den kokapen egokiena, Udalaitz mendiaren barrenean.

Edonola ere, 2010eko azaroaren 2ko Ebazpena kontuan izan beharko da, zeinean Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Kanpanzar harrobia ustiatzeko proiektuak (hau da, atari zabaleko meatzea lurpeko meatze bihurtzeko proiektuak) ingurumenean duen *eraginari buruzko adierazpena* (IEA) azaltzen da (EHAA-7zk, 2011ko urtarrilak 12an argitaratua). Ebazpen horretan proiektua burutzeko baldintza zehatzak eta lotesleak ezartzen dira, horien artean neurri babesle eta zuzentzaileen alorretakoak.

4.22.2. Ingurumen Baldintzatzaileak

- Lurralde antolamendua: Kanpanzar harrobia Lurralde Antolamendurako Artezpideek sailkatutako '*interes naturalistikoa duen eremu*' baten barruan kokatzen da. Debagoieneko Lurralde Zatik Planak ere eremua modu berean sailkatzen du, bere balio geologiko, geomorfologiko eta paisajistiko direla eta.
- Orografia eta maldak: Eremuaren gaur egungo erliebea meatzaritza-jardueren emaitza da; honela, eremuaren zati handi batek, harrobiaren hormaren gunean, %50tik gorako malda azaltzen du.
- Lurzorua ahalmen agrologikoa: Bertan eman diren meatzaritza-jardueren eraginez, Kanpanzar harrobian eremuan lurzorua ahalmen agrologikoa galdu egin du.
- Lurrazaleko ur-ibilguak: EAEko ibai eta erreken ertzak antolatzeke LAP-ak ez du ur-ibilgu iraunkorrik antzematen azterketa-eremuan.

- Landaretza: gertuko ingurunean interes bereziko landaredia duten eremuak ugaritzen dira, hala nola, artadiak, txilardi kaltzikolak edota larre harritsu kalkareoak. Mugatutako eremu barruan, egun ustiatzen den harrobiari dagokionez, ez da landaretzarik mantentzen.
- Fauna: Kanpanzar harrobia, bere osotasunean, baso-igel iberiarra (*Rana iberica*) espezie mehatxatuarentzat mugaturiko 'Lehentasuneko banaketa-eremuaren' baitan geratzen da.
- natura-gune babestuak: EAEko pasabide ekologikoen sareak Izarraitz-Aizkorri-Urkiola nukleoen arteko lotura bermatze aldera definituriko lotura-gunearen baitan geratzen da.
- Paisaia: Udalaiz Arrasate inguruko haranetako paisaiaren erreferentzia-elementu garrantzitsuenetako bat da, ez bada nagusia. Indarrean dagoen HAPO-k harrobiarekin muga egiten duten guneak 'Paisaiaren babesa' kategorian sailkatzen ditu. Nahiz eta inguruan duen paisaiaren kalitate altua izan, harrobiak berak gaur egun azaltzen duen paisaiaren kalitate oso baxua dela esan daiteke.

Bestalde, bere kokapena dela eta, harrobiaren ikusgaitasuna ertaina dela esan daiteke: berau ikusgai da errepide sare nagusitik eta udalerrri gailur nagusi zein zenbait nekazal-auzoetatik, aitzitik, eremua ez da ikusgai Arrasateko udalerritik eta bigarren mailako errepide-saretik.

- Ingurumen-arriskuak:
 - *Akuiferoen urrakortasuna*: Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun oso handia agertzen du eremuak. Hori dela eta lehenago aipatu den IEA-k zehazten dituen baldintzen artean Udalaiz sektoreko urak eta ur-sistema babesteko neurriak agertzen dira, 2.C.2 atalean.
 - *Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua*: IHOBek egindako 'Poluitzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioaren' arabera eremuak ez du mota honetako lurzorurik azaltzen.
 - *Zarata*: Ez dago daturik harrobiaren egoera akustikoaren inguruan. Dena den, eremuak jasotzen duen zarata bezain garrantzitsua izango da kasu honetan harrobian burutzen diren jarduerak sortzen duten zarata-igorpenean.
 - *Uholde-arriskua*: Orografia dela eta eremuak ez du uholde-arriskurik jasaten.
 - *Higadura jasateko arriskua*: Basogintza eta nekazaritzarako LAP-ak ez ditu 'Higadura jasateko arriskua' duen eremu baten barruan sailkatzen du harrobiaren hego-mendebaldeko muturra.
- Kultur-ondarea: Azterketa-eremuak ez du indarrean dagoen HAPO-an jasotako kultur ondarearen elementurik bere esparruan.
- Mugikortasun beharrak: hirigunetik kanpo dagoen eremu bat izanda (GI-632 errepidea erabiliz 6 km-ra eta GI-3551 errepidetik joanda 4 km. ingurura) harrobiaren langileen joan-etorri gehienak motordun ibilgailu pribatuan egingo dira, zerbitzu publikorik ez bada jartzen behintzat. Honetaz gain, bailara eta industrialdea altuera ezberdinetan kokatzeak ere ez du laguntzen joan-etorri hauek beste garraiobide baten bidez egin ahal izateko.

Ingurumen-baldintzatzaile nagusiak

Aztertutako ingurumen-eragile ezberdinek azterketa-eremu ezberdinetan gaur egun duten egoera hurrengo taulan jasotzen da era laburrean.

Eragile bakoitzaren kasuan, berau eremu bakoitzean baldintzatzaile izango den edo ez adierazten da (bai zentzu negatiboan eta baita positiboan ere), baita, hala bada, zein mailatan baldintzatu edo mugatuko dituen eremu horretarako aurreikusten diren etxebizitza-garapenak (kolore berdea: maila baxuan, kolore laranja: maila ertainean eta kolore gorria: maila altuan):

INGURUMEN-ERAGILEAK ETA BALDINTZATZAILEAK		HAUTABIDEA: KANPANZAR HARROBIA		
		<i>Kanpanzar harrobia</i>		
MALDAK (>%50ko maldak)	Balioa (Ha)		7,17	
	Baldintzatzailea		Bai	
AHALMEN AGROLOGIKO ALTUKO LURRAK	Balioa (Ha)		0	
	Baldintzatzailea		Ez	
UR-IBILGUAK	Egoera*		Ez	
	Baldintzatzailea		Ez	
INTERESA DUEN LANDAREDIA	Balioa (Ha)		0,35	
	Baldintzatzailea		Bai	
FAUNA MEHATXATUA	Egoera*		Bai	
	Baldintzatzailea		Bai	
NATURGUNE BABESTUAK	Egoera*		Bai	
	Baldintzatzailea		Bai	
PAISAIA	Balorazioa		Baxua	
	Baldintzatzailea		Ez	
INGURUMEN-ARRISKUAK	Akuiferoen urrakortasuna	Balioa (Ha)	8,1	
		Baldintzatzailea	Bai	
	Zarata	Egoera		Ona
		Baldintzatzailea		Ez
	Uholde-arriskua	Balioa (Ha)		0
		Baldintzatzailea		Ez
	Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua	Balioa (Ha)		0
		Baldintzatzailea		Ez
	Higadura-arriskua	Balioa (Ha)		0,7
		Baldintzatzailea		Bai
KULTUR ONDAREA	Egoera*		Ez	
	Baldintzatzailea		Ez	
MUGIKORTASUNA	Egoera		-	
	Baldintzatzailea		Bai	

A: Autobusa; B: Bizikleta bidezko lotura; O: Oinezko lotura.
* Kasu hauetan egoeran dagokion ingurumen-eragileraz azterketa-eremuan badagoen edo ez adierazten da.

Taula: Kanpanzar harrobia esparruaren ingurumen-baldintzatzaile nagusiak.

A.21.2: Kanpanzar harrobia. Ingurumen baldintzatzaileak planoan esparru honen ingurumen-baldintzatzaile nagusiak azaltzen dira.

4.22.3. Ingurumen Balorazioa

Indarrean dagoen HAPO-k ez du antolamendu zehatzik proposatzen Kanpanzar harrobian eta Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak ere ez du aurreikuspen garbirik egiten eremu honetan egin daitezkeen proposamenen inguruan.

Honela, HAPO-ren berrikuspenaren fase honetan harrobi honen inguruan ingurumen-balorazio bat egin ahal izateko nahikoa zehaztasunik duten hautabiderik ez da proposatu. Hurrengo faseetan proiektu honi buruzko goi-erantzukizunak sor daitezkeen alternatibak definitu eta baloratuko dira txosten honetan bertan.

4.23. LUR HIRITARREZINAREN ZONIFIKAZIOA**4.23.1. Hautabideen deskribapena**

Lurzoru hiritarrezinari dagokionean, HAPO-an jasotako araudiak urteak daramatza indarrean. Izan ere, aurretik zeuden Arau Subsidiarioen Aldaketa espedientea (lurzoru hiritarrezinari zegokionean) 1997 urtean onartu zen behin betikoz, eta gero HAPO-k bereganatu egin zuen araudi hori. Bere garaian onartu ziren Lurraldearen Antolamenduaren Artezpideen (LAA-en) irizpideekin ere bat zetorren lurzoru hiritarrezinerako araudia eta bere horretan mantendu da. Ordutik hona emaitza onak eman eta tresna egokia dela ikusi da. Hala ere, denbora pasaenez, zuzenketa txiki batzuk egitea beharrezkoa ikusi egin da udalaren partetik, besterik ez bada Basogintza eta Nekazaritza Antolatzeke Lurraldearen Arloko Planaren zonifikazioa aztertuko da eta lurzoru hiritarrezinaren antolaketa aiputako dokumentu horrek proposatzen duen terminologiarekin bateratzea aztertuko da.

1.- Indarrean dagoen HAPO-k lurzoru hiritarrezinean erabilera globaleko bederatzi kategoriak ezarrita daude²⁵, eta horietako bakoitzerako lurzoruaren erabilerarako arauak finkatuta daude.

- 1. Garapen gordespenerako lurzoru hiritarrezina
- 2. Sistema orokorrak babesteko lurzoru hiritarrezina
- 3. Hidrologia sarea babesteko lurzoru hiritarrezina
- 4. Arkeologia aztarnategiak babesteko lurzoru hiritarrezina
- 5. Paisaia babesteko lurzoru hiritarrezina
- 6. Edafologia berreskuratzeko lurzoru hiritarrezina
- 7. Basoa babesteko lurzoru hiritarrezina
- 8. Baserriak eraiki ahal izateko lurzoru hiritarrezina
- 9. Nekazaritza eta baso ustiapeneko lurzoru hiritarrezina

Kategoria	Azalera (ha)	Lurzoru hiritarrezinaren Azaleraren zenbatekoa
Garapen gordespenerako lurzoru hiritarrezina	283,3	9,7%
Sistema orokorrak babesteko lurzoru hiritarrezina	170,2	5,9%
Hidrologia sarea babesteko lurzoru hiritarrezina	104,6	3,6%
Arkeologia aztarnategiak babesteko lurzoru hiritarrezina	19,8	0,7%
Paisaia babesteko lurzoru hiritarrezina	204,9	7,1%
Edafologia berreskuratzeko lurzoru hiritarrezina	71,8	2,5%
Basoa babesteko lurzoru hiritarrezina	1.279,0	44,0%
Baserriak eraiki ahal izateko lurzoru hiritarrezina	127,4	4,4%
Nekazaritza eta baso ustiapeneko lurzoru hiritarrezina	644,1	22,2%
Guztira	2905,1	100,0%

A.22.1. Lurzoru hiritarrezinaren zonabanutzea (HAPO). '0' alternatiba planoan azaltzen da kategoria bakoitzaren hedapena.

2.- Basogintza eta Nekazaritza Antolatzeke Lurraldearen Arloko Planaren behin-behineko onespeneko dokumentuak honako antolamendu-kategoria hauek finkatu ditu Arrasateko lurzoru hiritarrezinerako:

- **Mendia:** suprakategoria honetan, zuhaitz, zuhaixka, sastraka edo belar espezieak dauden landa lurrak sartzen dira, baldin eta laborantzari ez badagozkio eta parke eta lorategi urbanoetan ez badaude. Arrasateko udalerrriaren zatirik handiena hartzen dute, % 73 inguruan.

Mendia suprakategoriaren barruan, udalerrian dauden kategoriak 'Larre menditarra-harkaitzak', 'Larre menditarra', 'Basoa-mendi urria' eta 'Basoa' izenekoak dira.

²⁵ Araudiaren 90 artikulua.- Lurzati banaketa eta erabileren araubidea

- ‘Larre menditarra-harkaitzak’ kategoriak Udalaitz mendiaren inguruko 106,9 ha.ko esparrua hartzen du.
- Bigarren kategoriak, larre menditarrak izenekoak alegia, kota garaietako soropilak barneratzen ditu, Kanpanzar eta batez ere Lakaingain aldean zabaltzen direnak. Denera 0,7 ha.ko azalera dagokio kategorია honi.
- ‘Basoa-mendi urria’ kategoriak 18 ha.etan zabaltzen da, batez ere Udalaitzeko magaletan, abarizti eta artadiak dauden lekuetan.
- Azkenik, ‘basoa’ kategoría udalerraren zatirik handiena hartzen du, 2.301 ha denera, eta bertan sartzen dira zuhaitzez estalita egoteko bokazioa duten lurrak, bai bertako basoekin bai espezie aloktonoek osatutako basoekin.

- **Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala:** kategoría honetan askotariko nekazaritza-ahalmena duten lurzoruak biltzen dira. Udalerriko azaleraren %13 inguru sartzen da kategoría honetan. Udalerraren zenbait bizkar eta muinoetan kokatzen diren hainbat enklabe sartzen dira kategoría honetan, batez ere Bedoña, Udala eta Atxabalgo inguruetan.

- Horien artean malda handiagoa duten lursailak ‘Trantsizioko landa-paisaia’ azpikategorian sartu ditu LAP-k gehienbat. Trantsizioko landa-paisaia azpikategorian produkzio-ahalmen txikieneko zonak edo larrez eta baso-masa txikiez estalitako landazabaleko eremuak sartzen dira. Zona horietan nekazaritza-azalera erabilgarriari eta lurzoruen nekazaritza-ahalmenari eutsiko zaio. Denera 409 ha.
- Bestalde, eremu txiki batzuk ‘balio estrategiko handia’ azpikategorian taldekatu ditu LAP-k, 18 esparruetan banatuta eta 17,8 ha.ko azalera denen artean. Zona horiek nekazaritza-sektorerako ikuspegi estrategikotik hartzen ditu aintzat, eta lehentasunekotzat jo da beste erabilera batzuen aurrean horiek mantentzea eta zaintzea.

- **Ingurumenaren hobekuntza:** eremu andeatuak dira, lurzoru gutxikoak edo erosio arrasto handia dutenak, non lehenbailehen ekosistema berrezarri eta hobetzeko lanak egin behar diren, baliabidea galtzen jarraitzea saihesteko. Arrasaten, zenbait harrobik hartzen duten eremua sartu da (Kobate, Santutxoko eta Kanpanzarko harrobiaren zati bat). Denera, 6,6 ha.ko azalera.

Nekazaritza eta abeltzaintza antolatzen diren LAParen antolamendu-kategoriak. Arrasateko udalerria			
Kategoriak eta azpikategoriak		Azalera (ha)	Udalerriko azaleraren %a
Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala	- Balio estrategiko handiko lurzoruak	17,8	% 0,5
	- Trantsizioko landa-paisaia lurzoruak	407,9	% 12,2
Mendia	- Larre-menditarra-harkaitzak	106,9	% 3,2
	- Larre menditarra	12,4	% 0,4
	- Basoa-mendi urria	18,0	% 0,5
	- Basoa	2.301,3	% 68,7
Ingurumen hobekuntza		6,6	% 0,2

Gainontzeko azalera hiri-lurzoru eta lurzoru hiritargarriari dagokie, 2008ko ‘Udalplan’ datuak erabilita (Ekutio kategoría honetan horrexegatik azaltzen da). Kategoría honetan Bizitegirako lurzoru, ekonomia-jardueretarako lurzoru, zuzkidura-lurzoru eta azpiegiturak batzen dira, eta 478 ha inguruko azalera betetzen dute.

- **Baldintzatzaile gainjarriak:** Lurralde Antolamendurako Artezpideek (LAA) Antolamendu Kategorien gainera jarduten duten zenbait Baldintzatzaile Gainjarri definitzen dituzte, kasuan kasu aurkezten den ingurumen-arriskuaren arabera zenbait jarduera garatzeko modua mugatu ahal izateko.

LAP honetan erabilitako Baldintzatzaile Gainjarri hauen sistematizazio orokorra hurrengoa da (LAP-ren 10. eta 13. ataletan zehazten dira bai horiek mugatzeko irizpideak bai eremu horietako erabilera-irizpideak ere):

- Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna
- Higadura jasateko arriskua duten tokiak
- Erabilera Publikoko Mendiak eta Mendi babesgarriak
- Interes naturaleko tokiak
- Pasabide ekologikoak

- Paisaia gutxi aldatu den eremuak

Gainjarritako baldintzatzaile gehienak udalerraren iparraldean zabaltzen dira, zehazki hirigunetik iparraldera, akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna izan ezik, eremu horiek udalerrri hegoaldera ere zabaltzen dira eta.

Nekazaritza eta abeltzaintza antolatzeke LAParen gainjarritako baldintzatzaileak. Arrasateko udalerrria		
Gainjarritako baldintzatzaileak	Azalera (ha)	Udalerrriko azaleraren %a
Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna	767,1	% 22,9
Higadura jasateko arriskua duten tokiak	146,4	% 4,4
Erabilera Publikoko Mendiak	91,1	% 2,7
Interes naturaleko tokiak	320,6	% 9,6
Pasabide ekologikoak	961,2	% 28,7

A.22.2. Lurzoru hiritarrezinaren zonabanatzea (Basogintza eta Nekazaritza LAP) planoak LAP honen proposamena jasotzen du.

Orokorrean, eta eremu hauetan aplikagarria den araudiak ezarritakoaren ildo beretik, udal plangintzak aukera izango du baldintzatzaile gainjarri hauek eragindako eremuak tokiko eskalara doitzeko, eta era berean izendatutako eremu eta baliabide hauengan jardueraren batek eragin negatiboren bat izan ez dezan ziurtatzeko beharrezko neurriak ezarriko ditu.

Zenbait erabilera eta jardueren ezarpenaren bideragarritasuna edo bideragarritasun eza zehazte aldera, hauek LAA-k ezarritako mekanismoen arabera arautuko dira, hots: bultzatuak (1), onargarriak (2) eta debekatuak (3).

Kasu bereziak:

**(2a). Kategoria hauen okupazioa ezartzen duten plan edo proiektuen ingurumen-azterketa bat egin beharko da, ingurumenaren eraginaren ebaluazio-bateratu, indibidualizatu eta sinplifikatuari dagokien prozeduraren bitartez, kasuan kasu eta kontuan hartuz LAP honek definituriko jarduera-tresnek ezartzen dutena azterketa edo ebaluazio horretan jarduera, azpiegitura eta basogintza zein nekazaritzako industriengan eragindako kalteak ere aztertzeke eta, hartara, neurri zuzentzaileak proposatzeko. Ingurumen eta nekazaritza parametroen arabera hautabideen analisia ebaluazioaren alderdi garrantzitsu bat izan beharko da. Aipatutako ingurumen-prozedura hauetakoren bat jasaten ez duten erabileren kasuan, Basogintza eta Nekazaritzarako arloko administrazioaren derrigorrezko txostena beharko dute ezarri baino lehen.*

*** (3a). Erabilera ez da desiragarria Antolamendu Kategoria horretarako, onargarria izango litzateke baldin eta maila gorengoko lurralde antolaketarako tresnaren batek bermatzen badu, hala nola: Lurralde Zatiko Plana (LZP) edo beste Lurraldearen Arloko Planak (LAP), beren eskumenei dagokien esparruan. Beren izaeragatik aipatutako tresnetan agertzen ez diren proiektuen kasuan, 2a atalean azaldutako protokolo antzekoa jarraituko da, hauek Hirigintza Planen batea sartu edo beren Aldaketa behar ez badute behintzat; kasu horietan 2a atalean ezarritako erregulazioez gain, Euskal Herriko Lurralde Antolamenduaren Batzarraren aurretiazkoa eta loteslea den txostena beharko dute behin betiko onartuak izan daitezten.*

Antolamendu-kategorien erabilera eta jardueren erregulazio-matrizean (edo Antolamendu-matrizean), aurrez aurre jartzen dira lurraldean garatu litezkeen erabilera ezberdinak (lerroetan), definituriko Antolamendu-Kategoria ezberdinetan (zutabeetan) beren ezarpena erregulatze aldera.

Erabilera edo kategoria jakin baterako antolakuntza zehatzeko dokumentuak badaude, edo aurreikusten badira (hala nola, erauzketa-jardueren erabilera edo Errepideen Plan Orokorra), matrizean dagozkien gelaxkak hutsean agertzen dira. Lurrazaleko Uren Babesari dagokien kategoriaren kasuan, matrize honetan nekazaritza-erabilera besterik ez dira arautzen, gainontzeko erabilera EAEko Ibai eta Erreketako Ertzen Antolamendurako Lurraldearen Arloko Planaren esku utziz.

ERABILERAK	ANTOLAMENDU-KATEGORIAK							
	NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, LANDAZABALA		MENDIA				INGURUMEN HOBEKUNTZA	LURRAZALEKO UREN BABESA
	Estrategikoa	Trantsizioko paisaiak	Basoa-mendi urria	Basoa	Larre menditarra	Larre menditarra- harkaitzak		
INGURUGIROAREN BABESA								
Ingurumen hobekuntza	2	2	1	2	2	2	1*	1
AISIA ETA AISIALDIA								
Jolas-jarduera zabalak	2	2	2	2	2	2	2	-
Jolas-jarduera trinkoak	2a	2a	2a	2a	2a	3	2a	-
Ehiza eta arrantza-jarduerak	2	2	2	2	2	2	2	2
LEHEN SEKTOREKO BALIABIDEEN USTIAPENA								
Nekazaritza-jarduerak	1	1*	2*	2a*	3	3	3	2*
Nekazaritza-ustiapenekin loturiko eraikinak	3a*	2a*	3a*	3a*	3	3	3	3
Abeltzaintza-jarduerak	2	2	2*	2*	1*	2*	2*	2*
Abeltzaintza-ustiapenekin loturiko eraikinak	3a*	2a*	3a*	3a*	3a*	3	3	3
Basogintza-jarduerak	2a*	2*	1*	1*	2*	2*	1*	2*
Basogintza-ustiapenekin loturiko eraikinak	3a	2a	3a	3a	3	3	3	3
Nekazaritza-Industriak	3a	2a	3a	3a	3	3	3	3
Erauzketa-jarduerak	-	-	-	-	-	-	-	-
AZPIEGITURAK								
Garraio bideak	-	-	-	-	-	-	-	-
Mendibideak eta basoko pistak	2a	2a	2a	2a	2a*	3	2a	-
Aireko lineak	2a	2a	2a	2a	3a	3	2a	-
Lurpeko lineak	2a	2a	2a	2a	3a	3a	2a	-
A motako instalakuntza teknikoak	3a	2a	2a	3a	3	3	3	-
B motako instalakuntza teknikoak	2a	2a	2a	2a	2a	3a	2a	-
Hondakindegia eta zabortegeak	3a	3a	3a	3a	3	3	3a	-
ERAIKUNTZA ERABILERAK								
Lehendik zeuden gunetan oinarritutako hirigintza hazkundeak	3a	2a	2a	3a	3a	3	2a	-
Lehendik zeuden gunetan oinarritu gabeko hirigintza hazkundeak	3a	3a	3a	3a	3	3	3a	-
Herri-onurako eta gizarte-intereseko eraikinak	3a	3a	3a	3a	3a	3	3a	-
Nekazaritza-ustiapenari lotutako etxebizitza isolatua	2a*	2a*	3a	3a	3a	3	3	-
Nekazaritza-ustiapenari lotu gabeko etxebizitza isolatua	3	3	3	3	3	3	3	-
Instalazio arriskutsuak	3a	3a	3a	3a	3a	3	3a	-

4.23.2. Ingurumen Baldintzatzaileak

Lurzoru hiritarrezinaren antolamenduaren aukeren arteko eztabaidarako, ingurune fisikoaren azterketa eta diagnostikotik ateratako elementu azpimarragarrienak jarraian azalduko dira, kontuan hartu daitezten:

- Udalako konplexu karstikoa interes geologiko eta geomorfologiko gunea (583 ha), Lurraldearen Zatiko Planak zehaztutakoa.
- Interes Naturalistikoko Eremuen Zerrenda Irekian (Lurralde Antolamendurako Artezpideak, LAA) Udalaizteko ingurua sartzen da (602 ha), bere interes geologiko, geomorfologiko, faunistiko, botaniko eta paisajistikoengatik.
- Udalaizteko ingurua erreferentzi paisajistiko nabarmena da Arrasateko udalerrian, baita inguruan ere. HAPO-ak jadanik 'Paisaiaren babesak' kategorian sartu du eremua, Haldagobaso, Kerizatueta eta Etxezarretako basoekin batera.
- Ahalmen agrológico handiko lurzorua hedadura azken 25 urtetan asko murriztu da hiri eta azpiegituren garapenari esker.
- Babesa mereziko lukeen intereseko landaredia (harkaiztiak, goi-larreak, behe-larreak eta belazeak, hostozabalen basoak, ibaiertzeko basoak, baso gazte eta heskaiak, txilardiak) 1.188 ha-tan zabaltzen da udalerrian, horietatik 1.121 ha lurzoru hiritarrezinean kokatzen dira.
- Bi Erabilera Publikoko Mendi daude udalerrian.
- Mehatxatutako faunarentzako lehentasunezko zenbait banaketa eremu azaltzen dira udalerrian, hala nola baso-igel iberiarrarena, bisoi europarrarena, uhandre alpetarrarena eta shereiber muskerrarena. Udalerriko mendebalde osoan zabaltzen dira, batez ere baso-igelarena, bisoiarena sare hidrografikoari loturik agertzen den bitartean. Kiropteroen kasuan Kobateko koba agertzen da aterpe berezizat.
- EAEko Pasabide ekologikoen sarearen zati bat udalerrian iparraldeko eremuan hedatzen da. Gorbeia eta Aizkorri arteko lotune-area eta korridore-loturatzat hartutako areak 961 ha hartzen ditu udalerrian.
- HAPO-k identifikatutako aztarnategi arkeologikoak hiru eremuetan: Kobate, San Andres eta Murugainen.
- Udalerrian erliebe malkartsua da. Azaleraren %30a inguruk malda handiak edo oso handiak azaltzen ditu, %50ko maldak baino handiagoak. Eremu horietatik, %13a malda gogor xamarak ditu, %75 baino gehiagoko maldak, higadura-arriskua handitzen den tokiak dira.
- Bere ezaugarri litologikoak direla eta akuiferoen kutsadurarako urrakortasun handia edo oso handia duten eremuak hedadura zabala hartzen dute udalerrian, 962 ha inguruan.

4.23.3. Ingurumen Balorazioa

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen kategoriak oinarri hartuta, eta aipatutako ingurumen baldintzatzaile azpimarragarrienak kontuan izanik, eztabaidarako balioko duelakoan, hausnarketa-proposamena azalduko da jarraian:

- Babes berezia:
 - Udalaizteko ingurua: bere balio geologiko, geomorfologiko, botaniko, faunistiko eta paisajistikoengatik. Horrez gain, EAEko pasabide ekologikoen sarean hartzen du parte. Egun ez du, modu ofizialean, inongo babesik, HAPO-ak 'Paisaiaren babesak' kategoriari dagokionaz aparte. Mugaketa desberdinak proposatu dira zenbait lurralde antolamendurako planetan, hala nola LAA-k zehaztutako 'interes naturalistikoko eremuen zerrenda irekia'-n agertzen dena, Debagoieneko LZP-k azaltzen duen 'interes geologiko eta geomorfologiko eremua' edota zenbait azterketa sektorialak proposatutakoak. Beraz, babes bereziko eremuaren mugak zehaztu beharko litzake, egun dagoen egoera oinarri hartuta.

Aipatutako esparruak mendiko larreak, LAA-etan kategoria berezizat azaltzen dena, barneratuko luke, beti ere abeltzaintza jarduera onargarritzat hartuz.

Eremu honen babesak Europar Batasunaren intereseko zenbait habitaten babesak ere ahalbidetuko luke aldi berean, hala nola '4030: Txilardi lehor azidofiloak' (11,2 ha); '4090: Txilar kaltzikola genistadunak' (12,4 ha); '6210: Larre lehor erdi-naturalak eta lurzoru karetsu gaineko sastrakadi

faziesak (Festuco-Brometalia) (26,8 ha); '6210*: *Larre lehor erdi-naturalak eta sastrakadi faziesak, orkideadunak*' (1,6 ha); '6230*: *Nardus belar-formazioak, mendiko eremuetako substratu silizeoen gainean*' (5,1 ha); '6510: *Altuera txikiko sega-larre pobreak (Alopecurus pratensis, Sanguisorba officinalis)*' (6,4 ha); '8130: *Hartxingaditako landaredia*' (2,9 ha); '8210: *Landaredi kasmofitikoaren duten harkaitz kaltzikolako maldak*' (59,1 ha); '9260: *Gaztainadi zaharrak*' (0,17 ha); '9340: *Artadiak eta abariztiak*' (284,0 ha).

Horrez gain, fauna mehatxatuen lehentasunezko zenbait banaketa-eremu ere babestuak izango lirateke, hala nola baso-igel iberriarra-, uhandre alpetarra- eta schreiber muskerraren banaketa-eremu zabalak. Arriskuan diren flora espezieen habitat motari buruz ere gauza bera esan daiteke, zeren eta bai *Quercus coccifera* (sastrakadietan), bai *Ilex aquifolium* (basoak) baita *Aster alpinus* ere (kareharrizko harkaitziak) eremu honetan aurkitzen dituzte babesak.

- Babestu beharreko gainontzeko paisaiak, hala nola HAPO-ak izendatutako Hialgobaso, Kerizatueta eta Etxezarretako basoak.
- Aztarnategi arkeologikoak: HAPO-k zehazturiko hiru eremuak, Kobaten, San Andresen eta Murugainen.
- Ingurumen hobekuntza:
 - Katgoria honek harreman estua dauka HAPO-k zehazturiko 'Berreskuratze edafologikoa' kategoriarekin, non bertan utzitako harrobiek, azpiegituretako obrek hondatutako eremuak eta gainontzeko bazterreko lurzoruek badute lekua.
 - Katgoria honen mugaketa berraztertzea behar du, azken urteotako izan diren aldaketan harira (AP-1, Olandixoko tunela, Kobateko harrobiaren hedadura eta abar).
- Lurrazaleko uren babesak:
 - Katgoria honek HAPO-k zehazturiko 'hidrologia sarea babesteko lurzoru herritarrezina' kategoriarekin bat dator. EAEko ibai eta erreken ertzak antolatzen dituzten Lurraldearen Arloko Planak zehaztutako ur-ibilguen babes eremuak hartzen ditu barnean. Babes eremuak ur-ibilguen osagai hidraulikoaren arabera daude mugatuta.
 - Katgoria honen babesak ibai ertzetako landarediaren babesak eta horren inguruko habitatak ere ahalbidetuko ditu. Horien artean Europa Batasuneko intereseko hurrengo lehentasunezko habitata (haltzadi kantauriarra): '91E0*: *Alnus glutinosa eta Fraxinus excelsior (Alno-Padion, Alnion incanae, Salicion albae) espezieetako baso alubialak*'.
 - Horrez gain, bisoi europarrarentzako lehentasunezko banaketa-eremuak diren udalerrira zeharkatzen duten ubideak ere babestu behar dira.
- Nekazaritza, abeltzaintza eta landazabala:
 - Nekazaritza-erabilera ahalmena duten gainontzeko lurzoruek barneratu behar dira, hau da erabilera hori aurrera eramateko muga gaindiezinak (maldak batez ere) dituzten lurzoruek izan ezik. Katgoria honetan tratamendu-irizpidea lurzoru ahalmen agrologikoa, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak iraunaraztean datza; erabilera hauekin batera ekosistemen eta nekazaritza-paisaien babesak ziurtatzen duten bestelako jarduerak ere bateragarriak izan behar dira.
 - Katgoria honek, beraz, HAPO-ren lurzoru hiritarrezinaren zonifikazioaren katgoria bat behintzat barneratuko luke: '*Baserriak eraiki ahal izateko lurzoru hiritarrezina*'.
 - Nekazaritza eta basoak antolatzen dituzten Lurraldearen Arloko Planak bi azpikatgoriatan banatzen ditu lurzoru hauek. Horien artean malda handiagoa duten lursailak '*Trantsizioko landa-paisaia*' sartzen ditu.

Gainontzekoak, '*Balio estrategiko handia*' azpikategorian egongo liratekeelarik. Arrasateko udalerrian, oso eremu estu eta txikiak izendatu ditu arestian aipatutako azpikategoria honetan eta izendatutako batzuk azpiegiturak egiterakoan desagertu egin dira azkeneko urtetan.

- Arrasateko kasuan, oso eremu estu eta txikiak izendatu ditu LAP-k azkeneko azpikategoria honetan eta izendatutako batzuk azpiegiturak egiterakoan desagertu egin dira azkeneko urtetan. LAP-ren azpikategoria mugatzeko irizpideei jarraituz Arrasateko kasuan lurzoru hauen mugaketa doitu egin da eta zenbait eremu identifikatu dira, nabarmen sakabanatuak, eta guztira 51 ha inguru okupatzen dutelarik.
- Basoa:
 - Kategoria honek zuhaitz estaldura mantentzeko joera duten lurzoruak hartzen ditu barnean. LAA-k eta Nekazaritza eta Basogintza antolatzeko LAP-k bat datoz kategoria honi buruz irizpideak ematerakoan. Beraien esanetan basozaintza-erabilera bereizteko zailtasunaren ondorioz, baso-sistemetan ustiapen-eta babes-funtzioak elkarrekin nahasten dira eta beraz baso-area bat bakarrik mugatu behar dela zehazten dute. LAP-k literalki horrela azaltzen du bere zehaztapena: "*(...) Baso-erabilerako eremu guztiak kategoria bakar batean sartzen dira, ekoizpen eta babes funtzioak loturik baitaude horietan. Arloko Administrazioak izango dira, ekoizpen beharren eta lurzoruaren baldintzen arabera, kasu bakoitzean baso-espezie egokiena zein den jakiteko azterketak egingo dituztenak, mendien kudeaketa jasangarriko irizpideak kontuan hartuta.*".
 - Kategoria honek zuhaitz estaldura mantentzeko joera duten lurzoruak hartzen ditu barnean. LAA-k eta Nekazaritza eta Basogintza antolatzeko LAP-k bat datoz kategoria honi buruz irizpideak ematerakoan. Beraien esanetan basozaintza-erabilera bereizteko zailtasunaren ondorioz, baso-sistemetan ustiapen-eta babes-funtzioak elkarrekin nahasten dira eta beraz baso-area bat bakarrik mugatu behar dela zehazten dute. LAP-k literalki horrela azaltzen du bere zehaztapena: "*(...) Baso-erabilerako eremu guztiak kategoria bakar batean sartzen dira, ekoizpen eta babes funtzioak loturik baitaude horietan. Arloko Administrazioak izango dira, ekoizpen beharren eta lurzoruaren baldintzen arabera, kasu bakoitzean baso-espezie egokiena zein den jakiteko azterketak egingo dituztenak, mendien kudeaketa jasangarriko irizpideak kontuan hartuta.*".
 - LAP-k udal planeamenduarekiko honako hau zehazten du: "*(...) Bestalde, kartografia-eskala hedatzeko arrazoien arabera, udal planeamenduak doitu egin ahal izango ditu antolamendu kategoriak, txosten honetako dagokion ataldean azaldutako irizpide kartografikoak jarraituz*".
- Gainjarritako baldintzatzaileak:
 - LAA-ek eta aipatutako LAP-k jarraian azalduko diren gainjarritako baldintzatzaileak hobesten dituzte.
 - *natura-gune babestuak*: Gune babestuen sarea da. Arrasateko kasuan ez dago egun natura-gune babesturik baina LAA-ek barne hartzen dute ere "*(...) etorkizunean aitortuko direnak (...)*". Udalaizteko ingurua natura-gune babestuen sarean sartzen bada HAPO-k gainjarritako baldintzatzaile gisa izendatu beharko luke.
 - *Eremu urpegarriak*: 'Uholdeen Prebentziorako Plan Integralak' eta beren egokitzapenak ezarritako birgertatze-aldien arabera ohiko uholdeak jasateko benetako arriskua duten eremuak dira. Arrasateko udalerrian kasuan eremu hauen zatirik handienak hirilurra eta lurzoru hiritargarrian kokatzen dira. Halere badira lurzoru hiritarrezinean horrelako ezaugarriak dituzten lurzoruak ere. Gainjarritako baldintzatzaile honek azkeneko eremu hauek hartuko lituzke barnean.
 - *Akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasuna*: 'EAEko akuiferoek kutsaduraren aurrean duten urrakortasunaren maparen' arabera izendatutakoak. Urrakortasun handia edo oso handia azaltzen diren lurzoruak. Arrasaten nahiko eremu zabalean azaltzen dira honelako ezaugarriak dituzten lurzoruak.

- *Higadura arriskua duten eremuak:* litologia eta erliebe izugarriak direla eta higadura-fenomenoak pairatzeko aukera handiak dituzten eremuak. Gainjarritako baldintzatzaile honen kasuan LAP-k horretarako propio erabilitako higadura eredu aplikatzearen ondoriozko emaitzei, ingurune fisikoaren azterketa honetan identifikatutako %75 baino gehiagoko maldak duten mazelak gehitu dizkiogu.
- *Natur interesa duten eremuak:* babestutako Naturaguneez gain, LAA-ek proposatutako 'Natur Intereseko Guneen Zerrenda Irekia' ren dauden eremuak izendatuko lituzke gainjarritako baldintzatzaile honek. Arestian aipatu den moduan Arrasateko kasuan Udalaitezko ingurua izango litzake zerrenda horretako partaide. Nekazaritza eta Basogintza antolatzeko LAP-k eremua mugatzeko garrantzi bereziko habitatez estalitako eremuen kartografia hartu du aintzat batik bat.
- *Korridore ekologikoen sarea:* lurraldeko fauna aniztasuna landaredi naturaleko orban egoki eta handien existentziari eta truke genetiko ahalbidetzen duen orban horien arteko komunikazio aukerari zor zaio. Arrasateko kasuan Udalaitez eta Elorregi arteko pasabide ekologiko zabal bat proposatu du 'EAeko Korridore Ekologikoen Sarea' aurreproiektua, sare honen egituran funtsezkoak diren lotune-areak eta korridore-loturazko elementuak baturik.
- *Gutxi aldatutako paisaia duten eremuak:* landa- nahiz natura -paisaiaren ordezkari diren eremu onak dituzten guneak dira, oztopo diren elementuetatik (hiriguneak, industriguneak, komunikazio azpiegiturak eta abar) urrun daudenak.
- *Onura Publikoko Mendiak:* LAP-k Onura Publikoko Mendien mugak azalduko dituen gainjarritako baldintzatzailea udal planeamenduan aintzat hartzea oso interesgarritzat jotzen du. Eremu horiek arautzen dituen legeria mendiei buruzko foru arauetan biltzen dena izanen da batik bat. Arrasaterako prestatu den ingurumen inbentarioan azaltzen den arabera bi OPM daude udalerrian.

5. INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

Arrasateko HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen dokumentuak ez ditu proposamen zehatzik jasotzen txosten honen 4. Kapituluari aztertu diren hautabide nagusientzako. Kasu batzuetan ez da baztertzeko berrikuspenaren indarrean dagoen HAPO-k proposatzen duen antolamendu bera aukeratzea azkenean, baina hori baino lehen hautabide hauen inguruko eztabaida zabaltzeko asmoa azaltzen du Aurrerapen Dokumentuak.

Gauzak honela, HAPO-ren berrikuspenaren Helburu eta Irizpide edo garapen-proposamen zehatzik ez diren bitartean, ezingo da hauek eragindako inpaktuen identifikazio eta balorazioa egin.

5.1. PLANAREN HELBURUEK INGURUMENAREN GAIAN IZAN DITZAKETEN ERAGINEN AZTERKETA

HAPO-ren berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak ez ditu helburu edo irizpide zehatz batzuk azaltzen. Plangintzaren fase honetan zenbait hautabideren inguruan eztabaida edo hausnarketa zabaltzeko asmoa azaltzen du Arrasateko Udalak, indarrean dagoen HAPO-k aurreikusten dituen zenbait jarduketaren egokitasuna aztertzeko asmoarekin.

Nahiz eta HAPO berria idazteko jarraituko diren helburu eta irizpideak oraindik ez diren zehaztu, Aurrerapen Dokumentuan aipatzen denaren arabera, badirudi berrikuspen honek indarrean dagoen plangintza mantendu edota egun aurreikusita dauden garapen batzuk gutxitzeko irizpide orokorra jarraituko duela. Hasiera batean, garapen hauetako batzuk gutxitu edo baztertzeko ingurumenaren eragin positiboa izango zukeela uste da, nahiz eta oraindik ere ez dagoen informazio nahikorik hau baieztatu ahal izateko.

Plangintzaren hurrengo faseetan, behin HAPO-ren Helburu eta Irizpideen dokumentua onartzen denean, helburu hauek ingurumenaren eraginak zehaztasun handiagoz aztertuko dira atal honetan bertan.

5.2. PLANAREN JARDUNEK INGURUMENAREN IZAN DITZAKETEN ERAGINAK IDENTIFIKATzea ETA BALORATzea

5.2.1. Planaren jardunetarako inpaktuen identifikazioa eta aurreikuspena

HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak azaltzen duenaren arabera, orain arte egungo plangintzan aurreikusten diren garapen batzuen inguruko eztabaida zabaltzeko asmoa besterik ez da agertu, honen inguruan gehiago aurreratu ez delarik.

Fase honetan, oraindik ere, indarrean dagoen HAPO-k eremu hauetan proposatzen duen antolamendua besterik ez da ezagutzen, berrikuspen honi dagokion '0' hautabidea, alegia. Nahiz eta ezin den baztertu kasu batzuetan HAPO-ren berrikuspenaren dokumentuak egingo duen proposamenak egun indarrean dagoen plangintzarekin bat etortzerik, '0' hautabide honen ingurumenaren gaineko eraginak txosten honen 4. Kapituluari jaso dira, eta ez da beharrezkoa ikusten honako atalean berriro ere errepikatzea.

Plangintzaren hurrengo faseetan, garapen-inguru nagusien inguruan erabakiak hartzen joan ahala eta hauen antolamendu zehaztua diseinatzen joan ahala, jarduketak hauek eragingo dituzten inpaktu nagusien aurreikuspena egin ahal izango da, bai eta inpaktu hauen balorazio bat ere.

5.3. INGURUMEN INPAKTUA ZEHAZTEKO ZAILTASUNEN ETA ZIURGABETASUNEN DESKRIBAPENA

Orain arteko ataletan azaldu den moduan, HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuan oraindik ere garapen-proposamenik egin ez denez eta planaren helburu eta irizpideak zehaztu ez direnez, ezin da planak ingurumeneari izango dituen eraginak aurreikusi eta hauen balorazio bat egin.

Horrenbestez, oraindik ere ezin dira antzeman ingurumen inpaktua zehazteko garaian sortu daitezkeen zailtasun eta ziurgabetasunak zeintzuk izan daitezkeen. Edonola ere, txosten honen 4. atalean garatu diren ingurumen-baldintzatzaileak antzemateko garaian, baita '0' hautabideak izan ditzakeen ingurumenaren gaineko eraginak aurreikusteko garaian, zenbait ingurumen-eragileren inguruan nolabaiteko informazio falta sumatu da, eta Plan Orokorren ingurumen inpaktuak zehazteko garaian zailtasun edo ziurgabetasunaren iturri bihurtu daitezkeela pentsatzen da, hala nola:

- Zarata: Arrasatek ez du udalerriko zarata maparik, orain arte 2.002 urtean egindako udalerriko zarataren hasierako azterketa²⁶ besterik ez dago. Aipatutako azterketak zarata-iturri nagusiak antzeman eta beren igorpen-maila kalkulatu zituen, baina ez zuen baliagarria den eragin-eremu bat mugatu iturri hauetako bakoitzarentzat (errepideak, industria, etab). Errepideen kasuan distantzia izan zen zarataren eragina aztertzeke erabili zuen irizpide bakarra, baina oztopoak egotea eta ingurumenaren beste zenbait eragilek garrantzi handia dute zarataren hedapenean. Horrenbestez, ez dira erabili azterketa horrek definituriko eragin-eremuak, eta igorpen-mailari dagozkion datuak bakarrik erabili dira Arrasateko hiriguneak duen egoera akustikoaren diagnostia egiterako garaian.

Honetaz gain, esan beharra dago 2.002ko azterketa egin zenean Arrasateko mendebaldeko ingurabidea eta AP-1 autobidea egin gabe zeudela eta, beraz, ez zirela zarataren ikerketan sartu. Kontuan harturik bi hauek, batez ere AP-1 errepidea, udalerrian dauden zarata-iturri nagusienetarikoa direla, 2.002ko azterketa hau udalerriko osoaren diagnostia egiterako garaian informazio faltan dagoela azpimarratu behar da.

Bestalde, Gipuzkoako Zarataren Mapa Estrategikoen ere lehenago aipatutako errepideak ez dituzte aztertzen, eta ez dute Arrasateko hirigunea zeharkatzen duen GI-627 errepidearen tartea hartzen beren azterketa-eremuaren baitan.

Honekin guztiarekin, udalerriararen egoera akustikoari buruzko datu eguneratuak falta dira, honek HAPO-ren berrikuspenak proposatu ditzakeen garapen eremu berriek izango duten egoera akustikoa baloratu ahal izatea zailtzen duelarik, bereziki eremu hauek indarrean dagoen legeak ezartzen dituen kalitate akustikorako helburuak beteko dituzten aurreikusteko garaian.

- Kutsadura eta baliabideen erabilera: Etxebizitza- zein jarduera ekonomikotarako garapen nagusiek bai obra fasean baita erabilera fasean sortu dezaketen kutsadura eta baliabideen kontsumoa garapen hauen tamaina, kokapen eta ezaugarrien arabera izaten da. Aurrerapen Dokumentuak ez du garapen zehatzik proposatu, dena den, plangintza orokorrak askotan ez du zehaztasun nahikorik hartzen ingurumenaren gaineko eragin hauek era egokian aurreikusi eta baloratu ahal izateko. Dena dela, ziurgabetasun hau HAPO-ren berrikuspenaren hurrengo faseetan baieztatu beharko da.

5.4. SORTUKO ZUTEN INPAKTU LARRIAGATIK ALDATU EDO EZABATU DIREN JARDUNAK

Orain arte esandakoaren arabera, HAPO-ren berrikuspenaren Aurrerapen fase honetan indarrean dagoen HAPO-k aurreikusten dituen zenbait garapen aurkeztu dira, ondoren eztabaidatzera eta definitzera irekita egongo diren garapeneko hautabide bezala ulertu behar direnak.

Ildo horretan, Berrikuspenaren dokumentua lantzeko prozesuan zehar alternatiba hauen proposamenak aldatu egingo dira, kasu askotan garapenerako proposaturiko esparruen azaltzen duten harrera-ahalmenera egokitze aldera.

²⁶ Evaluación del ruido ambiental en Arrasate-Mondragón (AAC, 2002)

4. atalean garatu den alternatiben ingurumen-balorazioan esandakoan oinarrituz, ez da uste indarrean dagoen HAPO-k proposatzen dituen garapenek inpaktu larririk sortuko luketenik, eta aurreikuspen berdina dago Berrikuspen dokumentuak proposatu ditzakeen garapenekin.

5.5. ESPARRUAREN HARRERA-AHALMENA

Lurzoruari buruzko maiatzaren 28ko 8/2007 Legearen 15. artikulua eta lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen garapenean, premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31. artikulua adierazten dutenez, prozesuan zehar honako txostenak egin beharko dira:

- Planaren esparruko hornikuntza-eskari berriak asetzeko beharrezkoa izango den Jabari Publiko Hidraulikoaren babesari buruzko txostena, baliabide hidrikoei buruzko administrazio hidrologiko eskudunak idatzi beharrekoa.
- Errepideen arloan eta aurretik dauden gainerako azpiegituren arloan eskumena duten administrazioen txostena, planaren aurreikuspenek izan dezaketen eraginari buruzkoa. Txosten horrek hirigintza-jardunak azpiegitura horien zerbitzu-ahalmenearen gainean izango duen eragina aztertuko du.

Halaber, 105/2008 Dekretuak eta Estatuko lurzoruari buruzko Legeak ezartzen dutenez, txosten horiek erabakigarriak izango dira ingurumen-memoriarako (ingurumen-organoak idatzi behar duen ingurumen-inpaktuari buruzko txostena). Txosten horiekin bat ez badator, zehazki arrazoituta azaldu beharko da.

Txosten horiek HAPO-ren berrikuspenaren hurrengo faseetan eskatuko dira, eta Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren prozeduraren ondorengo faseetan txertatuko dira.

6. NEURRI BABESLE, ZUZENTZAILE ETA OREKATZAILEEN PROPOSAMENA

Aurreko kapituluetan aurreikusi diren balizko ingurumenaren gaineko eragin nagusiak aintzat harturik, hauek arintzeko eta Aurrerapen Dokumentuan zenbait hautabideren inguruan zabaldu nahi dituen eztabaidetan ingurumenerako onuragarrienak diren aukerak lehenesteko hainbat irizpide estrategiko eta ingurumen-helburuko proposatuko dira hurrengo ataletan.

Espedientearen izapidetzean aurreratu ahala eta HAPO-ren berrikuspenean alternatibak zehazten diren heinean, garapen-proposamen zehatzek ingurumenen izan ditzaketen eraginak saihesteko edo gutxitzeko neurri babesle, zuzentzaile edota orekatzaileak zehaztuko dira.

6.1. HAUTABIDEAK AUKERATZEKO IRIZPIDE ESTRATEGIKOAK ETA INGURUMEN-HELBURUAK

Plan Orokorrean definitzen den hiri eredia ahalik eta iraunkorra izan dadin, hautabide ezberdinen balorazioa eta aukeraketa Ecoeuskadi 2020 txostenean eta EAEko III Ingurumeneko Esparru Programan (2011-2014) jasotako irizpide estrategikoetan oinarritzea proposatzen da, garapen-proposamenak Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiak (2002-2020) ezartzen dituen ingurumen-helburuekin bateragarri izan dadin.

Horretaz gain, otsailaren 27ko 3/1998 Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorrean, ekainaren 20ko 2/2008 lurzorua legearen testu bateratua onartzen duen Legegintzako Errege Dekretuan, eta ekainaren 30eko lurzorua eta hirigintzaren 2/2006 Legean jasotako irizpideak hartuko dira kontuan.

Zehazki, Arrasateko Plan Orokorrean proposamenak erabakitzeke garaian, honako ingurumen-irizpideak aintzat hartu beharko dira:

1. Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea

- Planeamenduak erantzun behar dituen beharrak zorrotasunez aztertzea, etxebizitzetako-, jarduera ekonomikoko-, ekipamenduetarako-, espazio libreetako-, eta hornikuntza-arloan.
- Aipatutako beharrak asetzeko hiritartu gabeko lursailak erabili baino lehen lurzoru antropizatua berrerabiltzeari lehentasuna ematea.
Irizpide honen arabera proposatutako hautabideen artean Atxabalpe, Mendibarren, Gautxori, Santamaina, Aldaiazpi, Azeri, Legarre, Intxausti, San Josepe Harrobia, Kaskonategi eta Meatzetzerreka-1 esparruak dira egokienak hiri-garapenak jasotzeko.
- Hirigintzarako luraren erabileran lurzorua zigilatzea murriztea, dagoen lur bigun eta landaretzaren babesa sustatzea.
Lurzoru 'bigun' edo artifizialdu gabea zigilatzea saihestuko dituzten proposamenak hobetsiko dira, eta batez ere ahalmen handiko lurzoruak mantentzen diren esparruetan. Hortaz, Atxabalpe, Mendibarren, Gautxori, Azeri, Legarre, Intxausti, San Josepe Harrobia, Kaskonategi, Meatzetzerreka 1 esparruetan egoingo diren garapenak lehenetsiko dira.
Aldiz, Barrutieta, Bustintza, Ekisoalde, Uruburu eta Meatzetzerrekan proposaturiko garapenek ez lukete lehentasunik izan behar, beharrezkoak jotzen ez diren bitartean.
- Hirigunean eraikitako ondarearen biziberritzea eta etxebizitza hutsak erabiltzea.
Hirigunearen berreskurapena eta hobekuntza aurkezten duten proposamenak hobetsiko dira, hala nola Mendibarren-Gautxori-Azeri-Legarre-Intxausti esparruetako etxebizitza- eta jarduera ekonomiko-garapenak, Aldaiazpi eta Santamaina-Santa Barbara esparruetan egitekoak diren irisgarritasun eta hirigintza hobekuntzak eta abar.
- Kutsatutako lurzoruak kudeatu eta balorizatzeko modu egokian sustatzea eta erraztea.

HAPOaren berrikuspenean hautabideak proposatu diren eremuetara mugatuz gero, hainbatek kutsatuta egon daitezkeen lurra barne hartzen dituztela ikus daiteke, hala nola: Uruburu, Grandenape, Intxausti, Santamaina, Azeri, Mendibarren, Gautxori, eta Meatzerreka. Legeak zehazten dituen baldintzetan 'Lurzoruraren aitorten deklarazioa' lortu beharko dira esparru hauetako jarduerak martxan jarri baino lehen.

2. Hirian bereizketa eta sakabanatzea saihestea

- Hiri trinkoaren eredua sustatzea. Lurzoruaren erabilera modu misto eta malguan planifikatzea. *HAPOaren berrikuspenean aztertuko diren hautabideak deskribatzerakoan erabilera nagusi, eta gehienetan bakarra, proposatzen da esparru askotan. Horrela da etxebizitzak eraikitzea bideratutako esparruetan, hala nola Garagartza inguruan kokatutakoak (Akisoalden izan ezik, esparru honetan merkataritza aprobetxamendua ere aurreikusten da) eta Uruburu-Agerre garapenetan. Gauza bera gerta liteke jarduera ekonomikoak sustatzeko proposaturiko esparruetan, hala nola Intxaustin, Mendibarren edota Ugalden.*

Beste esparru batzuetan berriz, erabilera mistoa ahalbidetzen da neurri ezberdinetan. Horrela gerta liteke San Josepe Harrobiaren garapenean, Zabaletan edota Azeri-Legarre esparruetan, azken hauetan merkataritza aprobetxamendua aurreikusten delarik.

Erabilera misto eta malgua ahalbidetzea irizpide estrategikoekin bat dator, honelako antolamenduak joan-etorriak egiteko beharrak murrizten baititu.

- Nahiko altuak diren eraikuntza-dentsitateak sortzea. *Irizpide honen harira esparru batzuetako garapen proposamena baztertu edo aldatu beharko da, ez baita Legeak agintzen duen dentsitate minimora iristen, hauen artean Barrutieta edo Bustintzan proposaturikoak. Horrek ez du esan nahi derrigorrez eta kasu guztietan dentsitate altuak proposatu behar direnik (orografia, kokapena, kultur ondarea edo inguruaren ezaugarriak direla eta Uruburu, Agerren, Etxe Txikietan edo Bedoñan honelako garapenak ez lituzke zentzu handirik izango) baina bai lehenetsi behar direla horretarako harrera-ahalmena duten esparruak, hala nola Atxabalpe-Barrutieta-Akisoalde edo Azeri-Legarre-Intxausti.*
- Lurzoruaren erabilera eta mugikortasun jasangarria modu integratua planifikatzea, garraio publikoko eta bizikleta-bideen garapen berrien zuzkiduraren bidez, edota mugikortasun beharrak murriztuz. *Proposatu diren etxebizitza-garapenerako alternatiba gehienak hirigunean kokatzen dira eta autobus-zerbitzu publikoaren eskaintza izango dute, ekintza-esparruan bertan edota bertatik distantzia txikira. Gesalibar-Garagartza inguruko proposamenak eta Bedoña auzunekoak salbuespenak dira. Lehenengo kasuan, herri-autobusaren ibilbideak luzatu zitezkeen, beti ere etxebizitza-garapen trinkoek ahalbidetzen duten masa kritikoa lortzen bada. Bedoñako kasuan zailagoa dirudi, biztanle kopurua ez baita nahikoa autobus zerbitzu erregularra eta, aldi berean, maiztasun aldetik erakargarria antolatzeke.*
- *Proposatu diren Jarduera ekonomikoko esparru gehienek ere arazo bera izango dute. Hirigunetik kanpo kokatzen direnez (batez ere Kanpanzar eta Meatzerrekako kasuetan), mugikortasun beharrak motordun ibilgailu pribatuen bidez asetuko dira. Aldiz, San Josepe Harrobian, Ugalden, Kaskonategin edo Zabaletan, hirigunetik gertuago daudenez, bai autobus zerbitzu publikoaz bai oinez edo bizikletaz iristeko baldintza hobek ahalbidetuko lituzkete, beti ere mugikortasun-modu hauetarako baldintza onak jarriko balira.*
- Familia bakarreko etxebizitzak edo etxebizitza txikien tipologiak ahalik eta gehien murriztea. Erabilera pribatuko espazio libreak ekidin. *Indarrean dagoen HAPO-k aurreikusten dituen dentsitate txikiko etxebizitza-garapenerako bost esparruetan proposamenak eztabaidan jarri dira HAPO-ren Berrikuspenean (Barrutieta, Bustintza, Uruburu, Agerre eta Bedoña). Lehenestekotan, Bedoña auzokoa hobetsi beharko litzateke, inguru horretan ez duelako zentzurik beste motatako garapenik. Gainontzeko esparruetan, Legeak agintzen duen dentsitate minimoa behintzat bete beharko da eta harrera-ahalmena handiagoa duten*

eremuetan (Barrutieta, Bustintza), horien garapena behar izanez gero, dentsitate ertaina ere onartuko luketela uste dugu.

3. Hirigunearen ingurumen-kalitatea hobetzea

- Hiri-izadia eta landagunea lotzen diren korridoreak eta eraztun berdeak sortzea.
Udalerriko intereseko landaredia, batez ere, ur-ibilguen ertzeko haltzadiak osatzen dute; dena den, bestela hostozabalen baso eta heskaiak babesteko irizpidea hartuko da berrikuspenean egiten diren hirigintza-garapenetan.
- Berdeguneetako eta herri barruko ibai-tarteetako ingurumen-kalitatea hobetzea.
Ur-ibilgu bideratu eta estaliak, baita egun egoera txarrean dauden ibaiertzen berreskurapena beharrezkoa jotzen da zenbait esparrutako jarduketetan, hala nola Aramaio ibaian (Atxabalpe, Barrutieta, Mendibarren, Gautxori), Deba ibaian (Intxausti, Legarre, Kaskonategi), Meatzerreka errekan (Ugalde, Meatzerreka).
- Paisaia-faktorea udal-plangintzaren barruan sartzea.
Hautabideetako batzuk paisaiarengan eragin nabarmena izan dezakete, egun paisaia kalitate txarra azaltzen duen eremu baten eraberritzea proposatzen dutelako, edota nekazal-paisaia azaltzen duen eremu batean hirigintza-garapenak proposatzen dituztelako.

Mendibarren, Gautxori, Grandenape, Azeri, Intxausti eremutako garapenak proposatzerako garaian, Plan Orokorrak paisaia-faktorea kontuan hartu beharko du, jarduketa guztiak paisaiaren ikuspegitik ahalik eta egokienak izan daitezke, hiri-paisaiaren hobekuntza lortze aldera.

4. Habitatak eta ingurune naturala mantentzea eta hobetzea

- Interes komunitarioko habitatei arreta berezia eskaintzea.
Interes komunitarioko habitaten babesa, mantentzea eta hobekuntza 92/43/CEE Habitaten Zuzentarauak maila europarrean ezartzen duen helburu eta irizpide bat da. Bedoña, Ugalde, Meatzerreka eremutan eta Kaskonategi-Zabaleta zein Garagartzza-Gesalibar inguruetan proposatzen diren garapenek, ahal den neurrian, habitat hauen babesa ahalbidetuko dute; azken bi hauen kasuan, lehentasuna izango da ur-ibilguen ertzak azaltzen duten 91E0 lehentasunezko interes komunitarioko habitataren babesa, bateragarria baita bi inguru hauetan eman daitezkeen hirigintza-garapenekin.*
- Landaredia kontserbatuz, bereziki basoak eta ibaiertzetako landaredia.
Ingurumen-irizpide modura, hirigintza-garapenezkat Plan Orokorrak proposatzen dituen antolamenduak zuhaitz-estaldura mantentzen duten gunek errespetatuz egingo dira.
- natura-gune babestuetatik kanpo dauden eremuen konektibitatea babestea eta berreskuratzea.
- Mehatxatutako flora eta fauna espezien lehentasunezko banaketa zonak eta interes bereziko eremuak babestea.
- Paisaia naturala eta landa-paisaia babestea.
Lurzoruaren erabileraren inguruan ezarri diren irizpideekin bat eginez, ahal den neurrian udalerriko paisaia naturala eta landa-paisaia babestuko dira, mota honetako paisaiak egoera onean mantentzen dituzten eremutan hirigintza-garapenak kokatzea ekidituz. Kasu honetan, Ugalde eta Meatzerreka eremutan proposatzen diren jarduera ekonomikotarako garapenen beharraren inguruan hausnarketa sakona egin beharko litzatekeela uste da.

5. Aire eta soinu-kalitatea mantendu edota hobetzea

- Partikula eta igorpenen kontzentrazioa areagotzen ez duten proposamenak aurkeztea.
- 1367/2007 Dekretuan ezarritako kalitate akustikoko helburuak lortzeko planak martxan jartzea.

Biztanleria zarata-maila altuegitatik babesteko, Plan Orokorrak hirigintza-garapen berriek (bereziki etxebizitza eta ekipamenduei dagokionez) kalitate akustikorako helburuak betetzen dituztela ziurtatuko du. Plan Orokorrean bertan udalerraren zonifikazio akustikoa egin beharko da, eremu bakoitzaren kalitate akustikorako helburuak zeintzuk izango diren zehazteko; honen arabera, garapen ezberdinak erabilera-mota bakoitzerako egoera akustiko egokiena azaltzen duten eremuetan kokatuko dira.

- Artifizialdu gabeko eremuetan argi-afekzioa murriztea.
Eraikin berrietako esparru publiko eta komunetan, kontsumo apaleko argiztapen-sistemak erabiliko dira, aldi berean, argi-kutsadura ekiditeko.

6. Uraren kalitatea eta baliabide hidrikoen kudeaketa hobetzea

- Baliabide eta ingurune hidrikoak babestea.
Ingurumen-helburu hau betetzeko irizpide nagusia EAeko Ibai eta Erreka ertzak antolatzeko LAP-ak ezartzen dituen gutxieneko tarteak errespetatzea izango da, baita LAP honen araudia betetzea ere.
- Hondakin-uren tratamenduak isuriari eta inguru hartzaileari egokitzea.
Lurzoruari buruzko maiatzaren 28ko 8/2007 Legearen 15. artikulua eta lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen garapenean, premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31. artikulua adierazten dutenez, prozesuan zehar planaren esparruko hornikuntza-eskari berriak asetzeko beharrezkoa izango den Jabari Publiko Hidraulikoaren babesari buruzko txostena, baliabide hidrikoei buruzko administrazio hidrologiko eskudunak idatzi beharrekoa.

7. Hiri-metabolismoa hirigintzako planetan lehentasun gai gisa sartzea

- Hondakinak murriztea.
- Tratamendurik gabeko zero isurketak.

8. Energia aurrezpena eta eraginkortasuna

- Energia berriztagarrien erabilera sustatzea.
Plan Orokorraren araudiak hiritartze eta eraikuntza-proiektuetarako neurri orokorrak energia berriztagarrien erabilera sustatuko dutela ziurtatzeko zein neurri hartu beharko diren aztertu beharko da.

9. Baliabideen kontsumo arduratsua sustatzea

7. PLANAREN ERAGINEN IKUSKAPEN PROGRAMA

7.1. KONTROL ETA JARRAIPENERAKO HELBURUAK

HAPO-ren Berrikuspenaren hurrengo faseetan garatuko den Ingurumena Zaintzeko Programaren helburua Arrasateko Plan Orokorrak proposatutako jarduketak direla-eta erasan daitezkeen ingurumen-elementuak behar bezala babesten direla bermatzea izango da, betiere txosten honen 5. Kapituluan jasoko diren ingurumen-eraginak kontuan hartuz.

Aurreko kapituluetan azaldu den bezala, HAPO-ren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak ez du garapen-proposamen zehatzik jasotzen oraindik ere, beraz ezin da Planaren eraginaren ikuskapen programa proposatu.

Plangintzaren fase honetan, hori bat, ikuskatze programa hau nola garatuko den zehaztu daiteke, hau da, programa hau zenbat faseetan zatituko den. Honela, Plan Orokorraren ingurumen-kontrola hiru faseetan bereizi da oraingoz:

- Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren eta haren garapen-tresnak ikuskatzeko programa, espedienteak bideratzean.
- Plana dela-eta egindako obren ingurumen-ikuskapenerako programa.
- Udalerriko ingurumen-kalitateko alderdirik adierazgarrienen epe luzerako ingurumen-jarraipeneko programa.

7.2. PLAN OROKORRAREN ERAGINAK IKUSKATZEKO PROGRAMAREN FASEAK

7.2.1. Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren eta haren garapen-tresnak ikuskatzeko programa, espedienteak bideratzean.

HAPO-ren Berrikuspena Aurrerapen Fasean dago oraindik ere. Plan Orokor honek proposatzen duen hiri ereduaren ingurumen-jarraipena, hein handi batean, plan honen ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa bateratuari dagokion prozeduraren bidez beteko dela aurreikusten da.

Alde batetik, honako Ingurumen Iraunkortasunerako Txosten honek udalerraren ingurumen-diagnosia egiten du, bere baitan dituen natura-elementu azpimarragarrienak eta ingurumen-arrisku nagusiak antzemateko.

Honetaz gain, proposamen desberdinen inguruan sortu daitezken hautabide ezberdinen ingurumen-balorazioa jasoko du, irizpide bezala erabili dadin erabakiak hartzeko garaian. Plangintzaren fase honetan Aurrerapen Dokumentuak oraindik ere proposamen zehatzik egiten ez duenez, txosten honek '0' hautabideari dagokion hautabideen ingurumen-balorazioa egin du soilik.

Bestalde, bere 5. Eta 6. Kapituluetan txosten honek Plan Orokorrak proposatzen dituen helburuek eta jarduketek ingurumenean izan ditzaketen eragin nagusiak aztertuko dira, eta hauek saihesteko edo gutxitzeko neurri babesle, zuzentzaile eta orekatzaileak proposatuko dira. Lehen esan den moduan, oraindik proposamen zehatzik egin ez direnez, Aurrerapen Dokumentuari dagokion IIT honek plangintza-eredu jasangarri bat lortze aldera zenbait ingurumen-helburu eta irizpide estrategiko jasotzen ditu.

Arrasateko Plan Orokorraren eta honako IIT honen edukiaren jarraipena ingurumen-organoaren esku egongo da, kasu honetan Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza. Zuzendaritza honek Plan Orokorraren izapidetzan zehar Erreferentzia-Dokumentua, Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko aurretiazko txostena eta Ingurumenaren gaineko behin-betiko txostena igorri beharko ditu, bertan Plan Orokorraren eta IIT-aren proposamen eta edukiak baloratuko direlarik. Gauzak horrela, HAPO-k ingurumenaren eraginaren behin-betiko txostenean onespena jasotzen badu, Plan Orokorraren ingurumen-jarraipena era egokian burutu dela esan nahiko du.

Gauzak honela, Arrasateko HAPO-ren Berrikuspenaren ingurumen-jarraipena ingurumen-organoaren aldekoa den behin-betiko txosten honekin amaituko da.

7.2.2. Plana dela-eta egindako obren ingurumen-ikuskapenerako programa.

Nahiz eta Aurrerapen Fase honetan ezin izan diren Plan Orokorrak proposatzen dituen garapenek izango dituzten ingurumenaren gaineko eragin nabarmenak identifikatu, hauetako asko proposamen hauek aurrera eramateko obra faseetan bilduko direla uste da.

Horrenbestez, Plan Orokorrak beren garapen-tresnek aintzat hartu beharko duen ingurumen-ikuskapenerako programa orokor bat proposatuko du plana dela-eta egindako obrentzako. Ikuskapen-programa hau atal honetan bertan garatuko da plangintzaren hurrengo faseetan, Plan Orokorrak proposamen zehatzak egin eta beraien ingurumenaren gaineko eragin nagusien balorazioak aurrera egin ahala.

7.2.3. Udalerriko ingurumen-kalitateko alderdirik adierazgarrienen epe luzerako ingurumen-jarraipeneko programa.

Plan Orokorrak proposatzen dituen garapen nagusiak kontuan hartuta, udalerrian epe luzerako eman daitezkeen ingurumenaren gaineko eragin nagusiak aurreikusiko dira hurrengo faseetan.

Epe luzerako eragin hauen tamaina eta ezaugarrien arabera, udalerriko ingurumen-kalitateko alderdirik adierazgarrienen epe luzerako ingurumen-jarraipeneko programa bat zehaztuko da Arrasateko Plan Orokorraren izapidetzaren hurrengo faseetan.

8. LABURPENA

Txosten honen aurreko ataletan aipatu den bezala, Arrasateko Plan Orokorren Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuak ez du proposamen zehatzik egiten eta, eztabaida zabaltzeko asmoarekin bat eginez, indarrean dagoen HAPO-k aurreikusten dituen zenbait proposamen mahai gainean jartzen ditu, beren inguruko hausnarketa eta eztabaidarako.

Gauzak honela, plangintzaren fase honetan honako IIT-k ezin izan ditu HAPO-ren Berrikuspen dokumentuak proposatzen dituen jarduketa nagusiek izan ditzaketen ingurumenaren gaineko eragin nagusiak aurreikusi, hauek saihestu edo gutxitzeko neurri babesle, zuzentzaile edo orekatzaileak proposatu, ezta Planaren eraginen ikuskapen-programa zehatz bat diseinatu ere.

Laburpen moduan, hurrengo taulan era eskematikoan jaso da txosten honen kapituluetakako bakoitzaren edukia, proposamen zehatzen faltan kapitulu bakoitzean sortzen dituen hutsuneak, eta berauek betetzeko aurreikuspenak zeintzuk diren, irakurlea Arrasateko HAPO-ren Berrikuspena zein egoeratan dagoen gidatzea errazteko.

ATALA	EDUKIA (AURRERAPEN FASEA)	AURREIKUSPENAK (HURRENGO FASEETAN)
1. PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOEN ETA AINTZAT HARTUTAKO HAUTABIDEEN DESKRIBAPENA		
Planaren jarduera-esparrua	Arrasateko udalerrria: 34 km ² inguru.	-
Plan Orokorraren helburuak	Indarrean dagoen HAPO-n aurreikusitako hirilurra eta lurzoru hiritargarria mantendu edo gutxitu. Lurzoru Hiritarrezinaren sailkapena Basogintza eta Nekazaritza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren zonifikazio eta terminologiara moldatzea aztertu.	Plan Orokorraren Berrikuspena idazteko helburu eta irizpide nagusiak idatzi: HAPO-ren berrikuspenaren "Helburu eta irizpideen dokumentua"
Aurrerapen dokumentuaren helburuak	HAPO-n aurreikusitako garapen batzuen inguruko eztabaida zabaldu Aurrerapen Dokumentua eztabaida sortzeko agiri edo txostena izango da	-
Aintzat hartutako hautabideak	Indarrean dagoen HAPO-k aurreikusten dituen garapen nagusiak. Lurzoru hiritarrezinaren antolamendua	'0' hautabideaz gain (indarrean dagoen HAPO) garapen hauentzako hautabide zehatzak proposatu.
Proposamen nagusien laburpena	Txosten honen 1.4. atalean indarrean dagoen HAPO-k proposatzen dituen garapen nagusien ezaugarriak jasotzen dira.	Eremu bakoitzaren inguruan hautabide bat aukeratu eta garapenen behin-betiko proposamen bat zehaztu.
Lurralde Antolamenduko Planak eta Arloko Planak aintzat hartzen dituzten zehaztapenak	Lurzoru hiritarrezinaren antolamendua: LAA, Bergara-Mondragon EF-ko LZP, LAP balio ekologiko bereziengatik nolabaiteko lege babesa duten eremuak barnean hartu ingurumen-arrisku dituzten eremuak aintzat hartzea Udal garapenerako eredia (hazkundera eta helburu demografiko eta sozio-ekonomikoak): LAA Udal garapenerako eredia: EAEko Garapen Iraunkorraren Ingurumen Estrategia (2007-2010) eta EAEko Ingurumeneko Esparru Programa (2007-2010)	Plan Orokorrak egiten dituen proposamen zehatzen arabera berriro aztertuko da nola hartzen dute aintzat.
Kalteak sor ditzaketen jarduketak identifikatzea	1.6. atalean hirigintza-plangintzak ingurumenean izaten dituen ingurumenaren gaineko eragin nagusiak jaso dira.	HAPO-k proposatzen dituen garapen zehatzen artean kalteak sor ditzaketen jarduketak identifikatu.
HAPO-ren denbora-epea eta exekuzio-faseak	Denbora-epea: 8 urte Exekuzio-faseak: Ez dira zehazten	-
Parte-hartze publikoa	1.9 atalean HAPO-ren berrikuspenaren inguruan egindako parte-hartze publikoa laburtzen da (Erreferentzia Dokumentuaren igorpenari dagokiona) eta Aurrerapen Fasean aurreikusten den parte-hartze prozesua azaltzen da.	Alderdi honetan aurrera eramaten diren ekimenak atal honetan jasoko dira.

ATALA	EDUKIA (AURRERAPEN FASEA)	AURREIKUSPENAK (HURRENGO FASEETAN)
2. BESTE PLAN EDO PROGRAMA BATZUEKIKO ELKARRERAGINAREN ANALISIA		
Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak edo gidalerroak	<p>2.1. atalean artezpide hauek gai hauen inguruan jasotzen dituzten ezarpenak aztertzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Interes naturalistikoa duten eremuen zerrenda irekia ▪ Gainazaleko uren tratamendua ▪ Erauzketa-jardueren erabileren mugaketa ▪ Lurzoru hiritarrezinean etxebizitza isolatuen mugaketa ▪ Bizitegirako lurzoruaren kuantifikazioa eta ekonomi jarduerak garatzeko lurzoruaren beharrianak ▪ Lurzoru zenbaketa jarduera ekonomikoetarako ▪ Ingurune fisikoaren antolamendua 	HAPO-ren Berrikuspenaren proposamenen inguruan artezpideek beste zehaztapenik egiten duten aztertu.
Deba Garaiko Lurraldearen Zatiko Plana (LZP)	<p>2.2. atalean LZP honek gai hauen inguruan jasotzen dituzten ezarpenak aztertzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ingurune fisikoaren antolamendua ▪ Bide-, trenbide- eta zerbitzu-azpiegituren antolamendua ▪ Ekipamendu eta Espazio Libreetarako lurzoru politika eta antolamendua ▪ Ekonomia jardueren kokalekuetarako lurzoru politika eta antolamendua ▪ Bizitegi kokalekuetarako lurzoru politika eta antolamendua ▪ Antolamendu integrala eta hiri-egitura 	HAPO-ren Berrikuspenaren proposamenen inguruan LZP-k beste zehaztapenik egiten duten aztertu.
Lurralde Arloko Planak (LAP)	<p>2.3. atalean udal-plangintzan eragina izan dezaketen LAP-ek jasotzen dituzten ezarpenak aztertzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. ▪ Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana ▪ EAEn Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana. ▪ Nekazaritza eta Basoak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. ▪ Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana ▪ Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegiturak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana ▪ Euskal Kultura Ondarea antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana 	HAPO-ren Berrikuspenaren proposamenen inguruan LAP-ek beste zehaztapenik egiten duten aztertu.
Garapen iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020)	2.4. atalean Estrategia honek ezartzen dituen irizpide, helmuga eta helburu nagusiak azaldu eta HAPO-k hauekin bat egiten duen aztertzen da.	HAPO-ren Berrikuspenaren proposamen zehatzek irizpide hauekin bat egiten duten aztertu.
Ingurumen-legedia	2.5. atalean HAPO-ren Berrikuspenak aintzat hartu beharko duen ingurumen-legedia jasotzen da.	-
Aztertutako esparruan eragina izan dezaketen beste plan batzuk	2.6. atalean HAPO-ren Berrikuspenean eragina izan dezaketen beste plan batzuen zerrenda azaltzen da.	-

ATALA	EDUKIA (AURRERAPEN FASEA)	AURREIKUSPENAK (HURRENGO FASEETAN)
3. PLAN OROKORRAREN ERAGINPEAN DAGOEN ESPARRUAREN INGURUMEN ARLOKO DIAGNOSTIKOA, ANALISIA ETA BALORAZIOA		
Esparruaren ingurumen arloko diagnostikoa, analisia eta balorazioa	3. kapituluaren egiten den ingurumen-diagnostikoan ondoko eragileen gaur egun udalerrian azaltzen duten egoera aztertzen da: orografia, ezaugarri geologikoak, lurzorua eta ahalmen agrologikoa, hidrologia, landaredia eta lurzuaren erabilera, fauna, Interes Naturalistakoko eremuak, paisaia, kultur ondarea, ingurumen-prozesu eta arriskuak, alderdi sozio-ekonomikoak, mugikortasuna eta irisgarritasuna, ur-baliabideen kudeaketa.	Eskuratu daiteken informazio gehiagorekin edota 'Ingurumen-eraginari buruzko Aldez-Aurreko Txostenak' eskatzen duenaren arabera atal hau osatu.
4. AINTZAT HARTUTAKO HAUTABIDEEN BURUZKO INGURUMEN-AZTERKETA		
Hautabideen ingurumen-azterketarako metodologia	Txosten honek hautabideen ingurumen-azterketa egiteko jarraitu duen metodologia azaltzen da, azterketa eta baloraziorako aintzat hartuko diren ingurumen-eragileak zehaztuz: Orografia, lurzuaren ahalmen agrologikoa, lurrazaleko ur-ibilguak, landaretza, fauna, natura-gune babestuak, paisaia, ingurumen-arriskuak, kultur ondarea, mugikortasuna eta irisgarritasuna. Hautabide bakoitzaren azterketak honako eskema jarraituko du: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hautabideen deskribapena ▪ Eragindako esparruan azaltzen diren ingurumen baldintzatzaileak ▪ Hautabideen ingurumen-balorazioa 	
Hautabideen ingurumen-azterketa	'0' hautabidea indarrean dagoen HAPO-a dela kontuan izanda, bertan aurreikusten diren garapen nagusien ingurumen-azterketa egiten da: <ol style="list-style-type: none"> 1. Gesalibar 2. Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde eta Bustintza 3. Garagartza 4. Garaia 5. Mendibarren-Gautxori 6. Meatzerreka-Ugalde 7. Uruburu-Grandenape 8. Otalora Lizentziatua pasealekua 9. San Viator Txiki 10. Azeri 11. Intxausti-San Josepe Harrobia 12. Aldaiazpi 13. Etxe Txikiak 14. Zerrajera 2 – Zalduspe 15. Legarre 16. Agerre 	HAPO-ren Berrikuspenean proposamen zehatzak egin ahala hauen ingurumen-balorazioa egin, '0' hautabidearekin alderatu ahal izateko.

ATALA	EDUKIA (AURRERAPEN FASEA)	AURREIKUSPENAK (HURRENGO FASEETAN)
	17. Santamaina-Santa Teresa 18. Kaskonategi 19. Zabaleta 20. Bedoña 21. Kanpanzarko harrobia	
5. INPAKTUEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA		
Planaren helburuek ingurumenaren gainean izan ditzaketen eraginen azterketa	HAPO-ren Berrikuspenak ez ditu helburu eta irizpide zehatzik jaso hauek ingurumenaren gainean izan ditzaketen eraginak aztertzeko.	Helburu eta irizpideen dokumentua onartzean, hauek ingurumenean izan ditzaketen eraginak aztertu.
Planaren jardunek ingurumenean izan ditzaketen eraginak identifikatzea eta baloratzea	HAPO-ren Berrikuspenak ez ditu proposamen zehatzik jaso hauek ingurumenaren gainean izan ditzaketen eraginak aztertzeko.	HAPO-k proposatzen dituen jarduketek ingurumenean izan ditzaketen eraginak identifikatu eta baloratu
Ingurumen inpaktua zehazteko zailtasunen eta ziurgabetasunen deskribapena	Plangintzaren fase honetan bi alderdiren inguruan ziurgabetasunak daude: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Zarata ▪ Kutsadura eta baliabideen erabilera 	HAPO-k proposamen zehatzak egitean beren inpaktuak zehazteko zailtasunak jaso.
Sortuko zuten inpaktu larriagatik aldatu edo ezabatu diren jardunak	HAPO-ren Berrikuspenak ez ditu proposamen zehatzik jaso sortuko duen inpaktu larriagatik aldatu edo ezabatuak izan daitezen.	
Esparruaren harrera-ahalmena	5.5. atalean esparruaren harrera-ahalmenearen inguruan legediak eskatzen dituen txostenak zeintzuk diren jasotzen da.	Txostenak eskatu eta beren ezarpenak IIT-n jaso.
6. NEURRI BABESLE, ZUZENTZAILE ETA OREKATZAILEEN PROPOSAMENA		
Hautabideak aukeratzeko irizpide estrategikoak eta ingurumen-helburuak	6.1. atalean HAPO-ren Berrikuspenak egiten dituen garapen-proposamenak egiteko aintzat hartu beharreko irizpide estrategikoak eta ingurumen-helburuak jasotzen dira, honako gaien inguruan: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea ▪ Hirian bereizketa eta sakabanatzea saihestea ▪ Hirigunearen ingurumen-kalitatea hobetzea ▪ Habitata eta ingurune naturala mantentzea eta hobetzea ▪ Aire eta soinu-kalitatea mantendu edota hobetzea ▪ Uraren kalitatea eta baliabide hidrikoen kudeaketa hobetzea ▪ Hiri-metabolismoa hirigintzako planetan lehentasun gai gisa sartzea ▪ Energia aurrezpena eta eraginkortasuna ▪ Baliabideen kontsumo arduratsua sustatzea 	Proposamen zehatzentzako aurreikusten diren ingurumen-eraginak saihestu edo gutxitzeko neurri babesle edo zuzentzaile zehatzak proposatu.

ATALA	EDUKIA (AURRERAPEN FASEA)	AURREIKUSPENAK (HURRENGO FASEETAN)
7. PLANAREN ERAGINEN IKUSKAPEN PROGRAMA		
Kontrol eta jarraipenerako helburuak	Proposamen zehatzik ez dagoenez ezin dira jarraipenerako helbururik zehaztu plangintzaren fase honetan.	Proposamen zehatzentzat aurreikusten diren ingurumen-eragin nagusien arabera jarraipenerako helburuak zehaztu
Plan Orokorraren eraginak ikuskatzeko programaren faseak	7.2. atalean ikuskatzeko programa honako faseetan zatitzen da: Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren eta haren garapen-tresnak ikuskatzeko programa, espedienteak bideratzean: IIT eta honen ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa bateratua (Erreferentzia-Dokumentua, Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko aurretiazko txostena eta Ingurumenaren gaineko behin-betiko txostena) Plana dela-eta egindako obren ingurumen-ikuskapenerako programa. Udalerriko ingurumen-kalitateko alderdirik adierazgarrienen epe luzerako ingurumen-jarraipenerako programa.	Proposamen zehatzentzat aurreikusten diren ingurumen-eragin nagusien arabera obren faserako eta epe luzerako ikuskatze-programak eduki beharreko ekintzak zehaztu.

PLANOAK

PLANOAK

Plano zk.	Izenburua	Eskala
3. kapitulua: Ingurumen diagnostikoa		
I.1	Orografia	E 1: 30.000 DIN A3
I.2	Ezaugarri geologikoak	E 1: 30.000 DIN A3
I.3	Lurzoruak: ahalmen agrologikoa	E 1: 30.000 DIN A3
I.4	Hidrologia	E 1: 30.000 DIN A3
I.5	Landaretza eta lur-erabilerak	E 1: 30.000 DIN A3
I.6	Interes bereziko landaredia	E 1: 30.000 DIN A3
I.7	Natur Ondarea	E 1: 30.000 DIN A3
I.8	Paisaia	E 1: 30.000 DIN A3
I.9.1	Ikusgaitasuna eta begiratokiak (gailurrak eta nekazal auzoak)	E 1: 30.000 DIN A3
I.9.2	Ikusgaitasuna eta begiratokiak (errepide-sare nagusia)	E 1: 30.000 DIN A3
I.9.3	Ikusgaitasuna eta begiratokiak (bigarren mailako errepide-sarea)	E 1: 30.000 DIN A3
I.9.4	Ikusgaitasuna eta begiratokiak (hirigunea)	E 1: 30.000 DIN A3
I.10	Kultur ondarea	E 1: 30.000 DIN A3
I.11a	Ingurumen arriskuak: higadura, akuiferoen urrakortasuna, urperagarritasuna	E 1: 30.000 DIN A3
I.11b	Ingurumen arriskuak: kutsatuta egon daitezkeen lurzorua, zarata	E 1: 30.000 DIN A3
4. kapitulua: Aintzat hartutako hautabideen ingurumen- azterketa		
A.2.1	Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde, Bustintza. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO	E 1: 4.000 DIN A4
A.2.1.a	Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde, Bustintza. 'A' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 4.000 DIN A4
A.2.1.b	Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde, Bustintza. 'B' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 4.000 DIN A4
A.2.1.c	Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde, Bustintza. 'C' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 4.000 DIN A4
A.2.2	Atxabalpe, Barrutieta, Akisoalde, Bustintza. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 2.500 DIN A3
A.5.1	Mendibarren-Gautxori. 'O' alternatiba: onartutako Plan Berezia	E 1: 3.000 DIN A4
A.5.2	Mendibarren-Gautxori. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 1.500 DIN A3
A.6.1	Meatzerreka-Ugalde. 'O' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 4.000 DIN A4
A.6.2	Meatzerreka-Ugalde. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 4.000 DIN A3
A.7.1	Uruburu-Grandenape. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO	E 1: 2.500 DIN A4
A.7.1.a	Uruburu-Grandenape. 'A' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 2.500 DIN A4
A.7.2	Uruburu-Agerre. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 2.000 DIN A3
A.8.1	Otalora lizentzaturua pasealekua. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO	E 1: 2.500 DIN A4
A.8.1.a	Otalora lizentzaturua pasealekua. 'A' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 2.500 DIN A4
A.8.2	Otalora lizentzaturua pasealekua. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 1.500 DIN A3
A.9.1	San Viator Txiki. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO	E 1: 1.000 DIN A4
A.9.2	San Viator Txiki. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 500 DIN A3
A.10.1	Azeri. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO	E 1: 2.000 DIN A4
A.10.2	Azeri. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 1.000 DIN A3
A.11.1	Intxausti eta San Josepe Harrobia. 'O' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 4.000 DIN A4
A.11.2	Intxausti eta San Josepe Harrobia. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 3.000 DIN A3
A.12.1	Aldaiazpi. 'O' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 1.500 DIN A4
A.12.2	Aldaiazpi. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 1.000 DIN A3
A.13.1	Etxe Txikiak. 'A' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 1.500 DIN A4
A.13.2	Etxe Txikiak. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 1.000 DIN A3
A.17.1	Santamaina – Santa Teresa. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO	E 1: 2.500 DIN A4
A.17.1.a	Santamaina – Santa Teresa. 'A' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 2.500 DIN A4
A.17.2	Santamaina – Santa Teresa. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 2.500 DIN A3
A.18.1	Kaskonategi. 'O' alternatiba: HAPOren berrikuskapena	E 1: 2.500 DIN A4
A.18.2	Kaskonategi. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 2.000 DIN A3
A.20.1	Bedoña. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO	E 1: 3.000 DIN A4
A.20.2	Bedoña. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 2.500 DIN A3
A.21.1	Kanpanzarko harrobia. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO	E 1: 4.000 DIN A4
A.21.2	Kanpanzarko harrobia. Ingurumen baldintzatzaileak	E 1: 2.500 DIN A3
A.22.1	Lurzoru hiritarrezinaren zonabanatzea. 'O' alternatiba: indarrean dagoen HAPO	E 1: 30.000 DIN A3
A.22.2	Lurzoru hiritarrezinaren zonabanatzea. 'A' alternatiba: Basogintza eta Nekazaritza LAP	E 1: 30.000 DIN A3